

Felix Zubiaga

KALEAN

ANDRE

(Elebarria)

**BIZKAIKO
FORU
ALDUNDIA**



**DIPUTACION
FORAL
DE BIZKAIA**

Felix Zubiaga

KALEAN ANDRE
(Elebarria)

**BIZKAIKO
FORU
ALDUNDIA**



**DIPUTACION
FORAL
DE BIZKAIA**

Eroskien boltzea besotik daukala, goiztar eta gogobildu doa Kalebarrirantz andre gaztea. Adatz deslai eta begi bildupean daroazan goetatik iratzarteko ez dira nahiko kaleko istilua edo denden lilura. Haren oinetakoen tikitaka xumea ez balitz, zintarriko lausatua ostaz zapaldu daroala irudikean.

Kale gurutzea iragan eta usaingarrien denda baino laubosbat pauso harantzago gelditu da. Gora begiratu dau atadiaren edo kale zenbakia-
ren ezaupidea bilatzearren-edo. Ez, ez da erratu. Hogeigarren atadian sartu da. Zirkunzarkun zurubian gora ekin dautso, oinotsen ritmoa ez da amaitzen terrazoaren gainean laugarren pisuragino. Hantxe gelditu da zapaten musikea eta giltzen soinua entzun da behingoan. Atean krik-krak egin daueneko, etxekoneko umeak zarata baten urten daue, zurubian behera doaz, amak goitik azken oharra egiten dautsela: “y andar bien e, lastanas...”.

—Egunon —agur dagitso andre gazteak etxekonekoari, umeen astrapala atartean ahienatu danean—. Zeure umeak dozuz hurrean.

—Bai, eta eskolara doatzuz hatan be—. Arpegia argitu dau etxekoneko andreak, zapak bekokitik atzerantz astintzen dauzela.

—Ederrak benetan.

—Ez neureak direlako, baina... tira.

—Ni Agate nozu, Ugarango alabea, Ibergainen.

—Ibergaindarra beraz?— Beralako barreirri zabala erakutsi dautso auzokideak Agate Ugarangoari—. Ni Gorostitzakoa naz, Zabalekoa, Ane serbitzeko. Zelan poztuko dan gure gizona gure bestaldekoak euskaldunak direla jakitean. Ba dakizu, hemen —Ane Zabalek begiak handitu eta ahapeka dinotso Agate Ugarangoari—, gitxien uste danean, maketoak sartzen jatzuz sukaldariano eta Kalebarrira aldatu gintzane-
tik ea zetariko auzotiarrak izango doguzan arduraz gagozuz. Eta hara, sikanerak euskaldunak etorri zarenean.

Agate Ugarango eskua giltzari dago, atea ertzidi. Ez dauka iradurik, larga damotso aldameneko andre biribilaren maratileari, behin berari agur egiteko unea izan dauenez gero.

—Zortzi urte dira kalean bizi garela,— Ane Zabalek batean amantal barrena tolesten, bastean laga izten dautso edo eskuak enbor opa-roaren biran eta orain beso batatz garrion azta eginik, ontzi ederra eta hitzontzia bera emoten daudela,— baina bi ilabete dozuz Kalebarrira aldatu garela. Alkar ezagutu eta alkarregaz egoteko unea izango dogula uste dot. Ene, eta gizonari esaten daiodanean!... Bada zure gizona be euskalduna izango da ziur.

—Jakina. Urtubiko semea.

—Tira, ezaguna dot Urtubi—. Ane Zabalekoaren begiak aldika argitu egiten dira—. Baserri edo kale, ze txikia dan mundua! Nahiz eta kalea beste mundu bat izan eta bestelakoa hatan be... Ez hala?

—Ez gara kezkatzen beheinipehin.

—Nahiz eta gure gizonak... —Urrumatxoa dagi Ane Zabalek, samea apur bat okertzen—, goizetan goizeko lan txanda dala eta gauetan barriz gauekoa...

—Bai, gure Luisek be han egon behar izan dau goizeko seiretarako.

—Ikusten?... Baina halan be kalea erosoago dozu gizonezkoentzat eurentzat. Emazteontzat barriz, ez noatsu esan be egiten... Bueno, umeak eskolara bialdu eta oraintxe nengotzun merkatura joatekotan. Ea halakoren baten alkarregaz joaten garen.

“Jesus, uharia zer dan gero emakume hauxe! Ba nengon ba bera ezagutzeko gogoaz eta hara nondik Gorostitzakoa bera, ta gizona... nondikoa esan dau? Urkolakoa. Euskaldun pero-petoak eta umei erderaginen! Arraroa benetan! Gure Luisek, bera dan euskaltzaleaz, susmauko baleu... “Ale quieto, Iñaki! Mira, tu hermana menor que tú y...” Hori umei zentzuna emoteko ganorea! Horren gitxiesten ete dautse Gorostitzakoak euskerari? Ala lotsa umeen aurrean baserritar agertzen? Neu ez nintzake behenipehin. Lehen be, halako ahalkeria barik, hor ibili izan nozu abarkadun, amantal urdina aldean, bezeruei aterik ate esne guria banatzen, maister alaba kalea zapaltzen eta orain barriz, kalean bertan ugazabandre nozula, kaleak neu zapaltzerik ez dot jasango.

“Bueno, maneatu nadin. Kaleko bizitokiok eguzki arpegi bakarrek dozu eta goizeko eguzkia uztiatu behar dozu, eguerdi ostekoa kaleak berak ohostuko dautsu-ta. Ezin naiteke kexu halan be. Balkoean dagoen geromi hori bai daitekela kexu, gaisoa, ahorik baleuka... Ba dira hiru egun ur tantarik ormidu ez dautsodala. Hori don baseritik harako loreari dautson eskerra! Jara gehiago egin behar dautsot eta maiteago izan baserritikoa dan aldetik hain zuzen. Margo ñabardun laguna ekarriko dautsat hurrengoan, Maite Eguzkitzakoak balkoean daukazenetarikoa, ez ala? Aldakiren bat eskatuko dautsot, besterik ezean.

Eta bide batez, gure Martinegazkoak aipatuko, ez ala...? Jainkoak gura badau, ikusiko. Orain ur txorrotada handiagoo eta laztan beroagoo gure geromiari. Zelan zagoz kaleon geromitxu? Ola nausiko tximiniko keak kalterik egin dautsue zeuri?

“Txera onik ezean, musindu egiten ei dira loreak balkoean. Kaleko ipuina izango dozu hauxe be. Baina ur barik, nor ez da egarri? Bide batez, balkoean nagonez gero, gainberadatxoa egin behar dautsat luze-zabaleran kaleari, neu be Kalebarriren partaide ezezik, jabe bere ba nazela adieraztearren. Eta ez hor paparra zabalik eta eguzkiari begira kuskusean edo aldamenekoagaz maratilean ordu luzeak daroazenen antzean”.

“Jo, etxekoneko Ane Zabalek baietz nik baino hobeto uztiatu arratsaldeko eguzkia. Bueno. Ta heuri ze ardura deun ba? Ez don hori arazoa. Bakoitza bere ganorakoa don, batzuk barrura begira, besteak kanpora. Zabalekoa Zabaleko eta Ugarangoa Ugarango, ez ala?

“Nik gurago dautsut errezela erdizka eta balkoeko atea ertsidi iztea. Gitxik daukatsue, euki, kaleon neuk baino ikuspegi hoberik, Iturrigorri muinoa bere bertotik ikusten da-ta. Eta begira-begira nagokola, oraintxe lez eta bardin arazoetan murgildurik nabilela, handik zehar dabil-tzu maiz nire gogoa. Amesak bete dozuzanean, oroitzak gelditzen jatzuz eta oroitza ordua dozu orain. Amaitu ziran esnesaltzailearen harako kalera joanetorriak. Orain merkatura bideko eroslearenak askozaz arinagoak dozuz. Dirua be arintxoago doatzula eskutik, bai benetan, esnesaltzailearen eskuetara heltzen zan baino”.

“Baseritik kalerako lorretan tentagarria izaten jatzun orduan kalea, batez be, Iturrigorri muino haretatik behera begiratuta. Astoaren pauso narrasera eta sarritan abarkak mendi bidetan, lokaztuta izanarren, hega gogoa emoten eutsun. Orain oster, gogoa bera doatzu kaletik at, Iturri-gorriko astobidetik zehar, baserirantz”.

“Iturrigorriko muinora begira naukazu oraindino, beste zereginik ez baneu bezala, ea handik behera noizbait nonor agertuko. Nor agertuko jan ba? Hortik ez diabilin dagoneko esnetaririk. Galazo egin joen aterik ate esne saltzea. Ibagaindarrak ahaztu bide jonae astobide hori. Ba kontuizu, Luisek eta biok bakarrik ezagutzen jonagu, asteburuetan da kalearen itogarritik at, burua mendira ateraten dogunetan. Oraingo gazteak, eta ez hain gazte direnak, txirrindularien bideak ez badozuz motoarenak diabil-tzuz. Bakanen bat beribilez, Elizburuko Anjel eta Eguzkitzako mutila. Danak barriz, kalerako grinaz. Mutilek non lana hara erromeria jokera. Neskak barriz, lanik ezean be, han festa.

“Ugaranerako kaminoa zatarra dagola dino Karmelek. Umea amomari itzita, plazara bidea ikasi dautsu halan be. Manolo nozik behin Zeharrolako anaia eta gailegu taldea ikuskatzen joaten dala, ez larregi be. Ene! Zer esango leikizu etxekoneko Anek haizta Karmele gailegu bategaz ezkondata daukadala esango baneutso? Maketo honeek, usterik gitxienean, sukalderraino sartzen jatzuz, ene. Ba... arduraz gengoan

ea gure bestaldekoak... Eskerrak euskaldunak zareena”.

“—Ba gurean, kalean barik baserrian, horretariko makettoa sukaldean ezeze, goiko gelaraino sartu jatzu.

“—Gailegua hatan be? Ene, baserrirako eta gailegua aukeratu?

“—Bai, bai, dinotsudanez, baserrirako eta gailegua.

“—Handiagorik!...

“—Baina ez uste gero, Ane, gailegu horrek bere semeari erderarik egiten dautsonik, euskera hutsa baino.

“—Bueno, baserrian bizi diranez gero, baserritar izatekotan... Baina gaur nork gura dautsu baserritar izan! Eta gero, handi egindakoan, deskuidoan umea bizi izatera kalera baletor... eta guraso aita be erdalduna danez gero...

“—A, bai. Apur bat erderan aurreratu beharko leukela, ez ala?

“—Apur bat-edo, nik dakit ba...

“—Ba ez apur bat eta ez apur bi. Hareek euskera hutsean erakutsiko dautsoe umeari. Eta ez Ugarango baserrian bizi direlako; Ibarrolako kalean biziko balitzaz be bardin. Edo ez ete dago Ikastolarik Ibarrolan? Eta Ikastolarik ezpalego be, non da ama euskaldun baten gonorea?

“—Ene ba, handigorik! Lehenengo erdalduna baserrira eta gero kale-tarra ikastolara.

“Zer besterik erantzun leikizu Ane Zabalek, Ugarango barririk ez daki-ta?”

“—Egia esan, Ane, gailegu danak ez dozan euskaldunak baino ho-beak, baina Ugarango maister alabak ez jonan baserrirako euskal senar-geirik idoro. Onak diagozan Ibergain eta inguruetako morroiak Ugara-nera ezkontzeko! Non ostatu ez eukan gailegu horrek bai ostera. Bertoko neska eta mutilak barriz, kalera eta kalera. Gure Martin ez gero, maistergoaz berak jasan dauenaz hatan be. Baserrian osatu gura, antza, baserriak idegi dautson zauria. Andregia kale zalekeriaz tematu jakola? Ba, kalea edo neu, berak andregaiari. Hor ikusiko”.

Arratsaldeko hirurak dira Ibarrolako kalean. Goiz txandako langileak Eleiz-Kale zaharretik zehar hausi daroe etxera bidea. Atsedean alditxo neke bidean. Tabernako txikitoa edo bareko kafetxo ondo diatorke bazkari murriztuaren luzagarri. Kale-Barrirantz doan langile gazteak ostera, aurrera dakitso, besoen beteko fardela aldean daroala. Hogeigarren atadian sartu da. Ez dago igongailurik. Zurubitik gora doa. Fardela ez da nonbait aztuna edo sasoiari dago benetan gizona. Laugarren oinera heldu, atea jo eta idegi daneko, eguzkialako arpegia erakutsi dautso andreari.

—Berandu zatoz —ohar dagitso Agate Ugarangok.

—Errekadua egin behar izan dautsut. —Keinu dago langile gazteak—. Hauxe berau.

—Ta zer dozu?

—Idegi eta ikusiko...

Barrura sartu eta eskaratzeko mahai gainean ipini dau langileak fardela.

—Baina, gizona!... Telebista hori-edo?

—Bero-bero...

Agate Ugarangok urduri samar askatzen dauz kartoizko azalak. Ba dager, ba dagerz ikusgailuaren hegal puntatsu eta sabel leuna. Alde batetik dana aho, bestetik dana begi iruditu jako Agate Ugarangoari. Alkarri begira gelditu dira andregizonak.

—Zenbat kosta jatzu? —Akartxoak disdis dago Agateren begi urdinetan.

—Ze ardura dautsu diruak? —Eskuak zabaltzen dauz gizonak, begia argitzen—. Neu lanetik nabiltzun artean gogaitu ez zaitezcan dozu, andrea.

—Gogaitu ni? —Harridura dager Agateren betagaineko makoetan.

—Edo lagun izango dozu behintzat bakartadean.

—Bakarrik dagoneko? —Agate Ugarangok sabel gainera daroaz esku-
biak, senarrari begiratzen dautso—. Ikusten dozu hau, Luis?

Luis zurtz eginik gelditu da. Toki santura lez begiratzen dau une baten emaztearen gerrondoa. Zer esan ez daki. Barre isilaz samurtu dauz ezpanak, besarkada baten alkar laztandu daue.

“Etxekoneko Anek ez dautsu orain esango:

—“Zer? Ez daukazue oraindino Telebistarik? Gurean umei itzel-garriro gustatzen jake. Telebistagaz bakea daukagu.

“Ezin neinketsu esan Ana Zabaleri berari horren atsegin jakon tresna hori, baina niri neuri, hasieran behenipehin, ez eustan grazi handirik egin. Zelan esan neinketsu... Neure eta Luisen artean zerbait edo norbait tartekatu bailitxakun, edo neu eta neure erraietako potintxo zaren artean. Izan be lehen zeuekin nengotzun ordu eta une guztietan, Jaungoikoak daki. Orain ostera, barritsu hori dogu arteka-marketa. Bere erdera-merderagaitik dinotsut batez be. Isiltxo ipinten dautsut entzun be egin ez daizun. Eta ez erderak bakarrik. Erderak eta hor agertzen diren tipoak be ez naue gitxi arduratzen. Etxekoneko andreari esango dautsot.

“—Eta zuri zer Ane? Horreek, argiz eta hotsez eginiko maketo pigurak ez ete dautsue ardurarik emoten etxe barruan ezeze, umeen begibelarrietan sartuta daukazuezala?

“—Zer dinostan, Agate? Ez don gauza bardina-eta!

“—Ba niri horrek emoten daust ba, batez be neuk gura neunken baino gehiago gustatzen hasi nozulako.

“—Gure Luiseri be, berea gustatzen jako. Fubola hasten daneko, berari itzi beharra dago. Jo, eta ni neu fubolak ez nauela irrikatzen. Unadaka bakarrik lagun egiten dautsat orduan, geureak aurretik dabilzanean-edo.

“—Zenbana doaz?”

“—Bat eta huts, geureak irabasten.

“Geureak irabasten ez badoaz, ez galdetu. Ez dauetsu erantzungo edo muxaz egingo dauetsu. Orduan ez galdetu. Telediararioak, ahal dala, alkarregaz ikusten doguz: gerrako parteak, kirolak etabar. Lehengo sapatuan maite filmea ikusi geuntsun eta ezkongaietan biok zinean ikusi gendun berbera egokitu hatan be”.

“—Gogoratzen dozu?”

“—Bai, gogoan dot.

“Orduan, ezkongaietan, alkarri eskuak emonda izaten zendun, orain oster, etxean bakarrik, ez dozu inork ikusi-edo egingo zaituenaren bil-durrik. Horra ba tresna hori gozo eta garratzen gomutagarri eta barrie-moile. Honez gero Viet-Nam ez badozu, Libanoko tiro hotsak izango dozuz eta etxean barriz, ETAkoen zarraparren bat gitxien uste dozue-nan, emote orduan emoteko eta hatzekoan hartzeko. Guda zarraparrak, ikusi ezeze, bertotik entzuten direla, aita zanaren garaiko tiro hotsak baino gordinagoak hurrean. Guzti horregaitik ardura daust tresna honek, zeu be, laztana, halako metraila hotsen artean jai beharragaitik...”.

Urtubiko eta Ugarango aitonomak aitabitxi eta amabitxi aukera-tu eta kalera gonbidatuak izan dira, Kale-Barriko lobatxoa jai jakela-ta. Haxe kaleko etxearen zurubiaren luzea, laugarren pisurainokoa. Baina aitonomak txairo baten igon daue. Besoetakoa laztantzean barriz, bekokiko tximurak be leundu egin jakoz Ugarango amomari pozaren pozez.

—Bai, Iziartxo deituko da —esan dautse Agatek aitabitxi-amabi-txiei.

—Mutikoaren hurren hara zelako neskattoa emon daskun Jain-koak! —Josepa Ugarangok begien pareraino jaso dau umea, Jainkoak emona Jainkoari opatzera bailioan.

—Neskattoa izanda be, aitarena zer urten daskun gero! —eritsi dautso Urtubiko amomak, odolotikoa gorai patuz.

—Baina begietan ama huts-hutsa danik ez daustazu ukatuko, Ma-ria.

—Begietan dinozu, Josepa? Idegi egin dautsuz gero?...

—Oraingo umeak begiak zabalik jaioten jatzuz. Kanean barriz zer esanik be ez, Maria. Ez dozu gure sasoi an lez.

—Ene ba! Zer ikusi behar dogun!

—Ikusi? Guk ez, eurak ikusi beharko dautsue.

Kale-baserriak pozjarioz alkartu dira Kale-Barriko egoitzan. Kar-mele Ugarangok Manueltxori ume barria aurkeztu dautso.

—Txetxe, laztana. Ikusten dozu?

Manueltxo Ugarangok begi handi urdinak idegi dauz bera baino ederrago daiteken beste izaki edo misterioaren aurrean. Laster umea

hurragotik ikusi eta ikutzeko gogo agertu dau, amaren laguntzaz pa emoteraino.

—Prest zagoze? —Aurreratu da Josepa Ugarango—. Ea ba hainbat arinen neskatotxo hau Jainkoaren alaba egiten dogun.

Bataillarrak oinez doaz eleizara. Ibarrolako kaleak ostaz salatzen dauz baserritartzat aitonomon janzkeratik. Kaleak lehenengoz gonbidatu dauezenez gero, halako konfiantzaz zapaltzen daue zintarria.

—Gure Martin ez diatork ala? —Hutsunea nabari dau Agatek gonbidatuen artean.

—Zera egin behar dauela esan daust... —xurxurikatu dau Jose Uga-rangok.

—Antza oraindino ez jozak ahaztu Manologazkoak.

—Ez don horregaitik...

—Zer ba? Daukan mutiltzar ganoragaitik ala? Ez goazak eztegueta-ra be. Heure ezteguetan ikusiko joagu, ea gauzea ondo antolatzen dozuen Bixenta eta bion artean.

—Kostako da...

Ugaran eta Urtubi kanean kaleko agertzen ahalegindu dira, baina eleizako babeseraz gero, etxean lez ikusten daue euren burua eta hareago “Iziartxo, nik bateatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean” entzun dauenean. “Amen” erantzukeran, dardar dagi kandleak aitabitxiren eskuetan. Uraren txastadak eta argazkiaren tximistak begietan jo daue bateatu-barria. Bizitzako albuma zuritan hasibarria dau Iziartxok, eskutuko senargei bateri jadanik eskeinia bai-legon.

Argazki gehiago eleizkizunetik hara.

—Zatoz, ama, erretratua atara behar dogu-ta- Dei dagi Karmele Ugarangok.

Josepa Ugarango haur besoetakoagaz Amabirginaren aldere aurrean oharbagetu da.

—Eleizpera begira ala kalera begira aterako dogu?

—Kalera begira be bardin —eritsi dautso Karmele Ugarangok.

Hiru belaunaldi alkarren ondoan lerrotu dira. Jantzki beltzerandunek soineko zuridunari erdian tokia egin dautsoe eta janzkera urdin eta arrosatuek hesi, plazako lorategiak azpikotzat eta sakoneko barriz, Ibarrolako kaleak. Baserritarrak halako borondatea erakutsi gura dautsoe kaleari, merkatari zuhurren egoitzatztat barik, inguru guztiaren lanbide eta mahai oparo egokitu jakelako.

Kanean kaleko, baina bazkaria eta mahai ingurua hobe etxean beste inon baino. Bestela ze gozo eukaken kaleko semealaben edo nebarre-ben etxeak bertan jan ezik, aurretiz Ugaran eta Urtubitarrak esanda eukenez? Eurak orniduko gainera. Kaleak be sukalkintzatik erakutsi beharko eutson baserriari arpegi jatorra. Ea Agate kaletar etxekandre barriak zelan dakian kaleko mahai estua baserriko gonbidatuen neu-

rrira luzatzen, ea Sabinengan egiztatzen ete dan kaleko senarrak emazteari harriko lanetan be lagun egiten dautsolakoa.

Karmele Ugarangok estutu egin behar izan dau dana dala, aitabixiri toki egitearren, Josek belaunak tolestu ustegabeen Urtubiko Pila-renanekin topo egin dauenean. Manolo be ukondoak sahietzeri dago, Josepari ustegabeko zirrik ez egitearren. Hareek, eskaratzeko besaulkiak, liburuen apal urtenegiak eta Telebista mahaiak batez be, larregi jaten dautso gonbidatuen nasaitasunari.

Karmelek sarritxoegi begirutzen dautso begi handidun tresna horri, Manueltxo lotan ipini dauenetik. Ukondoaz jo be egin dau Manolo.

—¿Cómo funciona eso? —esan dautso.

Manolok ezentzuna egin dautso. Lehen oster gelagailuaz eta batez be garbigailuaz arduratu jakonean “yo qué sé, muller” esan dautso. Onak egozen Ugarango aurrezkiak begiak halako luxotara lerratuez gero.

Luis etxejaunak Urtubiko gaztea eta Ugarangandiko ardaoa garai-patu dauz.

—Edan, edan —gonbidatzen dau Manolok, dakian euskeratxoari bide eginik.

—“Venga, cántanos una muñeira” —zirikatzen dau Pili Urtubikok.

—Ez esan birritan honeri, bestela... —ohar dagi Karmelek.

“Ta zeuk zer egiten dozu, laztana, hortxe bakarrik? Ez ete dakizu zeu ikustearren bakarrik amoma-ta etorri direna? Urtubi eta Ugarango hizekoek barriz jertseño barria eta txapin zuriak ekarri dautsuezena. Amabixik Pazkoetako mokotza agindu dautsu, gaurko egunaz ahaztu ez zaitez. Ea ordurako hagintxoekin oratzeko beste zaren”.

“Eta hi, osaba Martin, zergaitik ez haz etorri lobatxo bere bateo egunean ikustera? Neuk emongo dauat hiri hurrengoan portatzen ez ba haz...”.

“Bai, laztana, etorriko da eta orduna kereizak ezpadira, basmailukiak ekerriko dautsuz zeuri. Ez jako ahaztuko”.

—Luis, badakizu Urtubiko gaztea eta baserriko labeen egosiko ogia jatean zer pentzaten egon nazen?

—Zer?

—Ane bestaldekoak-eta baserriko taloburdinea eta idibuztarria daukeezela apaingarri eskaratzeko horman. Halan agindu ei eutsen pinto-reak.

—Buztarria eta eskaratzean? Ez dozuz ba kortan edo mandioan egotekoak?

—Ni horretan nengotzun, ta ez da hori handiena. Badakizu Ane

Zabalek eta Anton Urkolak umeei euskerarik ez dautseela tutik be egiten?

—Ez da egia izango!

—Neuk dinotsudan lez. Eta hortxe ikusten joat burugabekeria: alde batetik baserriko buztarria erakusten dautsue eta bestetik euskerea eskutatzen. Zeinek dautsu ba bietatik balore gehiago gorde eta erakutsi ahal izateko?

—Ta zentzuna non itzi dautsue ba heurok?

—Zabalen edo Urkolan, bietan ezpada... Baina neuk ez e? Nik atartean edo kalean ikusten dodazala, beti euskeraz agur egiten dautset. Egunon, Iñaki. Zelan zagoz, Iratxe? Beste agurrik ez leuskit urten be egingo gurata be. Eurak irritxoa eginda joaten jatzuz, gozokiren bat hartu be bai, baina nik neure eskolea. Aneri umeez egin daroana itxurgatzeko ez dot beste modurik topaten. Ez zara aurrez be sartuko...

—Hara, badakizu nik zer egingo neuskien halakoei? Taloburdina sutan gori-gori egin, gona edo prakak jaso eta plast atzeko aldean. Gurasoei dinotsut gero.

—Bai, gurasoei, jakina.

“Aitatxoren taloburdinarena asko gustau jat, laztana. Barreak egin doguz, gauzea negar egitekoa be ba danarren. Ez dinotsut ba zeozelan baldarto direnak, gorpuzkeraz edo ausaz gogakeraz ezaintxo, daukezan gainerako baloreak be ezaintzat hartzen dauezela?”

—Taloburdinea baino gurago dautsut taloa.

—Eta nik idi buztarria baino idi xerra platerean.

“Arrazoa aitatxorena, laztana. Gauza bizia sikan. Gure balkoeko geromiarena kontatu dautsot eta poztu egin jatzu Ugarangoa dala jakitean, baserriko lorea, baserriko ongarriaz hazia. Gu baserrikoak gozuz, laztana, kalean bizi garenarren. Ez dogu ezer baserritiko ez danik, diru batzuez landa. Zuek be, laztana, Urtubiko arpegia eta Ugarango begiak atera dautsuz-eta. Noren antza daukazula zeuk eta noren begitxoak?”

“Larrosatxuak lau orri ditu

klabelintxoak hamabi,

ta balkoeko geromi lora

baietz orain be egarri.

“Balkoeko geromiari ura eta gure larrosatxoari titia emongo dautso amak”.

Telebistak ipuin andanaka darrai Kale-Barriko hogeigarren zenbakian, laugarren pisuan, eskumatara: Hiru Txarritxoak, Hiru Mosketo-
roak eta Hiru Iruleak. Agate Ugarangok heun lana darabil esku artean. Aurraren jertseñoak arra bat luzera dauka, Iziartxo seaskan lo dago, Otsein blisti-blasta umearen zapitxoak gabietan, Sukal bor-bor patatak ala indiabak egosten?

Agate Ugarangoaren begiak lilura zorian darraie irudi bizien ikuskizunean. Amesetan dihardu ala amesetako mundu bitxia bizi ete dau?

Inoiz jaso izan jako, jaso be, Ugarango Agateri ipuinaren erdian umea itxartu eta erosta jotea, umea besoetan hartu eta altsoan bigun edozki-tuala, ipuinari azkeneraino jarraitu beharra eta halatan, ama-alabak batera, gogoa asetzea.

Baina harakoan, umea barik, tirrin hotsa izan zan atean. Nor izan eiteken hain ezordu? Horreentzat, usaingarrien kinkaileru eta liburu saltzaileentzat ez dago, egon be, egoki ez jatorken ordurik, ez unerik. Agate asaldatu egin da, “no necesito perfumes, ni jabones... Zer gehiago? “No necesito libros de medicina ni de ninguna clase...” purrustatze-kotan gertu jagi da, aterantz doa, atea idegi eta erderakadea purrustatu orduko, ez dau ba “egun on” euskera agur gozoa entzuten?

—Halan ekarri —izan da Agateri urten dautson erantzun bakarra.

“Egun on” horixe zan berak, Agate Ugarangok, be bezeruei eskeini ohi eutsen goiztar agurra, esne zuria opaka baserritino etorten zanean.

—Alfabetatze Erakundekoa naz —agertu dau irribarretsu bizar erdiko mutilak—. Umeentzako Kili-Kili eta ipuinak dakartsudaz. Ez ete daukazue umerik etxean?

—Gureak oraindino titia hartzten baino ez dakitsu...

—Eta nagusientzat Alfabetatzeko Kuadernoak...

—A bai? Gure gizona be Ikastolako ongilea dozu —Arpegia gozatu dau apur bat Agate Ugarangok bizar erdiko mutilaren aurrean—. Sartu zaitez ia barrura.

Alfabetatze Erakundeko mutilak eskaratzeko mahai gainera atera dau salgaia. Agatek eskuetan hartu dau ipiun liburu koloretu bat.

—Ba dakarzu Hiru Iruleen ipuinik? —Agatek ezpanetara daroa eskua, baldankeriaren bat edo esan baileuan.

—Hiru Iruleena ez, baina bai bestelako ipuin asko.

Alfabetatze Erakundeko mutilak okotzeko bizar erdi moztuak ferekatzen dauz eta harritu samar begiratzen dautso etxeoandre gazteari.

—Baina zergaitik nahi zendun Hiru Iruleena, hain zuzen be?

—Ez ba... —Aztoratu da Agate Ugarango—. Txikitatik entzuna neukan. Amuma zanari uste dot. Eta badakizu, oraintsu beste modu batera entzun-barri dot Telebistan eta horixe: benetakoa zelan dan jakitearren.

Bizar erdiko mutilak bere soinkera hazi zaulia alde batera eta bestera bilinbalatzen dau, irribarrea dariola. Agate lotsatu egin da. Alfabetatze Erakundekoak gauzea hobeto azaldu gura dau.

—Bai, autore bakoitzak bere eratara asmatzen dau. Baina ipuinari ez jako begiratu behar horren beste batera ala bestera dan, ipuina beti be ipuina dozu-eta. Bueno beti ez e? Ipuin batzuk egia huts-hutsak dozuz.

—Neu be horretan nengon ba —Agate Ugarangoaren begiak bizkortu egin dira.— Hagaitik jakin gure neutsun zein dan horixe: guzurrezkoa ez dana.

—Ipuina zeuri zelan gustatzen jatzun halakoxea benatsuen. —Angira uretan lez itzuriten da bizar erdiko mutila ipuin liburu eskuetan darabilela—. Kontatzailearen gustoari begiratu behar jako. Ziur zuen amoma zanak —irribarrez gozatu dauz ezpanak Alfabetatze Erakundeko mutilak—, Telebista horrek baino gusto hobea eukatsula lehen aipatu dozun ipuin hori kontetan.

Abots ezezagunaren hotsera-edo itxarturik, urrumatxoa egin dau Iziartxok kuman, “ba noa, ba noa, laztana”, erantsun dautso amak.

—Zeurea dozu? —Seaskara so dagi Alfabetatze Erakundeko mutilak—. Ikusi neinke?

—Zergaitik ez ba? Barretxoak egiten be ba daki eta.

Agate amak estalkiak jaso dautsoz umeari, Itziartxo momoakin burrukan egin eta arpegi arrosatu dager, edo maitagarrien mundutik ostera be eguneroko errealidadera bailetarren.

—Ume galanta benetan! —eristen dautso bizar erdiko mutilak—. Neskattoa ez hala?

—Neskatoa da bai eta gainera mainontzia —Kolkoa aztatzen dautso Agatek Iziartxori—. Ahiak hartzten be hasibari dozu-ta.

—Papilak esan gura dozu, ez al da? —ohartzten dau Alfabetatze Erakundeko mutilak—. Gure farmategietan mila eratako poteak saltzen dira. Gu, egia esan, halako mizkinkeria barik haziak izan gara, baina liburuez esaten ninoatsuna... Gure liburutegietan ez dago gure umeentzat, euskaldunentzat esan gura dautsut, farmategietan dakusdanalako oparotasunik. Eta badakizu horrek zer esan gura dauen? Gure umeen urdailtxoak ondo aseak dagozela txikitatik hasita, baina gure umeen buruak oster... Hagatik nabiltzu liburu saltzaile aterik ate.

Agate Ugarango urduri agertu da une baten Itziartxori ala mahai gainean dagozan ipuin liburuari begiratu ez dakiala. Ausaz liburu saltzaile gaztea lez, aterik ate esnesaltzaile ebilen harako neska gaztea gogoratu dau eta aitortu ez aitortu ezbaian egon da.

—Ipuin batzuk erosiko dautsudaz —erabagi dau Agate Ugarangok—. Bertso Libururik ez dozu eukiko. Gure gizonari asko gustatzen jakoz eta zer esanik ez baserriko nire neba bateri.

—Bertsoak e? Eskerrak gogazoteagaitik. Hementxe ez daukadaz, euki; hurrengoan ez naz ahaztuko. —Alfabetatzeko Erakundeko mutilak azpiko liburuak atera eta gainean ipini dauz—. Hemen ba daukadaz oster, Ikastola inguruan-eta erabili ohi doguzan Albafetatze Kuadernoak.

—Gure gizonari Ikastolakoa dan guztia gustauko jako...

—Zeuri be balio daikitsuz —Bizar erdiko mutilak betertza jaso dautso Agate Ugarangoari—. Ba zihur Hiru Iruleen ipuina baino gehiagorik jakingo dozu zeure amuma zanari entzunda. —Kuaderno bat idegi eta eskolatuaren azalpenak dagitsoz—. Ba Kuadernoon bidez alfabetatua la eta astia izanez gero barriz...

—Ez uste gero herriko dotrinan, han Ibaragianen...

—Ibargaintarra beraz —Handiro makotu dira bizar erdiko mutilaren betagainak—. Ezaguna dozu hurrean Don Pedro.

—Bere katekistea izana nozu-eta.

—Ba liburu asko erosi daustaz niri Don Pedrok.

—Ba haren dotrinan eta gero antzerkian euskeraz dana irakurri eta idatzi be egiten geuntsun —Burua argi atera dau Agate Ugarangok.

—Hainbat hobe, hobe baino ez —Buruari baikor eragin dautso Alfabetatze Erakundeko mutilak—. Horrelan hain zuzen be, zuk amuma zana gandik-eta dakizuzan ipuinak —Telebista adierazten dau— tresna horrek kontatu daikizuzan baino hobeto ta batez be, gero zure umeari konta dakiozan baino askoz hobeto, euskeraz esan gura dautsut, konta zeinkioz, ahoz-aho, amuma bizi balitxatzue lez, edo ipuinok kuadernoan idatziz. Horrela umea, entzunera nekatzen daneko, ba dauko zeri heldu.

“Bestaldeko Ane Zabalek Alfabetak Erakundeko mutilari ezer erosi ete dautson jakin gura neunke. Ipuinen bat ez ba da be. Iñaki eta Iratxetxok bai daukeela dagoneko ipuinak irakurtteko sasoa! Eta irakurri gura ezpadauez, buztarriaren edo taloburdinearen azpian apaltxo baten ipinteko, azpian “baserriko hizkuntza” txarteltxoarekin. Baina ez dot uste, pintorea legez, itxureari emona egongo jatzu eta barruko edertasunari ezikusia egingo”.

“Ez eutsun erosiko, umeei kalterik egin ez daitzen gainera. Eskola maisuak esanda, ondo be ondo daki Ane Zabalek euskerea kaltegarri baino ez leukeela estudioetarako, “se te distraen pues con esa jerga y se atrasan años en la lengua de la cultura”.

—Zer egingo zeunskio, Luis, zuk halako maisuei?

—Zer egingo neuskien?

—Taloburdinearena-edo?

—Bai baina lehenengo idibuztarrian ondo lotuta.

“Horixe. Atzean plast, ez asko txarrago. Ikasi daiela behingoz gure umeei zelan erakutsi behar jaken. Hara, eta Esnestaltzailearen ipuina bertan! Ikusten dozu, laztana? Hau harrigarria dozu baina! Eta Alfabetatze Erakundeko mutilari eskatzea be otu ez jatana... Aituizu, aituzu... Deskuidoan mutil horrek ez eutsun jakingo nire aurretiko bizibideaz eta txaka ez talakoan sartu dautsu arpegian ez emotearren. Nondik ekiten maisutxu horrek, ipuin batzuk bizitza bera baino egiago dirana eta ni, ipuinetako esnestaltzailea barik, benetako izan nazena? Ez nozu sapuzten horregaitik, ez uste. Ez nagotzu izanekoaren lotsa, harro be harro baino. Bestalde niri esnea eskutik kentzen eusteen, esne ona zalako eta tamalez gelditu jatzuzan bezeru danak gehiago ez nentorkiela jakin ebenean. Liburuak saltzea jakitunena izango dozu, baina ez gara tuntunak esnea salduz bizibidea aurrera atera izan dogunak be”.

“Nik Hiru Iruleen ipuina eskatu eta hara berak Esnestaltzailearena itzi. Harritu egin jatzu hori eskatu dautsodala-ta. Zer ba? Edo Esnestaltzailearena eskatzen lotsa nintzala-edo susmau ete dau? Ez ba. Orain esnestaltzaile barik hareago irule nozulako baino. Irule eta joskine, ez lehen izanekoari gorrotorik dautsodalako...”

“Bueno, ez da berau amuma zanak kontatzen eustenariko, baina ba dakit ipuin onen zera eta egin be egingo neuskio nik Alfabetatze Erakundeko maisutxu horri, bertan dagoen baino baietz asko hobeto kontau nik dakidan esnestaltzailearen benetako ipuina. Ez ba, ene Jainko laztana! Ez zendun itzi zuk nire kantarutxo aputzen, ez neure amesak lurrera ixuriten! Horixe da nik dakitsudan esnetariaren ipuina, hain zuzen. Bada orain lehengo bizimodua jatzu ipuin eta lehenagoko ames ipuina kaleon bizimodu. Bakoitzak gura dauen eratara kontatzen dau ipuina. Ez ete da egiago, Alfabetatze Erakundeko maisu, bakoitzak ahal dauen eta Jaungoikoak adierazoten dautsan modura kontatzen dautsula?”.

“Konta beharra dago, dana dala, konta beharra daukatsut, laztana, etxe honetan, amumarik ezean, neuri dagokidalako zeu eskolatzea. Amuma Josepa mila arazotan sartuta daukazu han Ugarango baserrian. Nik kalean geugaz bizitzera etorri ekigun gonbidatu neuntsun. Baina ezetz esan eutsun berak. Ez eutsun ikusten, antza, ipuin girorik hemen. Ausaz Urkolako aitite Agustini jasoaz gogoratzen jatzun. Iñaki eta Iratxe lobatxoak bere ipuin kontatze modua ezetsi eta Hiru Txarritxoan entzutera ez eutsoen ba alde egin? Berak be hanka orduan kaletik baserrira. Ez ei jatzu agertu barrero Ane Zabalean”.

“Ea asmatzen dodan neuk, amuma geure artean bizi balitz lez, Alfabetak Erakundeko maisuak gurako leukenez, kontatzea: Ba doa esnestaltzailea milagarreneko bidarrez astokada esneagaz kalera eta urira heltzean, abarkak bedarrean txukatu, astotxo sarrerako uztaiari lotu, kantxinak eskugurditxora jatxi eta gurdiari bultzaka-bultzaka ba joatzu Eleiz-Kaletik zehar barne eraginaren eraginaz bihotzeko kantuak haginarteraino dariozala “uso banintz, oi Jesus, igongo neunke nik...”. (“oi Jesus” hori isiltxoago abesten eutsun, goiseko trenetik olara etozan langileak eleiz kantaren bat zala-edo igarri ez egitsuen). Eta orduantxe estazinotik olarantz joanetariko goiz txandako langile batek, fii-fuii, txistu egiten dautso esnestaltzaileari, eta txistulariak berak edo beste batek, hurragotik hako lausengua:

—Habiaren bila horren goizetik? Neuk egingo deunat hiri heure beteko habia, alkarregaz eskontzekotan.

“Esnestaltzaileak atzera birarik be ez, ez betertzik jaso ea zein eiteken lausengaria. Esnestaria aurrera bere bidean esne kantxinen eskugurditxoari bultzaka-bultzaka, baina oraingoan isiltxoago eta bere barruan mutil harek zer esan gura ete eutson ausnartzen-ausnartzen...”.

“Zer? Gustatzen jatzu? Hurrengoan kontauko dautsut gehiago. Bakarrik zera esan neinkizu, harako esnetariari ez jakola kantarurik apurtu, amesen aurretik barik, amesen ostetik ebiltzulako. Bai eta esan zeinkist

pedarrak be buztinezkoak barik latonezkoak eroazala. Horixe. Kantxinak beti euren txin-txan amaigabeaz alper amesetatik iratxartu egiten euzuela esnesaltzailea”.

“Ipuintxoia ondo be ondo jakin behar dozu, laztana, egunen baten zure ametsak buruan txarto irauliaz, oker urten ez dakizuzan. Edo ta uharitasunaren bitsetan, kalean orain askotxo legez, harrotu barik, ama esnesaltzailearen abarkez gomutau zaitezán”.

2

Ibargainen txirrindularien bostgarren igoketa “Quinta Subida” ospatzen da Coca-Colaren laguntzapean. Sariak eta Garaitza-Kopea agintzen daue “Beba Coca-Cola” dinoen kartelak.

Kirolarien eupadan edaki barri hori Ibargaingo eta inguru herrieta-ko zurrut ohiturak barriztera datorrela esan leike.

Ibargainera bidean dagoen aldapea kriterium egokitzat hartuta dau-kee Zeharrola, Uharrizta eta Ibarrolako txirrindul zaleak eta Ibargain- tarrei, herriko jaiak burutzeko aproposa etorri jake Sanluis hurrengo domekan.

—Aurten Uhartzakoak eroan baietz kopea.

—Edo Zeharrolako Arinek ezpabe.

—Ikusi egin behar...

Ibargaingo taberna bietan eztabaida dabil. Eguerdiko eguzkiaz, lehia- ketaren ordua be gori-gorian dago. Bost kilometro aldapatsuak bidean gora, zanbulu batera eta bestera amaigabeko burretan.

—Aurten barri asko diatorzak. Martin Ugarango be bai.

—Martin Ugarango? Karrerako txirrindulik ba jaukok, euki, ba horrek?

—Gogoa eta sainak eukiez gero... karrerako bizikletea lortzea erreza dot, egun baterako ezpadok be.

—Jo, ba ikustekoa izango dok. Ea ze indar diaukeen Ugarango indabak.

—Galdu edo irabasi, Ibargaindarrok be parte hartzeko ordua zoan. Ez dok hala?

—Bai, txo, hori be bai gero! Geurean izan eta gu baserritarrok, papauak lez, kaletarrei begira! Edo harri jasotzen eta beste asto kirole- tan bakarrik burutu behar joagu?

—Hori dinoat ba.

Txirrindul, moto, berebil uhari dator Uhartzatik, Zeharrola eta azagotik Ibergainerantz, bakoitza bere kirol mutilak oldartzen eta txalotzera.

—“Venga, Arin, que lo tienes comido!”.

—Emon, Jabi, geurea dok-eta!

—“Dale pedales, que vas el primero!”.

—Nor dozue hori aurrean doana?

—Ezagutu be ez joagu egiten. Aurtengo barriren bat. Ikusiko joagu zelan erantzuten jokan azkenengo aldapa unean.

—Bai, haseran edonor aurreratzen dok eta azkenean pot.

—Ez, ez da seinale ona izaten aurretik hasi gurea.

Eguzkia gainetik begirale zorrotz, geriza baltza txirrindularien aldamenetik narraz doa lehiakarien abiada galgatu nahiz edo hareen bekokiko izerdiak txukatzen bailioan.

Martinek atzean itzi dau Ugaran baserria, bere aztalotsa ez da galgatu Eguzkitza inguruan aldapea hasi danean. Kamino hegaleko sasi eta haritzak be bere alde daukazela esan lei, bere zangoen adorea txalotzen.

—Gure Martin? Jakin be ez genkinan-eta.

—Ba nik igarri egin neutsonan antolatzaileek kopa nausia Ibergango geure misak garaileari emon behar eutsola jakin gendunean.

—Maite Eguzkitzakok?

—Nork ba?

—Etxekoa dogu gauzea orduan.

Udaleko arkupeetan, mahai gainean dagoz sariak eta Garaitza-Kopea. Handik ez urrun, Coca-Colaren edarien txosna apaina. Umeak papezko biserak buruan daroezalarik, dohanezko fama dagitsoe multinazionalaren edari gozokil kiskurrari. Ibergango Jaietako Erreginak be Udalako xingola urdinaren ondoan edari gorriskaren sedazko orista erakusten dau. Zoragarri dago halan apaindu Eguzkitzako alabea. Neska lagunak, bekaitzez ez baina, lehiaz begiratzen dautsoe.

—“¿Qué ganorabakos los que la han elegido! Y se creará la Miss Mundo...”.

—Ez hendun hori esaten, Errosari, orain urte bete heu aukeratu hinduenean.

—“Aquello era una categoría de tribunal, chica”.

—Zereko kategoria hatan be! Sekretario makettoa-eta... Edo erregina aukeratze hori geure mutilen eskuetara aldatu dala-ta, ganorea galdu dala herri honetan?

—“¿Qué entiendes tú de eso, si no has salido de la cuadro del case-rio?”.

—Heu beti kaletar putsekin. Uste don gure mutilak itsuak direla ala? Edo baserriko neskak edozein kaleko beste burua gobernatzen ez dakigula? Ene ba! Gure mutilek ez dauela gura pinturazko erreginarik.

Zaratotsa dator beheko kamino burretik. Antza txirrindularietan aurrerenak agertu dira. Besoak, eskuak astintzen dihardu gendea. “Meta” ipinten dauen ohialaren inguru pilakatzen dira, buruak batabesteen artetik mordoka urteten, begiak be urten beharrean zarata dagiela.

—Emon! Emon!

—¡Dale, hombre, dale!”.

—Ez etsi, Martin, heurea dok-eta!

Morroi bi datoz aurreren lerrenetan, azkeneko metroak falta jakez. “Dale, Arin!” Emon, Martin! ohiu gurutzatuak errepikatzen dira. Apos-tu danak dagoz ihezko irabaslearen alde. Nork emon leiken hasieran txalor txiki bat Ugarango Martinen alde? Orain osteratazuk atzasko-lak oskatzen dagoz larriaren larriaz. Eta bai, eta bai. Izan be, berea izan da garaipena-eta.

—Gora gu!

—Gora Ibergain!

—“¡La pena! Y sólo ha sido por una rueda...”.

—Matin, Martin txapeldun!

Martin Ugarangok ia ez dau soinik sentitzen aldean txirrindulatik jatxi danean. Zambuluka doa, ez, eroan daroe lagunak aidean, sarien mahirantz. Alkateak berak bere eskuz luzatu dautso kopa urreztatua, saririk handiena beretzat. Alkatea bera txaloka, danak Martin Ugarangoari txaloka. Martin sorgortu dago oraindino, amesetatik iratzartu ezbailliztan, arnasoskak larri bai larri daukala ekinaren ekinagaitik.

Ibergango Jai-Erregina datorko oraintxe irritsu eta publizidadeko zingolez loretu, lore txorta ederra eskuetan dakarrela. Prensako argazkilariak zapart aurreratu dira Erreginak garaileari lorekaz batera emon behar dautson mosua lehen planoan hartzearen. Klask, Maite eta Martin fotoan alkar musuka gelditu dira betiko, pozezko iturria eta egarria batean alkartu bailliztan.

Mutil lagunak amesetatik iratzartu daue Ugarango Martin, beso bietatik tirakatzen dautsoe.

—Hator, txotxo.

—Orain zer egin behar da ba? —Mutilek eskuetatik kopea kendu dautsoela dakus Martin Ugarangok, neskak, Karmele aurretik dala, lore txortea muskiltzen ari jakozala.

—Bat neuri, Bixenta!

—Eure kopatik edan behar joagu-ta!

—Portatu haz arraioetan! Hori dok hori, hasi eta behingoan amater guztiak hankaz gora botatea.

—Nork uste behar joan baina! Edo zer jaso jak, inori esan barik, halako arloan parte hartzeko? Nori? Eta Uhartzako Arini berari irabas-teko?

—Ba nenkizuen nik, baserritarrok behin hasiez gero, kaletarrak menperatzeko ba gintzuezala.

Coca-Colaren txosna apaina alde batean itzita, lehenengo tabernan sartu dira Martinen forofo barriak, neska batzuk be hurretik joakozala.

—Ea, hona txanpan guztiak, kopea bete behar dogu-ta. Heure garapena ospatu eta Ibargain guztiaren zorionerako edan behar joagu.

Errotatzuko Fernandok esku biekin hartu dau kopean, botela bi edo hiru isuri dauez bertan alperriko bitsetan asko lorrindu barik. Martinek edan eta gero, eskurik esku doa.

—Ederra diagok.

Neskak burua agertu daue tabernako ateetan.

—Nebeari zer emon dautsazue gero, Agate, horrela irabasteko?

—Zer? Indiabak izango zonazen.

—Ea, Lore-Erregina izan ez donan gero...

—Ibargaingo misa?

—Ez, Eguzkitzako Maite baino. Ez dozue ikusi zelako mosua emon dautsan?

Peilo mutiltzar bertsolariak taberna eta inguruko bitsa jaso daroa. Gendea isildu eginda bera kantuz hasi danean:

“Festako Erreginaren loreak
ta Coca-Cola sariak,
zein baino zein ederragoak
ta ondo merezi bi-biak.
Kopea baino txanpana hobe,
loreak baino kereizak,
maitasunezko gogoa ez dau
asetzen bartko amesak.

Urruneko argazkilariak eta publizidadearen prentsak azaletik ikusi daroena, herriko ahienean bertan txertatuta dagonaren antzera, sako-nagotik dakus herriko gorabeherak Peilo bertsolariak.

“Askotxo dira ekin dautsenak
Ibargaingo lehiaketan,
batzuk saritan euken gogoa,
besteak barriz famean.
Zerk biotatik bultzau ete dau
garaile Martin Ugaran?
Ea indarren sekretu dana
maitasunean dagoan...”

—Bai asmatu be horrek!

Txalo beroak lortu dauz Peilok, Martinen kopatik edatera gonbidatzen daue.

—Ba nengotzun ba zeozer jasoten jakola Martini...

Txanpana ahitu da Martinen kopa handian eta neskak euren parte eskatzen daue. Zelan baina, tabernan txanpan gehiagorik ez dago-ta.

—“¿Que no hay champán?”.

—Coca-Cola orduan. Maite berak ekarri daiskula Coca-Cola nahikoa.

Neskak mogidu egin dira Ugarteko Bixenta aurretik dala. Coca-Colaren txosnatik botela batzuk eta Erreginak itxiriko xingola hartu, Erreginari barrero burutik ezarri eta aialdeko alai erdian dakarre Martin-eta dagozan tabernara. Txanpanaren orde Coca-Cola isuri daue Martinen kopan. Maite Eguzkitzakok edan izan behar dau lehenengo. Hurren edan gura izan dauen mutilak aiz bota dauez neskek. Nesken txanda da orain eta Peilok nahi dauezan beste bertso bota daikez.

—Ze Martin? —Ukondoaz jo dau Ugargoa Eleizondoko Anjelek—. Sekreto horregaz orain txirindul lehiaketa guztietan parte hartuko dok ez hala?

—Ze sekreto dinok, txotxo?

—Nik diakiat ba? —Keinu maltzurra egin dautso Martini Angelek.

—Coca-Colakoak be hor diatorzak heu fixxatu gurarik-eta...

“Haxe izan zendun, laztana, osaba Martinen lehenengo eta azkenengo txirindul lehiaketa. Beti jokutzen eutsun karek irabastera, nahiz eta ez beti irabasi arlo danetan. Harako txirinduletakoan zanak emon eutson eta zihur aste bete aurretik, Sanluis bezperan bertan mutilak festako erregintzat Maite aukeratu ebenean.

“Artean be nahiko entrenamentu egina zendun, egia esan, Zeharrolara eguneroko joanetorrietan. Ondo ekitsuzan Ibargainera bideko aldapa eta biurguneak be. Saiatuaren faltaz ez zendun izango hanketako zaineri dagokienez. Bihozkerari dagokionez barriz, gustora joaten jatzula Sanluisetako antzerkia Maitegaz-eta emon izaten ebenetan”.

“Halan be inork ez eutsun txalotu osaba Martin Zeharrolarako bidean egunero egiten eutsuzan kilometroakaitik. Goizeko orduetan inor egon be ez jatzun egoten begira-eta. Lana danean alogura dozu sari, jokia danean barriz, txapeldunari”.

“Luzaro gorde neuntsun nik Martin osaba eta Maite Eguzkitzako, txapelduna eta Jai-Erregina alkarren ondoan irribarretsu agertzen zireneko hizparringi txatala. Gero ez dakit zelan aldendu jatan be. Eta oraintxe laguntza baliagarria izango gendukelakoan nagotzu. Hurrengoan ez zan barriztu txirindul garaipenik, ez eta osaba Martinek parte hartu be, herritar askotxok gurako eben lez”.

—“Nik egin nenduan, txo, neuria, sartu hadi orain heu.

“Eguzkitzako Maiteren erregintza be ez zan barriztau. Aldikadea aldikoa izan zendun, behin egiten dan umekeria edo gaztekeria lez”.

“Ibargainen txirindulaketak sortu ziranez, dotrina inguruko gaztediak, luistarrak eta marialabak atzera egin gendun Sanluisetako antzerkia antolatzen. Txirindularen arrakastak edan euskuzan haize guz-

tiak. Bestalde ola-lanak ez eutsen mutilei asti handirik izten saioetara-ko eta, egia esan, geure gustoak apur bat kaletartu egin ziran Don Pedrok esaten euskunez. Umekieriatzat jotzen gendun kontuizu, umetatik ia egiten ikasi genduzan antzerkiak. Ikuskizunetan zinea aurreratu jakun, Uhartza parroikoa edo Zeharrolan osterakoa. "La canción de Bernardette" bat unkiarrietarikoa aipatzekotan".

"Asteburuetan, neskak aurreren gintzazala, gurago izaten geuntsun harrezkero, Zeharrolako dantzaldia edo zinea. Arrazoia eukan gure abadeak:

"—Dotrinan ikasi gendun eskolea itzi eta kaleko nabarmenkerien atzetik zoaze. Zeuen erdereaz laster kutsatuko dozuez Ibargaingo hai-zeak.

"Festa erregintza be arinkieriatzat emon eutsun eta Ama Birginari egiten geuntson irainik andienetarikotzat".

"—Edo Zeruko Erreginak ez dauka zerikusirik gure lurragaz eta lurrean lurrekoak, erregintza ustelkorrak, gura dozuez?"

"Neu aukeratu gura izan ninduen urtean, nik, laztana, neure esneen ardura atera neuntseen aitzakitizat. Eta aitzakiak balio ezpaeban, ea nork egingo eban nire ordezkoa astozaintzan, nik erreginearena egin behar banendun. Ez nintzan izan erregin, ez eta egun bateko be. Bestalde erregin izan ziren batzuk hor daukazuz ez atzera eta ez aurrera, oinezkoa ezetsi eta zaldizkorik ez daukeela. Ikasi daizun, laztana".

"Marialaben edo luistarren beherakada beste sentidu eutsun Don Pedrok Ibargain eta orduko inguru guztian gendun euskal kulturaren agerpen bakarra: urteroko antzerkiarena. Zeharrolan edo Uhartzan halakorik ez eiketzun asmatu be, ez eta hemen Ibarrolan be. Ibargaingo baserriar huts-hutsak egiten geuntsun ori. Egia esan, aldi haretako euskaldun maisuak, Don Inazio, be asko lagundu eutsun Don Pedrori. Bera hasi jatzun, hain zuzen be, Bibliako tema hutsak itzi eta maite hesiketatarako batzuk aurreratzen. Joserren historia. Seme galduaren alegian neuk be parte hartzen neuntsun oraindino neskatto bardingoa nintxatzula. Osterako maite historiak edo ipuinak hasi zirenean, Martin osabak zenargaiarena egiten eutsun, andregaiia Maite Eguzkitzakoa ebalatzen. Dana oso formal eta maite erakutzietan, esate baterako, alkarri mosua emotera heltzen ez zirela. Bai osterara, hitz bero eta sakonez maitasuna agertu. Orduan guri bihozkatatzen egiten euskun, Don Pedrok ontzat emoten eutsun euskeraz zalako eta beste abade lagun batek-edo antolatzen gainera. Edo ez dakitsut. Behar bada Don Inazio maisua bera izan eiteken. Bera zan inguruetan gelditzen zan euskal maisurik bakarra, gainerakoak edo urrunduak edo atzerriratuak egongo jatzuzan aldi haretan.

"Txirrindulaketen arrakastarik ez eutsuen egingo, baina Ibargaingo

antzerkietara be hainbeste lagun biltzen jatzuzan Uhartza eta beste herritxoetatik, hango dotrinekoak autobusak-eta ipintzen eutsuezala.

"Ibargainen ez zendun zentzuragaz zerikusirik, alde batetik kale inguruko poliziengandik urrun egolako eta bestetik eleizaren bābe-sean.

"—Guardazibilik-edo badator, neuk ordainduko dautset meriendea Erbienean. Doazela hortik garatzen.

"Don Inazio eskola maisua beste herri batera joan zan. Aldatu egingo eutsuen zihurrago. Bere euskalzaletasunagaitik? Edo erakusteko aparteko gaitasuna eukalako. Zeharrolako Lan-Eskola batera eroan ebela en-tzun neban. Don Pedro abadeak aurrera jarraitu gurako eban.

"—Urtean bahin sikan.

"Ordurako baina, gure gustoak aldatzen hasiak egotzuzan, txirrin-duletak gainera haizeak jan, esan dautsudanez.

"Neu be Zeharrolako erromerira joaten nintxatzun harako uso kantariarena baino aurretik. Zeharrolako erromeria zaratatsua izaten zendun, Ibarrolatik bertatik be trenak beterik joaten jatzuzan harantz-eta. Neuk be bide barriak edo Ibarrolakoak baino be kale handiagoak ezagutu gura neuntsuzan, esnesaltzaile bideak ahaztu domeka arratzaldean behintzat eta neu baino gazteago zendun izeko Karmeleren bideak zaindu. Amak, amuma Josepak, laztana, aginduta neunkan ez".

"—Deskuidoan ezer jasoko balitxako, errudun izango haz.

"—Zelan neu errudun, ama? Ez ete dauka Karmele berak be angeru jagolerik?"

"—Bai, alabatxo, bai, baina ez danok zolitasun bardinekoak eta hagai-tik esaten deunat.

"Nik neuk be, izeko Karmeleren atzetik baino gurago neuntsun libre ibili, neure adineko beste neskalagunekin eta bera bere adinekoe-kin. Hamasei urte eukatsuzan orduan berak, nik hogeiegitako. Eta sarritan horixe egiten geuntzun, bakoitza bere aldetik ibili kalera bide-koak izan ezik. Besteetan aldra berezietan, baina betertza eta belarri hegala zeharka nerabizala, zeozelan amaren agindua betetzearren.

"—Nora zoaze?"

"—Vamos a la plaza.

"—Zer erantzun modua don hori?"

"Baserriatik kalera neska bat baino gehiagoren aldaketa izaten zendun, laztana, euskeratik erderara jotea, gorostian gorosti eta Donostian Donosti, horrela ulertu behar balitz lez".

"Kalea geroago ta handiagotzen joan, lantegiak zabaldua. Denda barriak luxu handiz agertzen ziran eta kaleko neskak nabarmen. Gutariko asko haren martxari jarraitu ezinik, batzuk ahalegin motxetan".

"—Horreek be kalerako satzetan diabilzan.

"—Erezumako Errosari?"

"—Ay, no te puedes figurar, chica".

"Hor edo hemengo baserriko neskaren bat kalera ezkondu zala-edo

entzuten geuntsunean, han zenduzan geure apostu guztiak halako loterian gaztatzearren. Takoi altu, permanente edo ezpanak pintauta norbait ikusten geuntsunean, horduan esaten geuntsun lagunen hartean "hori be kalerako satzetan diabiln". Gero soloa bariak bideak sastuta gelditu eitekizuzan, gurdia edo buztarria ondo eroaten ez zenkialako, edo satzeta bera ardurazko lana edo artea izaten dozulako gauza onerako. Ez euskun ohar gitxi egin ba gai haretan Don Pedrok".

"—Ur txiki danak lez handira zoaze, erreka garbienak be han iraulzen dira handien uharretan. Kontu zuek horrela ez galdu zuen fedea eta euskaltasuna.

"Baseri inguruko errekatxoak ezeze, ur handiagoak etozen ia orduetik Uhartza ta batez be, Zeharrolako kaleetarantz: kanpotarrak lan bila. Lehengo kaleko erderea gitxi ez bazendun, uharituago ikusten zendun egunetik egunera. Andaluzak, estremeinoak eta gaileguak. Gaileguak, batez be. Igar-igarriak zenduzan euren taldeak. Pana maiztxoak janzkera ta berbakera ezbardinak. Hareen artean gureak, gure mutilak, lerdengoak izanda be, ez zenduzan kalean ikusten".

"—Gureak non diagozan ba?

"—Gureak musean edo ardaoak hartzen tabernan. Hareek ez joen urtego iluntzera arte taberna zulotik.

"Domeka arratsaldea ondo uztiatu behar zendun. Neska bakoitzak bere ardurak eta orduak zaindu gurea: plazako erromeria, dantza lotua ala zinea. Dantza laguna, zine laguna, laztana, eta orduan gailegu taldea zeure ondolik".

"—Ola, neska polita!

"—Zer gura joen gailegu horreek?

"—Zinerako laguna, neska, heuk ordaintzekotan.

"—Ba gureei begira bagagozan, berandu be egingo janagu.

"Trenaren orduak zaindu behar izaten zenduzan, kaletik baserri-rako bide erdian itzi zindeizan. Eurak, mutilak, beti eukatsuen bizikleta edo motoren bat".

Sanluis hurrengo domekako erromeriagaz amaitzera doaz Ibargaingo jaiak. Festa Erregina ordurako nahiko nekatuta dago erregina aukeratu dauden mutil guztiei dantza laguntzen. Martin Ugarango berandutxo heldu da Eleizaldera. Eguerdiko neke lerrenak arintzen egon da. Hagaitik edo, azkenerako itzi dau bere txandea, hastea ezpazan, amaitzea berari egokitzen jakolako. Maitek besteei opan izan dautsen irrino bardinaz hartu dau txapelduna. Iluntzeko orduagaitik, ez dala ondo ikusten alkarren arpegikera, entzun be ez ondo esan daroena kuartetoaren duntsagaitik.

Iluntzeko hamaikaterdiak izango dira eta Zeharrolako musikariak euren estiloa sartu daue Ibargaineko plazan. Zeharrolakoak dantzau

daroezan soinu berberak darabilez, erdera bardina kantagaietan. Don Pedrok Abadetxeko leiho guztiak itxita eukazan halako profanazinarik ez entzutearren.

Martin Ugarango ez da askatzen, Maiteri esateko hainbeste gauza atzeratu daukazanarren. Zelan hasi? Zelan azaldu bere txirrindul aposuarena? Maite bera dago saiatuago berba bidetan.

—Zer egin behar dok orain kopa eder horregaz?

—Eta heuk Coca-Colaren sedazko zinta ederragaz?

—Harek ez diaukok ezelako baliorik. Baina hire kopea gitxienez urreztatua diagok, ez hala?

—Ez egin uste kopa hori dala-ta, horren harro nagonik.

—Askok gura izan joek ba heuk bakarrik kortu dokana.

—Fitxajeagaitik izan don besteenan...

—Ta zer dok hori?

—Dirua irabasten dan beste karreretarako izena emon, izena halako diru baten agintza.

—Ta?

—Ezetz, ez nagola horko troteetarako. Geure arteko ospakizunera-ko, tira...

—Eta horretarako goizeko izerdi guztiak eta kopa eder hori?

—Bueno, hori ez diatorn hain txarto heuk emoniko lorak bertan ipinteko.

—Eta lorak zimeltzen dozakanean, ijiji?

—Hire lorak ez dozan zimelduko, Maite.

—Ez henduzan ba uretan barik Coca-Colatan sartuko ijiji.

—Ze Coca-Colatan?

—Lorak-eta bizkortzeko ona dala entzun joat.

—Bizkortzeko nik ez jonat behar Coca-Colarik, hire ondoan ego-
nez gero.

—Batzuk ardao ta naste edaten joek. Kubalibrea deitzen dautsoek. Hik ez dok egin holako pruebarik?

—Gauza zikinagorik ez ete dautsue asmatuko ba?

—Horregaitik ez hendun hik Coca-Colakoekin fitxatuko.

—Ez don horregaitik, Maite. Coca-Colea ona izango don bakarrik, ezelako naste barik esan gura jonat, edateko, baina ez txanpana edo ardao ona lorrintzeko. Nik heugaz edatearren Coca-Cola be hartuko neunkenan, zalea ez nazeanarren.

—Ez, neuri be ez diaustek publizidaderako proposamenik egin Coca-Colako mutilak. Horretarako kalean diaukezak erregina famatuago eta iraunkoragoak. Nire erregintza amaitzera joak, hamabiak ezker.

—Ez harik eta neuri entzun beharrekoak entzun arte.

—Arin ez bahabil, berandu egingo jak. Eta gero, erregintza galduez gero, zelan bete menpekoen gurariak?

—Hik Jaietako Erregina urtetan donan bakoitzean nik txapeldun urtetako asmotan ekingo jonat.

Barre zolia entzun da kuartetoaren musika narrasaren artean. Dantza-

riek Festako Erreginari eta txirrinduletako txapeldunari begira daroe hankajokua. Zer barregarri esan ete dautso Martinek Maiteri?

Gaueko hamabiak latz eta zehat jo daue eleizako dorrean. Berbenako argietatik at zero goeian izar keinuak nabaritzen dira Ibargaindik beherako kamino eta bide zidorretan. Izarrak eta gau-mozorro kirkilen kantua ausaz Zeharrolako kuarteto narrasak baino hobeto lagunduko dautse maite bideetako sinfonia goikoagaz bat egiten.

“—Maite zaitut.

“—Bai neuk be zeu eta bihotz guztiaz maite be...

“Holan hasten jatzuz, laztana, maite historia gehienak. Baina zu amatxorena zara, amatxuk ez zaitu itziko. Zuk neugandik entzun dozuz eta entzungo bihotzeko maite berba horreek. Zeuk be laster ikasiko maitasuna neurtzen bihoztxoakin eta ausaz atzamartxoekin”.

“—Zenbat gura daustazu, laztana? Bost? Bost baino ez? Aaa. Hamargino ez hala?

“—Eta aitaxori zenbat gura dautsazu? Esku bietako atzamartxoekin!

“Maite berbetan ikasi daizunean esango dozu hori, oraindikorren nahiko dozu maitetasuna sentitzeagaz. Emon pa amari. Horrela, paaa”.

“Nik osaba Martinen maite historia beste inorena baino hurragotik jarraitu dautsut, neurea baino hurragotik kontuizu. Harena goiztarra eta zarraparratsua izan dozulako, nirea, badakizu, ipuinetako Esne-saltzailearena baino hobea. Behetik gora hastea ona dozu, edozelan be. Bizidun danak hasten jatzuz behetik gora, sustraiak lurrean sartzen dau-tsuezala: zuhaitzak, lorak, frutakiak, barazkiak. Abere eta giza-kiengan barriz amaren erraietan. Aldrebes hastea, edo atzekoz aurrera jaiotea izaten dozu arriskutsua. Eta horixe jaso jatzun, behar bada, osaba Martini”.

“Osaba Martinek eta Eguzkitzako Maitek biek eroezan maite historiaren lehen pertsonaiak Dotrinako antzerkian. Maitek egiten eutsun maister alabarena eta osaba Martinek ugazabarena. Maite behartsua zanarren, neska eder eta maratza zanez, ugazabaren bihotza ikutu eutsun. Osaba Martin aberatza zanarren, handikien maliziatik alde, baserriko lore haren gan aurkitzen eutsun bere bizitzako laguna, beragaz ezkontzeraino”.

“Antzerkian ondo moldatzen jatzuzan Maite eta Martin. Maite ikasbide polita zendun maister alabontzat. Baina han, Ibargainen, ez egotzun ugaza aberatzik eta gitxiago maister alabaren batekin ezkondu gura eutsunik. Ze ederto letorken bestela aberatza behartzuagaz ezkonduz, gizarteko gorabeherak ornidutea”.

“—Nire diru guztiak ez dautsue balio zure begi bateko begiradea erosteko be.

“—Ez ete zabilz, ene jauna, larregikeriak esaten?

“—Eta hare gitxiago zure bihotzeko taupada bat eneganatzeko.

“Osaba Martinek antzerkia benetan sentitzen eutsun. Bizitzak edo erentziak emon ez eutsan dirurik ezean, beste amarru batzuez nahi eutzuzan bereganatu hareek antzerkian hain hurretik ekusan begiak”.

“Hondartzan edo bizi diren ugazaba oinordekoak ez dautsue dagoneko horrela sentitzen. Ez diatortzuz andregai bila euren maistertzako alabekin-edo ezkontzera. Hagaitik osaba Martinen eta Eguzkitzako Maiteren eskola ahaleginak hutsean gelditu ziran; maite historiaren antzerkia guzurtata”.

“Ez pentsau halan da be, laztana, ez dagoela maite historiari. Beti dagoz eta beti egongo dira. Osaba Martinena oraindik heldu ez danarren, geurean be badagoz, batzuk besteak baino ederragoak gainera. Geure aita zanak, zure aitita zanak, laztana, amuma Joseparekin izan ebana kontauko deusut ezpabe. Ez zendun lore artean jaiotea, gudako bonba eta bala hotsean baino. Maitasunaren zoriak ez dautsuz orduak eta uneak errespetatzen. Sarritan unerik larrienak aukeratzen dautsuz bere lanerako, eta ustez ederrenak direnak huts egiten.

“Oraindik txikitxo zara zu bonba edo tiro hotsak zer diren ulertzeko, baina egizu hemen ez danean, hor izango dan betiko kontrastoinua dozula eta maitasunaren ukapena dan, gorrotoaren musikalakoa eta dantza larria. Guri berak kontau euskun lurrean bizi izan zanean, eta nik, bera geure artean biziko balitz lez, kontau gura dautsut.

“Behin baten, orain berrogei urte direla, gudara deitu eutsoen hogei urteko mutil bateri. Ez ekitsun gisajo harek ez armarik erabilten, ez tiro bat punpatzen. Entrenatzeko barriz ez egotsun astirik, arerioak mendiren beste alderditik etozen-eta. Halan eta be, tiro hotsa larriena zan mendira joan behar izan eban trintxeraginen. Trintxerak zer diran? Bada, arerioen abioi eta tiro bidetik gordeteko luebaki sakonak. Iturri-gorri muinoan bertan be ikusi zeinkez gaur bertan batzuk lurrez edo sasiz estalduta ia. Holakoxe trintxerak egiten ebiltzula, gure mutila bala galdu batek jo eta berna zauritu gelditu zan, zutunik egoteko be ez zala, gitxiago berez ibiltzeko. Gudari lagunek andetan hartu eta jatxi eben Zubieta baserrira. Berna hazurra tinko eukan mutilak, baina odol asko galduta eta zauri gordindu”.

“Zubietako etxekandrea kanpotik zan une haretan eta etxeko alaba zaharrenak ura irakin eta gudariaren zauria garbitzekoak prestatu ebazan. Gorriak ikusi izan behar ebazan mutil gaisoak ur gorien igorketan”.

“—Zenbat eta goriago sendagarriago dozu sukarra beharatzeko — Oldartu egiten eutsun neskeak mutila.

Eta horrela, haginak estutu eta eskusorki gorituaz orain pasada bat gero bestea. Txut ena! Gudari lagunek bien artean esku banatetik oratzen eutsoen, geldi egon eiten.

“—Nigaitik joan zaitekeze —Mutil zaurituak lagunei—. Hau neu bakarrik jasateka da-ta.

“Goizalderako kalenturea ibitu egin jakon eta gaisotegira jaso eben mendian behera etozen arerioak arrapau ez egien.

“Handik hiru-lau urtegarrenean, gudea amaitu eta gero, Sanrokeak ospatzen ziran mutila zauritua izan zan herri haretan. Zubietako alabea herriko beste neska eta mutilekin dantzan iharduan herriko plazan. Arra-tsalde erdirantz gazte ezezagun bat agertu zan eta ezbaigabe, neska harengana joan jatzun dantza eske.

“—Nor zaren be ez dakit-eta —Musintxoia egin eutson Zubietako alabeak ezezagunari, halako hegalka begiradeaz.

“—Ez nozula ezagutzen? Ba hako gudatean zauria osatu zeuntsona.

“—Eta zelan jakin daiket nik mutil berbera zarela?

“—Hori gauza erreza dozu? —Keinu egin eutson mutilak Zubietako neskeari—. Gogoratzen dozu zauria non eukan mutil harek?

“—A, bai. —Eskumeaz zapak atzera itzuli ebazan neskeak—. Ezkerreko belaun azpitxoan, oker ezpanago.

“—Oker ez, zuzen baino. —Begiak argitu ebazan mutilak, praka barrena bertan jaso eta zauriaren xeguna erakutzi eutson.

“—Ez zara erren gelditu orduan e? —Barre zabalaz erantzun eban Zubietako alaba zaharrenak.

“—Prueba egin daizun, eskatu dautsut ba dantzarako.

“—Bueno, hori argi dago, baina zeuk zelan ezagutu nozu ni? —era-goion Zubietako alabeak halako maltzurkeriaz.

“—Hori argiago: ez dautsut duda unerik izan plazako guztien artean, baina mila neskaren artean be bardin ezagutuko zindudazan.

“—Eta oraingoan ze ezbeharrek zakariz ba honantz?

“—Hara —Isilekoa esateko lez, belarrira hurreatu jakon mutila—, belaunetik ondo osatu nintxatzun, baina medikuaren esku latza-edo zala-ta, konplikazinoa gelditu jatan barruan.

“—Ze konplikazino?

“Mutila bularra aztatzen gelditu zan une baten, bihotzeko mina baialeukan, samin arpegikerak egiten.

“—Medikuaganako zera...

“—Ta zer dinoe medikuek? —Zehatz Zubietako alabeak.

“—Kalentura hau kentzeko, harako sorki beroak baino hoberik ez dagola. Hagaitik etorri nozu...

“Eta maite konsultako itaun-erantzunak diagnosi zehatzekoak ziralata, Zubietako neskeak ez eutson mutil gaiso hareri dantzaldia ukatu”.

“Ba dakizu, laztana, nor izan zendun Zubietako alabea? Ugarango Josepa, amuma ber-bera, aitite zanak kontaten eutsunez. Eta aititek honela amaitzen eutsun maite ipuina: “Eta gudean bakea izan ebana bakean gudea egokitu jakon”.

3

Gizaldi batzuk ba dira Ugaran baserriak zutik dirauela bere izeneko aranean, baina gizaldi bete be ez da kaminoak arana baterik bestera zeharkatu ebala. Uhartzatik Ibarrolarako biderik zuzenena dozu, ez ibiliena. Kaminoa errekalde behean samur hasi eta zenbat eta gorago doala, hainbat eta bihurriago egiten da, Ibergango arru egiak danak musukatu gura baileuzan. Ez da nekatzen Iturrigorri muinoraino. Eta handik astiro mendatea idoroz, aurbehera nasian jaisten da Ibarrolara.

Kaminoa eguteratik doa, Eguzkitza joten dauela. Ugaran araneko beste alderdian gelditu da lehen eguzkiak eta orain kaminoak sapuztuta lez. Ia kilometroko gurpideak urruntzen dau Eguzkitzatik. Erreka unean ez daukee zubirik. Ugarango gurdi buztarriak ibian busti beharra izaten daue eguteratik ospelera bidean. Oinezkoentzat doi-doi zurubitxo zaharra eta haraz gero, dagoen aldapagaitik Ugarango mutilen txirrindulak hobeto doakez sorbaldan, lurretik baino.

Maistergoak nonbait ez dau emoten handiagorakorik eta Ugarango ugazaba Hondarretara bizi izaten joan zanetik, ez da baserriaz arduratzen hango errentak jasoteko baino.

Ugarango maisterrak belaunik belaun, umeak hazi eta nekeak bizi, baserria aurrera ateraten ahalegindu izan dira halako bizimodu estuan.

Martin Ugarango mutildu zaneke, Zeharrolako ola turutak alde batetik eta, hegoak jotzen ebanetan, Ibarrolakoak bestetik, lanera deika iharduen. Haxe bai lan emonkorra, olakoa, baserrikoaren aldean! Haitzur goldeak itzi, aita zanaren txirrindula hartu eta, hamasei urte beteteko eukazala oraindino, etxeak behar eban alogera irabastera leihatu zan kale inguruko oletara, nekasaria langile bihurtzen zala.

Handik urte bira Jose anaiak bide beretik jarraitzen dautso. Ugarango anaiak, Ibergango beste asko legez, eguna hasi orduko eta maiz bidea txirrindularen faroaz argitzen dauela, doaz eguneroko lanera, euriari eta hotzari ahal dauen modura arpegi emoten dautsela.

Ugarandar anaiak nahiko etorkin ikusten daue euren burua Zeharrolako langile etorkinen aurrean. Kaletikoen eta urrutikoen erderean nahiko ez bardin egiten jakela euskaldun belarrarian. Bazkaltzeko hartu daroen ordua ez daue txirrindulean etxera joanetorria egiteko nahiko. Amak bakoitzari tankean prestatzen dautsonaz eta ola hegaleko tabernan eska-tzen dauen lapiko beroaz osotzen daue.

Arratsalde erdian, ondo nekatu, etxeratzen direla be, ba daukee zeregin, biagotxoa ostean: amari satzak ateraten lagundu, behi pareta buztartu, satzak solora iragon edo arloren bat goldatu.

Ganadu jatekoak Karmeleren arduran gelditzen dira gehien bat, segea erabiltzen garria dauka eta Agatek laguntzen dautso bedar iragoten asto Txiki kale osteratik apur bat atsedendu danean. Orain lau behi gelditzen dira eta urte batetik bestera gizendu doazen txalak. Ugarango larreak ez dau emoten gehiagorako, Hondartzan bizi dan ugazabak Basozelai pinuz landatu eban ez gero.

Kalea jendez ugaritzen doanetik, barazkiak eta batez be esneak prezio ona egiten dau. Agatek etxeko eta Eguzkitzako esneak egunero asto banatan kaleraino ateraten dauz. Atera eta bezeruei banatu. Ugarenen bazkal ostetxoa da Agate etxeratzen daneko.

“Udabarrian bedarra ugari eta behien errapeak puztutzen jatzuzanean orduan harako esnetariak asto pareta behar izaten eutsun. Arre Txiki, arre Linda! Ahorrean ostera asto Txiki be nahiko izaten zendun etxe bietako esneak iragoteko.

“Lanetik etxera heltzean, ez egon aitzakirik edo “ama, nik egin dot neurea” esaterik. Bardin osaba Martin eta Joserentzat. Baserriko lana amaitu ezina izaten dozu”.

“—Zer dozuez ba zortzi lan ordu? Goizean be nor iratzartu zaitue ba lanerako? Nekatuta zagozela? Egin siestatxoa eta listo.

“Ama bera zendun lan ordu gehien egiten eutsuzana, sukaldean, kortan... Behiak erasteko ez egotsun bere eskualakorik eta goizaldean barriz, goizetik jagi behar izaten zendun behiak erasteko”.

“Lanen banaketa zala-ta, haizta Karmelegaz eztabaidak izaten geuntsuzan. Oso nekatsua edo gogaigarria egiten jatzun, kaletik ondo nekatuta etxera heldu eta hareek kantxin danak, etxekoak eta Eguzkitzakoak, zeuk garbitu beharra. Errekara jatxi, xaboiuraz eta espartzuaz ondo igurtzi. Besoaren luzeera gitxi izaten zendun kantxin hareen sakona ikutzeko, eta barrenak ondo hartzen ez bazenduzan, bardin mindu eitekizun hurrengo eguneko esnea”.

“—Lagundu eistan, Karmele, kantxinak garbitzen.

“—Ez, nik bedarretan joan behar dot. Lagundu daizula Eguzkitzako Maitek.

“Maite Eguzkitzako, alaba bakarra, ez egotzun holako lanetarako. Euren lan zati hori eta esneak kaleratze eta banantzea be geuk hartuta

geuntsen. Ona egotsun Maite nire goizeko orduetan basatzarik basatza ibilteko”.

“—Nik bedarrak iragoten laguntzea gura badon, heuk be lagundu egin beharko daustan kantxinak garbitzen.

“—Bueno, baina gaurkoz bakarrik e?

“—Ez ahaztu kantxinak ur askotan iralgitea.

“Eskoluma gintzazanetik, geure lan ardurak geuntsuzan: iturriko urak ekarri, egurrak txikitu, behiak uberan edarazo eta astean bi edo hiru bidarrez udako egunetan ia egunero, behiak larratu. Eskola egunak ziranean, arratsaldean eta bakazioetan barriz goizetan izaten zendun. Amak behiak askatu eta Martin eta biok akulu banagaz behizain Basozelaira. Orduan bost behi genduzan: Txuri, Pinta, Apala, Nabarra, eta Linda. Geroago aitak Linda saldu egin behar izan eutsun ume barritarako ezgauza egin jatsulako, ez dakik zergaitik”.

“Linda behia kortan otso eta basoan uso izaten zendun, badakizu, pertsona batzuk izaten diren bestelakoan, izan be. Horreek dozuz etxean otso eta kalean uso izaten direnak. Baina Linda behiaren izake-rea bestelakoa zendun. Harek ez eutsun buruausterik emongo ez larrean, ez larrera bidean”.

“Txuri ostantzerakoa zendun. Kortan bere askaraino arrisku barik urreteratu zeintekezan, eskua mizkatzera emon be bai, baina eguzkiaren argia ikusten eutsuneko, mendiak eta soloak bere inguru, dana beharreko eta dana ibilgurako egiten jatzun. Zenbat arrapalada egin ete eutsun gure Martinek haren atzean”.

“—Behi madarikatu hori, arrapaten bahaut, arrapau!

“Ez zendun erreza arrapatea, behi gaztea eta bizkorra zendun eta makilea itzuriteko zuhurra barriz, aldameneko artotzan ahokada gozoak ohostuteko bezala”.

“—Aurrea hartu eiok, aurrea!

“Geu ernegazo edo geugaz lapur eta zibiletara olgetea gura ebala behi harek. Beste laurak baino lan gehiago emoten euskun berak bakarrik, eta Basozelaira bidean ni alde batetik eta Martin bestetik ginoazalarik, usterik gitxienean, edo geure soloko ailurbea eta Eguzkitzakoan hirukoitz gozoa usnatzen ebaneko, jauzkada baten bidea apurtu eta trakatan-trakatan han zendun ailurbatzaren erdian. Polizia heldu orduko harek bereak aurreratuta eukatsuzan. Gero handik bidera, bidebatezkoak”.

“—Zergaitik ez dogu saltzen behi hori, aita?

“—Txuri saldu? Berak emoten jauskun ia Pintak eta Nabarrak beste esne-eta?

“—Ba dakizu bere erruz izaten direla auzokoen kexu guztiak.

“—Hurrengoan egin behar dozuena zera da: behiaren tranpak ikasi eta zuhur egon bertan ha mugitzen daneko. Baina behiak zeuek dis-traiduta ikusten bazaitue, harek unea uztiatuko dautsue.

“Zuhur ibili beharko gendun hurrengoan be. Ez eitela inor kexuz

Ugaranera etorri, Martin eta Agate behizainak deskuidatu zirela-ta”.

“Behin Basozelairaz gero, behiak larratzea gauza erreza izaten zendun. Besozelai barriz geuretzat be toki atsegina, aranaren beste aldean Eleizalderen pare-pare, ha muino baten, gu bestean, erdian Ugaran errekaldea. Osaba Martin beti agertzen jatzun olgetetarako gertu”.

“—Orain eleiz-torrea baino altugo gagozan.

“—Ezin leikek baina izan eleiz torrea baino altuago. Ba dakik zela-ko alturea daukan kanpandorreak?

“—Altu bai, plazatik begiratu gero, baina hemendik begiratuta, geure azpian diagon. Ez don ikusten ze txikia dan?

“Martinek orduan, “zu baino ni handiau” ohiukatuz, joku barria asmatzen eutsun, zutundu eta makurtu, salto ta jausi.

“Basozelai inguruan arestiak, pinudiak, gaztainadia eta gainerako beresia zendun alde guztietatik. Han solo landurik ez egotzenez, behiak formalago larratzen eutsuen eta guk geure jokuari ekin ahal izaten geuntson. Txori habiena eta basamailukiena gogoratzen dautsut, batez be. Osaba Martin txori habien zaleago, ni basamailukiena. Habiak, bata sastrakan zala, bestea arte zahar trokotzaren adar artean, harakoa barriz aretz tantaian. Martinek kontuizu egunero ikuskatzen eutsuzan.

“—Zelan diagok?

“—Lumatan diagozan.

“Arrautzetan egozala be, nik bardin, ikustearren jatxi eistala eskatzen neuntsun. Berak ezetz.

“—Ez eta ikuturik be. Amilotxana don. Ameak igarriko baleu, igarri, nonor ibili dala, gorrotoa hartuko leuskio eta bertanbehera itzi.

“Lumatan egozanean bai, orduan bat-edo kolkoan hartuta, ikusi eta ikutzeko jatziten eustazan. Gero behingoan lehen lez habian eratzan. Zeu gonakin zengozanez, ez zendun zuhaitzetara igoterik. Gainera gonak prakak baino arinago urratzen dozuz”.

“Sastrakako zozo habia eskuago izaten zendun. Zozo pare habia egiten hazten zanetik, kumak hegaz egiten eutsueino, guraina begizkatu zeinken, elorria zeure begien pare-parean egoelako. Martin inoiz kumak arrapatzeko tirriaz egoten jatzun, batez be lumaz ornidu eta hazitxo ikusten ebazanean”.

“—Baina zertarako etxera? Gero katuari emotekotan?

“—Ez, eukiteko baino. Oraintxe hartzen ez bajozanak, honeek bihar ez diagozan hemen.

“Batzutan beregaz urtetan eban, besteetan neuk galazoten neuntsan.

“Martin txori habietan zala, nik mailukitan ekiten neuntsun. Txori habien sasoi eta basamailukiena garai bateratsuan izaten jatzuz. Bedar ahien luzea hartu, mailuki tokietara joan eta zuhur begiak”.

“—Kontuz sugeekaz! —ohiu egiten eustan Martinek.

“Ni aurrera, harik eta zihia puntaraino mailukiz txortatu arte.

“Biontzat zihi bana mailuki batzen nebazanean, Martinek banan banan jan beharrez, zihia txortena ahora eroan eta irristada baten andana guztia golpean irunsten eutsun. Zihi bakarra gelditzen jakunetan neuk serbitzen neutsun, bat neuri, bestea Martini, etorrena etorrela, batean handiagoa, bestean txikiagoa. Batzutan tranpea egiten neuntsun, helduena neuretzat aukeratuaz, batu be neuk batuak zenduzan-eta”.

“Hori baino gehiago gustaten jatan beste joku hau: Nik Martien konfiantza probatzearen, esku batean ardi korotza eta bestean mailukia neunkazala, begiak itxi eta ahoa idegi eistazala eskatzen neuntsun”.

“—Bai, ederto! Eta zelan jakingo jonat mailukia ala ardi korotza emongo deustan?

“—Hik begiak itxi eta ahoa idegi eta ikusiko dok.

“—Bai eta zera be! Ni ez nabiln horretara.

“—Ba, bestela ez dago mailukirik.

“Kosta egiten jakon Martini amoremotea. Begiak itxi bai baino, betertza ertzidi, nire eskuaren mogimendua zaintzea gura izaten eutsun, ea zein mogitzen neban, mailukiarena ala bestea. Ardi korotzarena mogitzen baneutsun, ahoa izten eutsun eta nik horrela igarri ha betazal artetik zeletan egotsula. Ardi korotzari eutsun iguina!”.

“—Ba, gura ez badok, neuk jango joazat danak.

“—Ea ba!

“Martin errenditu egiten jatzun azkenik eta etorrena etorrela, begi itxi eta ahoa idegi itxaroten eutsun. Nik orduan zer emoten neuntsola uste dozu, laztana? Mailuki baten orde bi. Eta berak zer egin ebala? Tua! Biak okatu. Ez eutsun ba uste mailukia eta ardi korotza biak sartu neuntsozala?”.

“—Zer egin dok? Ez, txotxo, biak izan dozak mailukiak eta. Hara hemen ardi korotza. Jo! Mailukirik ederrenak galdu dozak.

“—Ze mailuki eta mailuki hondoko! Higaz ezin lein. Hurrengoan neu joango non mailukitan eta heuk egin beharko don itsuarena eta nik serbitzariarena, ea heuk zer egiten donan.

“Jo, laztana, egin zeinke prueba, baina ikusiko dozu zenbat kostatzen dan. Zure laguna angeru onekoa badozu, ustea osoa ipini zeinke beragan, baina bestela, batean ezpada bestean, galduta zagoz. Beste batzuk euren narrutik ikasia kontatzen dautsut, ba niri Martinek, itxurak eginarren, ez eustan eguno mailuki orde ardi korotzik sartu”.

“Lehengo baten umetzaroa gogoratzearen-edo, zeu jaio aurretik, aitatxo eta biok Basozelaira igon geuntsun. Ba neunkatsun aitatxori Basozelai erakusteko gogorik, bada neure amesetako paradisua lez zendun. Handik eta eleiz-torre puntatik zerura esateraino. Ordurako, laztana, Basozelai ez zendun harako Basozelai. Zeure umetzaroa lez, dana ahienatu zenkusan. Agur bedardi, agur mailukiak eta agur gaztainak”.

“—Hau zenduen Martinek eta biok behiak larratza eroaten zen-

dueneko zelaia?

—Hauxe.

—Eta mailukiena?

—Hementxe.

—Eta “zu baino ni handiau” olgetak egiten zenduenekoa?

—Hortixek.

“Eta penaz beterik erantzuten neuntson aitaxori, han ez egolako gehiago ez larrerik, ez mailukirik, ez eleiz-torrea... ikusterik. Pinuen errezelak ikuskizun guztia eragozten eutsun eta zabaldu alaiena zenduna, espetxe bihurtu jatsun. Han pinuak zenduzan nagusi eta ez eutsuen zure ume jokuentzako errukirik”.

Ola lanetik etxerakoan, bestelako txirrindul lehiaketaren probalekua biurtu da Eguzkitza aurrean dagoen kamino aldapea. Martin Ugarangok Jose anaiari berari be ez leuskio itziko, olgetan be, une haretan aurrea hartzerik. Han nausitasun orokorra agertu behar dau Eguzkitzako leihoak begirale eta lekuko urten dagien. Bestalde jaiegunetako jokua, asteguneraino erakarteak asteguneko aztuna arintzen dautsu.

Ola lanetik urtenez gero, ez deitu beraz Martini tabernan-edo egotaldixoa egitera, ez eta biderako indarrak hartzeko aitzakiaz. Indarrak eta uneak zaindu behar ziran. Eta apostua anaien artean ezeze, Ibargaingo beste mutilen artean eginda egoanez gero, lan amaierako turuta bera da eguneroko lehiaketa ordua emoten dauena. Txirrindulak jaso eta ekinahalean. Hau sasoiak lana eta apostua era baten eta Ugarandarrak markatzen eben uneraino hatan be.

Kanta daiala osterak be Karmelek isil-misil sukaldean, Martinek atsendaldixoa hartzen dagon artean:

“Maite, Maite,

ez ni utzi hemen kaiean,

Maite, Maite,

zu nere bihotzean”.

Elizburuko Anjel aspertu egin da Ugarango maisterren nausitu guereaz. “Txirrinduletan ba dakigu nor dan txapeldun, baina Eguzkitzako Maite norena dan ez oraindino” dino Anjel Elizburukok bere artean eta Ugarango Martini ordeak emoteko unea isilian biribildu dau.

Anjel Elizburukok lanetik etxerakoan apustua ezesten dauanarena egin dau, eta bideko barean sartu. Ibargaingo pelotoia aurretik bialdu eta gero, erosi-barri dauen Vespea jaso eta harro be harro doake atzetik. Ez dau prisa handirik hartzen. Bizkortu edo galgatu, Vespeak edozein zaldik baino hobeto erantzuten dautso. Ez da nekatzen. Atzetik joan eta zelatatu zelan doazen lehiakariak, unea uztiatu. Hor Eguzkitzako aldapa unean gura zenduen? Ba hortze, Maite leihotik edo atartetik begira dagola.

Asmatu eta bete, Eleizburuko Anjelek atzetik itzi dauz Ugarango

anaiak, Martin eta Jose.

—Jo! Horrela edonork —purrustatu dau Josek.

—Ez genduan ba txirrindul apostua? —Gurutzebideko Basiliok.

—Holako tresna bategaz gitxiago nekatuko gintzakezak —Ugarango Josek.

—Harro zer joan dozue gero? —Gurutzebideko Basiliok.

—Anjelek behar be gero, oraindino hemendik Eleizalderaino daukan aldatzagaz —Jose Ugarangok.

Martin Ugarango isilik. Ez dautso balio izan jokuak. Umetzaroa edo gaztezaroz zati batek alde egin dautsolakoa dauka. Ez da gero berba galduez eta eritsi gozoezin erantzutekoa. Eleizburuko Anjelek joku erregelak apurtu dauz eta inork be ez dau izan erregelen ardurarik. Harakoa ez zan, egia esan, Ibargaingo Bostgarren Igotaldia, han ez egoan sari agindurik, berez sorturiko lehiatxua baino. Eguneroko arazoetan bakoitzak ahal eban modura ekiten eutsun. Nahi ebanean parte hartu, humorerik ez egonean itzi.

Larriena ez da hori Martinentzat: partaliarrak zelan jokatu edo zer eritsi, ikusliarrak zer esango baino. Beste askotan lez, han ikusleak eta lekuko zirenak eukin arrazoia. Eta Anjel lupuak ia egunero prestatzen dau bere kriteriuna. Bera da orain Eguzkitzako ordua jotzen dauena.

—Ama, ba datoz Anjel-eta —dino Maitek, arratsalde erdia edo azkari ordua adierazi gura dauenean.

—Eleizburuko Anjel-eta dinon? Zer jaso jakon ba Ugarango Martini?

—Ezer be ez. Anjelek Vespea erosi dauela.

—Ze bestea, alaba?

—Vespea, Vespea, ama. Motoa!

—A, motoa erosi dauela.

Teknikak eta aurrerapenak urten dautsu garaile. Txaloak teknikari! Teknikak dana iraulduko dau, Ibargaingo gazteen harremonetatik hasi eta handik gora.

Guzzi moteltxo, Iso indartsuaren bat edo Montesa bizkor bat ba ebizen artean Ibargaingo aldapan gora eta beheara, baina Elizburuko Anjelenalako Vesparik bata be ez. Abiada ona eta batez be kuribio eztenkariaren zurrumurrua darabil moto zaraten ordeaz, eta besteak baino emeagoa emoten dau.

—Arrazoia dok —Oharpen luzeak egin dauz Ugarango Martinek— Bizikleta bi baino hobe genduken biontzako Vespa bat.

—Benga! Zertarako dok irabasten dogun dirua?

—Harri kirri apur bat zabalduko gendukek etxetik Eguzkitzaraino, zurubia apur bat egokitu eta motoz etxeraino igoteko moduan ipini geinkek, izan be.

—Edo Eguzkitzarainoko bidea laztxo baletor, Eguzkitzako mandioan itzi motoa, Basilioari esanda.

Ugarango anaiak txirrindulak sorbalidan daroezela lanetik ondo

nekatuta heldu dira Ugarango atartera.

—Baina zelan esan amari? —murduskatu dautso Josek Martini.
Isilik sartu dira sukaldean.

“Osaba Martinek arazo honetan sartu nindun, laztana, eta nik amuma Josepari aitzakiak ateraten neuntsozan.

—Badakizu, ama, gure Jose estulka dabilkula egunotan? Eguneroko olara joanetorrien zera izango dau... Bizikleta lerrenak... badakizu, ama. Lantoki bertako hautsak be izan daitekez, hango eta gero bideko beroaldiak. Izerditu ostean otzikarak eta horrela...

—Ze prozesinoko arrenak dozan horrek, alabatxo?

—Ba dakizu medikuek zer esaten eben...

—Zer esaten eioen ba?

—Gure aita zanaz...

—Hiletako erosta zonan beraz.

“Larregi sartuko nintzatzun, laztana, saminezko gogorantzietan. Zotinalako batek eten eutsun amumaren erantzuna. Neuk baino biziago eukatsun aita, zure aitita, laztana, zanarena. Olako eta baserriko lanaren artean akitu joan jatzun beste mundura”.

—Zer dino ba oraingo medikuak? —Arnasea hartu eutsun amumak.

—Olara joanetorriak bizikletan baino askoaz erosoago egin lekezela oraingo moto horretariko batez.

“Amuma gauzea ausnartzen gelditu jatzun. Ez eban ezer erantzuten. Nik eskuetan neunkan oreari eragin egin behar neuntson opilgai izan eiten.

—Medikesa txarra ez haz, alaba, baina abogadutzarako ez askoz txarragoa. Hire amak heuri karrerotariko bat emoteko dirurik baleuka, ez leuken dudarik izango. Baina kuentetan aztertuko haunagu...

—Kuentetan? Erreza dozu, ama: Jose eta Martinen bizikleta biak saldu eta moto bakarra erosi bientzako, biek batera horrela epelago be bai otz dagonean.

—Eta irabatzen urten, ez don?

—Dirutan ostaz, baina osasunean?...

—Asto zahar biren prezioetan zaldi barria?

—Zaldia baino bizkorragoa, ama. Horrela zeuk be ez dozu astoaren traukara hemen trenera ordu bete galdu beharrik plazara zoazentan eta, batez be, ez dozu asto bila auzora joan beharrik izango. Patata zorroa dala edo barazkien otzara? Martinek berak jatxi daikizuz salto baten zeu aldean zaroazela.

—Bai, onak gagozan, alabatxo, halako lasterketarako!

—Etxebesteko Tomasa-ta zelan dabizela uste dozu ba, ama?

“Nork atera, laztana, amuma Josepa astabideetatik? Ikasi dautsunak daki eta neu izan nozu Ugarandik kalera azkenengo astabideak ibili dautsuzana. Orain asto Txiki jubilauta bizi jatzu zahartzaro ba-

ketsua daroala”.

“Amuma Josepak maister burua eutsun, laztana. Maister baterentzat larregizkoak dozuz zaldun amesak, motoa edo holakorik eroste barriz, zaldia eroste lain. Zer esan eiketsun gero Hondartzako zaldunak? Asko ardurako eutson berari Ugarango astoa ala zaldia, bizikletea edo motoa izateak, bera harrezkero turismo apainean ibiltzen jatzun eta”.

“Amuma Josepak, maister burua egiten eutsunarren, ez da gitxi poztu alaba zaharrena kalera ugazabandre ezkondu jakonean, ez horixe, eta oraintxe be ahaleginetan dabilzuz izeko Karmele eta osaba Manoloren ondoan Ugaran maistergotik ateratearren eta Manueltxo zure lehengusutxo hango ugazaba biurtzeko asmotan. Zer dauko ba Manueltxo lehengusintxoak Ugarango ugazaba ez izateko, esango daustazu. Horixe dozu ba maistergoaren akatza: ez dala bera bizi dan baserriko lurren jabe. Jabe hori Hondarretan bizi jatzun zaldun bat dozu. Amuma Josepak ugazaba deitzen dautso. Harek eta haren ondorengoek, Ugaranen haitzurkada bat emon barik, urteroko errenten onurea eta sugarritarako izan eziko basoen emoitza eskuko dautsue. Horregaz bakarrik zihur ez daukatsula bere martxarako nahiko. Ugaranalako beste baserri batzuk eta negozioak eukiko dautsuz. Ipuina dirudiala? Ba guk ipuintzat hartzen geuntsun, aintzinakoa be ba zendun-eta: Behin baten Ugarango ugazaba, oraindik Ugaranen bizi zala, erregearen serbizioan aberastu egin ei jatzun. Erregearen gudaketen baten zihur. Ez gero aitita zendunarenalako gudatean, guda zaharrago baten baino. Aintzinako gudetan nonbait asko irabazten zendun, erregearenetan batez be, oraingoetan ostera, galdu baino ez”.

“Ugarango ugazaba aberastu horrek, etxera etorri eta baserria gitxietsiz, morroiari maistertzan emon eta Hondarretan palazio ederra eraiki ei eutsun. Hondarretara joan nintzanetariko baten ikusi neuntsun palazio hori. Haren semeen semeak bizi dozuz orain. Baina noan ipuinaren arira. Ugazaba aberastu harek kaixa bete ontzurereko eroan ei eutsun Ugarandik. Pisuaren pisuz gurdia kirrinka baten ei joan, idipareta barriz, bide lerrenak ondoren, zapaz barriz eta manta ñabarrez apainduta sartu ei ziran kalean”.

“Osaba Martinek, guzti horren jakitun, itzeleroko antzezten eutsun gero Dotrinako antzokian “Ugazaba eta maister alabaren ezkontza”. Hau bai dozula ipuina, laztana. Nik ez dautsut ikusi eguno ugazabarik maister alabekin ezkontzen. Ugarango alabak ondo dakigu hori. Nik behintzat ez dautsut izan eguno Hondartzako ugazabaren semearen maite proposamenik. Ez nindulako ezagutu be egin ezkongei nintzala. Oraingo ugazabek errentak bankotik jasoten dauezelako izango dozu. Antzerkiaren garaian ostera, eskuz-esku hartzen eutsuezan, eta orduan amak alabea bialdu eikitzen errenta sariekin ugazabarengana, ezaupidea sortu eta... Orain ezebez. Gainera oraingo ugazabak ostaz dakitsue eus-

kerarik eta gure antzerkia euskeraz zendun eta Don Pedrok dinonez, oraingo munduak apaltasuna, zuzentasuna, lehaitasuna eta holakoak barik, beste baloreak (desbaloreak esango dautsu harek) begiratzen dautsuz”.

“Ez uste gero guzti hau minduta-edo nagolako, kontatzen dautsudanik? Ezelan be ez! Basozelaiko txoria baino alaiago sentitzen nozu, Jainkoa lagun, geuk geurez burua atera dogulako”.

Bizibideko burrukak Zeharrolako lantegi eta kaleetan kudeatzen dira: lantegi barriak, langilego barria, etorkin barriak, etxe eta kale barriak, ezkongai barriak. Zaharrak han ez dauka barriak aina balore.

Ibargaingo gaztediak be Zeharrolako kalean dauka eskolea. Mutilak eguneroko, neskak asteroko lezinoak ikasi daroez bertatik. Mutilak nagi zer egon ohi diran goizeko txandara joan orduan, neskak zein ger-tu domeka arratzaldeko lehen trena ez galtzarren. Erromeriarri koipe guztia atera behar jako. Etorkin batzuk Ibargaingo neskak eurak baino arinago heldu dira festa usainera. Taldeka kaleak barrandatzen dihardue.

—Ola, neska polita.

—Ola, gailegiño.

—Karmele, zer esan deunat?

Esan gauza handirik ez Karmelek, baina erremuskadea galanta Ugarango Agatek haizteari egin dautsona.

—Mutil horrerri berba erdirik egiten edo eskurik emoten ikusten bahaut hurrengoan, ez diakinat zer egingo daunadan.

—Eskua berak hartu ba diausten zer?

—Arpegi gogorra erakutsi eta ez ijiji eta ajaja, Manoliño ta gailegiño ibili.

Oraindino goitzo da eta arratsaldeko eguzkia lainotan sartu danarren, egun betea dago. Laster etorriko dira Ibargaingo mutilak be euren tramankuluetan, txirrindul eta motoetan. Neskak zein trabernatan sar-tzen diren zainduko dauez, ea gonbiterik dagoen.

—Lotsorregiak dozuez.

—Goazonan zinera.

—“No, que no podéis ver la peli! Que es tres erre!”.

—Zera. Horrek sarrera ez ordaintzarren dinoen.

—Honeek gaileguok ez ete daunae neska modurik-edo ekarri euren herrialdetatik?

—Bai, onak diagozan horretarako! Eurentzako be behar dan modu-ko bizitokirik ez diauken-eta. Ba dakin zelan bizi diren Estazino ondo-ko Aranen bertan? Lau familia etxe baten. Onak diagozan andregaietan pentsateko.

—Hobe horrela, Sabina. Ba horrek ez dozan etorri hemen artajo-rran-eta egitekotan. Gainera horrek ez joen, gure mutilak lez, ardaotan

eta musean, ez eta zinean be, irabasirik xautzen.

—Horixe bai gero. Horrek gureak eurak baino arinago pilatuko jonae pisua erosteko lain.

Ibargaingo neska taldea bitan banatzeko zorian dago. Batzuk plaza-zako erromeria, besteak zinera. Tira-bira txikiak.

—Zer? Trabernako atetara joan eta harako luistarrena abestuko jautsenagu?

—Askoz txarrago ez harako bestea “kortejatzeaz lotsatzen naiz...”.

—Zera! Heu abesten hasi eta euri antza hartu jon eguraldiak-eta!

—Bota daizela zaparradak be gura badau! Ea danok “guztiok, Luis Gontzaga, hementxe gaukazuz...”.

—Karmele, zer esan daunat?

Agate Ugarangok hurretik zelatatu dauz haizta gaztearen ibilera eta ganorak. Neska talde gaztea, tabernako atetatik alde, artzain bariko ardiak lez, kaleko erromerirantz deslaitu dira. Domeka arratsaldea mu-sindu egin da.

—Azkanean euria egingo jauskun. Hobe goizeko trenera, neskak, iluntzekoari begira egon barik.

—Baita zera be! Gu zinetik urteterako, atertuko jon.

Dantza zaleak arkupeetan bilatu daue euritik babesa, ikuskizun zaleak zinean. Muslariek tabernan konturatu be ez dira egin eguraldia-ren aldaketaz. Taberna giroko zigarro keak lainoak baino lehenago lausotu daroe jaialdiko argitasuna, ardaoak argitzeko izan ez direla.

Ibargaingo mutilak iluntzeko trenaren ordua susmau daueneko, enbi-doak itzi, ardaok ordaindu eta iluntzeari arpegia emotera urten daue. Fernando Errotatxukok txapela belarrietaraino sartu dau, txirrindulari oratu dautsonean.

—Hauxe bai dozuela azeria sapuztu ebaneko euri langarra!

—Azeria eta txirrindularia —erantzun dau norbaitek iluntasunean.

—Oilok jai daiela!

Arpegiak ezabatu eta abotsak eurak sorgortu egiten dira euriak asfal-toan ateraten dauen hots eta argi disdiretan. Beribilen faro eta kolore guztietako denda erakustokiak guzurrezko lorategi biurtu daue kale bustia. Nesken barbaroa Estazino alderantz ahienatu da.

Martin Ugarangok eskilarapean gorde dauen txirrindula jaso eta urrunetik trenaren abiada somatu daueneko urten dau kaleko argi lilu-retatik. Txirrindularen farotxo ez dau nahiko azeriarena ezeze, otsoaren ahoa dirudian bidea argitzeko. Ostaz ostaz bidetik doala esateko eta ez aldamenko larretik edo hareago bestaldeko latzetik. Trenaren leiho argituak bakarrik zuhaitz artetik zuhaitz arte markatzen daue zelanbait bideko ritmoa eta eusten dautsoe zeozelan jaialdiko amesari. Errekea, zuhaitzak, malkarrak, tunelak ez balegoz bien artean! Ez da erreza trenaren abiada mantentzea halako eguraldi eta halako ordue-tan ibarraldeko lautadan be. Zenbat eta arinago, euriak txastada han-

diagoz joten dau arpegian Ugarango Martin. Mesede ona egikion txapelak, baina nork pentsa behar eban halako eguraldi aldaketarik? Ortzak estutu eta aurrera. Neskak Uhartzako Estazinotik behera jatxi orduko, berak, Martinek, euritakoagaz itxaron behar dautse gurutzebidetan. Euritako bat edo bi. Tabernariari eskatuko dautsoz hurrengo goizean olara bidean sinfalta itzultzekotan. Horrela, gizabide ekintza ezeze, Eguzkitzako Maiteri babesa eskeintzeko aukera aparta izango dau. Bai polito be! Uhartzatik etxerako oineskoa, eguraldiak hala nahita, guardasolpe baten azpian. Nork aipatu dau gero azeriak sapuztu ebaneko zirimiria? Ugarteko Martinek indarra idoro dau amesean.

Moto bateren argiak datoz atzetik Ugarango Martinen amesak salatzen. Ilunetan edo erdi ilunetan hobeto irauten eban amesak, baina moto Vespa haren argien disdiran iratxoek alde egien Martinen gogamenetik, kaminoa be argitzenago eutsoela. Bidea argituala, amesak ezabatzen.

Vesparen durundu bizia dantzu dagoneko, Anjel Elizbururena ezagutu. Martin Ugarangok, hegaleratu eta bide egin barik, bide erditik darrai, atzekoaren argiaz uztiatzen dalarik. Ikasi daiela vespadunak be kaminoa danena dala. Vespariak atzetxorik turrutadea joaz bidea eskatzen dautso.

—Ze uste dok, Vesparen jabe hazela-ta, txirrindulariok kuneta bazterra jo behar dogula, heuri bide egitearren? Neuk be prisaz naiabilk.

Vespadunak abiada galtzen dau, Martin Ugarangoari atzetik laguntzea-edo erabagi dau.

—Kontuz potxingoetan, txotxo, kamioia diatork atzetik-eta! —ots egiten dau vespariak ostetik.

Ugarango Martinek Elizburuko Anjelen ziria ezagutu dau ahozkeran.

—Ea ba, joan hadi hainbeste panparroikeria barik!

Martin Ugarangok bide egiten dautso Elizburuko Anjeli, baina Anjelek batean atzetik, bestean albotik, Martini laguntzea erabagi baileuan, dabilko.

—Laguntza behar badok esaik, txo, hatarakoxe gagozak-eta.

—Bai ta zera be! —Martin Ugarangok begiratu be ez dautso egiten.

—Bizikleta eta guzti eroango hinduket tokirik baneu.

—Hoa pikutara!

Martin Ugarangok ezetsi bai, baina albotik igarokeran begi larriaz begiratzen dau Vespara. Zer esan gurako ete eban “tokirik baneu” harakoak? Aurretik doako Vesparen argi dana, parabisako tanta ixurkariak bitxitegi galkor dala. Baina bitxia Anjelen ostean doa nonbait, Anjelek berak egiten dautson itzalpean, karameloa bailitzan, plastiko zurian bildu. Ai, baina nor da? Zein da ostean zaldiko horren isil doan neskea? Zein izan da? Eta zihur baino zihurrago beso biekin Anjeli garritik oratuta joan dala. Euriak eta kontra-argiak ikuskizuna eragozten dautsoe Martini eta ezbaia akulatzen. Ai, nork leukaken ostetik isil-isilik joan, begiratu eta Anjel eta neskalgunaren arteko harremo-

nak salatzeke erarik! Jo! Eta Anjel lupuak halakoak bai kuku egin dautsola ostera be Vesparen indarrakz baliatuz! Ez dau ba ezintasunean salatu eta ia kunetara eginik, neskearen aurrean itxurgatu?

Martin Ugarangok amorru guztiaz zangokatu dau une baten baina laster akitu jako haserako adorea Vesparen argiak urrunean ahienatzen ikustean. Ez da belaunen ahuldura, amesen saputza baino. Zertan ekin trenaren kontra? Euritakoak norentzat eskatzekotan baina? Txirrindulariak ez jok euritako beharrik. Euritakoa busti aurretik eskatzen dok, txotxo. Behin bustiez gero, etxera hainbat arinen. Otzitu baino ez hintzan egingo guardasolpean. Otzitu Maiteren ondoan?

Trenaren argi zerrenda ere gauaren ahoak iruntzi dauz, Martin Ugarani txirrindularen iputargia baino ez jako gelditzen eta Eguzkitzako aldapara heltzen dalarik, zirkun-zarkun dabil galduriko bitxiaren bila bailebilen kunetarik kuneta.

Eguzkitzan eskaratz aldetiko leihotik datorren argiak ez dauka kei-nurik, ez dautso biderik argitzen Martini eta ha barik, gauago da ibaraldea. Martin Ugarangok txirrindularen argiaren motela madarikatzen dau, Elizburuko Anjelen Vesparen argi bizia ere madarikatu egiten dau, argi danen beharizanetan dagola, zubi alderantz doan gurdi-bideko harri urtenak be madarikatu egiten dauz, bide hobegoaren peituz dagola eta Eguzkitzako Maite bera ere... Baina, baina aitorkuntza barri eta indartsuena berari egiteko dagoela, Vespa harroputz horrek ostera be...

—Esos ganorabakos no saben bailar, si no están borrachos.

—Ze erderakada don hori, Karmele? Ea haginarte hori hobeto gordeten don hurrengoan! Errosari horregaz ibiltearren jazoten jan hori. Putzak putza bilatu izan baeban ez zuzenago. Hurrengoan eure bila joan eta umea lez zapetatik oratuta...

—Ni neure zapen jabe non. Ze uste don ba?

—Geure neska taldea itzi eta erdal zale lustreputz horregaz joan behar don ba?

—Eta zergaitik ez? Hi beti be etxean haukanak eta etxeko euskera eta kontsejuak ondo be ondo entzunda diaukazanat.

—Entzutea ez don nahiko, beteten be ikasi egin behar don.

—Zer gaizto diaukan ba erdera apur bat ikasi gureak? Hi egunero habil kalera, bai eta gure nebak be.

—Hi ostera, etxean be, errosariorako-eta Arrateko Irratia ipini beharrean, hor habil inon diran erdal musika guztiak jaso beharrean.

—“No tengo edad...”.

—Bai holako tontakeriak, izan be.

—“...no tengo edad para amarte...”.

—Adarra jo gainera! Etorriko han, etorri, nekezko misterioaren bat eta hi zentzatzeko danabeharrean egongo haz, bada higaz alperrik don ‘amari esango jautsonat’ eta holakorik. Aita zanaren zaplatekoak ausaz...

“—...y al recordarte un sueño tan romántico...”.

“—Bai, habil erderak salbatuko haelakoan... Erdal nobioa eukiez gero, kalea zabal idegiko janalakoan. Hor daukan heu baino zortzi urte zaharragoa, neskalagun baino hareago kale maistratzat hartu gurako hendun Errosari bera. Ikusi don egundo bere nobiorik? Hondarretan nobiorik baleuko, uste don asteburuetan Zeharrolako kalean zeuekaz paseatzearren etorriko litzakela? Nahi-nahi”.

“Mendekaitza zer jatzun gero izeko Karmele neskatila zanetik. Ez jatzun, ez, beragazkoa horren biguna, bera baino lau urte zaharragoa ninduzunarren. Neu be sarketoegia nintxakon, egia esan. Badakizu, amaren esanak zeozelan betetearren. Gogaituazo egingo neuntsan nere oharrakin”.

“Honez gero bizitzak erakutsi dautso berari be. Hamasei-hamazazpi urtegaz itzelezko andra itxurak erabizan eta amesak ez motelak barriz. Geroago jakin neuntsun gailegoarena, Martinen suminetatik igarria, baina ez berak edo amak esan eustalako”.

“Ordurako ni ez nintxatzun Zeharrolako erromerira joaten, noizik-behinean izan ezik. Harrezkero aitaxogaz ezkogaietan nembiltzun, lazta-na, eta beraz Karmele haizteaz ezarduratuago. Luis aitaxo eta bioi ego-kiago etorkun Ibarrola eta domeka arraltzaldetan behenipehin mutil baten eskutik asteguneko esnesaltzailearen gurdi lagun baino harroago nenkusun neure burua. Orduan kaleak neu barik, neuk zapaltzen neuntsun kalea, eta Kalebarrirantz barik, oraingo kale barriaren hasikina zan alderdira jo eta hango etxe barriak goraka joazela ikustean, ames egin ezeze, orain zeure etxea dozunaren oinarriak jasoten ikusi zeinkezan. Ez nintxatzun orduan Iturri gorri muinoan habia non-ezik, urru-maka ebiltzun pagausoa. Esnez zamatu asto bigaz, lotuegi nentortzun, muino haretatik kalera hegada handirik egiteko. Baina kalea irrikagarrri jatzun menditik begiratuta eta ustegabeen “uso banintz” eleiztiarra abesten nentortzun eta kaleraino errepikatzen, oraintxe zeu bizi zaren habitxoaren bila bainenbilen”.

4

“Maite Eguzkitzako Vesparatu zaneko urte beratan, Martin osabea soldadutzara joan jatzun, Elizburuko Anjelentzat bidea garbiago itzirik. Ez eutsun unea alperrik galdu Anjelek. Domeka arratsaldetako nesken erromeri orduak ikasi eta biagotan-edo astirik galdu gabe, han egotzun Elizburuko Anjel Eguzkitzako parean Maiteren zain edo bardin bidean trenerantz joala, apapa hartzeko prest. Harrezkero Eguzkitzako Maite ez jatzun egongo Ugarango neskalagunen zain, erromerira bateratsu joatearren. Ez ba. Harrezkero Maitek ez eutsun, Ibargaingo beste neskak legez, etxetik trenera artekoak egiteko oinetakoak aldatu beharrik edo eta poltsan kalerako aldagarriak eroan beharrik. Ez ba. Aitzaki galanta izaten eutsun gainera “neskak, aldagarriak ahaztu jonzat” Elizburuko Anjelen Vespan etortearren. Izan be, Uhartzatik etxerainoko lau kilometro hareek galgarriak zenduzan takoi luzeentzako.”

“Maite Eguzkitzako izan zendun gure neska taldean eta Ibargain guztian lehenengoz Vesparatu zana. Maite istapeka jesarten jatzun emakumeen eratasunari egokionez, baina Uhartzan eta Zeharrolan ba egozan istarkilo be bapo jesarten zirenak. Horrelaxe agintzen eutsuen gainera seguridaderako bide-poliziek.”

“Entzutetsuak jatzuzan orduan Uhartzako mutiltzarren txokokoak harako Begoñari bertsoan bialdu eutsoen errekadua. Guk “Matxalen Busturiko” koplearen doinura abesten geuntsun hatan be:

“Vesparatu haz, Bego;
“ves para qué” dan gero?
Vespa dantzan ibili
erromes astero.
Heziaz uheletik
mutila zaldiko,
laguntza don makala
noranahi joateko.”

"Ez dakit zertan kontatzen dautsudazan tontakeriok, baina egunen baten zeu neskato handi egingo zara-ta, zeure amak-eta nesketan jasanekoak jakiteak kalte baino mesede gehiago egingo dautzu harean."

"Behin Vesperaz gero, alde galanta izaten zendun, edonorako aukera eta ez beti trenaren orduak eta trenaren bideak zaindu beharra. Eta batez be, trenera arteko oinezkoak aurreratzen zenduzan. Neu be geroago ez nozu Vespan gitxi ibilia, ezkongaietan hazi nintxatzunean. Baina artean Maite Eguzkitzako gendun espilu eta geure autuetako berakatz sopa. Nork barrandatu halan be bikote haren bideak behin begien aurretik aldentzen jatzuzaneko? Jo Hondarru eta jo Mutriku ibiltzen jatzuzan edo Arandarik Mirandara, amumak esango leukenez. Edozelan be Zeharrolako kaletik urruntxu. Antza gulako baserritar edo gailegu etorkinen bilerak gitxietsi egiten eutsuezan, edo kale barriak eta txukunagoak ezagutzearren zendun edo ez ebelako gura ohiko neskalgunen lekukorik.

"—Hor jatozan Maite-eta..."

"Vesparien kuribio burrundarea entzuten genduneko, hara joazen gure begiak, ea Maite Vespara zelan moldatzen zan, gona barrenak noraino eroazan edo zelatan oratzen eutson Anjeli. Gure mistoak be behingoan prestatatzen ziran.

"—Abestuko diautsenagu?"

"—Benga, fuerte!"

"—Ez, orain ez! Behin igarotakoan baino.

"Uhartzako Begoñari mutiltzarrak opa izan eutsoen errekadua konpondu geuntson guk Maite Eguzkitzatori, erdi olgetan benetan:

"Vesparatu haz, Maite;
ves pa qué hatan be?
Polito gonak jasoz,
abiatu haite.
Oratu eion fuerte,
hori donan suerte
Anjel Elizondogaz
zati bat arte."

"Errotatxuko Madalen izan zendun koplearen konpontzaile, mamala galanta bera be eta adizkide mina nik orduan. "Oratu eion fuerte" hori be seguridaderako bide-polizien aholkua zendun, baina nonbait ez etortzun Uhartzako abade zaharrarenagaz bat. Berak-edo esan ei eutsen marialabei (gure Don Pedrok ez behintzat, nik dakidanik): "fuerteegi be ez, jausi ez zaitezen, ez ta nasaiegi be, jausi ez zaitezen." Ea gero esankizunok be errekaduen trabenatik etozen. Ez nintzakizu bat be harrituko."

"Orduraz gero Maite Eguzkitzako, lagunik minena aldentzen joan jatzun. Ia ez jatzun etorten goizeko esneekin gure atarteraino. Neguko ilunak zirela-ta, Basilio aita bera etorriko jatzun. Baina neguko arratsalde epeletan be ez jatzun etorten zubiondoko ubean kantxinak alka-

rregaz garbitzera. Ez ba, etxaurreko askan egiten ei eutsun erosoago. Vespearen arrakastak lehen baino sakonago markatzen eutsuzan Eguskitza eta Ugaran arteko aldeak."

—Paso txikira.

—Paso.

—Parerik ez.

—Bai pareak.

—Paretarako Anjel eta Maite.

—Bost paretara.

—Euki.

Ibargaingo gazteak musean dihardue Erbienen, neskak igandeko mezatatik harako, eleizpean daragoioen artean.

—Geuk be Ugarango Karmelenera egin beharko jonagu, Bixenta.

—Horixe, Vespa daukanak neska eta kito. Paso jokura.

—Eta zer diaukan euskaldun batek erdaldun batek ez daukanik?

—Hordago!

—Edo eta baserriak, kaleak ez daukanik, esan eikenan, Ixabel.

—Eskutik!

Jokua amaitu unean Don Pedrok Erbienen bertan atzemon dauz mutilak. Kartajokuari jara egin gabe, arira doa otoz-otoan.

—Mutilek pentsau dozue Sanluisetarako ze antzerki antolatu?

Mutilak zurtz gelditu dira kartei begira. Elizburuko Anjelek zurrutadaxoa kendu dautso ardao basoari, zigarro keak okatu dauz Arkotxako Iñaziok.

—Hobe Uhartzako taldeari deitu, jaune —dino Errotatxuko Pernandok — Guk zer egiteko Ugarango Martin barik?

—Jo! Izan be, ez najoan horixe kontutan...— Okotza igurtzika gelditu da Don Pedro, ingurura begiratu dau, Anjelengan ohartu.— Hik, Anjel, ez hendukek egingo harako maisterrarena?

Elizburuko Anjel basoa eskuetan erdeinu irriz dago.

—Oraintxe daukak aukerea —Ukoan jo dau Anjel Harkotxako Iñaziok.— Lehenago baten Martinen lehiakari ibiltzen hintzan antzerkian parte hartu gurarik. Ez dagiela gehiago pentsa Vespeagaitik izan dala Maiterena.

—Tira, tira —Basoa apartatzen dau Anjel Elizburukok—, zelan nahi dozue nik maisterrarena egitea, guzur hutsa litzaken-eta?

Anjelek batean mutil langunei, bestean Don Pedrori puzminez begiratzen dautse, Don Pedro harritzeraino.

—Ez nenkian, txotxo, Elizburuko oinordekoa izateak antzerkian maisterrarena egitea eragozpen izan eikeanik. Gure dotrinako antzokian maister izan diren batek baino gehiagok egin izan jok ugazabarena be.

—Bai, baina, jaune, horrek dagoneko ipuin zaharrak dozuz —daragoio Errotatxuko Pernandok.

Don Pedrok Fernandori jaramon barik, Anjeleri begiratzen dautso.

—Esaik, batek gustorago egin daroala izan gura leukenarena, izan ez gura leukenarena baino.

—Hori, ori —Burua makurtu dau Anjelek—. Arrazoia bedorrena, jaunne.

—Uhartzakoak, jaune, tema modernoagoak eta oraingo gaztediaren gustokoak darabilez kantu eta guzti.

—Guk ez diarabilguk kanturik ala? —Don Pedrok betertza jaso dautso Fernandori.— Eta non diaukiek eurek guk baino bertsolari hoberik?

—Ez dinot bertsolariez eta ohiko kantu zaharrez, gaurko kantante barriei buruz baino.

—Aja! Kantanteak...— Don Pedro ahoa zabalik gelditu da une batez, gero samea okertu dau Fernandoren aldera.— Eta erderaz badira hobe, ez ala? Gazteen gustorago ez ala?

—Ez, jaune, ez, ez —Urduri mogitzen da Fernando mahai inguruan— euskeraz baino. Nik ez dot esaten Uhartzan Parrokiko zinean erdal kantanterik ez dala sartu, baina nik euskaldunakaitik dinot.

—Tirok ba, euskal kantari barriak beraz —Okotzeko bizarra igurzika dihardu Don Pedrok, gero betertza jaso dautso Fernandori.— Eta antzezlarri barririk Uhartzan? Guk Ibargaintarrak baino euskera hobe egiteko danik?

Don Pedoren erronka haidean gelditu da, Don Pedoren begiradea be gazteen sorbalda gainetik dabil.

—Ba, ez nenkizuen gurealako euskal antzerki talderik eukeenik Uhartzan.

—Abade gaztea ei dabil eurekaz...— Muzturra luzatu dau Fernando Errotatxukok.

—Zaharra deituten daustak neuri?— Betagain asarrekorrak goratu dauz Don Pedrok, begirada gurutzatu eta behingoan irriz gozatzeko.— Ez jok adura. Badakizue neuk be talde horren euskera entzuteko gogo daukadala?

”Martin osabea poztu egin jatzun handik aurrera markesaren alabeari maite kanturik ez eutsola abestu behar jakin izan ebanean:

“Larranteko habian
gogoz dagolarik,
txoriak ez dau maite
urre kaiolarik.
Apalen maitasuna
dan fina jakinik,
ezkongaitzat ez dot nahi
handiki alaba nik.”

“Horrela ez dau entzungo barriro antzezkizuneko amaren errieta-rik.

“— Larraren semea mazuzta, seme.

“— Handikien mahatz garratza, baino hobe mazuztea, ama.

“Ez eta amari halako erantzunik emon beharrik, eta batez be, handik aurrera ez eban antzerkitan eztabaidatuko Maitegazko maitasun auskorra. Ero jokoa litzaken eta irri garratza. Nor ta Ugarango maisterra handiki alabea zapusten, maister alabeagaz ezkontzearren? Nondik holakorik, Maite Eguzkitzako ez jatzun maisterra-ta?”

“Nik, laztana, gurago dautsut Alfabetatze Arduradunaren ipuinetara jokatu, osaba Martinen antzerkitara baino. Zu jaiobarria zintzazan Alfabetatze Arduraduna etxera etorri jakunean. Kalebarriko familien barri jakitera-edo etorriko jatzun. Ba harexek ekarri eustan Esnetariaren ipuina, baina zorionez guretzako, zure amak ipuin haren marka gainduta eukatsun, laztana; hau da, jokuan sartu baino lehenago amesak heldurik. Zera esan gura dautsut: ipuinekoa garraskilea danean, bizitzako zoria gozoagoa izaten dala, baina bizitza garratza danean, ipuinetakoa gozoagotzat hartu eta ames izaten dogula.”

“Osaba Martin ipuinetako edo antzerkietako amesak ahaztuta etorri jatzun soldadutzatik eta bizitzako ekintzari giarretik oratzeko adore barritan barriz. “Bizitza burrukea da” inotsun, soldadutzan-edo ikasia. Burrukan burua aterateko, teknika barria behar ei zan. Ez ei egon kainoi zaharrekin oraingo burrukak irabazterik. Ba bardin, edo bardintsu kale zein baserriko arazoetan. Soldadutzan ikasiriko lezinoak etxean egiztatu gurako leukezan.”

“— Ez uste, ama, golde zaharragaz ezer asko aurreratuko dogunik. Traktore txiki bategaz nik lana aurretuta neukaken, zuk behiak buztartu orduko”.

“Amumak ez ekitsun traktorea zer zanik be, baina itaundu be ez eutsun egingo, halako berba zatiekin berari marro egiten etorri ez ekion, “nongo eskolan ikasi dau gero beronek” barrutik esanda, eguneroko arazoak-edo Martin baretuko ebalakoan egotsun. Baina osaba Martinek hurrrenon be ekin.

“—Ama, zertan olatik etxera bidean jaurti gero solorako behar doguzan mardoak?

“—Motorra eta motorra erosi behar dozuela, zuek daukazuen sasoiari? Mutilek!”

“Ezelako diru eralketarik egin behar zanean, amuma zuhur, beti atzerakor. Neuk urten behar osaba Martinen-eta alde.

“—Ama, eukia euki dozu, dirutan zein tresnetan euki. Tresnak, dala traktorea edo motorra, lana eta orduak aurreratzun dautsuz eta egunero olara dabizenak dakitsue zer dan astiaren balorea. Neuretzako astoaren ordeze Isokarro bat-edo eskatuko baneutsu, baina...

“—Ze arre ta iso zabildez, alaba? Ez dozu ikusten zenbat arazotan sartuta nagoen, horrela zeuri entzuten jarraitzeko?”

“Isokarroarena neurea barik, osaba Martinen burutazinoa zendun. Astoa ganadu-jatekoetarako itzi eta moto-gurditxoaz etxeko eta auzoko

esneak irago eta saldu. Bezeroak uhaldu eta diruak erabat. Negozio biribilagoa eiteken harean, baina neu nintzan esnesaltzaileak apal nenkusan neure burua, eme gainera gizonezkoen arazoetan sartzeko. Pentsau be ez halakorik. Zuhur jokatu ete eutsun, laztana, harako esnesaltzaileak? Isokarroak kale inguruan aterako eutsun zarateaz, zelan abestuko eutsun "uso banintz" harakoa eta abestuta be, entzun eiketzun mutilak haren maite mezua?"

"Gaur esnesaltzailearena barik eroslearena egin dautsut. Badakizu litro esnea zenbatean erosi dodan zeu lotan zengozala? Hamazazpi pezetan, laztana. Eta lehengo astean oraindino amumari entzuna, eurak orain kamionetaz dabilan letxeruari hamabian saltzen dautsieela. Etxerako gura neunke aldea. Esku bateko atzamartxoak aina dozuz litroko. Horixe zendun nire irabazpidea ezkongaietan. Eta oraintxe be, ez dakit zelan baina, norbaitek astoz edo Isokarroz esneak kaleratuko baleustaz, ahaleginduko nintzakela ni bezeroei banantzen. Baina, joanak joan. Amaitu jatzuzan esnesaltzaile apalaren amesak. Orain ez ei da zilegi esnea atez-ate saltzea. Esnategi handietara eroan behar ei dautsuez baserriko kortatik lekarken kutsutik garbitu eta gero haulako plastiko ontzietan erosteko. Oraingo honek ez dautsu izango kortako kutsurik, baina ez eta be gozorik".

"Hobe nilako esnesaltzaile apalekin amaitu izan balitzazan ugazaba eta maisterregazkoak be, osaba Martinen antzerkietako ipuin gozomengelak be ahienatu ziranez gero, baina hor darraie... Ipuinetako amesa nekez loretzen eta bizitzako nekea ostaz arintzen. Ipuinok gainera, Telebistakoak legez, erdaldunak direnean, urrunago geldituko dira gure baserrietako alorretik. Ez ete eustan holako zerbait adierazi Alfabetatze Arduradun harakoak? Konsultatu gura neuskioz duda batzuk. Artean, aitiba edo amumarik ezean, amak kontauko dautsuz zuri hobeak."

—Orain oratu ondo— Ugarango Martinek Vespeari adarretatik eltzen dautso eta vespalagun Jose anaiari zelan agokitu adierazten—, jaus-tekotan biok jausi behar joagu-eta.

Zaldi hezigabearen irrintziaz urten dau Vespak burdinola aurreko zelaitik, hazibarrien zabukak daroetz lehen gurpilkadetan harik eta kaminioan abiada bardindu dauen arte.

—Ondo hator?

—Ederto baten.

—Jakina ba —Martinek burua atzerantz erdi-biratzten dau hitz egi-ten dauen bakoitzean,— Badakik zer egin behar dogun? Beheari ikutu barik etxeraino joan, ikusi dagien.

—Zelan? Aidean?

—Asto gainean.

Apostu larregia deritxo Joseri, baina zoragarria benetan. Hego edo artezia apur batekin egin leitekena izango zan Ugaranpeko uberan

zurubi dezente bat balego. Ez ziran ba gitxi ahalegindu bezperan anaie biak Eguzkitzatik Ugaranerako bidea bardindu eta harri kirriz ornitzen.

—Euriaren bildur izan nok eta sikan estraina egunean ona egin dauskuna.

Vespea bizkor dabil, bidea aldapatsuago eta motorra lehiariago. Eguzkitza aurreko aldapea igarri be egin barik daroe Ugarango anaiak Elizburuko Anjelegaz izan ebezan harako apostuak umetzaroko tikimiak lez ahazturik baileuezan ia. Beste arazo batzuk daukeez orain artean gurpidean sartu direlarik. Gurpilek bideko harrikirria azpiko txapearen kontra urtikatzen daue.

—Ez da ezer —ohar dagi Martinek, abiada apurka apurka gozatzen dauelarik.

Zurubira heldu dira, Jose oin bata lurreratzeotan dago.

—E, txo! Lurrari ikutu barik esan joagu. Oratu!

Martinek Vespea galgatu beharrean abiada bizkortu egin dau zurubira igokeran, zimbili zambu egin daue. Ipurtxuntxurrerainoko dardarea sentidu dau Josek.

—Uretan plaust egin ez joagunean, jaja!

—Zer uste hoan ba?

Zurubitik Ugarana dagoen aldapatxoa izan da hurrengo erronka. Eskerrak lehorteari. Vespa eta vespariak portatu dira. Ugarango atartea ahoa zabalik lez dago vespariak aurrean ikustean. Asto Txikik protesta arrantza jo dau haren toki baketsua halako istilu eta gasolina sundaz kutsatzen ausartu direlako.

—Geldi, txo, hi gainean —agintzen dautso Martinek Joseri etxekoei tirrinaz deitzen dautselarik.— Ikus daiela nortzu diran Ugarango zaldun barriak.

Karmelek harrituta urten dau, zeozer dino baina motorraren zarataz eta astoaren arrantzaz ez da entzuten. Agate eta ama Josepa bateratsu agertu dira. Agatek eskuak belarrira daroaz motorradeari dautson iguinarren. Martinek, garaipena jotzen bailegon, motorrari ekinalean emon eta behingoan isilduazo dau. Orduan etxekoen barbaroak bizia hartu dau belarrietan.

—Etorri zaree —Josepari begiak pozarren bustitzen jakoz.

—Ondo isilian zenduen e?— Karmele Vespeari ikutzera hurreratu da.

—Kaletik etxeraino lurrari ikutu be egin barik igon dogu —Besoak gora jasoten dauz Martinek.

Josek Vespatic salto egin daueneko, Karmelek, istarkilo bada be, haren tokiaz jabetu da.

—Ze ganora don hori, neska? —Bekaina jaso dautso ama Josepak. Eskua be jasoko eutson ama Josepak, behingoan jatzi ez balitzan.

—Jo, astoaren bizkarra baino apatzagoa dozu, ama —eritsi dautso Karmelek.

Ugarandarrak Vespeari begira, batean espiluari, bestean tirrinari

ikutu, behi erosi barri eta txahaltxo jaiobarriaren aurrean baino be lilaragarrituago dagoz.

Asto Txikik haserako asaldak isildu dauzanarren, intzirialakoz muxak adierazten darrai, begiramen guztiak inorentzat dakusalako edo astotik Vesparainoko iraultzaren ordua susmo baileuan.

Ugaranen ardaoaz ospatu daue aldi barriek mugonean bisita egin dautselako. Martin berbatsu dago. Inork ez dau motoaren prezioaz itauntzen.

—Amaitu ziran etxetik trenerakoak oinez egin beharrak.

—Eta guk zer? —dino Karmelek.

—Zeuek aitatik dinonak, hatan be-ta —aitortzen dau Martinek.— Ni libre nagonero behintzat ez dozue inongo taxirik deitu beharra izango.

—Bai honak gagozak geu taxiari deitzeko, erreka doa nogaz bialdu be ez diaukaguk-eta.

—Ba diakinat orain arteko taxia astoa eta oinak izan doguzala, gure bizikletak aparte. Baina hemedik aurrera, ni libre nagonero, serbizioa egiteko prest naukazue. Bardin zeu be, ama, Zeharrolako plazara zoazenetan.

—Ez ni behintzat —Moinoa ikutzen dau ama Josepak.— Hori zeuon zera dozue. Ni betiko moduan.

—Ez dozu baina auzokoari astoa presta dakizuen-eta molestatzen ibili beharrik izango. Neuk eroan neuskizuz trenera goizetik edo bezperatik plazarakoak. Baita patata zakurik handiena be eta gainera zeu.

“Gogoan dautsut, laztana, amuma Vesparatu zanekoa. Artean arpegia emoten eutsun Vesparen tentazinoari, baina azkenean jausi egin jatzun.

—Ez dozu ikusi, ama, asto barik be zelan trenera jatxi dautsudan hortuarria? Ba, bardin zeu eta arrautzen otzarea be.

— Tortila galanta egingo gendukek, seme.

— Ile betean arrautzik jan barik egongo nozu, bat apurtzen ba dot.

—Arrautzak osorik heldu direla ikusi eutsun amumak.

— Arrautzak baino hauskorrago ez nozue ba...

— Orduan prest e, ama?

— Ako bestea!

“Karmele izekoaren zirikadak zehatzearren-edo izan ezpalitz, ausaz arinago Vesparatuko jatzun amuma”.

“Martin osabea patata zorroagaz-edo eztazinora joana jatzun. Iraduz ebiltzunez gero, Eguzkitzara urten geuntson. Amuma konfesatu-barri lez, lurrera begira joatzun, baina ziur gogoa goitik erabilela.

—Atara kontu, ama —oldartzearren ninotson— gureak gupideko biurgune eta zubikoa bera motoan egiteko badira, kamino lauan ez dozu zertan izan bildurrik.

“Neuk neroatson esku-otzarea, harakoan hortuariz beteta badaezpadan. Lehenengo barazkiekin egingo eutsun pruebea eta orduan ikusiko

eutsun berak ea arrautzak halako troterik jasateko ete ziran.”

“Izeko Karmele be atzetik inguratu jakun, amari azken lezioak emon gurarik.

—Ama, abidan azten zareneko, zuk ez begitu lurrera, burua biratu aurrera begira joan. Hegalera eta batez be behera begira bazoaz, mareatu egingo zara. Hegalka jesarten direnentzako aholkuak emoten dautsudaz. Ni neu, seguridaderako, istarkilo eta beraz aurrera begira...

— Hago isilik txotxin hori.

—Gonak asko jaso barik be egin zeinkena da. Uste dozu Vespara igotea asto gainera igotea-edo dala? Ez, bizkarra belaunen parean dautsu eta.

“Osaba Martin prisagaitik urduri samar egotzun, itzuli zanean. Amumari motora igoten lagundu neuntsan. Ondo egokitu zanean, otzarea altzora emon neuntsan. Beso bat az otzareari, besteaz Martini garritik oratzen eutsan.”

“Izeko Karmele zoro itxurak egiten hazi jatzun vesparien inguru”.

— Ene, gure ama modernizatu egin jaku.

“Mosua emon gura eutsun lehiaketetan irabaleari gara ikurra emoten jakonean lez.

— Kendu hadi hortik, arrasko hori.

— Gertu zagoz, ama? —Atzera begiratu eutsun osaba Martinek.

— Itxaron apur baten.

“ Amumak eskumea askatu eta aitiaren egin eutsun”:

— Prest nago.

“Vespea aurberan eztalakoan ibiltzen hasi zan. Zurtz gelditu gintxatuzan Karmele eta biok, vespariei begirik kentzen ez geuntsela Berezi-ko burrean eskutatu ziraino”.

“Motoa erostea baino amuma motoratzea gehiago kostatu jakula esar behar dautsut. Erosi ezeze, erabilte hori garrantzi handikoa jatzun guretzat. Amuma aurrerapidearen errailetan sartzen zalako seinalea zendun. Handik aurrera probetxurako diru-eralgiteak ez eutsun hainbesteko tripalik emoten. Etxaldia konpondu behar zala? Sukaldea eta goiko gelak behenipehin txukundu? Nebarrebok eritzietan bat egiten bagendun, harrezkero amuma ez jatzun haziko ugazabaren baimenak eta ugazabaren laguntzak behar zirela-ta esaten. Amuma maister burua galtzen hasi jatzun, makinearen orduak askotarako kukurrukua jo baleutsu lez.”

—Antzerkia ez zeunsten esan ba? —Don Pedro burua mogitzen hasi da, Dotrina lekuko antzokian kitarak eta bestetariko musika tresneria sartzen ikusi dauenean.

—Antzerkia eta kantua, biak, jauna —ziurtatzen dautso Errotatxu-ko Fernandok. — Orain antzerkia baino kantua gurago dauela gazteek, nesketatik hasita.

—Bai, errua neskei, antzerki gitxi eta kantu asko behar dala esateko.
— Okotza ferekatzen dau Don Pedrok—. Operaren bat antolatatu behar ete dozue ba?

—Zer?

—Zertaz dok gauzea, jakin ahal balei?

—Zertaz zer, baina?

—Antzerkia, txotxo.

—Jaialdia, Eusko-Jaialdia deitzen dautsogu.

—Tira, tira, euskera gitxi eta zarata askokoa beraz.

—Dagoen polizi zensuragaz, jaune, hobe berba gitxi esan eta eurak zaratatsu, fuerte.

—Ez daustazue barrabaskeriaren bat egingo!

—Neuk ez behintzat.

—Ze gai-edo darabilzue Eusko-Jaialdi edo danadalako horretan ba?

—Barrukoei itaundu beharko dautso hori, jaune, ni hemen sarrera-koaren kobratzaile baino ez naz.

—Izena beheinipehin? Ez dozuez ba zeuok zeuetara gomitau Uhar-teko antzelari famatuok?

—A! “Lau txakurreko alogura” edo holakoren bat da.

—Eta zenbatean ipini dozue sarrera?

—Hogetabostean.

—Ederto be: lau txakurreko alogura eta hogetabost pezetako sarre-ra. Ez negozio makala be.— Don Pedrok besoak gurutzatu eta eleizpe-tik zehar plazaraino begiratu dau.— Gurean borondatea zoan orain arteko legea eta umeentzat edozelan be dohan.

—Ez darabilgu txartelik, jaune. Borondateari neurria ipintearren izan da. Hortik gora emon gura dauenei be ez dautsegu ukatuko eskua. Bestalde umeentzat, beti lez, tokirik gelditzen bada behintzat.

—Tokirik? Dotrinalekua batez be norentzat dala uste dok ba? —Don Pedro Dotrinalekuan sartu da. Uharrizako abade gazteari kontuak eskatzeko lehia daroa.

Plazatik eleizpera mugitzen hasi da jendea. Oinez, motoz, berebilez igon daue Ibargaingo haize garbiak hartzera, urtean behin bederen baserriak kaleari berea kentzen dautsola. Ze erronomia, ze pelikula edo gazte bilera dauka bada Ibargainek? Kartel batek be ez dau aldarrikatzen Euskal Jaialdia. Ez dago ekintzen banaketarik. Dotrinalekuan esan behar direnak ez daue zenzurako erdal papeleorik jasan. Jendea eleiz-peko babesetik Dotrinalekura sartzen doa.

—Lehenengo ordaintzen dauenak eta gero zuek, umeok. Orain zoaze olgetan. Etorri gerotxoago.

—“Si tú quieres casar con las chicas de aquí...”

—Eta honek maketook ze euskera ulertzeko asmotan datoz ba?

—Pagetan dauen artean, datozela.

—Ikusi dozue Martin Ugarangoaren andregai barria? Jo! Ez gero edozelangoa be?

—Ze, Eguzkitzako Maite baino be... Badakik zer esan gura dauadan...

—Bai, txo eta hatan ulegorria bera.

—Anjeleri arpegian emotearren izango dok.

—“Qué carallo! Un día es un día”.

Jendea zizailualako banku luzengatan jesarten doa. Bakoitzak bere taldea edo laguna bilatzen, helduek helduekin, gazteek gazteekin.

—Ba daukan hemen tokirik, Karmele.

—Ez, lagun baten bila najoan.

—Jakina, neskak: “si tú quieres casar con los chicos de allí...”

Antzokiko errezela idegi da eta Peilo auzoko bertsolaria, gendeari ongietorria emonez, unea girotzen hasi da.

“Jende barria jaku

festara etorri

atzealdean lotsaro

non jakun jesarri,

euskera ulertzeko

dabilz barregarri:

entzumenez moteltxo

baina begiz larri.”

Jendeak barre dagi Araneko etorkinen lepotik. Gaileguetariko ba-tek, ziria salatuz, jagi eta bertatik ozen abestu dautso:

“Si tú quieres casar

con las chicas de aquí,

tendrás que deprender

euskera ikasi.”

Txistu zorrotz eta txalo beroak lortu dauz gaileguak be. Gendea isil-du danean Peilok berean darrai:

“Egon nasai, mutilok,

zuek enbidatzen,

erdaldunek artean

nesketan dabilzen;

ardaaz barik ordagoz

joek erantzuten,

musukan ta ez musean

mutil zer dozaken.”

Nesken txilioak Dotrinalekuko sapaia Don Pedro astoratzerraino astindu daue.

—Nabarmenok... Isilduko ete dira! Non dagozala uste daue ba? Ze jentemodu etorriko jakun Uhartza aldetik!

—Horrek ibargaindarrak dozuz eta.

—Zeintzuk, ea?

Teloia itxi-idegi baten langile gaztea mahonezko jantzitan eta ma-kutsik, soka bateri tiraka dager, norbaitekin sokatiran-edo bailebilen. Ihardunari itzi barik, entzulegoengana biurturik, ots egiten du:

“Zergaitik nabilen hemen nagusiaren baimen barik zoriagaz soka-

tiran? Txakur baten alogura zer dan adieraztekotan, hain zuzen. Ikusi ezpabe...”

Langileak sokeari tenka indar etsian dihardu, aurkalariai eusteko ez bailitzan, bildurik daukan sokea larga emon ezeze antzokitik urten zorian. Langilea arrastaka, izerdika, lurrari josten da. Larrienean beste langile bat dager antzokian, eta hegal baten dagoen burdina eskegian toberalakoa joaz, lan-deia eta ausaz burruka deia joten dau. Une bateko burdinotsa itzi eta kantuz dakitso:

“Zerk kentzen daustan logura?

Lau txakurreko alogurak.

Nahiko ei dogu apurra
esan daroasku lapurrak,
guk ezetz dautsogu postura.”

Beste langile bat agertu da antzokian. Sokatirean galtzen diharduenari laguntzera doa. Bi dira orain sokatik tiraka. Saiatzen direnarren, lehiakari ikusezinaren aurka ekiteko ez dira nahiko. Pauso bat aldera dagieneko bi kentzen dautsez ostera. Toberariak deiadarrez dakitso, burdinotsez lehenengo, ahotsez gero:

“Langile guztiok alkartu,

batera nahi dogu erantzun.

Ez ete gara hemen euskaldun,
etxeko lehenseme eta jaun?

Jauntxoen morrontzan noiztik gu?”

Hanartean langile gehiago bildu dira sokatirara, hiru, lau, bost, eze-nategian kabidu ahala. Sokea euren aldera itzultzen da ia, toberarien rit-mora dakitsoela aparte, “ez gara inoren makina,

makinak ez gaizan azpira,
sendotu daigun burdina,
guretzat izerdi mozkina:
jabetza, ez soilik nomina.

Sokea eskuz esku dator, azkenik sokearen muturra agertu daino. Langileak orduan sokeagaz batera, besoak jasorik, doinu sarkorragoan garaipena ozenkatzen daue:

“Gaur gure eskutik giza-lokarri
dan sendoena daukagu,
otso handiari lau atzaparrak
noiz lokatuko dautsoguz?”

Sokearen tenkatasunaz batera gogoen atezua, toberaren andana zoroan, txaloak eta zantzoak bete daue Dotrinalekua.

—Ta hori izan dozue guztia? — Don Pedrok musin dagitso Uhartzako abade gazteari.— Bienenke lau txakurreko zera...

—Dana ez; lehen zatia izan behar dau hurrean.

—Deigun lehen zatia. Ta funtsean zer esateko?

—Aldi barrietako estiloa dozu, Don Pedro. Orain ezin lei argi berba egin. Horregaitik, hirudi batzuk eta esangura nahastuko berbak. Gura dauenak ondo ulertzen dautsuz.

—Bai gero? Eta ezinesanen babeserako Dotrinalekua aukeratu be?

—Ezinesanekoak ez dau esan gura erejiak diranik, Don Pedro. Uste dot, honez gero, Rerum Novarum harakoaren eskakizunak gainduta dagozala.

—Gainduta? Ha ondo beteko baleue, ez legoke holako nasterik.

—Konforme, baina...

Kitarren drin-dreunak entzun dira antzokian, neskak urduri mogitzen dira, samak eta zapak ritmoaren arauera bilinbalatzen dauezela. Mikrofonoak unetik unera izugarriro handitu daroa kitara arien zasztadea. Mutil kantaria gizurenaren abotsaz nabarmentzen da, begietarako horren txikia danik ere, entzumenaz orokor jabetzen dala:

“Ibarrera! Ibarrera -dino-
deidarraren hain beharra:
jatxi menditik behera,
asaba zaharren irrintzi harek
deitzen bai-gaitu ostera:
salba dagigun euskera.”

Herriak, herri zati batek, azken bertsoak errepikatzen dauz artean eskolatua bailegon:

“Ibarrera! Ibarrera,
hau eginkizun ederra:
salba dagigun euskera.”

Abotsak bitara eta harean hirutara edatu dira eta Don Pedrok desafinoa nondik datorren begira, samea ezkerralderantz biurtu dau. Eta batez be, hareek neska txoralduak, zergaitik saltatzen daue jesarlekuetan besoak goraka?

Kitara eta atabalaren ritmo jokuaren ostean, kantariak elektro du-rundian sarkor dakitso ostera ere:

“Ur txiki danak handira,
goitik datozen antzera,
euskaldunok ibarrera!
Gende arrotza etorri jaku
ur garbiak nastutera:
salba dagigun euskera.”

Abotsak nesken zapen einen uharitu dira errepika orduan:

“Ibarrera! Ibarrera!
Hau eginkizun ederra:
salba dagigun euskera!”

—Jakina euskera salbau behar dogula —marmaritzen dau Don Pedrok Uhartzako abade gaztearen belarrira—, baina zer esan gura dau “ibarrera” horrek. Edo Ibarreko mitinen batera joan behar ete dogu danok?

—Don Pedro, ondo be ondo dakizu Ibarren ez dagola orain mitinik. Ai Ibarren mitinik balego, uste dozu Ibargainera joko ebalaz gaztedi honek?

“Sanluis aurreko domeka arratsalde haretan ezagutu neuntsun lehenengoz izeko Karmeleren senargeia: osaba Manolo, laztana. Ordurako aitaxo eta biok ezkongaietan genbiltzuzan eta beste askotxo legez Vespa-motorizatu jo Zeharrola eta jo Ibarrola.

Manolok-eta ez eukatsuen motorrik, domeka arratsaldetan-eta alkarrengandik hurbiltxo ebiltzanarren. Izeko Karmelek ez eukan, antza, mutila etxekoei aurkezteko adorerik, baina bera han egotzun Ibargaingo plazan Manolo gailegua alboan eukala, Ibargaingo mutil guztiei turrut egin gura baleutse lez. Martin osabeak ezikusia egin eutsun. Nik agur arintxoia egin neuntsen, Sabinengandik (badakizu, aitaxogandik) ostu-ostuka kontuizu. Izeko Karmele eta Manologazkoa norainokoa zan ez nenkitsunez, ez nintxatzun osaba Manolo aitaxori aurkezten ausartu. Zorionik onena opa neuntseen harakoan, baina alkartasunean baino gurago neuntsun banantasunean eurentzat. Esan be egin neuntson hurrengo baten izeko Karmeleri:

“— Uste don erdaldun bategaz eskonduta, beste barik...

“—Euskera ikasi/ erdalduntzen hasi/ yeye/ ta kale-kalean pisua erosi/ yeye”.

“Rokera urten eutsun harakoan izeko Karmelek. Prest egotzun erderazko maite kantak euskeratzeko edo eta erdal pelikuletan ikusten eban maitasuna euskal alorrera erakartekoan. Edo nik dakitsut ba ze zimiko egin leikion Manolok horrela kiliberatzeko. Maitasun amarruetan euskaldunak baino mainatsuagoak ei dozuz gailegutxook. Kontu ba, laztana. Jakinen gainean dinotsut.”

“Edozelan be ez uste izeko Karmele eta osaba Manologazkoaz mindu edo musindurik nagoen. Harroago agotzun harakoan osaba Martin andregai barri txarmanta erakutsiala. “Nongoa dozu, neska hori” itaunka begiratzen eutsoen danak ezezagunari.”

“— Vespa lehiaketan irabasia izango dok.

“— Ez dozue ezagutzen Olatxuko alabea?

“— Nongo Vespa lehiaketan baina?

“—Jeje. Nongoa eta noizkoa be itaundu einkek. Noiztikoa dok ba Ugarango Martinen Vespa? Elizburuko Anjelen ostekoa dana dala be, ez ala?

“— A, bueno!

“—Txirriinduletan irabazia baltzerana zoala, hau osteria ulegorri-ka. Hori dok ba, txirriinduletik Vespara dagoen aldea.

”Neskalagunek ez jatzuzan esamesetan mutilagunek baino gozoago izango. Osaba Martinek esames guztien gainetik zorionsu emoten eutsun. Ez neinkizu oraintxe esango zenbat alkar maite eben edo erromeria-ko lagun arruntak legez etozanik be. Baina hasieran begi-ihesa begitandu jatan Olatxuko alabea. Zelan esango neunkizu? Hara, gure ibargaindar mailari gitxiesten baletor lez. Pentsau be egiten neuntsun neure artean, baina nondik norako konbinazinoan Vesparatu ete dau gure Martinek neska hau? Benetako bihozkaidea izan ete eutsun? Ai, bihozka-

deak asko esan gura dautsu, laztana. Bai, bai, “uso banintz” harakoarena legeztxe. Ba dakizu, trenari edo autobusari begira edo bestetariko une baten baserritik plazarakoan edo erromeriatik etxerakoan Vespa mesedea egin eta gero, mesedek egiten jarrai eitekela. Mesedeka jarrai eikeenetariko eta ete zendun osaba Martin eta Olatxuko alabearena? Susmo gehienok oraingoak dautsudaz, lekuta honetatik begiratuta bururatzen jatzuz, laztana.”

“Asko be asko poztu nintxatzun, dana dala, Maitegazkoaren ostean osaba Martin herriko plazan argitsu benetan aurkezteko ba zala ikustean. Sikeran be, antzerkietado alper amesetatik eta eztalako txirriindul jokuetatik at, benetako harremonetan hasi danean” ohartzen neuntsun neure artean. Ea gauzea sakonago errotzen dan, Eguzkitzatik Ugarana dagozan aldeak zerikusirik ez daukeela gainera.”

“Agurreko mosua emokeran, oskirritxoa eritsi neuntson neskeari. Ez dakitsut esaten matraileko sentikaria ala, Olatxuren aldean, Ugaranek kaletik daukan urruntasuna izan eiteken.”

“— Zer eritsi dautsazu? —itaundu neuntson Sabini.

“Aitaxok musturra bihurtu eta sorbaldak jaso eutsuzan, inoren auzitan sartu gura ez baleu lez. Ez neuntson amor emon. Beharrezkoa neban bere eritsia.

“— Eta bere prakak —nik orduan.

“Irri gaiztoz asaldata ziran harakoan aitaxoren ezpainak. Bai ba, berak be eztalakoan begiratu egiten eutsola konturaten nintxatzun. Euke- ni Olatxuko izan zendun Ibargainen nik prakadun ezagutu neuntsun lehen neskea. Eta ondo be ondo etorkozan Eukeniri prakak. Vesparako barriz aproposak direla zertan esan beharrik be ez daukazu. Ez uste halan be, laztana, Olatxuko Euke- ni eperdiak praktetan sartu eta gero begiraleak salatzearren, atzera biratzen danetarikoa danik. Bestela osaba Martin hurreratu be ez jatzun egingo halakoagana.”

“Ibargaindik beherakoan, Anjel eta Maite ikusi ahal izan genduzan Eguzkitza aurrean. Etxeko alabak, antza, errekadoren bat eukatsun kalera joan aurretik. Alkarren hurtxotik igaro gintxatsuzan, guk Ugara- ranera eta eurak Uhartzarako bidea hartzen eutsuelarik. Begikunaz eta eskuaz Maiteri agur egin neuntson. Ez jatzun ohartu eta zimikoagaz gelditu nintxatzun, bada ezergaitik be ez neuntsuzan gure artekoak etentzat emoten. Osaba Martinegazkoak egingo eutsuzan, behar bada, baina ez nigazkoak. Neuk behintzat ez neuntson hatarako biderik emoten. Edo Maite, ahaztu egin ete don, Martinen edo Anjelen andregai baino lehenago, eskola-lagun eta esne kantxinen garbitzaile gero izan gozanana? Honetaz hitzik be ez neuntson esan aitaxori. Aitaxok ez dakitsu oraindino laztana, txirriinduleta haretako kopeaten barri. Kopea bera bai, ikusi eutsun Ugarana egin gendun ikusaldi beratan, baina haren ostetiko maite historiaren antzik be ez. Ez ta nigandik jakingo be, harik eta osaba Martinenak burutu daitezaino.”

“Egun beratan lehenengoz aurkeztu neuntson senargeia amumari, aurretiaz esanda neunkatsonez.”

“— Baina nora ezkontzeko? —Amaren lehen asaldua.

“— Kalera.

“— Kalera? —Amaren larriunea— Kanean zerez biziteko gero?

“—Zerez biziteko dinostazu, ama? Dirurik gehiena gurera nondik datorrela uste dozu ba, ama?

“—Ai, alabatxo, gaurko intxaurrak ez dozan izango betikoak. Gerra ostean ez zonan horrela izan.

“—Hain zuzen be, ez gagoztuz orduko aldietan eta beti etxean bizitekoak be ez gara-ta..., ez zenduke gura, ni kanean ugazandre bihurtzerik?

“—Kanean eta ugazabandre? —Amak barre egin eutsun. —Ez jonat eguno entzun holakorik, alaba.

“—Hara ba, ama, baserriko maistertzak ukatzen dauskuna, hain zuzen be: etxe eta ondasunen jabe izatea. Zer deritoxozu?

“—Amesaren ederra! —Amak besarkatu egin nindun—. Gurako ez neunkenan ba?

“Pozeko negar anpuloak eriokozan matrailetik amumari, laztana. Bere ezbaixoak eukazala, esan eustan. Ea langile ona zan mutila, nuntarra, zein familiko...”

“— Ona? Gurago dot zeuk ikustea...”

”Urtubiko semeak, kanean langile ona ezeze, Ugaranen beste edozein baserriaren ardurak eukazala erakutsi eutsun amumaren aurrean. Korteak ikuskatu, behiak eta txahalak zenbatu, esnetariaren eta anai langileen arloak aipatu eta amumak prestaturiko urdaiazpikoa ardaoagaz onartu, Urtubi eta Urtubikoez giharduala. Lagunarteko eta etxeko ardurak zenduzan harrezkero-eta.”

Uhartzako abade gaztea motoa hartu eta Ibagainera zuzendu da, Sanluisetako antzerkian Don Pedrok salatu eutsozanak zurikatzeri eta bide batez, Uhartzan bertan Baserri Gaztediak antolaturiko antzerki edo erakusaldira gonbidatzearren.

—Ze, ostera be ez zaree “ibarrera, ibarrera” deika hasiko, ez ala?— Begi-begietara begiratzen dautso Don Pedrok abade gazteari.

—Ez daukee zertan hasi, han ibarrean dagozanez gero.

—Bueno, zuok erdi kaletar eta erdi baserriar zareenok, okerrenak ete zareen nago —Zeharka begiratzen dautso Don Pedrok Uhartzako abade gazteari.— Kalea ez da sobra be galduko, mundua eurena dauela. Gu baserriarrok ostera, baserriari eutsi beharrez aurkitzen gara, eskue-tatik ihez egiten dauskulako. Ez zaree konturatzen ala?

—Ea, ea konturatzen nazen —Abadegai antzo begiak itxi eta eskuak batu dauz Uhartzeko abade gazteak une baten, gero begia oker kinatzeko. —Urak aurretik hartuta, baserria be ez ete da ba mundukoa?

—Mundukoa bai, baina ez mundutarra —Atzamarra jaso dau Don Pedrok — Hemen zerutik hurrago bizi gara.

—Jaungoikoagaz akordatzeko asti gehiago daukazue izan be, kanean baino.

—Zergaitik beraz artaldea bertatik aldendu, ibarrera deituaz?

—Han dalako euskaldunok eguno jasan izan dogun burrukea. Ez ete zara konturatzen, Don Pedro? Kanean, kanean!

—Zarraparretan mendia izan da beti be euskaldunen babesleku.

—Hau ez dozu erromatarren gudea baina...

—Zer? Besteok hareek baino gozoagoak direla esan gura dozu? —Begiak txiki-txiki eginik, urrunetik bezala begiratzan dau Don Pedrok.

—Ez holakorik be, baina aldi bakoitzak eta burruka bakoitzak bere estrategia behar dau —zehazten dau Uhartzako abade gazteak—. Artzainen garaikoak ez dau balioko, esate baterako, Baserri Gaztediaren aldiotan.

—Eta nortzu dozuz horrek, jakin ahal balei eta ze estrategia darabiltzue jakin daigun?

—Ez dozuz ez menditar, ez ibarretar hori galdetzen badozu. Berez erdibidekoak dozuz.

—Erdi kaletar, erdi baserritar?... Ez dauste balio.

—Ez holakorik! Ezpabe kaleko teknikaz baliaturik dakitsuez baserriko arazoak ebazten, makineaz esate baterako, edo lurraren onurak edo urritasunak sakonago ezagutuaz.

—Hori ez dago txarto be. Eritxietan biderdira etortea gustatzen jat, baina aurkakoa norbere ikuspuntuaren gainean ipinita gero.

—Jakina ba, Don Pedro.

—Jakina? Zeure begiekin ikustea gura neunke, ez neuk esanda bakarrik. Astirik badaukazu?

—Zertarako? —Zurtz gelditu da une baten Uhartzako abade gaztea.

—Neugaz Agerre muinora etorteko. Ordu beteko osterea baino ez dozu. Ala astiaz zabize urrurik kalean?

—Hagaitik, astia hartzekotan, igon dautsut Ibergainera. Goazen, goazen zer hori edo ikustera.

—Neure ikuspuntua, baserritarren ikuspuntua. Ez dautsozue orain horrela deitzen gazteok?

Udazkeneko haize biguna dabil Ibergaingo plazan, erlategiaren durundia baizen sorgor dator eskolumeen leloa Eskolatik. Klerigmandun abade gaztea sotanadunaren pausora doa Eleizaldeko etxaditik at. Don Pedroren eskua eta besoak oinak baino bizkorrago mugitzen dira alde batera eta bestera herriko gauzen edo tokien adierazgarri prestu eta lekuen lekuko. Gurutzebidan dagoen gurutzaren seinuak ikusten gelditu da Uhartzako abade gaztea.

—Ze garaitakoa dozu gurutze hau?

—Orain azten da gurutz-bidea.

—Hamalagarren gizaldikoa bai gitxienez.

—Gurutzea? Baserrian betikoa. Zuek kaletarrok ezetsi egiten ez dozuenean, baserritarren lepotik ipini gura izaten dozuela.

—Ikuturen bat behar leuke, oroldi lehorrak egina dautson baino kalte gehiagorik ez daion, edo museu batera eroan.

—Neuk erakutsiko dautsut zuri museu hoberik —Don Pedro pauso batzuk aurreratu da.— Goazen aurrea. —Behera begiratzan dau.— Ikusi, ia gurdirik ibiltzen ez dan tokiraino heldu gara, ez gurdirik eta ez kristaurik.

Gurpidea unadaka sasiak hartuta dauka eta urak igadura sakonak eginak dautsoz errailak hasiriko aztarretenan. Agerre basetxe bakartira heldu dira. Agerrek kontralehioak itxita daukaz. Begi itxutu momia edo, barne sekretuak gordetzearren, begiak itxita eta atarte ahoa zabalik daukazan esfingea dirudi.

—Horra nik esan dautsudan museua —Don Pedro atarte aurrean gelditu da.

Atarteak berere, ba dauka lanabes erdoilduen museu ahazturalako antzik, izan be. Ez txakur eta ez ugazaba, larrainean asunak dira nausi eta ohiko ordu emonkorren seinu bakar, itxaur zaharra oskol arrakalatuak erakusten.

—Nork batzen dauz intxaurrok? —Tantaira begiratzan dau Uhartzako abade gazteak, lurretik ale bat jasoten, oskatzen.

—Sagu eta mikeak, ehizariren bat-edo, nagusia bera kaletik hona ikusaldiren bat egitera ez diatorkonean.

—Penagarria da.

—Intxaurragaitik dinozu?— salatzen dau Don Pedrok.— Eta etxeagaitik zer?

—Bai ta.

—Halantxe data —antzi dagi Don Pedrok. —Zeuk ikustea gura neban eta ikusiaz barruntau zengian.

Uhartzako abade gaztea atartean dagoen deztera harria iraulkatzen alperrik ahalegintzen da. Oinaz ezin izan dauenean, eskuaz saiatzen. Don Pedrok joatekoa dagi.

—Goazen aurrera. Nire ikuspuntuaren ale bat baino ez dozu hau.— Eskuaz adierazten dautso— Muino haretatik ikusi eta esango daustazu.

Aguerre ostean hamar-hamabost urteko pinuak baltzez jantzi daroelantzar eta ohiko soloak. Pinu lerro arteetan bedarrak bizi guraz oratzen dautso oraindino ama lurrari. Muinora bidean, apur bat gorago, pinu gazteen gainetik ikuspegi zabala argitzen da, hasi Iturrigorritik eta Uhartzaraino, pinudiz, landaz, soloz eta baserriz ornidu.

—Hemendik dana eder, ez al da? —Irri samina dagi Don pedrok sarkaldetik sorkalderantz begiradea zabal edatuaz.

—Hau dozu beraz ikuspuntua?

—Eta nere Kalbarioa.

—Ba, Uhartza zoragarri dager hemendik.

—Ezin lei ukatu tokia zoragarria danik, baina arinegi lerratu jatzuz begiak kalerantz, hemen mortuan gagozala konturatu be egin barik —Atzamarra jaso dautso Don Pedrok abade gazteari ostera be, keinuketa bereziaz ohar dagitsola.— Tentatzailearen unea dozu hauxe. Munduko erreinu eta haren edertasuna erakutsiaz, deabruak Kristori esan eutsone gogoratzea baino ez dozu: “ahozpez gurtzen banozu, guzti hori zeurea da”.

Isil unea sortu da, haizeak beheragoko pinudigaz daroan zurr-

murrua entzun daiteke, txori txinta galduren bat. Abadeen begiak une batez ikuspegi haretan galdu bailitzazan. Baina ez, Don Pedro itxartu egin da.

—Neu ez nau, egia esan, orain kaleko aberastasunak asko irrikatzen, baina hemendik ikusten diran baserri hutsak saminez betetzen naue. Lehenago hogeigino baserri zenbatzen neuntsuzan, hemendixek mogidu barik, orain hamabi edo hamalu...

—Besteak erre egin ete ziran?

—Ez, handiko ta hemendiko pinudiak eskutatu daroetz, basoak iruntzi baleuz lez. Agerre bera, esate baterako, ikusten dozunez, etxatzeko pinudi horrek estaltzen dautsu, baina hutsik bada be, hor dago. Han goianean dakusuzan hareek osterera, bizirik dirudienarren, ohiko bizi edertasunaren lekuko baino ez dozuz. Ea, ezpabe, solo landu bakar bat begistatzen dozun baserri inguru hareetan. Lehenago tximinitiko kea izan eitekizun biziaren seinale, orain solo landua. Horretariko gehienak oinez ibiliak dodaz. Bost, sei eta zazpi semealabako sendiak zenduzan. Hara gainganetxotik hasi eta beherantz: Ibarburu, Barrenetxe, pinuarte hareetatik ikusten direnak eta basoak eskutatzen dauzen beste bi: Landabaso eta Landeta. Honantzagoko mailoan barriz, Egiarte-Goikoa eta Mintegi. Egiarte-Bekoa solo landuagaz ornidu ikusten dozu. Horra baserri bizia. Kaminoa egin barri daue. Beherantzago, alkarren jarraian, beste hutsitu bi: Artetxe eta Sasiola —Une bateko larrialdiak-edo hartu baileuan, Don Pedrok burura daroaz eskuak. —Bueno, baina zertan dihardutsut auzi honetan?

—Ez daustazu esan gurako, Don Pedro, Mintegi, Egiarte eta gainerakoak... —Hagin ertz irrikoiak darakus Uhartzako abade gazteak— deabruaren tentazinoan jausi direnik...

—Ba nenkian Kalbarioa, zirikaldua lez, bakoitzak berea dauena eta bata bestearena ulertzea edo onartzea horren erreza izaten ez dana. Gurago dautsut neure Kalbarioagaz gelditzea, inoren zirikaldiak aztertzen hastea baino.— Zeharka, zorrotz begiratzen dautsu Don Pedrok Uhartzako abade gazteari.— Gauza bat esango dautsut bakarrik: nik zure sasoiaren baserri gehienok bizirik ezagutu nenduzala eta orain osterera Hilen Liburuetan lez, toponimia huts dakusadala. Izenak bizi darrai une batean, behar bada, Agerrek 'toki ageria' esan gu a dautsu eta halan dala ikusi dogu eta halan izango da etxaurreko pinudi barriak goiak hartu daiozan arte. Baina hor dozuz dagoneko muin bako izen Mintegia eta ardi bako egi Artetxe etabar, pago bako Pagasarri edo urki bako Urkiola bailitzazan.

—Hortik uste dozu, euskaldunon berbea edo berbako euskalduna be behekan doala?

—Analogiari jarraituz gero, bai —Besoak gurutzatu dauz Don Pedrok ziri batetik alde egin baileuan, keinu dagi—, baina ez, edozelan be, pinuen erruz. Pinuak gure basorik gehienak baltzitu dauzela-ta, beste barik, gure euskal gogo baltzitu leikela esatea larregi da. Halan

da be entzun ohi da euskera bako euskaldunak aipatzen, urki bako Urkiola bailitzazan.

Agerre muino goiak itzi eta beherakoa hartu daue abade biak. Don Pedoren eskuketak bizi-bizia darrai, bere ahoari barik bideko harri eta sasieri berba eragin gura baileutsen.

—Nik beti esan izan dot, eusdaldunek euskera ahaztu daienean be, basoak, mendiak euskeraginen jarraituko dauela, baina orain ez nago horren zihur, gizakion okerkeriarren, mendiak eurak be hitza bihurritzen hasi diranez gero. Lehen erdal sekretarioen azpi edo tonto lana zendun 'Muniketa egoan tokian "La Muñeca" ipinten eutsuen, orain osterera geu gara berbea jan eta janeragiten dogunak.

Don Pedrok golpean gelditu dau hitz jarioa, damu ordua bailitzan edo abade gaztea damuberatu gura baileuan, buru makur doa, gurutze bidera heldu dira, bideko gurutzearen ondotik igarokeran, aitiaren egin dau Don Pedrok, zirikaldietako eremutarrak bezala. Uhartzako abade gazteak imitau egin dau, etxerako bidea lautu eta pausoa bateratu dauenean, Don Pedrok irribarrez argitu dau betarte.

—Zeuk esango daustazu hainbeste gizalditako lan eder hori —Baserri hustuetarantz biratzen dau une batez burua—; basoari emoteko esku-biderik ete dagoen. Ea zilegi dan hainbeste izerdiz landuriko eta euskeraz bateatu lurak erdalkeriaren pinudiari eta oraindino be, zeuen "ibarre-ra!" Ibarre-ra" gonbiteaz, baserria kaleari emotea.

"Osaba Martinek kinieletan jokatu eutsun Ugaran baserria aurrera ateratearren. Sarritan ikusten neban bera zenbakiz beteriko paper orista hareekin aparti aurreko errosarioan, amumaren debozinoa sorte modu haregaz orniduten eutsularik, zeruek eta lurak alde bietatik balia ekioen. Dana baherran gengtuzan, egia esan, Ugarani itxura apur bat emotekotan. Eguzkitza eta beste etxejauntzakin eukan aldea ikustea baino ez egotzun. Arpegi barriztau ezeze, barrutik kaleko bizitokien antzeko lan ederrak eukeezan, sukalde inguruan batez be."

—Zelan nahi don ezpabe —inostan osaba Martinek—, berez kalera-ko jokerea daukan neska bateri amaren etxera gonbidatzea?

—Heuk ikusi dok Olatxuekoena? Hareek azken modara eukiko joek hurrean. Ez hala?

—Ez non sartu barrura... Neskeari barik, mutilari tokatzen jakon gonbidatzea, ez don?

—Bai, hala dok, izan be.

—Ez dionagu galtzeko denporarik beraz. Etxea hau konpontzea baino ez diaukanagu eta ez gozan ugazabaren baimenei eta gitxiago laguntzari begira egongo. Eurak ez joen ziur guk etxea barrizterik gurako, zaharraren zaharraz etxea erdi jausi eta guk gogaituaren gogaituz jaiote-txea gorrotau eta kalera-edo alde egin daigun baino. Onurea eurentzat galanta. Guk etxe eta etxaguntzaren eskubideak galduko gendukez,

gure aurretikoen amesak errekarra botako. Ez dautsegue halako errez-tasunik emongo. Kalea gero be hor diagon. Baserri hau ez genduke ikusi behin eskuetatik alde egiten itziez gero. Orain, dana dala, eutsi eta, egunen baten, nork jakin, geurea izango don. Noiz sartu don, izan be, etxion gaur sartzen dan aina diru?"

"Ez jakun tokatu kinielarik, baina ahal genduntxua egin geuntsun, letaina askorren arrenaz amuma bera be geugana intziguazoz. Teila-tua, eskaratza eta goiko hiru-lau gelak itxura baten gelditu jatzuzan, sukaldea be polito."

"Osaba Martin eta Josek gogotik ekiten eutsoen olako lanetik gelditzen jakezan orduak etxe konponketan eralgitzen ebezela. Harginari eta harotzari hainbeste lan aurreratu eutsoezan. Izeko Karmelek eta biok be ez geuntsun garbiketa eta zuriketa gitxi egin, geure aldetik. Ikusiko dozu amuma ikustatzera goazenean. Ez dozu hemengo txukuntasunaz bardintzekoa, ez holakorik, baina gustauko jatzu. Hasieran ausaz kortako sundatxoak sudur puntatxoan emongo dautsu. Kontuizu han, eskaratze zaharreko estramina ostean bertan dagozala beheiak eta txahaltxoak. Ikusiko zein politak diran. Asto Txiki be han mandio bazterrean egongo dozu. Bai, neugaz esne-iragotzaile kalera ebiltzuna bera. Oso mantzoa dozu. Harek gainean istarkilo erabiliko zaitu. Gero txarritxua, oilotxuak, txakurra eta katutxoak izango dozuz olgeta lagun. Gustauko jatzu. Etxea eta etxaldea batez be. Izeko Karmeleren mailukiak, baratzondoko sagarrak, handik beherantz ikusten dan errekaldea, basoak eta baserriak."

"Ugaran baserria guretzat maitagarria zendunarren, ez bide zendun hainbestean Olatxuko ulegorriarentzat. Bakoitzak berea maite, jakina, laztana, eta norberena izteko lilura handia-edo behar inondik, edozelan be."

"Zoritzarrez, egun haretan osaba Martinen Vespak ezin igon ahal izan eutsun Ugarango atarteraino. Bezperako euriak lizunegi ipini eutsun kaminotik harako bidea, batez be zubitik gorakoa Vespaz egin ahal izateko. Pentsau be ez dautsut egin gura zelan ibiliko ete ziran halako seinoritearen takoi luze puntatsuak hango basa bigunduan... Nik behintzat etxaldea garbitu-barri itzia neuntsun osaba Martinek esan eustanez, bada gonbite eguna zendun. Osaba Martinen txirrinduletako kopa saria be ondo disditsu itzi neuntsun goiko salako baldan "Premio Coca-Cola/ Criterium 1966" oinetan erakusten ebalda. Lora barriak salako mahai gainean, tulezko errezelak leihoetan, bisitariak Ugaranen be ganorarik ba egoela ikusi egian. Halan be ez neuntson itaundu osaba Martini 'zer eritxi jotsak ba?' edo holakorik. Zure amak badaki, laztana, halakoetan asko maitatu ezik, hutsak arinago ikusten direla beste ezer baino. 'Eta sukaldeari? Eta hormako kalendarioari zer eritzi jotsak?'"

"Hain zuzen be, sukaldean ohiko Ama Karmengoaren irudia barik,

ez dakitsut ze zerbeza markak osaba Martini-edo emoniko egutegian itzelezko neska errubia agertzen jatzun barrezka-barrezka. Amumak nabarmenkeria salatu eutsunarren, izeko Karmelek aldezle urten eutsun."

"— Itziozu, ama, Martinen andregai dozu-ta.

"—Ze andregai eta andregai ordeko?

"—Ez ba! Ikusiko bazendu zenbaterainoko antza daukan. Eukeni Olatxuko berbera dozu-eta.

"Amumak kendu eta izeko Karmelek ipini, tira-bira izan zendun. Tira-bira honetan Ama Karmengoarena ahienatu egin zan azkenik zeozelako egutegi beharrean, haxe zerbeza eskeinlaria gelditu jatzun."

"Amesak nonbait ahaleginak bafno goragotik ebiltzuzan eta Ugaran ez egotzun zerbeza marka haren einan. Ama Karmengoa, zeruko Erreginea dozularik be, apalagoa dozu beti be, laztana. Apaltasunez edo halabeharrez, osaba Manolo eta izeko Karmele pozik bizi dozuz gaurdaino Ugaranen. Batzuk kalerako eta beste batzuk baserrirako jaiok garella berez? Ez, laztana. Zoriak, heziketak eta halabeharrek egingo dautsu bidea harago edo honago. Zure amari kalea egokitu jakola, baina sustriak ezelan be ebagi edo ahaztu barik. Harro be harro naukazu Ugarandiko jatorri apalagaz. Bai horixe; Ane bestaldekoa Zabaleko buztarri edo taloburdineagaz baino harroago."

Ibargaingo plazea arratsalde Erdiko bakean edo nagikerian sartu da, eskolumeak etxera alde egin dauenetik. Orduak lehen baino be astunago jausten dira eleiz torrek alturatik, baserriko nekeari astiroko ritmoa markatzen dautsola.

Don Pedrok ardura barriak gogoratu dauz, antza, eleizpeko itzalean sartu danean. Haserako urduritasunak hartu dauz bere eskuak hitzaren lagun.

—Eta mendiko ikuskizunari gitxi baderitxozu, zatoz neugaz sakristiara eta bertan erakutsiko dautsut —Don Pedrok eleizako atea adierazten dautso Uhartzako abade gazteari, sarreran ur bedeinkatua eskeintzen. —Eleizako liburuak esango dautsue neuk baino hobeto, dana neure irudipena eta berbagurea dala uste ez daizun.

Abade gaztea une baten eleizako barne eraikintzaren egiturari begira gelditu da, haren handitasunak edo ederlanak liluratu baileuan. Harlanduzko eta gora bardineko hiru zabalgunek dira, herreriaren ertzadura darakuse harri urdinezko pilastrak.

Don Pedrok gozaro dakus abade gaztearen ederminak eta haren ikuspuntutik-edo ikustearren aldamenara hurreratzen jako.

—Zer deritxazu, e?

—Ba dakizu zer pentsaten nagoen?— Uhartzako abadeak goian joserik daukaz begiak.— Sinismen apur bat bagendu, eleiza zati hau Uhartzara eta Uhartzako elizatxua hona aldatu geinkezela.

—Zer?

—Arimen onerako dinotsut, Don Pedro. Hemen honen erdia eta

laurena be nahiko dozu eta han mezak uharitu beharrean gagoz, gendea ez jakulako kabitzen.

—Ea ba, mezen einean sinismena be uharituz eta handituz hatarako aina zareen.— Pikaro barrea dagi Don Pedrok.— Nire partetik ez dau-tsuet eragozpenik ipiniko. Kristinauek kalera lerratzea errez lortu dozue, baino harriok mugitzerik kostako jatzue. Neuk dinotsut, motelagoa dogula fedea, tentatzailearen ziriak baino. Ea ba, kaletarrok, probatu zuen fedea. Ibergaindarrak bere sasoiaren haulako eleizea jasoteko izan ziran. Zertarako dozuez orain zuen dirutza eta indarrak? Eukiak uharituala ez ete jaku ba sinismena urritu?

Don Pedroren hitzak sermoe galdua lez ahienatu dira eleiz-gangaren altsoan. Beheko zurak oinkada ezbardinak salatzen dauz sakristiara bidean. Sakristiak be eleizako harri beraren urdina eta gotortasuna erakusten dauz. Armairuen gaztaina baltzizkean sitzik ez dager. Don Pedrok liburu zabal bi atera dauz bertatik. Azalean Bateo Agiriak titulua daukana zabaldu dau mahai gainean. Orriak iduliz-iduli, eguna 1958 urtean daukala gelditu da.

—Hara —Hatzamarras adierazten dau Don Pedrok—, urte honetan hasten da Ibergaingo bateoen beherakadea. Eta ez uste gero hogetamaseiko gudearen ondorea danik.— Betagina ixurtu dau abade gazteari begira—. Ez da-ta, herrian bost gudariren heriotza jasan izan gendunaren.

Don Pedrok astiro iduli daroaz tinta baltzez idatziriko orriak, bizien historiak astuna baileukeen bere eskuetan.

—Lehen Eskola bete ume, Dotrinalekuak kabidu ahala ume eukiten genduzan. Dagoneko erdiak baino gitxiago dira —Sudurrak aztindu eta tamal ixurrez bete da Don Pedroren bekokia.— Honetara jotekotan, ez dakit noraino helduko garen, beherakadak gero eta urratz handiagoak egiten dauz-eta.

Orriak iduliala, izendegiaren azkenera heldu da, orriak zurian hasten diren uneraino. Don Pedrok zintzalako zizpurua dagi.

—Hara hemen azken bateatuaren izena. Bost ilabete dira ia bateatu gendunetik. Une berean bi hil jakuz.— Neke begiak jaso dauz Don Pedrok, inoiz baino be zaharkituago dirudi.— Zuek oster, ziur nago ia astero izango dozuezala kristau barriak.

—Ez hainbesteraino be, baina ziur etorkin barriak ezkontzen direneko, ez da urrun ibiliko kopuru hori. Kristautzen baino euskalduntzen behar gehiago emongo dauskue ziur— Uhartzako abadeak leihotik begiratzen dau, sakristiako itzituretik alde egin gura baileuan.— Baina baserriaren beherakada hau ez da kaletarren errua bakarrik.— Besoak gurutzatu eta sorbaldak mugitzen dauz,— Zeuk esango daustazu ezpa-be zer egiten dauen hor Erbieneko kofradikoak...

—Mutiltzarrak? —Txispa batek astindu ebazan Don Pedroren begiak.— Ez dot nik fundatu kofradi hori, ez dauke nire bedeindazinarik.— Arin baten Bateo Agiriaren Liburu itzi eta Eskontzen Agirikoa ideki dau,— Aitatu dozuzan horreek liburu honetan sartzeko nik egin

dodan beste ahalegin egin izan baleue herri honetako alabak edo eurak, beste kukuak joko euskun. Baina zuek oster be “ibarrera, ibarrera” soinuaz, kalerako zaleberatzen dozuez neskak eta horra ondorea...

—Bedeinkazino bako kofradia.

—Ze bedeinkazino gura dozu?— Don Pedro asaldatu samar jagi da, liburuak alkarren gainean hartu eta baldan sartu eta giltzatu dauz.— Ni kalera ezkontzen diren bikoteei kalerako oharrak egiten ia ohituegi eta aspertuegi naukazu. Nik baserrian baserrirako gura neunkez. Zeuk dakizu liburuon etorkizuna bata besteari lotua dagoena. Ezkontza barririk ezean, ez dago-ta jaiotza barririk eta jaiotza barik, ez eta etorkizunik.

—Orduan errua neskena dala uste dozu, Don Pedro, mutilena baino handiagoa —Eztalakoan be begia keinatu dau Uhartzako abade gazteak.

Don Pedrok ziria susmatu dau, bekarkara begiratu dautso abade gazteari, okotza luzatu eta hagin ertza erakutsi.

—Ea urrengon, txo, antzerki hoberik antolatzen dozuen.

—Herriko neskak Ibergainera ezkondu gura ez badaue, beste nonbaitetik ekarri beharko dira —Josta jokua jarraitu gura dau Uhartzako abade gazteak,— Gastelatik-edo... Entzunak dodaz hortik bertso barriak:

“Madriletik ei dator
neska bete autobus,
ugazabandre bana
mutiltzar enkarguz...”

—Bertsolarien ziriak dozuz. Hizparringietan be agertu izan dira hola-koak. Zera: negargarriekaz be barre egin gurea. Ez da ganorazkoa.

“Etxe pilotoa ikustera joan gintxatzuzan Zeharrolara Luis eta biok. Etxe hori zendun ba ezkongaietan genbiltzanon amesa. Zeharrola Ibarrola baino aurreratuago ebiltzun etxegintzan, bizitoki barrien eskabidea han handiago zendun izan be-eta. Aurretiaz ikusi gura gendun zetarikoa izango zan Ibarrolan be egiteko ziran bizitoki modernoa. Zeharrolako kale zaharra amaitu eta mendiko aldapea hasten dan unean zan etxadi barria. Bidean harria solte aurkitu gendun, Vespaz ostaz ibiltekoa jatzun, baina halako eta bestelako moto asko ikusi genduzan bertan aparkatu. Gendea, antza, ez hurretik be etortzun geurealako ardura berberaz, udabarrian txoriak habigintzan erabili ohi dautsuen lehiaz hurrean. Sapatudomeketan bakarrik erakusten zanez, ikusleen etorria hainbat handiagoa jatzun. Eta pisu pilotora igokeran, hara non ikusten dodazan goitik bera etozela Eguzkitzako Maite-eta.”

—Agur, Maite

—Ola, Agate

“Begirakume argia alkarri, baina, tokiaren estuagaitik eta behera eta gora genbiltzanon kopuruaren uhariagaitik, ez gendun beste ezertarako astirik izan. Elizburuko Anjel ostaz konturatu be egin jatzun, alkarren

ondotik igaro gintzazala. "Ako besteok be lumatan" ninotsun neure artean. Nor? Eta Elibuzburuko maiorazgoa kalerako amesetan! Haxe marka! Eguzkitzako Maitegaitik ez nintxatzun batpe harritzen. Maite barik be, Eguzkitzak ba daukatsu oinordekorik, baina non gelditzen jatzun Elizburuko etorkizuna Anjel barik? Seme bakarra izan eta bera kalera? Maite Eguzkitzakoaren gurariakaitik hatan be?"

"Dinotsudan etxe pilotoan ate beretik sartu behar gendun danok. Sarrerako korredorean ostaz gurutzatzen gintxatzuzan bi batera. Sartu gela batera eta hiru bikote ohe bateri begira bertan. Kontuz, ez ikutu ezeri. "Se ruela no tocar nada" agindua horman kuadrotzat eskegita. Ikusi ba begi biak ahal bestean, baina geldi atzamarrak. Aitatxo Luisek barre egitsun."

"—Hauskorrak dozuz, antza, gauzak hemen.

"Sartu eskaratz edo egontokira eta seigino begirale behe-mehaitxoaren inguru armairuak eta beste erredizak ikuskizuna alkarri eragozten geuntsola. Sartu garbitasuneko gelatxoan eta andregai danok espilu berari begira. Banenkusan eta ez nenkusan nik neure burua hainbeste arpegiren artean. Ikusi eta ezin ezagutu, neugaz batera konpetentziakoak ikusten neuntsuzan-eta."

"Sukaldea be ez zendun beste mundukoa, geure hau baino estutxua goa batez be. Nahiko argitsua bai, orduan behenipehin. Eguzkia izango dau hanean, honez gero aurrez-aur beste etxadi bat bera baino handiagoa jaso ez badautsoe."

"—Zer eristen dautsozu? —ninotson aita Lusi.

"—Estutxua; ez al da? Gure baserriak ikusi eta hau ikusi..."

"Jakina, oraindino kaleko doitasunera egin barik gengtuzan. Hiru gela, eskaratza, sukaldea eta bainua guztira. Bueno, ez dago txarto be, kaletik begiratuta, baina piloto-pilotoa deitzeko be... Behintzat ziur gengtuzan handik beherakorik ez heunskuela egingo Ibarrolan. Han larogei metro baziran, Ibarrolan ehun izango zenduzan. Jakina, langileen eskupekoan arauera, laztana. Lan be bai gero, aitatxok-eta hemen lan gehiago egiten dauelako fama da, eta, batez be, huelgarik egiten ez dalako."

"Eta hemen gozuz, laztana, kale zatitxo honen jabe eginda. Amu-maneko baserriaren laurena be ez dozu, baina hobeto uztiatua. Horixe bai. Ziur ez dozu gu amumanean izan gintzazan beste nebarreba izateko aukerarik izango, ohetxoak alkarren gainean-edo ipinten ez badoguz behintzat. E? Zer deritxazu?"

"Osaba Martini aipatu neuntson harakoan Maiterena-ta.

"—Ba dakizu nortzu ikusi joadazan etxe pilotoa ikusten?"

"—Maketoen auzo haretan?"

"—Maite Eguzkitzako-eta..."

"Irribarre zuria egin eutsun osaba Martinek. Burua mugidu eutsun batera eta bestera.

"—Bai, batzuk kalea maiteegi daue. Seinalea hango oletan ez dauela izerdi askorik bota.

"—Ez joat esan gura, beste barik, kalera ezkontzekotan dabizenik. Ausaz Maiteren ikusgurea izango zozan, ba dakik andrazkoak zelangoak garen. Edo Anjelek eredu ikusi gurako joan Elizburun egin behar dauezan aldakuntzak zelakoak eta norainokoak izan behar dauen jakitearren-edo..."

"Osaba Martinek arpegiune burlatiaz begiratu eutsun, buruaz hako seinu ezkorak egitsuzala."

"—Eta zeuok hara ezkontzekotan zagoze ala handik errekan bestaldeko lantokiak ikustearren, lanorduetan ezeze, atsedean aldietan be hango tximinien keak eta motorren zaratak entzuten egotearren?"

"Osaba Martinek musturra luzatuaz itxurgatu gurako eutsuzan harako pisu pilotoaren eder putzak.

"—Hobe barria egin handik aparte han gastau beharreko diruaz."

Martin lankideak ez dau entzun Andres lankideak albotik igarokeran esan dautsona. Martin lanari lotuegi egon da eta fresadoraren zaratak berak egin dau gainerakoa. Torlojua bero eta biribil erori da otarrera eta Martinek belarria luzatu daueneko, Andres Kale ahienatua da.

Betaurrekodun, txapel berezidun eta mahonezko praka nasaiekin Martinek ez dirudi Ugarango seme. Lantokiko hautsak izerdiaz naste haren arpegiari emon dautson ilunduraz nekez berezi daiteke beste etorkin edo kaleko langileen artean, lanean ezarten dauen leihan-edo izan ezik. "Huelga? Baina ze huelga dino belarri berotzaile horrek —dino Martinek bere kautan, tornuak bere ritmoa lortzen dauela—. Kaletorrok alogurari baino ez dautsoe begiratzen. Alogurea gitxi izango da, baina batzuk ahalegintzen diranagaitik... Gero besteok axatu, lana eten edo ritmo geldira behartu, produzinoa saboteatu daigun. Ze alde dago zuentzat lana eten ala esku batz ihardun? Ba egizue eguneko lau orduren etena egin dozuela."

—Ez dok arazo hori gaurko arazoa, txo!

—Bai, komune horreek zikinak dagoz benetan. Ez dira kristinau batentzakoak, nahiz eta zuek kaletarrok ez jakin baserritarrok oraintsu arte zelakoak euki doguzan. Begoz nigaitik komunok kalekoen pareko, baina zelan? Lehengoan egin geuntsuen ordu beteko greba. Eta zer lortzeko? Gero ordu beteko lana gitxiago kobretako? Udaraldian ez zala komunetara urik heltzen. Udalaren zera zala inotsuen ugazabak."

Martinen fresadoreari txirbil gorria dario txinpart eta guzti. Martinen eskuek erritmoz eragiten dautso palankeari, makinak jan ahala burdin emoten dautsola.

Ugarango Martini atseginagoa jako banazeko lana taldekoa baino. Ezin dau ikusi taldearen gerizean inor alperkerian. Urtzaileen arteko begirale edo tornua eskeini eutsoenean, lan lotuagoa zalarik be, tornua aukeratu eban ezbai gabe. Lotua bai, baina bai ta be besteengandik

askatua. Han ikusten da hobeto bakoitzaren lana. Bestalde lankideei baino gurago eban makinari eragitea. Lansaria bakoitzaren ahaleginaren einekoa balitz, mindurikatzen da Martin, ezin kontahala torloju otarrera jausten diren artean. Ez ete da zilegi nagusiaren irabasiaren partaide izatea? Edo nagusi horri ez ete dautso bakoitzak ze lan egiten dauen ardura? Bai, zeozergaitik aldatuko nindun makina honetara, bere irabaziei begira hareago nire sariari baino.”

Lanaren amaia jo dau sireneak. Lanari hasiera emon dautsan hots ber-bera izan danarren, bestelako festa giroa sortu dau langilegoaren artean, goizekoaren irrintzi lazgarria barik neska gaztearen karkara alaia baileukan.

Martin Ugarango Joseri itxaroten dago esku-arpegiak garbitu eta jantziak aldatu artean.

—“Oye, tú bien nos podrías servir de enlace con los euskaldunes” - Andres Kale inguratu jako Martin Ugarangoari.

—Bai ta zera be. Itxi naik baketan.

Martin marmarrean gelditu da bulkoak ahotik barik begietatik urteten dautsoela. Beste zerik ez banau be... Ez bagenki nortzutarikoak zaren, heu batez be...

—“¿Oye, cómo se dice huelga en vascuence?”

—Huelga? Huelga. Zelan izango dok ba? Baserrian ez diagok huelgarik, nausientzako behenipehin. Umeentzat izaten dok olgetea. Ez dok gurako geu hemen olgetan astea.

—“No, que hay otra palabra. A mí no me engañas, 'greba' o así...”

—Huelga edo greba, niretzat bardin da. Ez garela ekandu batera ez bestera.

—“Que no es lo mismo. Diciéndolo en euskera no lo entenderían los chivatos y sería mucho más táctico. De veras, tío. ¿No te das cuenta?”

—Esan barik be batzuk majo diakiet egiten...

—“No es justo producir más de lo que se gana; eso es.”

—Gana gitxi lanerako, horixe, txo. Bestelaz be esan eikean esankizuna.

—“¿Cómo dices? Es que no tenemos ni tiempo para entendernos. Apenas acaba el trabajo, os escapáis echando chispas, y así nos luce. ¿Por qué no quedáis con nosotros para debatir esto mientras tomamos un tinto?”

—Hobe dozue zeuok erabagitea. Gu gero be gehiengoaren eritxia-gaz geldituko gozuez.

—“Pero no es así como se hace la opinión de la mayoría.”

—Hor konpon, guk joan egin behar dogu.

—“Jode, a vosotros no hay quien os entienda! ¿No estáis acaso en el mismo tajo que nosotros o qué?”

—Ez uste guri nagusiak, herriko seme edo euskaldunak garela-ta, alogura gizenegoa emoten dauskunik.

—“No parece sino que queréis boicotear todas nuestras iniciativas.”

—Je! Nori ez jakok atsegin alogura gehiago eta lan gitxiago? Baina ez etorri gero makilea gure gain erakartera. Ala ez dakizue oraindino guk, euskaldunok, zuenak eta beste hainbesteko erruak daukaguzala txapelokerren aurrean?

—“¿Qué me dices, camarada?”

—Zuek langile soilak zareela, gu langile eta euskaldun: alde bitatik, beraz, susmodun.

—“¿Por eso de que perdisteis la guerra? ¡Vaya tontería!”

“Ni neu be kaletik nerabilan lanak ekandu nindun, laztana, egunero eta halako orduetan (goizeko seiretan) uda eta negu, baserritik kalerako bideak ibili beharrak. Goizeko freskurea uztiau behar zendun, udaraldian batez be, eguzkia konturatu baino lehen. Ezin zeinkezan eguerdi edo arratsaldean irago hareek esne kantxinak. Eta ez bakarrik bezeruari esne freskodun gozaria gertatzearen, zeneroan esne gordina mindu ez eitekizun, batez be. Bestela agur esnesaltzailearen amesak.”

“Eguzkitzako esneak Maite berak erkarten eustazan aldi baten, asto eta guzti. Osaba Martinegazkoak izan ebazanetik hara, Basilio etxejaunak berak erakarten eutsuzan. Maitek josle ikasketetan ebilelako iragarri eutsun. Negua ia gordintzen hasia zendula be esan eiketsun. Goizari aurre egiteko arpegia behar zendun. Maite Eguzkitzakok ez eukatsun nilako adore edo beharrizanik.”

—“Zelan konpontzen haz astookaz horko trokarroetan? — inostan Maitek—. Eta halako ilunetan gainera! Niri etxetik honakoak be bildurra emoten jaustan.

—“Behin iginez gero, ez diagon bildurrik. Beti don bardin. Arriskua hor trokarroetan barik, gainera, kaminoetan diagon.”

“Iluna eta lokatza bai gero. Horrek zenduzan trokarroetako arriskuak, baina astoek zeuk baino hobeto ekitsuezan une larrienak itzuriten. Bestetariko arriskurik ezagutu be ez. Etorkinen mundukorik esan gura dautsut. Zeharrola inguruan-eta holako zerbait gertatzen jatzun edo leitekizun. Ezelako kontrol edo garbitasunik gabeko etorkin mutil gazte asko pilatzen jatzuzan etxe zahar eta txaboletan. Ibarrolara bidean ostera, mendia bera zendun lagun.”

“Linternea eskuetan hartu, aitiaren egin eta asto biak aurretik zenduzala (Karmele izekoa oheko epeletan gelditzen jatzun kontuizu) “arre Txiki, arre Linda”, kalerantz abiatzen nintxatzun. Gure astoa Txiki, eurena, Eguzkitzako, Linda. Izenean ezeze, azkaian be, berea eukatzuen, Eguzkitza baserritik Ugaranera dagoen aldea. Gure astoak ostera, txikiagoa izanik, ba zendun harek besteko zama aterateko. Txikian oso fina bera. Ondo merezita daukatsuz oraingo oporrak.”

“Bideko nire lana? Basatzak itzuri, abiada bardindua zaindu, eta al-dapan batez be, otzaren albora edo altzera-kargak zaindu, txalma ta guzti, Lindak batez be, esneak atzekoz behera galdu ez egizan. Neuri ez

jatan jazo holakorik, baina txintxa edo uhelen bat apurtuez gero, ez litzaken bat be harritzekoa hori gertatzea.”

“Behin Iturrigorri gaineko larreraz gero, okerrena egina zendun. Handik aurrerako arnasea nasaiago hartzen zendun sikan. Muino ganetik begiratuta, Ibarrodoko kaleak, negualdean, oraindino bonbilen argitasunean egotsuzan. Ohean egotzuzalarik, bezeruei gozari zuria etorkien bidean. Ez uste lanik ez zala egiten Ibarrolan ordu hareetan. Ola aldetik zaratots zorgorak etozen eta maiz burdin goriaren distiraz argitzen jatzuzan inguruak hodeietarino. Gaueko langileen txanda azkena emoten.”

“Izeko Karmelek ez ekitsun halako ordu larriei lotu lana zer zan be. Olako turutotsak entzun bai, entzuten ziran Ugaran aldean, Zeharrolakoak, lantoki nagusiarenak batez be, (hegoaize biurriren laguntzaz bakarrik entzun zeinkezan Ibarrolako turutak) baina baserrian eguzkiaren orduetara ekanduak gengtuzan, behiak erasteen edo esnesaltzaileen zereginetan-edo izan ezik.

“Halan da be, ez uste, oletako turutak baserriar asko iratzartu eutsuzan ezordu gozo haretan. Aitita zanak berak esaten eutsun, turutok entzuten hasi ziranetik galdu zala baserriko bakea. Hain zuzen be, alkarren lehia eta euki gurea baserrian be orduan sartu zala esan gura eutsun. Baserriarrek be danari heldu behar eutsun aldi barriari erantzutearren. Aitita bera be hogetamabost urtekin ola lanera hasi jatzun etxeko beharizaneie aurre egitearren. Uste dot berea kostako jakola, etxeko zereginen alboan emon barik, barrietan sartzea.

“Ez eutsuen danak danerako balio. Osaba Martinek berak be gurago leuke baserri lana, diruaren aldean ezpalego. Hain zuzen be, zure aitita olara hasi zan aldi haretan kaleak jaurtineko, erdi morroi, erdi eskeko bat heldu jatzun gurera. Ugarango behiak buztartu eta soloak goldatzeko beste ba zala-ta, hartu egin geuntsun. Andres morroia zendun guretzat, beste abizen edo zehaztasunik gabe, euskalduna eta hirurogei urte ingurukoa. Ola lanean ibilia ei zendun, halan da be diruari ardura gitxi eutsuna bera, ardao zaletxoak bai... Behin olako makineak atzamarrean kosk egin eutsola-ta, berak mailuaz eraso ei eutsun makineari. Ez dakigu hagaitik lanetik bialdua izan zanetz ala berak alde egin eutsun. Zeozer izango eban, bada eskumako eri adierazgarria falta jakon gisajoari. Andres morroia isila zendun, agindurik ez eutsun eztabaidatuko. Ez eukatsun asko agindu beharrik be. Beheiekin-eta bakarrik egiten eutsun berba, goldaketan zala, larratzen eroazala edo azpiak ateraten iharduala. “Erdu ba, Gorri (Gorri hori Txuri hesi apurtzailearen ordezi erosi genduna zendun, harakoa buztarrirako putz-urtika, harro jarkitzen jatzun-eta), atzera, Apala, atzera, atzera. Zenbat bidarrez esan behar dotsut ba?” Itxastar berbakerea eutsun harean. Ez zendun genio errekoa, akuluaz-edo dana erabagitekoa. Behin bakarrik entzun neutson ezetz esaten, txahal nausiari arategirako ordua heldu jakonean, hain zuzen be. Txahala oinez eroan behar zan kaleraino. Andres morroiak ezetz,

bera ez zala horretarako. Ez neinkizu esango kaleari eutsun gorrotoarren ala txahalaren halako azkena ez ikustearren zan. Eguzkitzako Basilioek eroan behar izan eutsun, dana dala, Josetxu gureak makileaz atzetik laguntzen eutsola. Osaba Josek berak kontatu daizula halakoren baten ipiapan kaleagaz izan eban lehen harremon haretan... Esneak banatuta, etxera nentorrela, ez neutsun ba zortzi urteko ume koskorra Ibarrolako estazino ondoan asto Txikiri samatik oratuta erdi negarrez, edo negar egineko arpegiagaz aurkitu?”

“—Zer jasoten jatzu, laztana?”

“—Galdu egin naz.

“—Non itzi dozu ba, Eguzkitzako Basilio?”

Itzelezko zotinakin umeak negarriari emotson osterari be. Halako mazokadaz txahala erasteen ikusi ebanean, hanka egin eutsun, antza, dana bertanbehera itzita.

“—Zer uste hendun ba egingo eutsela txahalarari?”

“Eskuzapia atera eta mosu aldean garbitu neutson gisajoari eta gero asto Txikiren gainen etxeraino etortzen itzi neutson. Eskerrak kale gorrian asto Txikiren laguntasuna idoro eutsuna.”

Armin egunetan erlauntza erregina barriaren inguru zelairatzen dan lez, halan kaleratu da langilegoa “danak edo inor ez! El pueblo unido jamás será vencido! Herri batua inoiz ez zanpatua” hotsera. Bateren batzuk kantaldi barriko ahapaldiren bat ozenkatzen daue:

“Danak edo inor ez,
inor izatekotan,
danak edo ezer ez,
ezer egitekotan.”

Aurradan banaka batzuk doaz, zamaldak atzetik darraitsela. Kalea doan zubian luzeagotu egiten da langile zerrenda. Arronkideak alkarri eritsia emoteko uztiatzen daue.

—Ordu berean izan behar jok, Forjasekoak beste zubitik doazela, plazan danok batera sartzekotan.

—Egurra emongo jauskuek lehengoan lez.

—“No es huelga, sino una manifestación.”

—Asko ardura huelga ala manifestapena. Gristapoei bardin jautset. Ikusiko dok; zuhur ibili. Hemen batzuk majo jakiet axaxatzen, baina narrutik hartu behar dan orduan ez dozak ikusiko.

—“Que no nos pueden hacer nada, jode! Porque no hay motivos laborales, sino de higiene.”

—Bai, komuneko zeragaitik. Hareek izan joaguz orain arte parlamentu bakarria nagusiaren kontra inon direnak eta bi esateko eta hara nagusiak orain mokordoen kortea biurtu jauskuk.

—Egia! Orain ezin lei konsignarik ikustera be joan hara, sudurrak itzita-edo izan ezik.

—Zera egiteko oinak non ipinirik be ez jagok-eta...

Lerroan atzendu direnak pausoa leihatuta daue taldearen babesa idoro nahirik. Batek ez daki aurrenak ala atzenak jaso leikeen erasoaren mardo.

—Ta zer ohiukatu behar joagu ba herriko plazan?

—Horixe: “Ez gara komunistak, beraz komune hobeak guretzat!”

—Ez jagok txarto be esanda. Uju, estarria prestau behar joat.

—Ez joek danak esango hori.

—Direnak bestela esan daiela: “Gu komunistak gara, guk komune hobeak gura!”

—Aukeran, aukeran, benga! Ez gara komunistak...

—Ixo, txo, harik eta konsignea hartu arte.

—Zer? Ikasi daiela euskerazko konsignak ipinten. Nik euskeraz edo bapez!

—“Os llamamos y no quisisteis acudir.”

—Beti zabizeelako erderaz.

—“Primeramente hay que comer...”

—Bai, eta gero komune garbiak para descomer.

—“Antes es la gramática parda, que la vasca.”

—Ez jauskuek ulertu gura eta gu eurak beste eta gehiago gozak puntuak ipinten edo sloganak asmatzen. Zer ba? Ez ete dioagu eskubiderik ala? Politenak asmatu eta eurak ezetsi. Gainera iraintzat hartu.

Martin Ugarango apur bat aurreratu egin da Manolo gaileguaren limurkeriak ihestearren. Martini ezinik, Manolok Jose Ugarangoari itauntzen dautso euskeraren barri.

—“Con que “la comune” ejeje! No sabía que así motejabais en vascuence a los comunistas.”

—“No, que no es eso.”

Zarata handiak datoz plaza barrutik “el pueblo unido, jamás será vencido” arrenak indartzen daue manifestapenaren batasuna. Bidean edo sarreran eragozpenen bat aurkitu dauelako seinale.

—Alkateari eskabidearen agiria emotekotan bada, zertan joan behar joagu danok Udaleraino?

—Bai, txo, joan beharra jagok. Ez dok bardin komisinokoak bakarririk edo danon laguntzaz indartu joatea. Geure berotasunez lagundu behar jautseguk, mogidu daitezen.

—Berotasuna esan dok?

Atzera pauso dagie aurreneko langileak, altabozetik elektrizidadearen durundi sarkorraz “despejen inmediatamente la plaza” entzun dauenean.

—Horreek emongo jauskuek guri berotasuna.

Plazako beste atean Forjaseko lankideen laguntza barik, grisen makilea idoro daue. Besoz-beso tira-bira eta oldar hotsak errepikatzen dira.

—“Despejen!”

—“Pueblo unido, jamás será vencido!” Pueblo unido jamás será vencido...”

Abotsak makileak baino gehiago dira, baina makileak sartatzaileago,

konsignak dakarren adorea makilei aurre egiteko ez da nahiko. Komisinokoak Udaleko ateetara aurreatu diranean, hasi da zarraparrea. Orduan arrapaladak, atzezkoak eta hegalezkoak, orduan konsignak ahaztuta behin-behingoak oihukatzea: “Asesinos! Hijos de puta!” Plazako sarreran kabidu ezin ahalako jendea multsotu da sartu ala urten ez dakiala. Golpeak eta irainak. Jose Ugarangok ez dau ahorik be idegi, baina poliziaren makilea gaintik ikusi dauenean esku biekaz gorde dau burua. Zori-tzarrean baina. Ezkerreko eskuturrak jaso dau buruak itzuri dauen zartatekoa. Buruari be beretxoa, antza. Jose Ugarango beso eta esku biekaz burua gordeka kiribildu, lurrera jausi da. Jendeak polizien-gandik ihez dagi ahal dauen tokitik. Manolo gailegua laguntzera joan jako Jose Ugarangoari. Lankidea lurretik jasoten ahalegindu da, polizien makileari txakur errendituaren begiak erakusten dautsozala.

—“Sí, señor, pero este chico se marea.”

Makileak laga itzi dautso, Manolok zutundu ahal izan dau Jose, ez daki nora jo. Hegaleko ate ertsidi batetik andre heldu batek laguntza opa dautse mutilaren bekokia odolduta ikustean. Manolok hara bultzatzen dau Jose Ugarango. Andreak bekokiko odola garbitzen dautso.

—Jesus ba, zer ikusi behar dogun!

Ez dager zauri handirik bekokian. Jose eskuturrekoagaitik mindurikatzen da. Ez da besoak batabestengandik banantzeko, ezkerreko harek eskumearen laguntza behar dau-ta. Andreak buruko paineloa askatu, korapiloa emon eta samatik bertan dindilik ipini dautso beso zauritua.

—Zoaze hortxe, maternidadeko klinikara, ondo hartuko zaitueze-ta —dinotse andreak.

Manolo gailegoak beste besoa samatik buztarrian hartu eta arkupe-rantz erretiratu diren polizien bekaina jasanik, aurrera dakitso andreak adierazi dautsen kale kantaletik.

Zuriz jantziriko neska batek txera handiz hartu dauz.

—Hauxe be bai e? Medikiak konpondu behar huelgako okerrak —agirika egin dautso eskuturra aztatu dautson brusa zuridun gizonak.

Jose harritu egin da medikua euskeraginen entzutean. Medikiak plaka bat aterateko agindu dau. Jose behingoan zuriz jantzitako neska biren artean gelditu da, gela apartera daroe, Manolo ateetan begira-begira gelditzen dala.

—Gorriak ikusiko henduzan ba —Gaisozainak ahalik bigunen hartzen dautso beso zauritua Joseri

—Nik grisak bakarririk —Haginak estutzen dauz Josek.

—Nortzu zirela uste hendun ba?

Ama agirikaren soinalakoxea entzun dau Jose Ugarangok. Burua jaso eta irrino batez argitu dau arpegiunea.

—Bixenta, zu hemen?

—Zer ba? Heulako baserritar bateri tokatzen jakonerako prest egon behar — Bixentak arpegira begiratzen dautso.— Hemen ez dok agertu behintzat beste zauriturik.

“Ez neuntsun esan nik, laztana, gurean zoritxarrak zoriona dakarrela eta zorionak ostera, zoritxarra? Zer jaso jakon ezpabe aitita zendunari, gudean balaz zaurituta gelditu zanean? Berebiziko andregaia aurkitu eba-la ur irakinaz zauria osatu eutson etxeko alabagan. Martin osabeari ostera, dana bestalaz. Kiroletako garaipenean bera eta lore emoile neskearen zaputsak bertan. Argiak iluna dakartsu, ilunak argia.”

“Jose gurea, beso batatz bestea zuritan lolo ekarrela etortzun, amatasunaren klinikatik ume jaio barria-edo bailekarren. Iheltsu gogorrean ondo troxatu ekartzun bai beso zauritua, baina bera pozarren.”

—“Hile beteko huelga lortu jonat.”

“Eta ni kaleak ostera be, “qué te pasa, chaval?” harakoan lez, kaleak ostikadaren bat emon ete eutson gure Josetxuri. Josetxuk ez ekitsun tutik be erderarik harakoan, Eguzkitzako Basilioagaz txahal nausia saltzera joan zanean. Txahalari jaso jakon azken larriarren, ba diartotsu Josetxu negarrez eta kaletar neska batek ba dinotso:

—“¿Qué te pasa, chaval?” eta Josetxuk, mihina aterata, musin neska-toari: —“Zenbat pisau txahalak? Itaundu hori Basiliori.”

“Oraingoan Jose gureak euskaldun neskea aurkitu eutsun eta, antza danez, hobeto alkar ulertu eutsuen. Bixenta Uharkako zendun oraingoan zauri osatzaile. Amumak apurtuak eta galpenak baino ez ekusanarren, bera, Jose gurea, pozarren.”

—“Eta ilebeteko alogurak, seme? Eta klinikako gaztuak?”

—“Hori sindikatoaren arazoa dozu, ama.”

—“Ez joak ezagutzen mesedea horren dohan egiten dakian santu hori.”

—“Ez dira altarekoak, izan be. Uharkako Bixentari sor dautsazu arikulu hori.”

“Balseorako pauso bi emon eutsuzan Josek alborantz, beso zauritua lastanduz, garria apur bat biratzen eutsula. Amuma Joseren buruko zauriaz arduratzen hasi zan orduan. Ea medikuak uste izan baino zartateko handiagoa hartu dauen gure mutilak eta zorabioak daukeen.”

“Gauzea hobeto azaldu zan hurrengo domeka arratsaldean Uharkako Bixenta bera Ugaranen agertu zanean. Arteetan noiz ikusi gendun ba Uharteko Bixenta etxe inguruan? Behin edo behin eta beratan eskolumea zala, abadearen dotrinako errekadoren bat-edo ekartera.”

—“Zelan daukak eskutur hori? —Atzamarrak aztatzen eutsozan Bixentak Joseri.— Minik bai?”

—“Negarrik ez dausku egiten behintzat...”

—“Zer dinok? Ea mobitzen dozakan. Horrela; orain banan-banan.”

—“Negarrik amumak...”

—“Ostera be? Zer uste dok ba? Adindua hazela-ta edozein ume edo gaisori zor jakon jarraipena deskuidatuko gendula? —Bixenta Uharkakok gaisozainaren ezeze medikesiaren eskubideak ekartsuzan.— Minik ez daukeela-ta, kapaz dozuz heurok edozeri oratzeko. Geldi harik eta esan arte; zigorra ezpabe...”

“Uharkako Bixenta gaisozain edo medikesia baino gehiago zendun:

lagun ona. Nik artean ez neuntsun aintzat hartzen harako eskola lagun apala. Eta eztalakoan be, baserri alabak gaisozaintza egina eutsun eta ohidalezko alogura irabasten eutsun.”

—“Beste askori ez dakit, baina niri euskerak balio izan daust behintzat —aitorten eutsun Uharkako Bixentak.”

”Zeuk be euskera ikasiko dozu, laztana, ez bakarrik Uhartzako Bixenta legez gaisozain izan ahal zaitez, edo andereño, etxeko alaba zaitugulako baino. Gurago neunken bestaldeko Ane Zabalek Bixenta Uharkakoaren aitortpena entzutea. Halako baten esan behar dautsat: euskerak ez dauela ezertarako balio? Ba nik Zeharrolako amatasun klinikari ezagutzen dautsut gaisozain bat eskerrak euskerari postua lortu eutsuna. Nor hatan be? Uhartzako Bixenta. Jose gurearen andregaia eta, Jainkoa lagun, laster zeure izekoa, laztana. Karmele edo Pilar izekoei ezer kendu gabe, ikusiko dozu Bixentaren aparteko txera. Zuk lagun batzuei dana ipini behar izaten dautsezu: irribarrea eta eskua eta halan be ostaz lortzen dozu euren ederretsia. Bixenta Uharkakok irribarrea eta eskua ezeze, bihotza ipinten dautsu aurretiz. Haregazkoa edozelan be ona baino ez.”

“Zoritxarrean baina, bai zoriona idoro eskula gure Josek. Beste hainbeste suertatu izan balitxakon osaba Martini haren barruko zauriak osatzeko. Baina nonbait zauritua andregaitzak eukana bera, Olatxuko Eukeni, izan jatzun. Ipuina ala egia ez dakitsut, baina bien arteko zera eikezu gauzeari antzemotearren, bada behin Olatxuko neskato ulegorriari otsoa agertu ei jakon. Ez eban izan behar dana guzurra be, bada susmogarriak egin jatazan harako guanteak. Baserritar alaba eta guanteekin? —nekitson nik neure artean— Zer ba? Iguin ete dau beronek kortako abereekin-eta gabizanoi eskua emotea? Horren latzak ete dira esnesaltzailearen eskuok? Ez holakorik, laztana. Zauriune nabarmena ei eukatsun eskumako esku-larrian. Otsoaren haginkadea hurrean.”

“Behin neguko arratsalde eskerga eta goiz-ilundu horretariko baten, bestetan legez Txanogorritxoren uniforme ta guzti, Zeharrolako monjen kolegiotik bizikletan ei etorren Olatxuko neskato ulegorria. Burdinolako basora heltzean... (Izeko Karmelek Forjaseko burrian dino, eta egia esan, berak nik baino hobeto dakiz Zeharrolako eta hango langilegazko zehaztasunak) Ba etorren Ertain Ikasketetako eta Gabon aurreko diplomea boltsan ekarrela trin-trin bisikletari. Haxe lehiaketa galgarria Otsoko eta txanogorritxorena! Eta Forjas uneko burrian non otsoak aurrea hartzen dautson, hantxe bakardadean.”

—“A ¿dónde vas tan de prisa, Caperucita?— otsoak.”

“Telebistako otsoek oraindino ez dautsue euskerarik ikasi, laztana. Harakoa be erdalduna izan behar zendun. Olatxuko Txanogorri ez jatzun bape uzkurtu halako loxintaz.”

—“Quitate de ahí, feo, más que feo —esan ei eutson abiada galdu barik.”

Jakina otsoagaz kataplun, topo egin eutsun, ia ez atzera eta ez aurrera. Otsoak ea non eroan amumarentzako azkaria, Txanogorrik, berak ez eroala ezelako azkaririk, noten diplomea bakarrik. Otsokok Txanogorri kolkoa errekestatzen, Txanogorrik berari oska; Otsokok gonak jasoka Txanogorri, Txanogorrik atzimurka Otsokori. Otsokok Txanogorrigaz ezer ezin egikeala ikusi ebanean, koldarrak halakoak dza, haiztoa aterata, betaurrean ipini ei eutsun haren punta zorrotza. Txanogorri bildurtu? Haiztoari punta-puntatik oratu ei eutsun. Ai ena! Baina haiztoak oska esku barruan, zauria bor-bor. Odolak eta Txanogorritxuren ahuenak Otsoko beraren hagin ustelak salatzen ebazala ikustean, Otsokok alde egin eutsun. Olatxuko gurasoak etorrita Txanogorri mindua jaso eben eta medikuagana eroan. "Eskerrak diploma hau ohostu ez daustana" esan ei eutsun Txanogorrik. Otsoko basora ihes eginda, oraindino ez ei daue oratu ehizariak."

"Ikusten dozunez, ipuinak danetarikoak dozuz, laztana, batzuk mingarriagoak besteak baino, gitxirenak pozkorak. Jainkoak libra zaizala edozelan be Txanogorritxorenalako ipuin gaiztoetatik eta hareago txarto kontatzen dakiezenengandik, Alfabetatzeko Erakundeko mutilak esango leukenez."

6

Don Pedrok Uhartzako zinean sartu eta abade zaharraren sotana baltza dagoen unera jo dau. Bere Dotrinalekuko aretoak baino jesarleku hobeak daukazala ohartu dau.

—Jo! Honek, honek jesarlekuak —agur dagitso parroko zaharrari.

—Ola, Don Pedro —Bere ondora gonbidatzen dau parrokoak.— Jesarlekuak? Bueno, hawaitik hemen sarrera kobrau eginten dogu.

—Nire sotaneari errespetoa izan dautsoe beheinipehin.

—Horixe falta jakun, geuk mesedea egin eta geuri be kobratzen has-tea. Gu...begirale.

—Ea gazteak zer dinoskuen.

—Baina ez aurreragi be, antzezleri edo kantoriok geure ditadora ez dagozela emotearren (egon be ez gagoz-eta), eta ez atzeregi be, hemen esan eta egiten danak arduratan gaukazala ahaztu ez dagien.

—Gazteak badakizu...Alboko larre berdeetara jo ahal badaue, haraxe beti be, larrebehiak lez.

—Zetariko larreak dinozuz? Asaskatu daitezela gaurkoagaitik. Uhartzako abade zaharrak eskuzapiaz betaurrekoak garbitzen dauz, sudur puntan ipini aurretik. —Ez daiela esan beti sotanapean daukaguzala. Ia oinez ibilteko adina daukee, euki be.

—Adinaren adinako zentzuna baleukee!...

Gaztediaren zarata artean antzokiko teloa urratu eta norbait entzulegoari ongiatorria emoten hasi da. "Baserri Gaztediaren izenean" dino—. Uharrizta, ohiko baserria, erdi baserri eta erdi kale biurtu jakunez, gaur baserriak eta kaleak biderdi egin dogu berton, bakoitzak daukan alderik onena alkarri opa ta eskeini ahal izan daiogun...

Euskeraz esana bera erderatzen dihardu jarraian, ez Don Pedro Ibargaino parrokoaren musinik gabe.

—Ta erdereza darabilzue Euskal jai deituriko?

—Pentsa eizu, Don Pedro, hemen ez gagozala Ibargainen.

—Bestela itzi be ez neuntson egingo erderarik egiten.

—Ia erdiakino erdaldunak dozuzala, kaletarrak batzuk, etorkinak gehienak eta eurak be euskera inguruan sartzearren dala.

—Bai, bai, zoritxarrez halan da, halan da —Don Pedrok ondo damutuaren tamalez mogitzen dau burua.— Baina ez nenkizun, halan da be, erdera eitekenik gaur kaleak baserritarroi opa dauskun alde onenatarikoren bat...

—Ez esan holakorik, Don Pedro —Apal eta ahalik gozoez dihardu Uhartzako abade zaharrak—. Gure Aita San Inazioren esankizuna ohartu behar zenduke, gaurko euskaldunontzat esana dozu-ta: “eurenagaz hasi hasikeran eta geurera ekarri azkenean”. Hagaitik hemen erderaz egiten dana be euskeraren alde izango dozu.

—Hala bedi.

Aurkezlea joan eta handik laster kitaradun bizardo bat agertu danean gaztedia txaloka baten hasi da. Idoloen bat daue nonbait. Ez da izango “Los Brincos” edo “Los Bravos” eratako eta Telebistak maiz haizatzen dauezenetarikoa, euskeraz abesten hasi da-ta:

“Gure baserri kaletan
gauzen aldatze unetan,
kinka larrian dagozan
balore zaharrak zelan gaurkotu
gabiltz balore barritan
gazteen moda heinetan.”

—Ardao barria zaragi barrian, esaten jako horri —daragoio Don Pedrok aldamenekoaren belarrira.

—Edo gaur, Aita Santuak-eta dinoenez harako “aggiornamento”. Hor dabiltsu gure abade gaztea be.

—Aggiornamento edo gaurkotze horretan?

—Bueno, bertsoginen, esan gura dautsut.

—Bertsolari? Ea, zer dinon...

“Pinu baltzez baserriak
ta erdaldunez kaleak,
oratu gaukaz larriak,
etorkizuna zelan argitu
gabiltz euskaldun genteak:
salba daiguzan bi-biak.”

—Hor bai aitatu dauela inpernuko katua —murduskatu dau Don Pedrok—. Ei, inpernuko katuak pinudirik pinudi prozezino baltzean hasten diranean!... Eta erdaldunak kalerik kale euskera ito beharrean!... Don Pedro kantagaia hasten danean bakarrik isiltzen da. Begi-

belarri adi dago mezuaren ispirik ez galtzearren.

“Jo batean ibarrera,
bestean mendi aldera,
frente biotan da gerra.
Aurre egiten, ostea gorde
gudari onaren antzera:
gaurko gudari bait-gara”.

—Jo! Ausarta, ausartegi —Ukondoz jo dau Don Pedrok Uhartzako parroko zaharra—. Ba dakizu, berba horrek ze konotazino daukan?

Gaztediak txalo eta uju iraunak Don Pedroren maizeatzea eragozten dau, aldamenekoaren belarrira urreratu behar izateraino, egin be.

—Nahiz eta berbeta gordintxo, ondo dagola!

—“Gudari” esan dauelako?

—Baten batek entzungo baleu, dinotsut, ba...

—Ez uste, izan doguz gorabeheratxoak gobernadoreagaz... Guk informe onak bialtzen dautsoguz beti be..., baina, antza danez, maiz gazteok, letra batzuk daroatsuez zentzurara eta osterako beste batzuk gero eleizpera...

Ikusentzulego gazteak txaloka bizian darrai, “gora Euskadi askatuta” eta bakanduago “gora Euskadi sozialista” ohiukatzen dauela. Helduen begirada konplize edo larrituak ohiu debekatuon unera begiratzin dau.

—Horixe, iraultzaile onak eleizpean— maizeatzen dau Don Pedrok.

—Gure Baserri Gaztedikoak konfiantzakoak dozuz —zihurtzatzen dautso Uhartzako parrokoak.

—Eta besteak?

—Ze besteak?

—Konfiantzakoak ez direnak... Horreek euren iraultzarako eleizaren babesera erabilten dautsuenok.

—Zeharrolako komunistatarikoak-edo... Batek badaki ze gente modu inguratu jakun Euskalerrira eta geure Euskal Jaira bertara.

“Hitzaldi batzuetara gonbidatu ginduzan abadeak, Uhartzako abade gaztea hizlari agintzen euskula. Gure abadeak, ohi legez, neska eta mutilen hitzaldiak talde banatan izango zirela uste eutsun: goizean neskentzat eta arratsaldean mutilentzat. Ni ezinean gelditzen nintxatzun.”

—Zelan goizean, jauna, ni arratsaldera arte ez naz libratzen-eta.

—Etorriko da beste norbait zuenetik, ez ala?

Uhartzako abade gazteak jakin izan ebanean, ezetz esan eutsun, bera ez etorrela goizean eta arratsaldean andana bera botaten. Hitzaldiak baserriko gazte guztientzak zirala eta olako lanak amaitu ostean izango zirela gainera. Bera baserriko arazo orokorrak azaltzera etorre-

la bakarrik eta ez seigarren aginduko betebeharrak azaltzen. Hatara baletor be, gurago leukela, neska-mutilak alkarrean hartuta egin. Don Pedrok ez eutsun ezezkorik esan. Eleizako gaiak be ez ziranez, ausaz ontzak emon eutsun neska-mutilok hitzaldietara alkartu joatea.”

“Baina eleizako gauzetan ez zan horrela izaten, marialabak eta luis-tarrak aparte baino. Behin agirika galanta egin euskun gure abadeak, marialaben eguneko kantaldian moteltxo ikusi ginduzala-ta.”

“—Ez dakit zergaitik, baina luistarren mezea abestera zatozenetan zoliago abesten dakizue. Zer ba? Andre Maria baino gehiagotzat ete daukazu Luis Donea?”

“—Ez, jauna —erantzun geuntson lotsa gorritan.

“—Zera... Sortzez Garbiaz zuhaitzetako orriak be jausita egoten jatsuz-eta... —Arantzea atera euskun Josune Tabernakoak.

“—Bueno, bueno... —Adarra joten gure abadea.— Eta Sanluisez barriz kereixak helduta, ez ala?”

“Estulka ekin geuntson zati baten kereiz azurra saman gelditu izan balitxaku lez.”

“Jai handietarako beste gazte gende batu gintxatsuzan Uhartzako Baserri gaztediak antolatuturiko berbaldietara. Olara ebizen moto eta txirrindulak be han agertu ziran. Uhartzako abadeak sarrerako aurkezpena egiten eutsun eta gero Baserri Gaztediko mutil bat aurreratzen jatzun baserriko aurrerapideaz-edo berba egiten. Horixe zendun ba osaba Martinen ardurarik biziena: baserriaren aurrerapena, nahiz eta bera ola lanetan sartuta bizi: lanabes, makina barrien teknikak eta hazi aukeratuen onura, pentsuen salneurriak... karuak beti be baserriarontzat. Zer egin? Baserriarrok geure interesei batean erantzun ahal izateko, alkartu beharra geunkala, inork ipinitako prezioen menpeko gura izan ez bagendun. Eta esneak? Hor zendun ba nire gizona. Bitartekoen lukurrerari aurre egiteko esne-kooperatibak aitatu eutsuzan harek. Kooperatibak? Ni ez nengotzun inongo kooperatiben aurka, baina nere kasuan nongo kooperatibak emongo eustazan niri bezeruengandik eskura jasoten neuntsuzan txintxinak? Baina batez be, ez eitezela etorri esnesaltzaile partikularron garbitasuna eta higiena dudatan hartzen. Zer higiena hoberik esnearen osotasuna baino, bere bitsak eta gantzak aldean daukazala? Ba genkitsun behiaren esnea gizakiontzat egosita hartzekoa zana. Zer zendun garantia hoberik harako esnearen gorakada apartsua goizero ikustea baino?”

“Etxeko higiena eta ekonomiaz hitzaldi berezia emon euskun Baserri Gaztediko neska-monitoreak. Oraingo detergente eta lixibagarriak direla-ta ez gendun eztabaida gitxi sortu Josepa amumaren eta haren alabak gozuzan izeko Karmele eta bion artean. Garbitasuna bai, baina betiko xaboiak gurago amumak. Xaboi haustuak edo xaboi hautsak es jatzuzan bere gustokoak, karuagoak be baziran-ta, batek jakin tontoen lepotik dirua aterateko inbentuak ziran. Higieniaz ez dakit, baina eko-

nomiaz ez eukatsun berak asko ikasi beharrik. Hori zendun ba bere alderdia. Amumak dana ipinten eutsula ekonomiari begira, ekonomia barik, diru-aurreratzea esaten eutsola, higieneari barriz, garbitasuna.”

“Neska monitoreak umeen garbiketaz eta heziketaz neskoï banazean berba egiteko prestatu zan. Hara ba mutilengandik banandu osterara be, eta ez abadearen aginduz, andrazkoen zera zala-ta bakarrik baino. Azpi barre eta txutxuputxu gitxi ez geuntsun egin orduantxe neskok. Baina pentsa eizu, laztana, orduretik dakitsuzala zure amak umeen dietetikan-eta dakizantxuak. Zer deritoxo? Ez ete zagoz konforme nire ahi ta popatxoekaz? Dendako potetxo gozoak be erosten dautsudaz, ez uste. Baina nik eskuz eginean bihotz gehiago ipinten dautsut. Astia be sobera daukat-eta, baina hementxe, zeure ondoan. Sarritan dendara be ez noatzu, zeu bakarrik ez iztearren, ni kaletik nazela, zeu itxartu eta bakardadeak larritu ez zaizan, laztana. Ez zindukedaz negarretan aurkitu gura, etxera etortean. Hurrengoan popoan hartuta, ahi potetxoak saltzen diren dendara eroango zaitut, onenak aukeratu daizuzan. Jaki-na, hatarako gurditxoa erosi behar dautsudala aurretiz. Ba dautsut begiz jota bat hor aurreko dendan. Erosi egingo dogu eta zuk popoan ibiltzen ikasiko, nik atzetik bultzatzen dautsudala. Amak, apapa barik, eskutik lez erabiliko zaitu, “euki eistazu mesedez umea une baten” edo inori eskatu beharrik ez dautsut izango. Eskuak libre daukazuz horrela errekadu bata edo bestea egin ahal izateko.”

“Popoa lau gurpilekoa dozu eta ez harako esnetariarena lez, gurpil bikoa, gurpil bi eta tentekaria aurretik. Lau gurpileko gurdiak ez dautsu tentekariaren beharrik, berez dagotzu-ta, ez eta indarrez bultzatu beharrik, ardatz finekoak dozuz-eta. Galgea bai osterara, aurberetan-edo berez aldendu ez dakizun. Esnetariaren gurditxoak beheregi eukatsun partikea, larregi makurtu beharra izaten zendun. Popo horrena osterara, eskudela lez diatortsu bera garriaren pareraino. Ha burdinez eta trauskil egina zendun, trauskil baina sendo, hau txapa distiratsu arinaz. Zuk daukazun pisutxurako ez da gehiago beharrik.”

“Eleiz Kaletik paseatuko zaitut, Ikastolara doazen umeak ikusi zaizkan zeure popo barrian. Eta adarjotzailereren batek, harako esnetaria ezagutu eta deskuidoan “zer? Salgai ala” esango baleust, esan, “ez eta bezerurik eskuzabalenari be” erantzungo leuskio zure amak”.

Zeharrolatarrak “Forjaseko Toberariak” deitu taldea dakarre Uhartzako Euskal Jaira, beste erakusgarrien artean, zahar eta barri, esker eta eskubi, euskal arloan danetik agertu daiten.

Ekitaldiaren aurkezleak dinonez, toberak aintzinako eusko langileek (errementariak hain zuzen) euren errebindikapenak egiteko erabili ohi eben deiadarra eta kritika ei zan. Eleizak eta herri agintaritzak baztertu eta debekatua izan ei zan hori dala-ta, euren izenak irri kopletan ez entzutearren, hain zuzen be. Hara ba ohitura zaharrak berbiztu-

teko unea eta Forjaseko Toberarien eskutik oraingoan. Mailua eta ingudea alde batetik eta luzera ezbardineko barrena dindilkariak karilonaren akordealakoak jotzen dauez sasi kanpaien antzera, batzuk zolia-go, besteak ozenago, parroko eta monjen komentuko joaleetara bailebiltzan.

—Konturatu ete dira gero eurok, harako eleizak baztertuta, dinonez, gaur eleizako zinean barrizten diharduela —Don Pedro zuhur dago, badaezpadako edozein aipamen egiten dala, aztertzekotan.

Burdinotsa une batzuetan, baserritarrak zurean asmatu txalapartaren antzera doa ritmoa janala, uholde batek bestea baileroan, belarrietan zurean asmatua baino latzakoa harean.

Burdin ekitaldea amaitzean, bizardun koplariak beralako lazdura damotso abeskaiari:

“Euskalerri, Euskalerri,
zure deira gara etorri!
Nork kontau zure izenean egin
diren hainbat astakeri?”

“Astakeria” aditzean, belarriak zuhur, baina gogoak zurtz gelditu dira, ea zer letorken begira. Ba dator, badator... Hizparringiak eta irriak esaten ausartzen ez diren egia garratzen bat dator. Burdinotsa gozatzen doa apurka-apurka kantariari bide emotearren. Halan da be, Uhartzako parrokoak ez dau entzuten Don Pedrok belarrira maxeatzen dautsona.

“Nahi dogun askatasuna
ez gerrera ta ez sotana,
hondatu egin dauskuelako
asaben euskaltasuna”.

Barrena txikiak monjatxoaren mezarako dei kanpaiaren lehiaz darrai. Uju batzuk entzun dira, “Gora Euzkadi askatuta” ohiuren bat estulen artean.

—Ausarta bizardo horixe, eleizpean eta parrokoaren aurrean esan dauena bera kuartelean edo edozein furrielen aurrean esateko balitz. Txo! —Don Pedrok eskuak astintzen dauz abeslaria salatzen, ujuak eta txaloak artean direla.— Soldadutza egin izango haz ba. Ez joat uste eleizako prozezino askotan desfilatu doanik...

Mikrofonoaren bolumena nausitu da, kantaria berean hasi danean:

“Bibliako letretan dago:
Urkoaren bekokiko
izerdiz oreto ogirik
ez dozula dohan jango.”

Oraingoan gauzea entzulego zati baten belarrira ezeze, gogotara heldu da, txaloak dinoenez. Hara Forjaseko Toberariak langilegoaren burua ateraten. Kantariak Forjaseko sutan sartzen dau burdinen durundua, jendearen gogo gogitu nahiez:

“Baina Bibliak itzita,
geure kontura jarrita,
urdail gizenak hazi daroetz
eurak ardoaz bustita”.

Ujuak, txaloak, “gora Euskadi Sozialista, Gora Euskadi askatuta” ohiuak. Gendea galda-galda dago, abertzaletasun mozkorrak-edo hartu baileuan.

—Baina zertan dihardue gazte zorook? —Atzera begiratzen dau Don Pedrok, zaratak datozen unerantz.— Ez ete dakie gitxiagogaitik beste askok multeez edo espetxeaz ordaindu dauela?

—Hor konpon eurak —Eskuak garbitzen dau Uhartzako parrokoak.— Horrek ez dozuz ziur nire parrokoak. Doazela euren parrokoarengana informe onen bila.

—Sagar ustelak albokoa usteltzen dautsu halan be.

—Zer?

—Sagar ustelak albokoa usteltzen dauela!

—A, bai... Sotanearen mesedeaz baliatzen jatzuz iraultzaile barriok.

—Sotanea zikintzeko. Ea, ea...

“Esana dautsot Fideli
t'esango dautsot bai zoli:
hator heu, Fidel, t'ez eiguk hona
apaiz gehiago bidali”.

—Ba ninotzun nik kiputza zendula kantari hori.

—Heuren arikoak batzen dautsuez, jakina; hemen ezpada han.

—Nortzuk? Baserri Gaztedikoak?

—Jesus! Zer dinostazu, Don Pedro? Forjasekoak edo danadalako komunistok.

“Cuba libre! Cuba libre” aipatzen daue oraingo ohiu erdaldunak. Euskaldunak bere eslogana asmatzen hasi dira. Lortu daue azkenik puntua: “Kuba bai ta Kuba bai/ jankirik ez dogu nahi” Toberariak euskal esloganari lagundu dautso gazteen abotsak burdin durundiaz ornduten dauzela. Izardi estuak darioz bekokitik Don Pedrori.

—Hoadi Fidelen heure bizarrekin —urruinatzen dau antzokitik at doan kantantea.

—Batek badaki gaztedi honek zer gura dauen —Sorbalda jasoten dauz Uhartzako parrokoak.— Lehen gerrerarik ez ebela gura eta orain Fidelen gerrerea txalotzen.

—Hara hondo esanda be.

—Edo Fidelen gerrerea arrosazkoa ete daue? Ea kubatar danak beste hainbeste txalotzen dauen.

—Hori esan...

—Honez gero haren gerrera be nahiko lizunduta egongo da.

—Ez ba!

—Uhartzako abade gaztea dator aurrez-aur erdiko pasilotik. Parroko zaharrak eskuaz etorteko dinotso.

—Hi, Fidelek abadiegi egin bera hurrengoan horrerri. Ba dakik...

—Ardura barik. Ikasiko daue.
Abade gaztea begi keinu alaia eginik aterantza doa.

“Kubalibreak modan egotzuzan une haretan, ardao onaren edakera galtzeraino egon be, osaba Martinek esaten eutsunez. Eta osaba Martinek jakinen gainean esan eiketsun, harako txirrinduletako koperean hondarrak edanda gero hatan be. Gehienetan horixe: ardaoa Koka-Kolaz nastetan eutsuen, nesken gozorako eginago zala-ta. Ez jatzuzan konturatu be egiten ardaoa geurea zala eta Koka-Kolea Kubako aurkariena hain zuzen. Baina tira, mostradore gaineko iraultza egiten eutsuen gure mutilak tabernara sartu barri gintzazan neskon aurrean. Buruko garaunen iraulkadea egiteko be berebizikoa ei zendun. Kubalibre batek eta beste kubalibre batek burua mareatzeraino larritzen ei eutsuzan neskak. Zurrutadaren bat egin dauenarren, zure amak ez dautsu egin halako pruebarik. Kubalibreen iraultzaleak ez dautse edozelan be onura handirik ekarri, ez ekarriko gure herriari. Eta mostradoreak hortik gero eta gaztez plagatuagoak egon behar daue zoritxarrean. Mutilak tabernatik ateratearren sartu ei ziran lehenengo neskak, eta orain orduak luzatu baino ez dautsuez egiten, neskak eurak be mutilen zurrutera ekanduten jatzuzala kale inguruan.”

“Ez zendun dana kubalibrea. Bertso barriez eta kantu barriez egini-ko salapenak be gorakadan joatzuzan. Halakoak zenduzan, esate baterako, osaba Martinek eta Ibargaingo gazteak urte hareetako Santagedetan abestu eutsuezanak. Santagedako soinu zaharrean hara letra barriak. Gure Martini asko gustatu jakozan eta Uhartzako abadearen estilora-edo Peilo eta bien artean antolatuak izan behar eben. Batak ideak emon, besteak bertsoetan hesi. Ahal dodanik eta sarkorren abestuko dautsudaz, laztana, Telebista horrek ez dakien eta osaba Martinek abesten eta errepikatzen eutsuzan pilpiraz:

“Zuriz jantzita, ez etorteko
kalera doatzuz neskak,
zelan, demontre, ez galerazo
halako barik ihesak?”

“Noiz arte nekazariak
oraingo neska-saria?
Nork lagunduko dausku apurtzen
kalearen buztarria?”

“Gainbeherakada honetan
zorigaiztoa gurean,
guraso zaharrak heurak umezurtz
gelditu daitezanean!”

“Gurean ez baina (gu asko izan garelako harean), beste baserri batzuetan aitita eta amuma umezurtz gelditu jatzuz, seme-alabak danak kalera eskonduta. Beraz ondo be ondo etortzuzan Santa Agedari egini-ko protesta hareek, egiazkoak eta latzak zirelako:

“Santa Martiri Agate,
onar gure borondate:
baserriko bizimodua
gozatzen ahalegin zaite”.

“Ikasi daijala kaleko lobatxoak ‘aitita’ eta ‘amuma’ esaten be, ez ‘aitatxo’ eta ‘amatxo’ bakarrik, bada zirelako gara eta garelako zara zeu be, laztana. Ez dago zaharrak baserrian umezurtz izteko eskubiderik, ez eta kaleko erderara behartzerik Zabaleko aititari jaso jakonez. Edo zer besterik jaso jakola uste dozu Agustin aititari? Inakitxok-eta ez ebezela ulertzen haren koplak, ez eta be ipuinak. Eta aitita Agustin ipuinetan hasten zaneko, hareek behingoan Telebistara Hiru Txarritxoeren erderakadak entzuten. Zelan jasan eiketsun halakorik Agustin aititak? Ez, kalea itzi eta baserri zaharrera alde egin baino.”

“Baserri Gaztedikoak baserriaren etorkizunaz benetan arduratzen hasi gintzatzuzan, jabeak edo maisterrak izan. Neu be kalera ezkondu nintzan arte, hiru urtetan Baserri Gaztedikoa izana nozu, nahiz eta harrezkero aitatxo eta biok kalera ezkontzekotan ibili. Ez zendun izan alperriko. Besteek lagundu ezeze, baserriaganako maitasuna eta euskeraganako konpromisoa sendotu egiten jatzun, zeure euskal nortasunagaz batera. Bestaldeko Ane-ta Baserriko Gaztedikoak urte betean bere-ze izan balitzaz, ez ziran taloburdina edo buztarri hutsean kalera etorriko. Ez eta Ibargainen halako antzerki batean parte hartu izan baleue be.”

“—Ba dakizu kalera ezkontzekotan gabizela... —esan neuntsan Don Pedrori, Baserri Gaztediko egin gura izan nindunean.

“—Baina baserriarra zarean artean laguntza hori zor dautsozu baserriari.

“Santa Martiri Agateren koplak saminak izan baziran osaba Martinentzat, ez ziran izan samurragoak Kandelario haretako kandela negarrik. Eguraldiagaz batera gordindu egin jatzuzan neskalaguntzarako Vespa-giroak. Neskak konbinazio hobeen bila hasi jatzuzan. Errotatxuko errubiak, berak be, osaba Martinen Vespeari kamino hegalean begira egon barik, beribilen baten aukerea-edo idoro eutsun. Oinezkoaren ondoren, zaldizkoarena esatea lez. Eta ez zergaitik eta ez hagai-rik, antza danez. Osaba Martini ezelako azalpenik emon barik. Txanogorri konplejoagaitik? Hau da Forjas burdinola ondoko basapiestien-gandik aldentzearren, ala mahonezko eta panazko prakena baino heun finagoen bila, Errosari Uhartekoaren bidetik? Zeharrolako uhar eta izerdietatik at, Hondartzako jauntxoaren edo turisten mirabetzan edo jarraipenean? Holan bada, beuka Txanogorri negu haretako estrepo-

zuarena baino ipuin aukera hoberik.”

“Gutun bat heldu jatzun Hondartzatik Ugaran osaba Martinen ize-
nean. Amuma harritu be egin jatzun, Hondartzatik etorrela jakitean.”

“—Noizbait ugazaba gugaz gomutatzen danean!

“Zubi barrirako asmoak zirela-ta, osaba Martinek kartak eginak
eukatsozan, nahiz eta harengandik laguntza handirik ez itxaron. Osa-
ba Martinek ez euskun gutunaren barririk emoten eta amuma larritu
egin jatzun.”

“—Zer dino ba, ugazabak, seme?

“—Ugazabak ezer be ez —Murriz osaba Martinek.

“—Eta bere laguntza barik zelan egin geinkek guk geuretara zemen-
tozko zubi barria?

“—Pikutara zubia eta zubiaren jabea eta jabearen sugea!

“Ainenioak eroala, sukaldetik alde egin eutsun osaba Martinek.

“—Ama, antza, ez dozu izan ugazabaren karte— azaldu eutsun
izeko Karmelek amumari.

“—Nor ba?

“Izeko Karmele hagin artean erdal kantu bat abesten hasi jatzun:
“ay, si tú me quisieras lo mismo que yo” eta dantza zorongearen sinuak
egiten. Itzelezko begiradea jaurti eutsun amumak.

“—Ze erantzun don hori, alaba?

“—Marionetas en la cuerda, ama. Ez dozu entzun? “Ay, maite banin-
duzu, nik zu bezala...” Ba horixe...

“—Zoratu egin jan ala? —Amuma esku biak arpegiaren pareraino
jasoten eutsuzan ardurearren.— Ez deunat esan beti hire angerua ahaztu-
korra dana?

“—Eta ez dozu esan behin baino gehiagotan, ama, ederra eta aberatsa
gauza bi direla? Biak batean lortu gura izatea larregitxoa dala-edo
adierazteko, hatan be? Hori, ama, maister alabentzat esana izango zen-
dun, batez be. Ba egizu maister semeentzat be balio dauela...

“Izeko Karmelek aidean izten eutsun zurrumurrua, amumaren kirioak
edo zihurtasuna probatzearren.”

“—Ez jakinat, neska, nora joan gura donan.

“—Ba egizu gure Martin be maisterra dala eta Errotatzuko Eukeni
barriz, ederra... Ikusten dozu hormako errubia hori? Ba halakoxea eta
aberatza gainera, gure ondoan: ugazaba alaba.

“—Eta zer balio jon horrek gure Martinek irabasten dauenagaz?

“—Egizu, horretzaz gainera, Eukeni horrek, bere itxura galanta dala-
ta, lana bilatu dautsula Hondartzako hotelik ederrenean. Ez dozu ba-
karra. Hor dozu Uharteko Errosari be...

“—Bai, bai, eta halan joakon...

“—Halan edo holan, Errotatzuko Eukeni han ibiliko jatzu honez
gero, gure ugazabaren semeen bateri orpoak jaten edo azpiak garbitzen.

“Gutunaren koloretik eta letratik behingoan igarri geuntsun izeko
Karmelek eta biok karte norena eiteken. Osaba Martinen umoreak

adierazten eutsun gainerakoa. Izako Karmelek nik baino hurragotiko
susmoak eroatsuzala Zeharrolara bidean.”

“Neguko denporaren gordinkeria, ostera be Santagedako baserri
koplen martiria egizatzen etortsula, laztana: “noiz arte nekazariak or-
daingo neska-saria?” Eta osaba Martinen saminerako, hatan be.”

Euskal Jaiko ekitaldien artean gazte batzuk zigarroren bat erretera
urten daue. Batzuk bertan iziotu dauez eurenak. Abade gazteak are-
toan ez dala erreten adierazi dautse.

—Egia da Joxan etorri dana?

—Ez dozue ikusi ala? Oraintxe hurrengo urtego dau.

Neskatoa eskuak ferekatzen eta poz algarak egiten hasi da baiezkua
entzun dauenean. Ako Joxean kantantearen fans bat. Joxean hori Hon-
dartzako Euskal Kanta Txapelketako lehen saria da eta Baserri Gazte-
diak Uhartzara lehenengo bidarrez deitua izan da, jaialdiaren aurkez-
leak gogoratzen dauskunez. Euskerarik ez dakianarren, euskera hu-
tsean abestuko ei dau. Horra ba, bat baino gehiagoren eredu daitekena
Uhartzan bertan. Herria ez dala egiten euskera jakin eta erdera egiten
dauenalako euskaldun txepelekin.” Hara ba Joxan euskaldun barria —
ongiotorria damotso aurkezleak, ezenategian kitara ta guzti agertu da-
nean—, erdal entzulego zabalagoak ezetsi eta euskal arlora jatorkuna.

Joxanek kitara tenplatuala, euskera ez jakiteagaitik erderaz par-
kaeske dihardu. Laster ikasteko amesa adierazten eta euskaldungoari
bere aldetik dagokion serbitzua agintzen. Bere kantaldia herriaren
oinarrietatik dabilela eta koplak zaharren eredu dala aria. Doinu zaha-
rrak eta testo barria. Bai horixe:

“Matxalen Uhartzako,
gabean-gabean
zakurrak diabiltzanan
hire portalean.

Ai Matxalen, Matxalen,
konturaz habilken;
maitearen susmotan
txakurrak diabilzen.”

Gazte gendeari gustatu egin jako plater zaharreko saltsa barria,
saltseagaitik zihurrago, bada askotxok platerarena ahaztuta dauke.

Don Pedrok belarrira daroa eskua, entzumenari laguntzearren. Doi-
nua sobera entzuna daki, baina testo barri haren puntatxoak aztertu
gura leukez.

—Txakurrak’ ba dakigu zer esan gura dauen, baina Matxalen hori
eta batez be Matxalen horren ’maitea’ —Ukondoaz jotzen dau Uhartzako
parrokoa—, marialabetarikoren bat ete dozu?

—Ez nik dakidanik...

—Ba, Matxalen Uhartzako esan dautsu...

—Non diskoa, han mintsoa, Don Pedro. Zure dotrinalekuan izan balitz, ziur esango eutsula horrek “Matxalen Ibargaingo”...

—Pentsau be ez dot egin gura —Burua astintzen dau Don Pedrok.— Nik “Matxalen Busturiko” bakarrik esagutzen dot: “Matxalen Busturiko, izan balitz ona, ez zala etorriko Busturitik hona”. Ba ausaz ez eta kantari hori be Hondartzatik hona. Ea, ea oraingoan zer dinon.

“Tirikitauki-tauki
mailuaren hotsa,
kaletik zehar dabil
fraile burumotsa,
ai, ai, ai,
fraile burumotsa.”

Ostera be Joxanen edo haren letraginaren eskua gatzean ederrertzia izan da askoren estarrirako.

—Zer? Sermoaginen-edo izan dozue fraileren bat ala?

—Ez. Aspalditxoon ez dogu izan misinorik eta ez Fidel Kastrok bialdutakorik.

—Konplejoarren izango dozu ausaz. Izan be, Frankok dinonez: “abadeak sakristian”, eta beste honek gura leukenez, “fraileak komentuan”.

—Eta bera kalearen jabe.

—Eta sotana eta habitu bakoak askatasuna. —Musin egin dau Don Pedrok.— Gazteongan ezin ei fidatu, Baserri Gaztedikoak izan ta be...

—Horrek ez dozuz Baserri Gaztedikoak, Don Pedro, eta kantante hori gitxiago, aho artean zer darabiltzun be ez daki-eta.

—Ba, nonork ondo belarri-berotu dautsu, baina, baina ze doinu darabiltsu oraingoan? Eleizakoa dozu-eta?

Izan be, Joxanek tirikitaukiak amaitu eta parroko zinearen omezez-edo, mezatako kanta ezagunaren ritmora dihardu kitara eta guzti. Musikea bai, baina letrea ez daki ostera be herriak eta ia koruarena amaiturik, Joxan, lehengo estrofan doa.

“Gure artzain zaharrak
daukaz ardiak
bost zuri-zuriak,
lau beltzeranak.”

Estrofa ondoren oldar handiagoz erasoten dautso errepikari, entzulegoa hatara gonbidatzen dauela:

“Artzainaren oharrak
ohi dira izan alperrak,
akerraren adarrak
bai-dira okerrak.”

Banaka batzuk errepikaren erdi ingurutik idoro daue abesti letra barria. Don Pedro zutundu eta eskuaz zapart protesta sinuak dagiz. Uhartzako parrokoak ahalik gozoen besotik tiratzen dautso eta pazientzira deitzen.

—Baina ze burla da berau? Geuk dotrinan Jainkoa goratzeko erakutzi doguzan kantuak hemen astakeriak esateko?

—Erru gehiago dautsu kontuizu hona deitu dautsonak. Berak euskera ez badaki eta euskal dotrinara inoiz joan ez bada, zer daki horrek ze naste darabilen?

—Ez nator horretan bat, Don Iñazio. Horrek tonto burua egiten dautsu, baina ziria sakonago sartzearren harean. Horrek euskaltzaleen itxuraz diatortsuz, kristautasuna sapuzten. Ia, ia...

“Ardiak joan jakoz
larre ona itzirik,
aker maisuaren
bide okerretik.”

Oraingoan gazte gehienak lotu dira ritmo zahar eta letra barrira. Abestu be, gazteagotan edo umetan egin dauen baino zakarrago abesten daue “artzainaren oharrak” errepika baikorra eta “akerraren adarrak” aipatzean, batez be, aspaldi barruan-edo eskutaturik euki dauzan errekisto ilunak atera dauez.

Don Pedro barriro zutundu eta protesta hitzak esan dauz, baina txaloen zarateagatik ez dira entzuten. Joxan kantariak sotanadunaren protesta sinuak ikusi eta, antza, ekitaldea amaitutzat emon dau. Kitarea beharen gainean eskumeaz eusten dautsola, ezkerreko ukoa aulki gaineko belaunean kokaturik, eskuturrean eusten dau okotza. Txaloka darraitson entzulegoari halako seriotasunez begiratzen dautso, kitarea lurretik jasoka isila eskatzen eta erderaz bada be, alkarrizketea eskatzen. Don Pedrok otoz-otoan ihardesten dautso:

—Hauxe da nik lehen be itaundu gura neuntsuna: ea zergaitik darabilzuzan eleizako kanta halako astakeriak esateko.

Joxan apur bat jausi egin da bere egokera gotorretik, belarrira daroa eskua, “por favor” eskatu dau, berak euskerarik ez dauela ulertzen-eta.

—Ulertu ez eta halako astakeriak esateko prestatu?

Norbait aurreratu da abadearen galdeketa erderatzen. Joxanek lehengo benatasuna hartzen dau, erderak lasapidea damotsola:

—“¿Por qué una música religiosa para un canto profano? Los mismos curas nos lo han enseñado. Ellos mismos han empleado con frecuencia melodías profanas para textos religiosos. En cuanto a lo segundo, las “astakerias” que dice el reverendo, yo no sé, pero es lo que veo en la juventud de hoy. Llámesele como se quiera.”

Don Pedro urrumaz isildu da. Une baten harako aker adardunak berari, ardien artzain ikasiari, aurre egiten ez da ba ausartu? “Majadero horrek ez dautsu ba zeozelan neuk entzun gura ez neunken egia iragarri? —maizeatzen dau Don Pedrok bere artean—. Egia santua, baina ez, halan be, santuki. Ez dago eskubiderik halako bertso piperrak Santisimuaren aurrean abesten dogun doinutan abesteko.”

—“Y ¿cuándo vamos a tener una conversación en vascuence?”

Sumindura dakar ostetik mutilen baten aboskerak.

Euskeraz! Euskeraz! Euskeraz! —ohiukatzen daue neskamutilen talde batek.

Txistuak, banku hotsa, zarraparra entzuten da. Joxanek bere kitarea jasoten dau, kantantearen titulua baileuan.

—“Demos tiempo al tiempo”— dino esku biak igituz, gendea pake-tu danean.

Haseran aipaturiko euskaltzaletasuna errepikatu behar izan dau, eta bere euskal kankak ezarri bere zintzotasunaren lekuko. “Testigutza makala” maizeatzen dau Don Pedrok bere kantuan. Ze parte txarrekok-edo bialdu ete dausku gero bera? Konbeni ete da holangoek euskera ikastea? Deabruaren bialduak euskeraz? Hara gizaldietan euskera ika-si ezin izan dauenaren amarrua. Disipuluak bialdu...”

—“¡Aquí el obrero no tiene tiempo para gramáticas!” —Ohiu garrazki-leak urten dau Joxanen euskal asmoen aurrera.

Bekain batzuk inguratu daue “Euskalerrian euskeraz! Euskalerrian euskeraz!” garratz errepikatzen dauela. Joxanek, antza, halako koru gazi-geza zuzendu gura dau kantaldiaren ostean euskera/erderaren pul-tsua aztatu gura baileuan.

—“Decía ese señor...”

—“Digo que primero es vivir y luego filosofar y aquí el obrero ya tie-ne suficiente con lo primero...” — Ziur daragoio erdal zaleak.

Erdal eztabaida sortu da Joxan eta aurkalararen artean. Gazte ba-tzuk jagi eta aretotik urtetan doaz. Gende gehiago doa kanpora protesta antzean edo bildur direlako badaezpadakoei arpegi emoten.

—Felipetar txarriok...

—Horreek geure Euskal Jaia boikotatzearen etorri dozak.

—Kontuz. Batek badaki polizietarikoak ete diren be.

—Ez ete gendun bakean amaitu behar? Euren Irratiak eta Telebista daukeez erdal kantu eta erakusketarako eta guk erdi eskutuko jaialdi-txoa antolatu dogula-ta bera ezin eroan?

Euskaldunak euskal korruak egiten dauez eleizpean euren hitzik-edo ispien belarrietara deslaitu ez daiten. Bildurak batzen eta banan-tzen dauz, susmo begiradak alde batera eta bestera ixuriten dauezela.

Mutil taldeak ez dira eleizpetik aldentzen, hareek “gora Euzkadi askatuta” ohiukatu dauenak batez be, seguruago dakuse euren burua eleizpean. Gurago daue Don Pedrogaz autuan ihardun edo parroko zaharrari entzun erdaldun susmogarri hareek plazatik aldendu daite-zaino.

Joxan bera, fans emeein inguratu, zinetik urten dauenean, eleiz-pean ohizko bakea egin da.

—Eta bera be txibatoa izan badok, zelan salatu jozak 'txakurak' beti gure atzetik dabizena?

—Zer jakik horrek 'txakurak' nortzu diren be?...

“Poliziek metrailetaz armatu ibili jatzuzan egun hareetan Ibargain-dik zehar. Ikusi ebezenak ez dautsue behingoan ahaztuten haren taxu eta bekainak. Aste pare bat aurrerago E.T.A.ren pintaketa batzuk ager-tu jatzuzan Ibargaingo elizpean. Don Pedrok mezatan salatu eban, eleizako harriak bakearen iragarle zirala esanez eta ez odolaren axa-tzaile. Noren atzetik ebizela poliziek? Ez prentsatik, baina ETako gaz-te bat garbitu ebela jakin gendun ez dakitsut zelako tiroketan. Nonbait beste bik mendira ihez egin eutsen. Mendira ekandu barik edo baserriz baserri ei ebiltzuzan, hemen jan eta han lo. Egia ala esamesak? Mutiko bat ei zan euretariko bat kontuizu eta euskalduna bera. Eguzkitzatic Ugaran aldera errekalderantz joaten ikusi ei eben. Hamaikak inguruan han ziran lau polizi Ugaringan atarteant metrailetez apuntatzen “dónde está el chico? Que salga!” ohiuka.”

Amuma eta izeko Karmele egotzuzan etxean. Izeko Karmelek urten ei eutsen atartera.”

—“Los chicos están en la fábrica.”

“Polizietariko bi, eskuetan pistolak eroezela, sukalde barruan sartu ei ziran. Amuma, larri, euskeraz eta erderaz mutilak zer egin eben itaunka.”

—¡Cállese de una vez!” — garratz polizietariko batek.

“Ez eutsuen eukiko eurak, laztana, amuma ezkongai zaneke hara-koan menditar gudariak Zubietan sartu ziraneko ganorea. Gudari zau-ritua andetan ekarri eutsuenekoan... Josus, pistolakaz arpegira apunta-tzen. “¿Dónde se esconde?” Baina guk zer genkitsun hareek zertara eto-zen be? — kontatzen eutsun ikarak hartuta oraindino izeko Karmelek. Amumaren gelatik hasi eta dana azterkatu ei eutsuen, armarioak, ohe-peak, ganbara, lastati eta kortak. Eskaratze zaharreko tximiniko kebi-deari be begiratu ei eutsoen-eta. Sorginen bila balebilzen, ez gitxiago. Beste biak hanartean etxe kantoiak zaintzen, txoriak tximini edo lei-hoen batetik ihes egin ez eian. Zer jazoko zan gureetatiko bat Jose edo Martin une haretan etxean gertatu izan balitz? Ausaz Zeharrolako es-tazinotik ihez eginikoetarikoa zalakoan, bardin atxilotu eta zigorkatu be. Edo, guk ez genkiala, euretariko bat gure mandio edo kortabazte-rran kukulumuxu aurkitu izan baleue?”

—“Zer? Arrapatu daue? —itauntzen eutsun amumak handik astega-rrenera, mutilak olatik etozanean, edo Martin hizparringia begiratzen ikusten ebanean. Neu be Irratiko barriei adi egoten nintxatzun aldi haretan eta arnasea hartzen neuntsun, beste inor oratu ebela korik ez entzutean”.

“Gurean tiroketak, erailketak, baituketa eta lapurretak ez dira amai-tu, Wiet Namgo guda amaituta gero be, baina mendira ihez egin ebene-ko harenik ez dogu entzun gehiago.

“Hemen eguzkirik joten ez dauenarren, eguraldi ona dozu. Hortik zehar dabilzu eguzkia. Goazen plazara, laztana, arratsaldeko eguzki zati bat arrapetan. Popoan eroango zaitut ostera be. Ni buru hutsean joango nozu eta betiko orrazkeraz. Ea gaurkoan inork ezagutzen dautsun harako esnesaltzailea. Zuk txapel zuritxoan eroango dozu, honela, eguzkiak bekokitxoan emon ez daitsun.”

“Lehen, bakarrik nintzanetan, Eleiz Kalen bertan be, ez ninduen antzemoten. Janzkera eta orrazkera kaletartuz gero, nork ni beste edozein kaletarrendandik berezi, neure agurretik-edo izan ezik? Hori dalata, behin baino gehiagotan joan nozu pelukeriara zapen laztura disimulatzearren. Ez nozu, izatez, inoren eskuz ule-landubeharrekoa, baina zerozer barririk ikasi, gero neure eskuz egitekotan. Ezkongaietan, urtean behin edo birritan, jai handietan, egiten geuntsun permanentea, beti be amumaren isilean. Behin besoak garrian azta eginik amuma begira-begira gelditu jakun buruari burlezar eragiten eutsola.”

“—Ez nenkitsuen amagandik horren kirbilera ederreko urten zenuenik.

“—Amaren ederrak ornidutea ze pekatu da ba?

“Izeko Karmelek beti aitzakia ahoan eta bake santua. Ezkongai aurreko uso kantu haretan be ni goizean arrapaladan eginiko orrazkeraz nentortzun kalera. Halantxe ezagutu nindun Sabin aitatxuk, hegaletako zapak orkila banaz belarrien pareraino lotzen neuntsuzala. Polito emoten eusten, antza.”

“Kale Barritik goatzuz. Ea zer deritxazun gu bizi garen kaleari. Hor popoa erosi gendun dendea, han zapatatxo barriak, bestaldera dozu

potetxoena eta jarraian amak egunero ogia eta esnea erosten dauezan dendea. Kale Barrin honela, baina lehen Kale Zaharren ez zan izaten horrela. Okina eta esnesaltzailea atez-atez ibilten jatzuzan.”

“Nik artotzak eta patatatzak ezagutu dautsudaz orain darabilgun bidean. Gero soloak zementoz eztaidu eta baratzen gainean arriluzko hormak igoten ikusi nebazan, hirulau urteren aldean toki ezezaguna irudiala. Aldaketaren une haretan izan zendun Uso habigilearen ipuina. “Neuk egingo deunat hiri heure beteko habia” esan eutsun. Uso apal bat zendun, udabarria gainean eta ez eutsun gauzez lo non egiteko habiarik, ez zuhatzik, ezta sotz batzuk nondik zuzendu. Orduan usapala bere amesetakoa habiaren urrumadaz hasi jatzun eta behingoan non entzuten dauen usoaitearen erantzuna.”

“Ba dinotsut, Kale Barri dana amaitu baino lehengo eta etxadi barriak teilatua jo orduko, bizitoki barria begiz jota gendun. Gero beste txori batzuk guk baino beharrian handiagoa eutsuela-ta, beste urte bi itxaron genduzan, orain daukagun bizitokia lortu arte. Eta Kale Barrin bizi gozuz. Halan da be nire lagunik gehienak Eleiz Kale zaharrean bizi dozuz. Oraintxe be hara jokera dautsut gora handiko edo konfiantzako erosketak egin behar dodazenean. Neure bezeru izenekoei erosketaren bat egitea mesedeak ordaintzea lez emoten dautsut. Zintzoak zenduzan ordaintze orduan, bai eta neu be eurekaz.”

“Badakizu nor izaten zendun ordaintzetan atzerakor? Aurreratoxoago esango dautsut, beraren palazio aurretik igaro gaitezanean. Kale Barri eta Plazaren artean dozu, hara goatzuz. Ikusten dozuz horrek burdinesi eta ereinots moztu bardinduak? Burdinezko ate horretatik ikusi zeinke igarokeran loretegi barrenean dagoen txaleta. Ez gozuz begira geldituko. Itxusia da. Zeozeren gurariz gagozela pentsa leikitsue. Eta ez, ez gozuz euren beharrianetan. Lehenago bai, nik hor burdinezko atetan hainbat minuto larri galduak dautsudaz itxaroan tirrina jo eta gero, ea palazioko mirabea bere esne ontziagaz noiz agertuko. Olanausiko ugazaba eta haren emaztea be ohiko baserritar zenduzan eta oraindino errapetiko esnearen ahokerea galdu barik eutsuen. Ba, badinotsut, esnea serbitzea nahiko kostatzen jatsun, baina kobratzea hareago. Bestela ez zenduzan horren aberatsak izango, eta ni horren behartsu. Asteburua heltzen zan eta kriadeak ez eukala eskuetan dirurik, hurrengo egunean sinfalta eskatuko eutsola ugazabandreak. Hurrengo egunean kobratzen bazendun gaitzerdi, baina bera, Olanausiko jabearen emaztea zala-ta neuk be emonbeharreko kontuak atzeratu behar. Zer egingo dozu ba! Beti izan ei da holantxe: herrementariarenean, zotza burduntzi. Ba egizu: dirudunarenean, eskua labor, hobeto ulertu daizun.”

“Juanita kriadeak behin baino gehiagotan inoren lotsea ekartsun arpegian, inoiz parkamena eskatzeraino. Ez ba, zelan molesta eikean goizeko orduetan, ugazabandreak ez molestatzeko aginduta eukatson-eta. Gogotik egongo nintzakizu Juanitagaz, bost minutu berere, baina

zelan tirrin hotsean hasi? Atartean dagozan txakurrak ausika hasiko litzakizuz. Laster helduko litzake ugazamandrearen belarrietara ohiko esnesaltzailearen barri. Eta ez neunke gura holako nabarmenkeriarik. Goazen aurrera.”

“Plazatik zehar Estazino aldera goaz. Oraintxe dagotsu hau bake-tsuen. Hemendik ordu batera langileak trenera doazelarik, txindurritegia emongo dautsu une baten. Behingoan batzuk trenerantz eta besteak kaleetan zehar bananduko jatzuz, plazan eguzkia hartzen gelditzeko be ez direla.”

“Oraintxe, laztana, oraintxe. Pauso bi aurrerago eta esango dautsut. Po-po, aparta danok, neure laztana daroat-eta. Ba, hementxe bertan izan zendun harako usoaiteak usoameari egin eutsun agintzaria. Ni oraintxe legez nentortzun, hemendik hara beharrean, handik, Estazintik honantz. Eta umearen popoa barik, esneen esku gurditxoa bultzaka nentorrela. Hau baino astunago zendun, honek baino behe-rago eukatsun eskudela eta indar egin beharreko batzutan gurako neunken baino gehiago makurtu beharra izaten zendun. Halan be, edo hagaitik “uso banintz” kantari nentortsun eta orduan “e!... Goizetik eta horren kantari?” mutil deia ostetik. Nik ezentzuna egin eta aurrera. Nongo mutila izan ete zan? Nik atzera begiratu be ez. Harrezkero goizeko tren-eta eta asto Txiki Estazino ingurura bateratsu heltzen ziranean eta nire kantxinak galdi gainean txintxin hotsa ateraten ebelarik, ni isilik joaten nintxatzun, langileak olarantz joazela. Eta halako baten:

“—Zer? Ez ete dago kanturik? Txori aitea habirako lumatan dabile-nean, ez ete dau txoriameak kanturik?”

“Sabin aitatxo zendun harako mutila. Oraingoan aurea hartu eutsun berak. Zer erantzun neuntsola? Landabasoko txoriak gogoratu neutsuzan.”

“—Ba ondo be ondo ezagutzen dautsudaz biragarro ta zozoenak, bai eta txindor eta txepetxenak, txontak, kardantxiloak... Baina ez dakitsut bakoitzean zein dan kantari, aitea ala amea.”

“Polito erantzun neuntsan, laztana? Ba polito-edo eritsi eutson berari, hurrengo baten, domeka arratsaldez erromerira gonbidatu nindun-eta.”

“Harrezkero arinagoa egiten jatzun esne gurdiaren pisua; kantxinak eurak be kantu alaiagoa ekartsuen bezeruenetik etxerakoan. Estazino ostan hormako uztaiari lotuta egotzun asto Txiki be arrantza bigunagoaz erantzuten eutsun. Ba ekitsun etxerako ordua, askatasun ordua ebal. Etxera bidean kantxin kantariak ez eukeela astunik.”

“Hara bertan asto Txiki lotuta egoten zan uztai. Hala, orain goazen bertatik hasita bezeruekanatz. Egizu, ni kantxinez beterik noala, zure gurdia esne gurdia dala. Kantxinak pisuagaitik isilik doaz, esnesaltzaileak ez dau abesten eta orain zuk, hain zuzen be josten daustasu erostatxu hori? Zer da ba, laztana? Asto Txikigaz gelditu gura dozu ala? Trenari itxaron? Ut! Gurdi zakarra dozu. Ez dozu amatxogaz esnesal-

tzailetara olgau gura? Ene ba! Bueno... Ba dakit lehenago Ikastolara joan behar dozuna; oraindino txikia zarena esne gurdiari eragiteko. Ba orduan ikastoletara olgauko dogu. Goazen ba Ikastolara. Ale! Eleiz Kaleko lausatutik. Ikusiko dozu zelako durduria emongo dautsun hango harrien urtenak. Bueno, zure popoaren balasten zailuaz ez horren beste, baina esnesaltzailearen kantxinari... brun-brun, kantxin beteak, txin-txin, katxin hustuak. Bezeru lotiak-eta ohetik jagiazoteko ez zendun iratzargailu makala. Hemen dator esnesaltailea, drun-drun, txin-txin. Ale, lotiok, atera! Oi, esnesaltzaileak ikastolara doan umeeek baino goiztarrago ibili behar dautsu. Ba goaz, ba goaz. Sasoiz helduko ete gara ikastolara sikan? Hortxe eleizako dotrina barrian dozu. Andereñoari itaunduko dautsugu:

“Andereino, berandu egin jaku, baina hemen gatoz. Ohiturarik ez eta esnesaltzaileetara jolasten gelditu gara bidean. Liburuak? Liburuak etxean itzita etorri gara. Ipuinak eta Alfabetatze Arduradunaren Kuadernoak. Ingurrastiak esaten dala? Ba guri Alfabetatzeko Kuadernoak esan euskun. Ikastola honetan ba ete dago urtetxoa bete dauen neska toarentzat tokirik?”

“—Ez. Hiru urtetik gorakoak bakarrik hartzen doguz Haurtzaindegian.

“—Ez eta gurasoak Ikastolako laguntzaile diranean be?”

“—Ez eta orduan be. Baina Ikastolado laguntzaile zaren gurasoak, zuen umearentzat geroko tokia ziurtatzen dozue.

“—A bai e? Entzun dozu, laztana? Hemendik urte bira hartuko zaituela. Esaiozu andereinoari zelan dozun izena. Esan “Iziartxo naz eta euskera ikasi gura dot eta ez erdera hutsean bestaldeko Iñaki eta Iratxek legez. Nik amumari ‘amuma’ deitu ezeze, bere ipuinak entzuteko lain izan gura dot eta beragaz euskera parra-parra egiteko be bai.”

Josepa Ugarangok Ama Nahigabetuaren begiakin jo dau Abadetxera, Don Pedroren auzitegira. Lotsak eta zizpuruak hitza eragosten dautsoe, abadeak jesarteko esan dautsonean.

—Baina zer jazoten da Ugaranen, Josepa?

—Jaune, ba...

—Semeegazko gorabeheraren bat... —Don Pedrok bideak erraztu gura leukioz Joseparen estukureei—, Martin zeuenaren asmo barriak dirala eta?

—Ze asmo gero? —Josepak negar lausotan begiratzen dautso Don Pedrori.

—Ez, ba, hor Baserri Gaztediko batzarretan, badakizu gazteak asmoak eta amesak nahastatzen dautsuezena. Udalean paperak egiten be ibili dozu-ta.

—Ze paperetan baina? — Josepa Ugarangok malkoak txukatzen dauz.

—Ba dakizu Eguzkitza ostean dagoen harrobi zaharrareko zokondoa?

Sasiz beterik dagoena? Harrobia ahortu ei zan eta Udala prest dago emoteko, antza.

—Eta zertarako sasiz eta harriz beteriko lurra?

—Ba niri probetxugarria deritxot, nahiz motoarentzat txabola bat egin edo beste edozertarako orube ona dozu, Josepa. Eta nik dinodana: sasiari emotea baino hobe herriko semeei emon, uskeria baten ordeza bada be.

—Eta ze asmo darabilela uste dau, jaune, bedorrek? Niri ez daustee ezer esan.

—Zeuk dakizu, Josepa, nik baino hobeto, Martin eta Jose, lana kalean daroenarren, kalean bizi zaleak ez dirana eta kalera gura ez badaue, beste zerbaitetan pentsau beharko dautsue...

—Ba, hain zuzen be, gure Martinengan ez dot ikusten ezkontzeko martxa handirik.

—Eta Jose? Zer dinostazu Josez? Ez ete dabiltzu Uharteko Bixentagaz nahiko maiteberatu? Niretzat gazte bedeinkatuak dozuz biak be. Nik holako gazteak, kalera barik, baserrira ezkontzearen emongo neunkena! Baserria hustutzen joaku bestela, Josepa.

—Bai, baina ez da Jose une honetan kezkatzen nauena, jaune, gure Karmele baino...

—Bai —Don Pedrok unadaka begiak itxi eta atzerantz dagi jesarlekuan—, ba dakit gailegu horregaz dabilena...

—Ibili eta zelan, hatan be, jaune! —Zizpuruz bete dira ostera be Joseparen kolkoa eta negarrez begiak.

—Ausaz alabea erdaldu bateri ezkontzan emoteaz ez zagoz konforme.

—Ezkondu? Nora-ezkondurik baleue, ene Jainkoa —Josepak ototzean lez txortatu dauz eskuak zerura begira—. Zenbat bidarrez esan dautset nik sasoiz erretiratzeko, eta azkenik... hori egin dautsku!...

—Bueno, bueno... —Eskumea okotzera daroa Don Pedrok, saminak hartu baileuan, ezpain artetik ortzat erakusten dauzela mintzatzen da—. Orduan..., oker ez banago... Hego bat apurtu dautsu alabeak.

—Hegoa? Noiztik angeru gure Karmele? —Betagainak ixurtu dauz Josepa Ugarangok—. Jose gurea izan zendun besoa apurtu euskuna, baina Jainkoari esker, gehiago barik osatu jako.

—Zer egingo jako ba! Besoa edo hegoa, biak dauke konponbiderik, andrea.

—A, hegoa! Bai, hegoa! Ba dakit nondik doan, jaune —Asaskatu egin da Josepa Ugarango gauzea abadearen epaitegira heldu dala ikusi dauenean.

—Joseparen begiak apur bat argitu diranean, Don Pedroren betagaina ilundu da.

—Eta mutil hori, gaileguaz dihardutsut, ezkongaiia ete da?

—Bai, jaune, eskongaiia, langile ona eta bihotz onekoa, bestalde.

—Hori da ziur jakin behar doguna, Josepa —Don Pedroren begiak susmokari idegiten dira eta atzamarra salatari mugitzen.— Ez bedi

harakoan lez jazo, hemen ezkontza paperak egin orduan, han ezkontza egoela agertu.

—Ez, jaune, holakorik! Bai zera! —Zurtz gelditu da Josepa Ugarango halako bidegabekeria entzuteaz bakarrik, bihotza ipinten dau.— Bakarrik ez daukeela nora ezkondu.

—Nora bialtzen dautsuz ba irabaziak?

—Amari. Nora ba, bestela?

—Hori ikusi behar ba —Don Pedrok mahai gainean kokatzen dauz eskuak.— Baina hori neure eginkizuna dozu. Neuk eskribiduko dautsot bere parrokoari, egin nasai.

—Gure mutilak konturazten direnean izango da txarrena —Josepa Ugarangok esku bien artean babestu dau okotza.— Ez dinot Josegaitik, baina gure Martinek, lehendik be, beragaz ezkongaietan dabilela-ta, entzun izan dautsodanaz...

—Ez arduratu, Josepa. Esaiozu bestela, errekadu bat daukadala berezako eta Eguzkitza osteko Harrobi Zaharreko asmoak argituko doguz.

“Izeko Karmele Manolo gailegoarekin hasi jatzunean, osaba Martinek ezin gorde hari eukatson tirria. Manolok abegi onena egiten eutsun Ugarango mutilari eta orduan eta sapuztuago bialtzen eutsun osaba Martinek.”

“—Ez deuk beragaz ezkontzeko be eskatzen —esaten eutsun osaba Josek.— Gizabidetsuago izan haiteke beragaz.

“—Ezin joazak irunsi bere koipekeriak.

“—Ba, niri, koipe eta guzti, berak bakarrik lagundu ninduan, poliziek zuritu eta langile danak bakarrik itzi ninduzuenean.

“—Bera gertatu hoala heure ondoan.

“—Lagunek gertatzen dozak, edozelan be, halakoetan.

“—Ez dok hori baina —Ukabila estutzen eutsun osaba Martinek.— Ezin joak pentsau be egin maketo bat gure artean.

“—Maketoa, baina lehen baino gitxiago. Heuk dakik horrek agertzen jokan euskaltzaletasuna.

“—Bai, baina zergaitik? Zer lortzearren?

“Osaba Martinek-eta izeko Karmelena jakin eutsunean, hau da izeko Karmele ama izateko zana..., uste dozu osaba Martin begietatik suurtika ahierpenezko hitzak esaka hasi jatsula? “Hara, esaten neuntsuen nik, zertan ebilen mutil hori. Neuk garbituko dot hori...” edo holakoak esaten? Bai zera. Gauzarik eginena eta ondo eginena lez, amumari jaioteko egotzun lobatxoa zala-ta, aholkuak emoten hasi jatzun:

“—Ama, Karmelek-eta etxera ezkondu behar badaue, guk etxea uztu beharra daukagu.

“—Ugaranen danontzako beste toki dago, seme.

“—Ez da egoki, ama, ezkonbarriak etxean eukita, gu, mutiltzarren

ganoraz bertakotu egotea. Agatek ia prest daukatsu bizimodua kalean. Jose eta biok bestelaz pentsau dogu...

“—Ze asmo darabilzue ba?

“—Kalean baino askoz merkeago urteten dauskula, biontzat berton bizitokia egitea.

“—Ez zaree txabola baten biziko, seme.

“—Txabolea? Motoarentzako txabolea? —Irribartsu agertu jatsun osaba Martinen arpegikerea,— Hori lehengo aitzakia zendun, ama. Baina orain daukagun aukereaz eta Udalak egin dauskun erregaloaz ondo be ondo uztiatzeko asmoa dogu.

“Osaba Martinek urteetako lantzat emoten eutsun Eguzkitza osteko etxe barria, baina Ugarango etorkizuna izeko Karmele eta osaba Manologaz ondo beteta ikusi ebanean, zama astunetik aske gelditu izan balitz lez, hegaz joatsun kaiolatik askatu-barri txoria lez.

“Izan be guk beti entzun izan dogu ume bateren jaiotza zerutiko errekadua dala, zorionekoa, hain zuzen, eta osaba Martin eta Manologazkoak oraindino zeharo gozatu ez diranarren, behin be ez dautso harrezkero irainik egin izeko Karmeleri. Funtsean eskerrak emoten dautsoz arrebeari Ugarana gizon bat erakarteko beste izan dalako. Bestelaz pentsau be egitea, neskegazko bere saputzak ukatzea litzaken. Edo harrezkero Ugarana bere gustoko inor erakarteko amesik gorde eitekizun?”

“Amuma bera be, uste dozu Martinen etxe barri asmoak asmeskeritzat jotzen eta, diruen eralgi beharra zala-ta, eragozpenak ipinten hasi zala? Bai zera! Seme-alaben gurariei hesiak ipini zalea ba zendun, izatez, amuma, baina bizitzari ze hesi ipini leikion, etorrenari ateak zabaldu baino? Edo ez ekitsun gure Jaungoikoak gizakien bide okerretatik be onik ateraten? Ba amumak horixe egin eutsun. Alargun eta pobreen ardura daukan Jainkoaren borondatea onartu eta bedeinkatu, Ugarango etorkizuna, Imanol zure lehengusutxoa, bidean etortsulako, hain zuzen.”

“Halakoetan ohi diran esamesak huskeriatzat emoten genduzan kontuizu edo Ane Zabalelako emakumeen solaspidetzat. Ez gendun halako susmoetan galtzeko astirik. Ume barriari etxea libre iztera lehiazten gintzatzuzan. Nik Uharteko Bixentagangik jakin neuntsun osaba Martinek-eta etxe barriari ipini gura eutsuen izena.”

“—Gustetan jan etxe barriaren izena? —itaundu eustan Bixentak.

“—Ze etxe barrirena?

“—Ba Martinek-eta egitera doazena, zein izango don ba?

“Arin ebiltzuezan, ez ala, laztana? Idia baino lehenago gurako leu-keen buztarria, kontuizu, amesak egotzuzalako asmoen aurretik.”

“—Ba, “Gure Habia”. Gustaten jan?

“Zoro barrealarako urten eustan. Osaba Martinek eta biok umetan Landabason ohiko txori habietarako jolasak gogoratzen neuntsuzan:

eskilasoenak, mike, bele edo pagausoenak handienetan eta txikerrene-
tan barriz..., euren txinta edo txistu eta guzti.

—Gustauko ez janat ba? “Gure Habia”. Zoragarria! Ez don hori
txoriak umetan hasi baino lehen egiten dauen etxealakoa?

—Txoriak arrautzetan hasi baino lehen.

—Eskolaumeak legez barre egin geuntsun Bixentak eta biok. Berak
ez eutsula gura habiarik hutsik eukitekotan, izan be.”

—Baina noren burubidea izan dozue?

—Martinena.

—Susmo nendunan. Nori bestela...?

—Don Pedrok barriz, liburuei begituta, “Bidondo”, “Harrondo”
edo holakoren bat izan behar eutsula. Martinek ezetz eta ezetz, “Gure
Habia” izan behar ebala...

—Eta ez Landabasoko txori habiak bakarrik. Orduan konturatu nin-
txatzun osaba Martinek antzezturiko teatro zaharretan ba egotzula
txori aipamenik. Ba haxe bera abesten eutsun etxe barrigintzan ihar-
duela:

“Uso zurien habiak,
udabarrien lehiak:
habi zaharretan ez dau egiten
maite txintarik txoriak.”

—Amesak ala saputzak... edo biak nasteen, zer ez legoken osaba
Martinen bihotzondoan. Antzerkiko arte esperientzia ala bizitzako maita-
sunarena? Ea antzemoten dozun, laztana. Usoek, antza, zoriona dakars-
kue. Nire kantua “uso banintz...” eleiztiarra zendun eta hara, Kale
Barriko hogeigarren ateko, laugarren pisua, eskumatara. Osaba Marti-
nena, baserriko “Gure Habia”, beste zenbaki barik.

—“Bidondo” on ez baderitxazue, ea “Oruegozo” edo “Eguzki-begi”—
Don Pedrok tokizenen ereduari begiratzen ei eutsun.

—Osaba Martinek haintzat hartzen eutsula Ugarango ospeletik Harro-
bi Zaharrera eguzkiak, neguan batez be, eukan iraupena, baina...”

—“Eguzkitza-Goikoa” orduan...

—Hare gitxiago —Osaba Martinek.— Noiz izan gara gu Eguzkitza-
ko maisterrak?

—Eta oraindino lapikoan irakiten daukatsut osaba Martinen ateral-
di hauxe. Zer esan gurako ete eban “Eguzkitzako maister” berba horre-
kaz. Eguzkitzari ezer zor, ala haren izenaz kutsatu gura ez? Edo une-
neko erresumina? Eguzkitzatik Gure Habira ostaz dagotzu txorikume
hegadaren alde. Ez dakizu, laztana, txoriaiteak txoriameagandik hur
abesten dauena eta haren inguru habia egin be, egiten dauena? Ba osa-
ba Martinen kantua ondo be ondo entzun eiketsuzan Maite Eguzki-
tzakok. Eta abesten eutsun ba, harek orduan, ene bihotz.”

San Luis hurrengo domekan, txirrindulaketa barririk ezean, Baserri

Gaztedikoak herri mailako Bola Txapelketa antolatu daue Ibergainen.
Coca-Colaren publizidadeak nonbait toki emongarriagoak idoro dauez
edo Vespearen sarradak laster moteldu daroaz gaztediaren belaunak
eta txirrindularako zaletasuna.

Ibargaingo gaztedi barriak ohitura zarretan sakondu gura izan dau
bolatoki zaharra barriztau eta bola eta txirlo barriak erosi. Gudatetik
ez da bolaka txapelketarik egin Ibergainen. Maiatzeko lei eskergak
lorediaren itxaropena sapuztu ohi dauenez, holantxe ahortu eban gudeak
euskal folklorearen berbizkundera. Lehen Bola Txapelketa deitu dau-
tsoe. Suzia berreskuratu nahia? Dana dala ez dira ofizialtasunari bai-
menak eskatzera joan. Bestela Lehen Bola Txapelketa barik “Primer
Campeonato de Bolos” ezarri beharko leukeen paperetan. Orduan pape-
rik be ez. Herri mailan, familia giroan.

—Jo! Aurten misa aukeratu barik!— Besoak gurutzatu dauz Erro-
tatxuko Fernandok, etsipen seinuak dagizala.

—Horrek joan zoazen —Martin Ugarangok bolearen zuloa arras-
kaz leuntzen dihardu.— Orain ez joagu horretarako astirik.

—Aukeratu be, nor aukeratu balegok! —Tomas Larretxe ahoa zaba-
lik gelditu da.— Ba kalera bidea hartu dauenetariko bat aukeratzea
baserriaren kontra joango litzakek.

—Hori gainera!

—Ba errepika daiela lehengoak.

—Zera! Errosari Larraineko hasita!

—Kalera lerratu ez diranakaitik esan joat nik. Hor dozue Eguski-
tzako Maite.

—Eguzkitzako Maite? Anjelek esan daiskula? Anjel, zertan geldi-
tzen dok hori?

—Itxiok bakean. Ez dozue ikusten zutunik egoteko be, txikito ba-
tzuk sartu behar izan dauzela meza aurretik?

Anton Otatzuko mutiltzarrak bolea eskatu dautso Martin Ugaran-
goari. Biribiltasunean ondo aztatu, ondo oratu eta bolabidea libre eska-
tu dau.

—Ipini eizak bederatzi mutikook zutunik —eskatu dautso txirloak
egokitzen dauzanari, dendua hartu eta zapart jaurti dau.

—Bost. Hasteko ez jagok txarto, Anton.

—Ni ez natortzue inongo misik-edo aukeratzera, baina bai hemen-
go pultsua edonori egiten. Posture edonori norena hemengo txapela!

—Jo! Hik asko jakin behar dok —Ukabilkadatxoak emoten dautsoz
Fernando Errotatzukok.— Ez zoan ba eurea gerra aurretiko inguruko
txapelketea? Kontuz, Antonegaz Gueneko Sanpedroetan be markea
egin joan-ta.

—Gero be hik eure etxe ondoan ekiten eutsoela, entzun joat, harik
eta boloa zuen patinean usteldu zan arte.

—Hori aspaldi zoan, mutilek. Hasi gaitzean barriro. Markea zeinek
apurtu aparia jokutzen dautsuet danori.

—Benga! Benga! —Buru berotuxe dator Anjel Elizburuko,— Geurea da-ta, Euzkadi.

—Ixilik, txotxo —Atzamarra jasotzen dautso Anton mutiltzarrak.— Bolatan esan jaogu-eta. Galtzen dauenak aparria ordaintzekotan. E? —Erronkea jaurti dautse eta begiradeaz axaxatzen.— Oso merkea dozue: zeuk irabastekotan, neuk danona. Neuk irabastekotan zeuk neurea.

—Mutilek, gauza lotsagarriagorik egin izan joagu inoiz eta galtzekotan badozue be, apostua apostu —Burua mogitzen dau Ugarango Martinek. —Gero be zeozer afaldu beharko joagu, ez dozue ala?

—Euki —esan daue Ibargaingo gazteak.

Anjel Elizburukok hanartean bolea jaso eta jaurtikeran, eskuetan kakotu jakola, boleak eraginik, bira osoa egin behar izan dau.

—Edanak be aparitarako itzi bahenduzan, ez asko txarrago —Agi-rika egin dautso Otatzuko Antonek.— Markarako ona hago heu!

—Zer gura dok, lagun? Hasi eta behingoan Angelek markea egitea?— Adarra jotzen dautso Errotatxuko Fernandok.

—Gauzea ez dozue indarrean, ikuian baino —Maisu tankera har- tzen dau Anton mutiltzarrak gazteen aurrean.— Ez edozelan jaurti. Ez dozue entzun munduak be bira modu bikotxa daroala eguzkiaren inguru?

—Eguzkiaren inguru? Jo! Hori asko jakitea dok. Noiztik dakik guzti hori, Anton?

—Ba bolegaz be bardin, Perrando Errotatxuarra: Eskuturraz daroa, eroan behar dau, birakera bata eta besoaz bestea. Horrela gurpilaren antzean iraulka barik, lurra lez irabioka joatzue bolea.

—Jo, txirloren ondoan botila beteak balegoz, neuk be zeozer egingo neunkek. Ez ala, Anjel?

—Bolea bera dozue mareatu behar dana, txirlategian era bitako lana egin daian. Jaurti eizue horrela eskuko txirla zerrendara eta hiru barik, lau, bost edo sei. Gitxitan jazo izan da bederatziak botatea.

—Zein izan da zure markea horretan, Anton?

—Zazpigino erastea izan da nire markea. Baina gauzea ez dago baten lortzea, zazpitan zazpi Don Pedrok esaten dauen lez baino.

—Ea oraingoa ba zenbat doazen.

—Erregela-maisuak esaten daueneko, ni prest.

—Peilo bera izan daitela erregela-maisu. Non dago Peilo. Erbie- nean? Deitu Erbienera.

Anjel Elizburuk laster emon dau Erbienerako pausoa. Errotatutxo Fernandok sorbaldatik oratu eta geldi egoteko dinotso.

—Hi hemen, txotxo; Antonen eskolea ikasi behar dok-eta. Neuk joango nok.

—Ba, nire markea gainditu gura badozue, kontu egin esan dautsue- danaz: bira bikotxa. Lehenengo txirloa, aurrera barik, ezkerretara jausi daitela, bardin bigarrena eta hirugarrena, bolearen bidetik apartatuala joango balitzaz lez. Ezkerretara idulikeran, zoko zuzena egiten badaut- sue, sei ziurak dozuez. Eta eurak beste ahinbeste eginez gero, bedera-

tzirak. Gehien bat zoko erdigino biratzea lortzen dala eta horrela, esku- ko lehenak erdiko zerrendako bigarrena ikutzen, honek, indarrik bada- roa, ezkerreko zerrendaren azkena. Eta hor joatzuez sei.

—Mila berba, baino hobe bolakada bat, Anton —Aginte makila jaso dau Peilo bertsolariak.

Dirua gora-goraka jaurti eta “buruandi ala buztarri” sortera egin dau. Buruandiak irabazi. Mutilak txandan botako daue, baina bataren puntuak ez dira gehituko. Hamabi takada daukezela azken apuntatu dan Anjelekin gazteek, eta Antonek bakarra.

Peilok, ohi danez, makilea gora jaso eta gauzea benetan doala ikus- tean, plazako gendea bolatokirantz hurreratzen doa. Jende helduak Antonen aldera ekiten dautso, plazaren bestaldean dagozan tonbola- riak euren ostera “Prueben suerte! Doscintas pesetas por veinticin- co!” eta umeak poltsiko bete txanponaz zoria jostailu eta gozokietan trukatzera doaz, “a mí, a mí” eskua jasotzen daue txartela eskatzen dauenak, ez daiela uste tonbolariek hemen, Ibargainen, ez dakigula erderarik.

“Sanluis hurrengo domeka haretan ezetz igarri nor izan gendun gonbidatu Ugaranen? Ba nor izango zendun ba? Aitatxo Luis Urkola- ko semea eta harrezkero nire senargaia. Artean be Ugaranen egona zendun, baina ez gonbidatu ainean eta gitxiago Sanluisetan. Lehenen- goz nebarreben arteko mahaikide zendun eta, zer esanik be ez, Urtubi- ko mutilari harrera ona egin eutsola. Amak eta biok serbitzen gendun mahaian, osaba Martinek onetiko ardaoa atera eutsun ospakizunari berea emon gurarik. Ez zan gitxi be harrotu Luisek ardaoa jastatu orduko ontzat ezeze, ezin hobetzat emon eutsunean.”

“Osaba Martinen pozkeriak ausaz izeko Karmele musinduaren lepoti- koak izan eitekezan. Izeko Karmelerena jakin-barri geuntsun, baina ez jakintzat emoten geuntsun Urkolako gonbidatuaren aurrean. Helduko zan, sobra be, gauzea jakiteko ordua. Bururatu be ez jakula egin osaba Manolori deitzea, auzoko esamesei eta etxeko eztabaidei bakea emo- tearren, behar bada. Ona legoken osaba Martín'gailegu iguingarria' hala- ko ohoretan hartzeko. “Ha badator, ni tabernara edo edonora joango naz jatera” esan leikizun, “ha datorrenerako, nik etxea ustu egingo dot” esanda eukatsunez. Izeko Karmeleren musinak ez ziran horregaiti- koak. Behar bada, bere buruagaz egotzun aserre, ez Manolo bere senar- geiari gonbiterik egin ez geuntsalako. Otu be ez jakon egin ez berari eta ez geuri halakorik. Bakoitzak aukeratzen dautsuz bere bide eta tanke- rak. Izeko Karmele mahaian serbitzeko be prestatu jatzun, nik jesarra- zo egin neban.”

—Gaur neuri diagokidan, hik izango don gero hortarako unerik.

“Artean osaba Manolok Ugaran zapaldu barik eukatsun. Hagaitik ez geuntsuzan horren benazkoak emoten euren arteko harremonak.

Bestalde, bera baino lau urte zaharragoa nozunez, eta eskoneguna aurretiz ia izentatuta geunkatsunez, neuri egokidan. Arazoa ez zendun ba txandea aldatzean-edo. Nahiz eta ezbardin, gauzak etozan lez, hartu.”

“Izeko Karmelek berak be ez euskun Manolo ezkongai etxean aurkeztu, ez guri, ez amari, ez eta aurkezteko gogorik be eguno erakutsi. Manolo bildur izan eitekizun, osaba Martinek ez eutsulako lagunartean onartzen. Eguzkitzako edo zubiko mugea ez ei eutsun gaingidu arteko neskalaguntzetan. Ez eutsun gura, antza, osaba Martinen ahiergoa zan baino gordinagotzerik.”

“Gero jazotekoa jazo zan. Ez dot uste Ugaranen egoen frentea apurtzeko amarrua izan ebenik. Osaba Martinek ez eutsun hatakotzat emoten dana dala, jazoak jazo, berak etorkizun zoria erabat aldatzeko abagunetzat baino.”

“Sanluis hurrengo domeka haretan, amuma eta izeko Karmele mahai jasoten izten genduzala, “Gure Habiaren” onarriak ikustera joan gintzatzuzan. Ha zendun osaba Martinen erakutsi gurea. Kafe ordurako geure artean gendun Uharkako Bixenta be, gure arteko poza gehitzen euskula. “Gure Habiako” atartearen kaizua arriluzko hormek markatzen eutsuen eratara gogoratzen dautsut. Txikia eritsi neuntson.”

“—Zertarako handiago —erantzun eustan osaba Martinek.— Ez don astoa edo gurdia bertan sartzeko be.

“—Gurdia? Ba diagok orain gurdi hoberik...”

“—Kotxea esan gura don? Lekutan diagon gurea. Baina orduan be atarte atarte eta ez garaje. Horretarako atzeko albatetik pentsauko dionagu zeozer. Hau aldamenetako sukaldeei metro ta erdi gehiago emotearren izan don.

“—Zenbat sukalde behar dozak ba?

“—Aibala! Zenbat sukalde behar jozan bizitza biko etxeak? Ez don gurako Bixentaren lapikotik beti jaten egotea?

“—Ez, ez —Esku-hartu eutsun Uharkako Bixentak.— Erosi daijala berak berarentzakoa.

“Atartetik hegal banatara ate makoak, arriluzko hormak erdi eusten eutsela. Barrura sartu gintzatzuzan oraindino goian zerua eta behean lurra eukan sukaldera.”

“—Hementxe izango dozue sutegia, hemen harraskak.

“—Ba polito benetan —Zabaluneari egokia eritsi eutson aitaxu Luisek.

“—Gaur herriko Patroiaren eta eure Santua ez balitsok, hementxe geldituko nintzakizue, haizkorea zorrozten ez bada be.

“—Bai, hementxe egonda topauko dok eure lapikoa beroketzeko behar dokana.

“Osaba Martinek irribarre maitakorrez erantzun eutson Uharteko Bixentaren oharrari. Orduan ez nintzatzun hainbeste konturatu, baina zergaitik ez gengoan sukaldearen orube bertatik? Kontu egizu Gure

Habia eguzki begi, kaminora begira dagola, baina gu gengotsuzan ezkerreko partetik Eguzkitza ikusten zala. Orain bada, zergaitik aukeratu ete dautsu ezkerreko alderdi hori beretzat? Eguzkitzakoei arpegian emotearren ala Eguzkitzako eguzkia be ikustearren? Haren sartu-urtenak hobeto zaintzearen, esan gura dautsut...”

Afal ordua da Erbiene txokoan eta bolarietan hirugarren txapela lortu dauena doa puztuen, txapela buruan kabidu ere egiten ez jakola. Errotatzuko Fernando adarra jo guraz hurreratzen jako. Sebas mutiltzarrari mostradore ondora.

—Zergaitik deritxazue Erbiene zuen kofradiari?

—Erbiene Erbiene dok hi jaijo baino lehen eta nik ezagutu joadanetik.— Musturra luzatzen dautso Sebas mutiltzarrak Errotatzuko Fernandori.— Zer uste dok ba?

—Eta noiz afaldu zenduen azkenengo erbia?

—Azkenengoa? Jo! —Sebasek txapelpean sartu dau eskua.— Pinudiak eta azeriak jan jauskuezan kasuelakadarik onenak. Lehen dana zoan erbia.

—Eta orain ezer be ez, ez da? —Keinu maltzurra dagitso Olatxuko Fernandok.— Eta zuek, zeuen gazte denporan lez, Erbiene deitu gurea. Aldiak aldatzen joazak eta, ez dozue pentsau izen hori aldatzerik edo?

—Zer gura dok gure sasoian...?

—“Kuiene” edo “Katuene”, nik dakiat ba?

—Katurik ez horixe! Hemen ez dauskue eguno erbi ordez katurik sartu. Zer uste dok ba?

—Ba, orduan oilatokitik edo kortatik bilatu izen egokiago bat.

—Aiko, Errotatzu... —Behetik gora begiratzen dautso Sebas mutiltzarrak Errotatzuko Fernandori.— Noiz ehio zenduen azkenengo gari edo arto zorroa?

—Urunik ez, baina errotea han diagok.

—A bai? Eta Erbiene letrero ondoan ez dot ikusten erbiaren irudia?

—Ederto erantzunda! —Sebas kidearen alde basoa jaso dau Txiskik.— Zer uste daue ume kondook? Inonera etorri eta maisu direla? Pentsau hobeto hurrengoan buruaren neurriko txapela irabasteko.

Olatxuko Fernandok txapelkoa erantzi eta atzamar puntan girabirak emoten dihardu. Mariantoni, Erbieneko sukaldariak, lorontzia ipini dau mahai buruan.

—Toki hau txapeldunarentzat. Besteok alboetan— agindu dau.

Anton txapelduna Erbiene sartu daneko, Txiskik eta Sebasek txaloak jo dautsoez. Martin Ugarango da bigarren sariduna. Peilo kirol epaile eta herriko bertsolariak kantuz emon dautse ondoetorria:

“Ibargaineko bolalekua

zaharbarritu dauskue,

sei gaztek heldu bateren kontra
egin dauskue apostue.
Zaharrak gazteei egurra emon,
bolakan berak tantue:
gazteek ordain beitsoe Antoni
aparitako kontue.”

Txiskik irrintzi egiteraino goratu eban Antonen garaipena eta erabat Peiloren ateraldia. Halan da guzti, gazteen belarriak ez dira apaltzen.

—Zer egiten dozue zuek hor? —Eskuaz gonbidatzen dau Martin Ugarango mostradoreko mutitzar parea.— Ba daukazue hemen tokirik.

—Bai, datozela, falta diranen ordeko —Anjel Elizburukok zizkamizken kaxueleari baino lehenago oratu dautso ardao basoari.

Sei gaztek eta lau mutitzarrek orniduten daue mahaia. Erbiene eski-larapeko ardaoaz, tripakiez eta bolaketako tantuez dihardue. Datorren urterako marka barriak agintzen.

—Guk erbi saltzaz ospatu gurako geuntsuen Antonen garaipena, baiña, inguru honetan ehizari medartxoak doguzanez, koneju saltzaz pasau beharko dogu.

—Ea ba, datorren urterako bolarien pareko ehizariak urteten dauskuen.— Keinu egin dau Antonek txapel handiaren petik.

—Trapuzko erbie erosiko joagu —Atzamarraz eskopetaren kainoa antzeztu dau Txiskik—, eta plomo ta guzti saltzaratu gero.

Mariantoniren kasuelareak usain ona dakar. Kasuela bi hamarrentzat. Olatxuko Fernandok ardao botila hustuak hurreratzen dautsoz Mariantoniri. Txiskik botila barriko ardao jastatu dau.

—Orduan guk tiro librea geuntsuen. Gauzea ez zenduen erbi faltea, zeinek erbi mardoagoa eratzi baino. Orain ze apostu egitea gura dozue gure sasoiaren hemen Peilogaz bigarren mailako bertso puntuetan edo izan ezik.

—Ez dok gitxi be, Txiski, hainbesterako bahaz— eritsi dautso Ugarango Martinek.

—Ea ba, Txiski, erakutsi hor.

Txiskik zurrutadatxoa egin, ezpanak txukatu eta estul egin dau kantu zurrumurrua hasi aurretik:

“O Peilo, Peilo,
edan joat eta
gero bere edango;
mauka joat eta
orain niagok bero
kopletan puntuak
heugaz neurtzeko.”

Antonek garailearen txapela erdi jaso dautso Txiskiri, haginarteko barretxoa opa dautsola.

—Tira, ehizari-ohiak be ohi dan lezko bertsolari eginda berton.— Txalotu dau Ameztiko Julianek.

Sebas mutiltzarrak basoa bete dautso osterara be Anjeli. Ukondoaz jo dau Errotatxuko Fernandok, lehenengo txapeldunak eta hurren bertsolariak direla esanaz.

—Ze uste dok ba? —Bekaina jaso dautso Sebas mutiltzarrak.— Bolakan eta bertsotan bakarrik izan daitekela mutila txapeldun?

—Bai, eta burua galduez gero, ze txapel eroatea gura dok?

Anjel Elizburukori ez dautsoe ardura askorik emoten bere lepotik dagiezan barretxoak. Ausaz beste zurrutadatxo bat eginda, danari aurre egiteko beste eritxiko dautso buruari, apostu guztiak eskutik bai-leukazan.

Peilok ez dau ahaztu Txiskiri erantzuna sor dautsola. Mahaikariak ere isilik eta begiak bri-bri herriko bertsolariari begira dagoz. Peiloren estul urrumadatxoa entzun daueneko jesarleketan atzerantz egin eta maukatzeaz be ahaztu egin dira:

“Hi, Txiski, mizkin,
ganorazko koplak
neurtzekotan nirekin,
edaten ezezik,
behar hendun jakin
aria non sartzen
dan puntadekin.”

Antonek garailearen txapela kendu eta ñaka dagitso Peilori.

—Iño! Oraingoan emon deuk e?

Txiskik esku artean gorde dau burua. Mariantoni botila hutsak ornidutera dator.

—Hemen argirik biztu beharrik be ez da egongo laster.

Antonek susmokari biratu dauz begiak Mariantonirengana.

—Eskerrak San Luisek argi luzeak daukazala.— ots egin dau emakumea sukaldarantz doala.

—Hemen dagozan batzuk be ez oso laburrak.

—Peilo, hi horren bertsolari izan eta zergaitik ez hintzan ezkondu? —Otoz-otoan daragoio Fernando Olatxukok txapelaren txikian burua kabidu ezinik.

—Ez dok ba, kofradia aitatu? Hi, ba kofradian be beharrezkoak izaten dozan kantoriak. Ez dok halan?

—Bueno, eta honeek beste hatxari eta monagilook?

Mutiltzarrak begitan hartuta dauke Olatxuko ume biurria. Fernandok lotsa barik begiratzen dautse.

—Hik, Anton, ez hendun ba andregaiaren kalabazakin bolakan eginez inguruko txapeldun urtengo?

—Astaputzakin eta kalabazakin ez jagok, txo, txapeldunik.— Serio begiratu dautso Antonek Olatxuko barrabanari.

Sebasek begi irristada larria egin dau, hurrengo sartadea berarentzat-edo dala uste izan dau. Aurrea hartu dautso:

—Txo, baina gu baino ejenplu barriagorik aurkitu gura badok, eure aldamenara begiratzea baino ez daukak. Ez eistak neuri begitu.

Fernando Errotatzukok halazoko begiak idegi dauz ingurura begira, bâtean Ameztikoa, bestean Ugarangoa, Uhartekoa, Tabernakoa, eta azkenik Elizburukoa ikusten dauz. Martin Ugarangori okerreko estarritik joan jako, antza, azkeneko ahokadea. Elizburuko Anjelek beste zurrutadaxoa dagi.

—Eta heure buruari begiratu dautsat? —Begiradaz jasarritzen dautso Sebasek Fernando Olatxukori.

Olatxuko Fernando zutundu eta behingoan arpegiunea ilundurik, lotsabakokeria damu baileuan, antzerki bidez-edo gozatu gura leuke unearen larria eta zotinka berbetan hasi da:

—Eta zer egingo dot nik, amak etxerako gura banau eta andregaiak ostera kalerako? —Begiak eta eskuak entzuleengan biurtzen dauz Fernandok.

—Ai txotxo! Errotarien onura eta ehiztarien fama joan zoazen! —Gogotik makilatzen dau Sebas mutiltzarrak.

—Noren esana egingo dot? Amarena ala andregaiarena?

—Ez deuat nik esango amari edo andregaiari kasorik ez egiteko, atsoen esanari baino.

Ameztikoa, Ugarangoa eta Tabernakoa batera hasi dira kantari, beste gazteak ere, Elizburukoa izan ezik, koilarez hots dagiela:

“Ez egin kasorik
atsoen esanari,
eta gitxiago
neskazaharraneri.”

Zoroki-moroki “beti eskamak kentzen” errepikatzen diharduela, Mariantoni jantokian sartu eta argiak isiotzen dauz.

—Ilundu egin da, uste baino lehenago, hara.

Mariantoniren oharra ostaz entzun ahal izan daue, baina bai argiago ikusi haren bekainean eurak darabilen ganora zabarra. Isildu egin dira, argiak salatu baileuzan. Peilok Olatxuko mutilari begira, artean gertatu dautsozanak zoli be zoli abestu dautsoz:

“Oinordeko izan ta,
etxekandre bila,
nondik sortu daiteken
biko biribila.
Baserrira ez ba jok
nahi neskatilak,

ea kalean, mutil,
soltzen jakan zila.”

Fernando Olatxukok txalo eta barre dagi, Anjel Elizburukori begiak busti jakoz, zintz egin dau Martin Ugarangok. Fernando Olatxukok antzetzokia iztera doalako dagi.

—Hauxe izango joak andregai barria bilatzeko ordu egokia. Zuetaatik nork laguntzen daust niri andregai on bat bilatzen? Hik, Sebas?

—Izarren argitan nik ez joak ondo ikusten.

Plazatik iluntzeko erromeriaren adarraren soinua dator. Fernando, Erbienen sartu dan lez, bola sariketetako txapel txikiari atzamarrean birak emonala urten dau. Amesti-Tabernakoek ostetik jarraitzen dautsoe. Elizburukoa ukoak mahaian kokaturik, esku biez buruari eusten dago. Martin Ugarangok, Antonen ondoan mahaiburuan jarraitzen dauela oharturik, burua jaso dau.

—Hi ez hoa ala, Martin?

—Joan nora? —Bekain garratza erakutsi dautso Ugarangoak.

—Ba..., nora izango dok ba? —toteldu dau Angelek Elizburukok.— Andregai bila.

—Eta heuk uste dok, berton egonda, andregai bera etorriko jakala?

Martin Ugarango jagi eta mostradorerantz doa, Anjelek atzetik darraitso, eskuez deika baten.

—Ez, niri ez, nik itzi joat. —Elizburukoak ardao disdiratan nasturiko etsipen begiez jarraitzen dautso Martini.— Libre izten dauat.

—Itzi naik baketan —Martinek sorbaldatik kentzen dau Anjelen eskua.

Orduan eta koipetsuago hurreratzen jako Anjel Martini, beragazko zorren bat kitau gura baileuan.

—Ez hadi asarratu, lagun, Maitegaitik dinoa...

Martin Ugarangok ukabilkada batez moztu dau Anjelen berbaroa, Maiteren izena entzun daueneko. Anjel zerraldo jausi da lurrera. Erdi jagirik beheko ezpainetik darion odola txukatzen dau eskugainaz. Elizburukoak ez dauka orderako gogorik. Bakean dakus Martin Ugarango Erbienetik urtetan, bakean eta zoribeteko barreirria arpegian.

“Izeko Karmele eta osaba Manoloren ezkontza sendikoen artean izan zendun. Ahalik eskutuen, laztana, auzoa ez asaldatzearren. Ibargainen bertan barik, Edurtzako Amaren eleizatxoan. Itzuri zeozelan larrituen begiradak. Ohieza zala herriko alabea herriko parrokan ez ezkontzea? Don Pedrok berak adierazo eutsun izeko Karmeleri Edurtzako Amaren eleizea.”

—Ze ardura dautso herrian edo herritik at, herrirako danean? —esan ei eutsun Don Pedrok.— Txarragoa litzaken herrian kalerako eskontzea.

“Paperak legean eta Galiziatiko gonbidatuak, baserritarrak eurak be. Euskera eta galegera eta gaztelera apur bat alkarregaz ulertu ahal izateko. Etxetik danok, osaba Martin izan ezik. Aitzaki polita azaldu eutsuna: gauerako non lorik ez eukala eta gela bat sikan beretzat antolatu behar eutsula Gure Habian. Lehioko makoak pintatu eta kristalak ipini.”

“—Manolo-ta gaur ez jatozak Ugaranera.

“—Eta Manoloren ama, Manoloren anaia eta Manoren arrebea?

“—Pepiño Manoloren anaiak Manolok berak ustu dauen ostatua diaukat Zeharrolan.

“Osaba Luziok, aitita zendunaren anaiak, besotik eroatsun andregai barria altarera. Manolo bere amaren eskutik etortzun. Don Pedro bera altarean, eleizkizuna euskeraz, gaileguari zuzendu eutsezan ohar batzuk izan ezik. Gaileguak ez eutsen iguinik egin gure berbakerari, laz-tana, hemen kalean euskaldun izeneko batzuk egiten dautsoen lez. Eurentzat normala da guk euskeraz egitea, eurak be euren artean galegeraz egiten dautsuelako parra-parra:

“—Ai Manoliño, que xa non te vamos mais ver.

“—Non chores, muller...

“Osaba Manoloren arreba Karminak zinkurin luzeak egiten eutsuzan haren gurasoak pozezko negarrak. Amuma Joseparen arpegikerean zirkinik be ez neuntsun nabari. Zotinalako bat eta mosu beroak izeko Karmeleri aste beterako Galiziarantz abiatu zirenean.”

“Astegarrenean han zenduzan biak, Karmele eta Manolo izeko osabak Ugarango baserrian. Harrezkero osaba Manoloren alogurak oso-osorik jatortzuz izeko Karmeleren eskuetara. Berak prestatzen dautsoz Manolori jakiak eta garbitzen, josten eta erosten jantziak eta alkarregaz bizi jatzuz. Ba dakizu zer dan hori, laz-tana? Aitatxo eta geu bizi garen antzera.”

“Osaba Martin ostera Gure Habian bizi jatzun, habiak teilatua ostaz buru gainean eukatsula. Lapikoa berotzeko ez eutsun oraindino suterik, baina Jose anaiak eroaten eutsun biona Ugarandik. Gure Habia gau eta egun zaindu behar eutsula inoan osaba Martinek Ugaranen ez agertzearren. Bake santua daroe osaba Manolok Ugaranen eta Osaba Martinek Gure Habian. Bake santua alkarregandik, jakina. Baina bere buruagaz, ez dot uste osaba Martinek bakerik lortu dautsunik.”

8

Ugarango anaiak etorri baino ez dira egin eguneroko ola lanetik eta ama Josepa aurkitu daue Gure Habiako atartean, “zoaze arin —dintse arren bai arren—, Iturri gorriko pinudia sutan dago-ta.”

—Ze pinudi?— Martinek buru askola askatu dau.

—Geure ugazabarena, hatan be. Arin ez bazoaze, suak eroango dau dana.

Josek ez dauka dudarik, “hoa heu” dinotso ahopetik Martinek anaiari.

—Ez dozuez entzuten su kanpaiak? —Eskuak astintzen dauz ama Josepak.— Eguzkitzako Luis eta Manolo be oraintxe joan dozuez.

—Ni ezin naiteke joan, ama. Harotzen lana begiratu behar dot.

—Zelan ez hoala?

Jose, motoa hartuta, burundara baten doa Iturri gorriantze; su kanpaien asalduek larria sortzen dau. Martinek hagin arte otza erakusten dau.

—Beste norbaitena izan balitz, joan egingo nintzan, baina, zeuk dakizu, ama, ez daukadala ugazaba horrekin zerikusirik.

—Ez daukaala zerikusirik? —Esku biak gora daroaz ama Josepak.

—Ez naz inoren maister gehiago.

—Bardin dok danaren edo izan danaren pinudia izatea. Ez joagu ba Eguzkitzako Luis bera joaten ikusi? Ai, neuk joan ahal baneu!...

—Ez dakizu, ama, etxean langileak daukadazala eta begiratu egin behar dodala hareen lana?

—Etxeak gero be itxarongo deuk.

—Bai ta Ugaranerako bideak eta zubiak eta jabetzak be, baina ni hemen ez banago, nik neure orduak hemen emoten ezbadodaz, ugazaba horrek ez dau egingo, ez daust lagunduko. Edo berak lagundu ete euskun teilatua barrizten, laguntza eskatu geuntsonean?

—Heure ugazaba ezpadok, beste edozein lez dok, seme.

—Eta zubi barrirako burdinea eta zementoa eskatu geuntsonean, berak dirurik emon edo atzamarrik mogidu ebala?

—Eta ugazaba ezpadok, beste edozeineri zor dautson laguntza bera sor dautsok halakoetan. Kanpai hori danontzako deia dok.

—Sorginak eta, sugeak eta sutan erre!

Martinen begietako argia ukabilak estutzeraino sututzen joan da, ama Josepak lotsarren estaltzen dauz begi-belarriak.

—Ez zorginak eta sugeak bakarrik, seme. Danok be suaz juzgatuko gozak gure Jainkoak egunen baten.— Zizpuru dagi ama Josepak.

—Egizu, ama, ugazabaren pinudiko inpernuko katuentzat be ordua jo dauela. —Oinen gainean garria biurritzeraino irabiatzen da Martin amaren aurrean.— Lastima handia txinpartaren bat ugazaba beragaino ez heltzea! Ja-ja! Nasai asko egongo dozu bera Hondartzako plaian, auskalo noren laguntasun nabarmenean...

Martinen barbaroa geroago eta ozenagotzen dalarik, ama Josepak, etsipendurik, atzera pauso dagi.

—Zergaitik eragozpenik ipini, ama, Jaungoikoaren zigorrari. Hori xe ez, neure eskutik apena hartzea ez legoken ondo be, baina ez uste, ama, behin baino gehiagotan gogotara etorri ez jatananik Landabasoko bedardia, negurako behar genduzan bedar onduak, eskatu eta eskatu geuntsozanarren, berak pinuz estaldu euskuzanean? Ausaz orduantxe txiparten batek erre izan baleuz Iturrigorriko eta beste pinudiak, atzeratu eiteken, eta guk negurako bedar ondua izango gendun. Ez zan halan jazo...

Martinen sugarrak ibitzen doaz unadaka, bere mindurikak bakan-tzen. Bere amorruen eztandeaz ama samindu baino ez dauela egiten konturatu da ausaz.

—Baina orain zoriak halan gura izan dauenez, zergaitik eragozpenik ipini Jaungoikoaren zigorrari?

—Jaungoikoari bakean itzi heinkion beheinipehin —Ama Josepak arnasea hartu eta begiak bizten dauz agirikaren ordea emotera bailioan.— Ez haut ezagutzen, seme. Suaz ez dala olgetan txikitatik erakutsi dauagu aitak eta biok eta hik zoria eta Jainkoa eta giza asmo eskutuak eta ilunak nastau dozak Donieneko sutean. Heure amesetako etxe barriari begira niagok. Zer zori, edo atarramentu etor daikik euri suaren epaitik? Edo ze beste jainkok salbau bertatik?

Martin, belarriak apal, Gure Habian ezkerreko sukaldean sartu da; Ama Josepa begiak txukatzen doa errekaldeko bidetik.

“Ez ebiltzuzan ondo egosi osaba Martinen zainetako odolak. Etxeginen eta kantari, baina zelako kantuak. Landabasoko txoriak alaitsuago abesten eutsuen habiginen ebiltzela. Min auhenak bakarrik joko eutsuezan mutikoren batek habia apurtu edo kumak ohostuten eutsoezenean. Baina nor etortzun osaba Martinen Gure Habia apurtzen edo

haren amestako kumak-edo ohostuten? Eta berak Santagetako errebindikapen harako hareek astintzen eutsuzan bere umoreak:

“Pinu tantaia ei dator
gora begira hain jator,
dirukeria ostera makur,
maisterrak jabeari sor.”

“Ugarango errebindikapenak ala Gure Habiakoak zenduzan? Noizkoak hatan be? Ez eutsun ba haseran kopla gozoagorik abesten? Non gelditzen ziran harako “habi zaharretan ez dau egiten maite amesik txoriak”? Ez ete eroatzun ba habi barria? Zertan asaldata letra zaharrek maite habiko lumak?”

“Uhar nastuak errekan
pinu negarra uretan,
baserritaren malko direla
jakin daitela Uhartzan.”

“Ugarandiko ur garbiak, izan be, Uhartzan galdu daroe gardentasuna, baina bai eta guk danok be (zuk ez oraindino, laztana) amagandiko inozentzia. Papelerako ugazabak jakingo dautsue ze prezio egiten dauen pinuak, Santagedako bertso paperak salatuko pinu jabeen diru zalekeria. Pinuen negarraz eginiko paperak harekek be. Uhartzako papertegiko paperaz, behar bada, zuk niri eta nik zuri, kalte eginaz alkarri..., ez legoke ez inozentzia berreskuratzerik, ez eta ezer ziurtzat jotzerik dala ugazaren pinudia, dala osaba Martinen Gure Habia, ez eta zeure seguridadea, laztana. Bertan be, sua ez bada, tximista, tximista ez bada elektrizidadea, butanoa: berogailua, plantxadora edo Telebista. Edonondik sortu daiteke txinparten bat eta hareago gorrotoa tartekatuez gero.”

“Neuk be ikusi nenduzan, urrunetik bada be, Iturrigorriko erreketaren garrak, baina ez osaba Martinen suminak. Ibargaingo gazte eta helduak burubelarri ahalegintzen jatzuzan suari aurrea hartzen, baina indartsuago zendun heurak baino kontra euken haizea. Sakonetik muinoraino ertzean egin eutsun bere lan galgarria. Handixek igaroten nintxatzun ni egunero astoekaz. Hogeituro urteko pinuak ondo kiskalduta agertzen jatzuzan. Osaba Martinek suak amatatzera ez ebala joan gura entzun nendun, amumaren oharrak ez zirela nahiko izan, ez eta eleizako kanpaiak be. Halakoetan gauza diren gizonezko guztiak joaten jatzuz suak amatatzera, bada su batek herriko pinudi guztiak erre eikezan, eta ez Ugarango ugazabaren pinudia bakarrik. Eta bateri ez laguntzea norbere buruari kalte egitea litzakizun. Jo! Osaba Martin horretaz ez kontuartzera, laztana. Barruko sumin gordeak gehiago egin eutson horko gure kale eta mendiko zarraparretan polizi eta lapurretara olgetan dabilzanezi jazo ohi jakenez. Zertarako su eta tiro horreik, herriaren kontzientzia zabartu eta indartsuagoen eraso herriaren kontra erakarteko ezpada? Ai ene, olgeta txarrak, ipuin gaiztoak lez dozuz, laztana. Honeek geure burua zentzatzeko asmatuak izan ohi dirala maiz, hareek osterazentzuna galazoteko beti be.”

“Hareek mehaztu gabeko hoge urtedun pinuak be suari deika egoztuzan Iturri gorriko maldan. Gero ba diatortzu eskola gitxiko gendea entresakea egin gurarik eta kapaz dozuz arriskurik handiena dagoen tokian bertan lapikoa berotzen hasteko edo, ardura barik, zigarroa iziotu edo zigarro kondoa bertanbehera jaurtiteko, suak berea egin daian. Horrezaz gainera haizea alde idoro balegi eta errekaldeak behetik gora tximiniarena egin, alperrikoa kanpaien deiadarra eta borondate oneko guztien izerdiak. Alperrikoak kontuizu, euren bihotz onaren merituak aparte.”

“Amorru une bateko kaltea be arin egiten da. Gero, onenean be, haren zauriak osatzeko ileak eta urteak gitxi dozuz. Okerrenean ez dauke erremediorik. Esan ezpabe hor balaz jota jausten direnen amei. Iturri gorriko pinudi erreak erakutsi eustan apur bat. Gure sendian, Jainkori esker, maistergoaz landa (osaba Martinen eritsiz) ez dozu izan amorruak edo indarkeriak espetxeaz, heriotzaz edo beste zigorrez kaltekorik. Horregaz ez dautsut ukatzen gurean ez dala egon amorruak, angeru onak nahiko baketsu garoazela baino. Gurean bata besteen suak eta suminak baretzen ahalegindu gara, amuma Josepa aurreren dala. Iturri gorriko pinudi mehaztu gabeak lez alkarri sua emoten hasi izan bagintzazan, bata bero, bestea beroago, zer? Gizakien amorrua, kaleko zarraparren mendebalak eraginda, gozoagoak direla uste dozu? Bada batzuk, laztana, su kanapaiak entzunarren, sua gehitzera joaten jatzuz, amatatzera baino lehiatsuago. Amorruren goritan zentzuna galduak dozuz. Hainbeste familietan eginiko kaltea amnistia batez-edo konpondu leikezenak direla ustekoak. Ez eta hamar urteko maitasun ereintzaz be. Gizakien bihotza ez dozu Iturri gorriko basoa.”

“Iturri gorriko basoan bai. Han sasi-abarrak erre ondoren, enbor txigortuak kendu eta potso barriak haitzurtu ondoren, handik ile pare batera, pinu landere barriak gora begira zenduzan eta honez gero han ez dago erresundarik. Ez ba, Hondartsako ugazabak ez eutsun itzi bertabehera, behin buruarinkeria batez-edo erre zala-ta. Baina nor da hemen, herriko solo landuenean be, halako miraririk egin daiken ugazaba?”

“Bada, halan eta be, batzuk jainko burua egiten dautsue, eurak egun batean erre eta bestean erein edo landatu ondoren baratzeri oparotasuna eta zuzenbidea eta maitasuna ekarteko balitzazan lez. Nor-tzuk? Eta hain zuzen be, gure Jaungoiko jaunari sinismena eta lotsea galdu dautsoenak, laztana. Ez dago gizaki zoroagorik Jainkoari eta bere aginduei begiramena galdu dautsena baino. Ba dakizu? Hona arteko giza eta erlegino baloreei sua emon eta haren hautserretatik gizaki eta mundu barria sortzeko ei dozuz. Zer uste dautsue jainkotxo horreek? Egunero zeulako angerutxoak jaioko direla, begiratuaz bakarrik, ikutuaz bakarrik, lurra zeru eta baltxa zuri biur leikeenak? Onak dagoz lurrean zeulako miraria sortzeko! Baina Jainkoak emonda, zertik lurrera, hemengo arriskueta etorri zarenez, ez dot itxiko kokar

gosetiak euren pozoiaz zure bihoztzoa oskatu daian.”

“Ez dautsut esan, baina eztabaidatzoa daukagu aitatxok eta biok, non eta Ibarrolan bertoko ikastolan sortu dan eztabaidari nik susmo txarra hartzen dautsodalako. Berak batzarra eroateko modu eta teknikazko eztabaida dala dino eta nire susmoetan oster, beste mundu zabalago horren amarruetakoa dozu. Egizu legez Ikastoleari laguntza emoten dautsogunok, umeen gurasoak besteko eskubidea daukagula batzarretan. Ba, gizonezkoak ez dautsue ba euretara erabagi hemendik aurrera gizonezkoz bakarrik osatuko dauezela batzar orokorrak?”

“—Zer? Andrazkook ez ete dakigu gizonezkoak beste gure umeen heziketan?”

“—Ez dala hori, andrea.

“—Edo kaletar eta baserritarren artean bereizkuntza egiten ete dozue eritsiek emon orduan?”

“—Gauza batzuk teknikoak direla baino...”

“—Gauza teknikoak bost urteko umei dotrina erakutsi bai ala erakutsi ez?”

“—Ez dozu erakutsi bai ala erakutsi ez, hain zuzen. Ezpabe guraso bakoitzari baterako zein besterako askatasun guztia emotea baino. Ikastolako batzarrak demokraziaz eratuak izan behar dautsu eta ez Estaduko Eskoletan lez, dana Frankok agintzen dauen moduan eta bere erretratua Kristo eta Ama Birginaren ondoan, Ama Birgina eta Kristo Frankogaz dagozala adierazteko.

“—Ez dok nik eguno ikusi Frankorik eleizako dotrina leketan eta nik dakidanik ez eta Ibarrolako Ikastolan be.

“—Ez da hori arazoa, andrea.

“—Nik bidezko emoten dot Ikastolako danok Frankoren eta bere legeen kontra egotea, baina Estaduko Eskoletan Franko Kristo eta Amabirginaren ondoan dagola eta beste barik, Kristo eta Amabirgina be kendu gura izatea ez dot ulertzen.

“—Ez, irudirik ez da kenduko. Ona legoken Don Felis horretarako! Ez leukela itziko dinotsut.

“—Baina Don Felis hataratuko balitz, zuek kendu egingo zenduezela, esan gura daustazu?”

“—Nere partetik ez behintat. Baina itzi daiguzan Kristoa eta Amabirgina bere tokian eta dotrinea gurasoek nahi dauen umei bakarrik emotean da zera. Ulertzen dozu?”

“—Ulertzen dok euren jokua. Niri ondo deritxat guraso bakoitzak bere umeari dagokon dotrinea erakustea edo ez erakusteari, baina eskubide hori dala-ta, dotrina orduak eskolako orduetatik kanpora izteari txarto be txarto deritxot. Non? Eta eleizako dotrinalekuan ukatu gura dozue zuek Estaduko Eskoletan egiten dana eta demokraziaren ize-nean?”

“—Ba Don Felis prest dago halako konponketa baterako...”

“—Abadea hataratu, hatan be?”

“—Egizu ez dala dotrinea ukatzea, ezpabe gura dauenentzat ordu berezia ipintea baino.

“—Hortan dagotzu ba bereizkeria! Eta zuek ez konturatzea! Egingo neunke Don Felisek...

“— Don Felisek gauzea batzarraren erabakian izten dau.

“—Eta nork erabagi dau androk batzarretik at iztea, zeuek ala Don Felisek?

“—Ez dozu izan horregaitik. Politikazko arazoak dagoz artean, andrea: ezkerrekoak eta besteak.

“—Nortzuk besteak?

“—Ezkerreko ez garenak.

“—Frankoren alderdikoak?

“—Ez, horrek fasistak dozuz. Abertzaleak esan gura neuntsun. Hau da abertzale katoliko direnak.

“—Garenak.

“—Horixe, abertzale katoliko garenak. Baina gauzea isilik eukitekoa dala eta zuek, andrazkoak, ez ei zaree isilik egotekoak eta...”

Ia urte bete bada Ibargaineko parrokiaren umerik bateatu ez dala eta ikustekoa, Ugarandarrak dakartsen umea ikustean, Don Pedrok hartu dauen poza. Josepa, amuma barria, bera dator aurreren, guraso barri eta aita-amabixiei ikasbidea emoten. Agate eta Jose Ugarangoak dira, izan be, mutikoaren amabixi eta aitabixiak.

—Eta zuek, aita-amabixiok, gurasoen lagun izan behar dozue ume honen kristau hesiketan. Gertu zagoze?

—Bai, jauna.

Don Pedrok liburutik irakurten dau, irakurri, baina testoak ia buruz dakizanez, begiak aitorleen begietan daukaz maizago adorea emotearren, haren borondatea aztatzearen baino gehiago.

—Uko egiten dautsazue beraz, Santanasi eta bere egite guztiei?

—Bai, uko egiten dautset.

—Sinisten dozue Jainkoaren Seme bakar Jesukristo gure Jauna...?

—Bai, sinisten dot.

Don Pedrok pontera deitzen dauz guraso, ume eta aita-amabixiak. Ontzian ura hartu eta begirada aztergarriaz jasarritzen dauz entzuleak, oraindino be ezbairen bat baileukan.

—Beraz, gura dozue Eleizamaren araura eta zeuek hitz emon dozue-nez ume hau bateatzea?

—Bai, gura dogu.

—Imanol (hau da, ‘Jainkoa gugaz’) nik bateatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

—Amen.

Don Pedrok orioz gantzutu dau Imanoltxoren bekokia, kristinau sendo eta aitamabixien ahoaz aginduriko burrukan zintzo ekin daian.

Argia isiotu eta bideko lagun emon dautse gurasoei, bidearen azkeneko gonbitea gomutarazoaz.

Eleizkizunaren ondoren guraso, ume eta aita-amabixiak sakristiara doaz Don Pedoren ostetik. Soingaineko zuria kendu, Bateoen liburu handia zuzendu eta mahaian jesarri da Don Pedro. Lumea azotean busti dau. Hareek liburu zaharreko izenak tinta baltzaz idatzi beharrekoak direla esaten dau, gizaldien amairaino iraun ahal dagien eta ez oraingo edozein boligrafoz. Nork jakin boligrafoen tinteak daukaten iraupenaren barri? Baina tinta baltz harek behintzat gizaldietan irauten dautsu.

“Milla bederatzireun eta irurogetazortzian, Maiatzaren bosta dala Imanol...” Une batean dardar dagi Don Pedoren eskuak. Hizkiak ahalik eta biribilen zehazten ahalegintzen da edonork eta edonoiz argi irakurteko eratan. Dudatxo baina: euskeraz zelan idatzi Imanoltxoren aitaren izena?

“Bere aita Manolo Gon...” aidean dago gauzea; “ze” ala “tze” aginduko ete leuke Euskaltzaindiak? Tiki-miki horixe da, izan be, Don Pedoren eskua dardarazo dauena. Ez “Gonzalez” edo “Gontzalez” inoiz entzun ez dauelako, Ibargaingo liburuetan lehenengoz agertzen dalako baino. Eta lehenengoz danez, ardureak dauka.

“...tzalez, Pereiro Orensen Outeiroko semea (Galizian), ama barriz, Karmele Arteaga eta Zugadi Ibargainen Ugarango alaba...”

—Zenbat da, jaune? —Jose aitabixiak artega bueltak damotsoz diru boltseari.

—Ezebez, txotxo. Sakramentuak ez dozak ordaintzekoak.

Bateatu barriaren zehaztasunak hartuta dagozanarren, Don Pedrok ez dau liburutik burua jasoten eta hagaitik Jose Ugarangok ez daki zer egin diruagaz.

—Ondo dago, jaune?

Don Pedrok hegalka begiratzen dautso idatzi-barri orrialdeari.

—Ederto. Tinteari ondo lehortzen itzi behar jako, bestela badakizu... Bueno, baina zuek zertan zagoze?

Liburua mahai gainean idegita dagolarik, Don Pedro zutundu eta batailiarrei agur esatera doa. Manolori eskua emon eta Karmeleren besoetan dagoen Imanoltxori irribartsu begiratu dautso.

—Hau dozue, beraz, Ugarango etorkizuna, Josepa? —Don Pedrok sudur puntan ikutu dautso umeari, Josepagana biurtzen da.— Bai, eta zergaitik ez? Ugarango ugazaba izatera helduko da.

—Jaungoikoak entzun beio, jaune —Otoitz egin dau Josepak.

Don Pedro Karmele ama barriarengana itzuli da.

—Nik urez eta Espiritu Santuz batetu dautsuet zuen umea, baina zuok, gurasook, halakoari dagokion eskolan hesitea eta euskeraz erakutsiaz euskalduntzea dagokizue.

—Bai, jaune, ardura barik —erantzun dau Josepak.
Irribarre gozoaz alkarri agur egin dautsoe sakristiako atean.

Don Pedro Bateo liburua dagoen mahaira hurreratu eta bere alturaren pareraino makurtuz, lerro idatzi barriak distirarik egiten dauen begiratu dau. Ez, dana dago eratan. Hareek dardara uneko tinta multsokatuak, batez be, ez daue itxikeran aldameneko orria orbanduko. Don Pedrok liburua jaso eta bular gainean daroa armairura. “Ez eta abizen hain arraroak gainerako euskal toponimia eta patronimia guztia” dino bere kolkoan.

“Ugaranen bizi izan nintzaneko azken egunetan zan; ni esneen azken kontuak kitutzera joan nintzan Eguzkitzara. Neu ezkondu baino aste bete aurretik izango zendun, bada ezkondu baino aste bete aurretik itzi neuntson esnesaltzaitzari. Ohi danez, esne kontuak garbitu eta nere ezkontzaz eta handik harako kalebizitzaz ezinbestekoak aipatu eta gero, bai eta esne prezio barri eta letxeruen mozkinak maizeatu ondoren, agurrak esan eta etxerako nengola, ezin itzi izan eutsun Eguzkitzako Tiadorak Gure Habiari ikututxua egin barik.”

“—Zu, eta zeu kalera ezkontzen zarela, zuen Martini-eta zelan otu be egin jake hor kamino zuloan, kalean hain prezioetan egin leikeena?”

“—Prezioen gora-behera horixe jakiteko, zelako etxea dan jakin behar; baina tokiari dagokinez, gure Martinek-eta gurago dautsue hortxe kamino hegalean, edozein kale bazterrean baino— erantzun neuntsan nik, apur bat minduta.

“—Ez, ez ninotsun edozein kale bazterragatik. Kalean toki apainak be badozuz, Abenida Nuevan, esate baterako.

“—Martinentzat bardin Abenida Nuevan izan ta be. Behar bada, han txarrago, dabilen zarata eta mogimentuagaitik. Gure mutilen begibelarriak ez dozuz hain arin bertakotzekoak, hain zuzen bertan daroelako lana. Hareek lanetik eta olako tximinien kerizetik be urrun, gurago.

“Ako bestea! —ninon neure artean.— “Zelan otu be egin jake...” Zer uste eban ba? Osaba Martin eta Jose tuntunak direla edo baserritar ezjakin arloteak? “Kamino zulo horretan...” Zer deitu be “kamino zulo”. Harrobi zaharrak goiko aldetik hesi egiten dautsolako? Hainbat hobeto. Gordeago horrela ifarreko erasoetatik. Nor da Eguzkitzako Tiadora Gure Habiari “Kamino zulo” deitzeko? Don Pedrok “Kaminondo” deitu gurako eutsun, izan be Eguzkitza bera lez kamino ondoan dagolako, baina bera baino jasoago eta ezkutuago hatan be. Edo aldamenean jasoriko etxe barriaren zeloak? Edo Zeharrolako Abenida Barrian alabarentzako amesak? Maitek Abenida Barriko kaiolan gurako eutsula? Ba Martin gureak-eta, Gure Habian. Edozein txorik lez, gurago berak eginiko habia, inor eginiko urrezko kaiolia baino.”

“Nik ondo be ondo ikusten dot osaba Martinen aske zaletasuna. Ez

dozu bera kale apaineko kardantxilo edo perikitoa, Ugaran aldeko biragarro edo txantxangorria baino. Sartu eizuz txoriok kaiolan eta hil egiten dozuz. Hil gurago dautsue kaiolan bizi baino.”

“Nik erantzun, Eguzkitzako Tiadorari egiten neuntson, baina begitu, maiz bere aldamenean eta isilik egotzun Maiteri begiratzen neuntson. Asko ardura eustan niri Tiadoraren eritsiak. Bere oldez ala Maite-ren ahotik berbetan ete ihardutsun? Horixe jakin gura nik eta azalpetan apropoz luzatzen nintxatzun:

“—Bakoitzak nondik begitu, handik dakutsu alde ona edo txarra. Medikuek be nerbioetarako baserriko haizeak osasuntsuagoak direla dinoe. Gure ibarraldea, alde batetik ola-lanerako kaletik ez urrun be, eta bestetik, ederra eta, alderdi hau barriz eguzkitsua, dala ezin ukatu, Eguzkitza zuen etxearen izenak dinonez. Kalean bitik bateri aldameneko etxeak jaten dautso eguzkia, esate baterako, gure baserriari negu aldean mendiak jaten dautsozanez. Hori han bizi danak daki. Guzti hori kontuan hartu eutsuen gure Martinek-eta Harrobi Zaharra auke- ratzean.

“—Bai, ez dinotsut eguzkitsua-edo ez danik, baina gero hemendik hara eguneroko lanera joan beharra...”

“—Ziur hori be beste lan bat dala, baina behin egin ezkerro, han gelditzen jatsuz lanak eta lantokiak, tximinien keak eta motorren zaratak eta...”

“—Ez dautsue hori danak esango...”

“—Erdera bera, esate baterako. Gure Martinek ez dautsu erderarik entzun be egin gura.

“—Bueno, erdereka beste kontua dozu.

“—Beste kontua izango dozu, baina ez kalera bizitera joan eta egu- nero entzun gura ez zeunken musikea.

“—Pertsona danera egiten dozu, Agate.

“—Batzuk bai...”

“Haraz gero, isildu egin nintzan. “Batzuk bai...” esatean neure burua ez neuntsun arteko hartzen. Ez dakitsut ausaz Eguzkitzako Maiterena. Ba, neu kalera egina nozunarren, ez nozu egin erderara, esate baterako. Egia esan, hemen Ibarrolan, Zeharrolan baino euskera gehiago egiten da kalean. Ikastolea dogu, euskal zaletasun biziagoa.”

“Dana dala, kalera ezkondu eta zeozelan kaletartu nazenarren, ez nintxatzun senargeiaz-edo apurtzeraino hatara tirriatuko. Ba dakizu zer jazo jakon Elizburuko oinordekoari? Ba, andregaiak Abenida Barrira eskondu gura eutsula-eta, baserria bertanbehera iztera behartzen eutsola. Amak ezetz eta andregaiak baietz, bien artean mareatu eutsuen gisajoa eta orain ez dakitsut..., amak berebila erosi dautsonarren...”

“Hor dozu Uharteko Bixenta, etorkizuneko izekoa, ostera, bizibibi- dea kalean daroala, osaba Joserren-eta Gure Habiaz pozik zorutzen. Sarritan kalera urten beharra dago, baina ez bakarrik erosketetara zine edo dantzara, bai ta bertan lan egitera be, kaleak berez zorionik ez

dakarrela sinesteko, eta aldiz, baserriak daukan alde onak ikusi ahal izateko.”

“Iluntze aurrettoa zan Eguzkitzatic harakoan etxera urten nintzanean eta urtenala, Eguzkitzako larrainetik Gure Habiara begiratu neuntsun. Maiteren ikuspegiaz jabetu gurako neuntsun, ea Eguzkitzatic zelan ikusten zan Gure Habia. Kamino zuloan? Bai zera! Ondo jaso eta nabarmen baino. Oraindino arrilu gorritan egotzun, monjor ereinotza gailurrean eukala. Jantzi barik oraindino, behar bada, begi-begian ez emoteko eran. Baina harriz hartutako horma ertzak erdiguneko zuri-tasunez barre eta haren leiho beiratuak disdis egikenean eta haren balkoan lorak bizitasuna eta, zergaitik esan ez, maitasuna iragarri, usoa bere habian emongo eutsun.”

Lorea atzeratuta dator Ugarango ibarraldean, baina altare ingurua ondo loretuta dager Ibergaingo eleizan. Eta Ugarango Agatek nondik zuzendu ete dau eskuetan dakarren lore txorta zuria? Nongo erregin aukeratu ete daue orain esne iragoketak itzi dauzanez gero? Eta Ugarango mutilak, Jose eta Martin, noiz agertu izan dira horren trajeatu? Eta Manolo Gontzalez bera, pauso batzuk atzerago baina, zelan dator jaitarren talde berean? Kar mele Ugarango Imanoltxo larrosea baino pinpirinago dakarrela besoetan. Ama Josepak ere lorez ñabarturiko ator urdina janzten dau. Alaba zaharrenaren ezteguak dauz. Agate ezkontzen.

Hiru minuto ba dira Urtubiko senargeiak altare aurrean itxaroten dautsola. Ba dator, ba datorko andregai burutik oinetaraino zuriz jantzita, buru gainean be lore zurizko koroia dakarrela. Irribartxo egin daue alkar ikusi dauenean eta poz antzia edatu da eztaillarren arpegiara.

Altare aurrean Don Pedro serio zer dagon! Bere penatxoa ausaz, eleiztar bat ezeze, katekista bat eta Baserri Gaztediko ekintzaile bat galtzen dauelako. Ohargabetu daroa eleizkizuna, galdera erantzunak buruz eta mekanikoki baileroazan. Hitzaldian be, hurrean, betiko berbaroa darabil:

“Zuek, ur txiki danak handira lez, baserritik kalera bizi izaten zoazenok, kontu egin kalera ezkontzeak ez dauela berez baserria sapuzten dozuela-edo esan gura. Kontu egin ba, baserritik kalera doan zuen erreka-stoa kaleko ur handien uharrak ez daijala hartu. Nork ezagutu daike Ibergandiko errekearen garbitasuna Zeharrolako uren kutsaduran? Bada nik geure mendiko iturrien gardentasuna ikusi gura dot zuengan, kalean bizi zarelarik be. Ur handiak zikinduta badatoz, zer egin daike ur txikiak? Uharrak garbitzen lagundu. Eta kalea erderearen erreinu bada, zer egin daikee hara doazen euskaldunak? Kalea berreuskaldundu eta ez norbere mintsoa erdalkotu. Sinistedunak sinigabeen artean egin behar dauena hain zuzen. Hatarako sortu gura dozue familia barria, kristautasunaren eta euskeraren eskola izan daiten, galpen

bikotxa zintzakeze bestela, bai Eleizarentzat eta bat Euskalerriarentzat. Ibergain gure baserriari dagokionetik gaitzerdi izango litzaken oster, bertoko euskal eta kristau ganora bertaratuko bazendue.”

“Baserritarrak beti be salerosketan joan izan dira kalera: abereak, esnekiak, barazkiak etabar. Aldiotan barriz izardia eta eskulana be erruz trukutzen da dirutan. Gende gaztea dibertitzera eta bizi izatera be badoa, orain arte inoiz ezagutu ez dan ginoan. Kontu egin ba, kaleak zuen beharizana daukala, zuek kalearena daukazuen bestean. Eta batez be kontu egin, zeuek ez zareela salgai, nahiz eta baserriko frutua izan. Baserritik daroazuen nortasun hori salduezina dozuela, gogozko balore dozuezan kristautasuna eta euskaltasuna lez. Guzti hori salduko bazendue, guretzat hilak lez izango zintzakeze, hara zer dinotsuedan, baina geure gogaide irauten badozue, geure senide eta lagunarteko be izango zaree, erdalkeria eta sinigabekeria gaitzaren muga banandukor direlako Euskalbarri barruan.”

“Euskaltasuna eta kristautasuna nik beti ikusi izan dodaz alkartu eta batabesteen babesle gure artean, “euskaldun fededun” esan ohi izan danez, nahiz eta orain alderdi txarreko batzuk ezkontza hori txarto egin da gola salatu, eta batasuna apurtzearren, euskeraz biraoak esaten hasi. Zeuok zaree horren lekuko. Izan zaiteze ba, Kristok esaten dauskunez, usoak legez xalo eta sugeak legez zuhur, aikomaikoetan ez zaiezan atzipetu...”

Eperdi mamin batzuk nekatzeraino luzatu da Don Pedroren hitzaldia, eleiztarrak begien aurrean azkenez bailekuz, ez luzeago edo ta, beste aberastasunik ezean, oharretan yori dan gurasoaren testamentua baileroan. Hitzaldian egin dauen ahaleginaz, ahaztu egin jakoz barriz buruz dakizan eta mekanikoki maiz dagizan ohikunak. Ez dautse ba ezkongaei izenaz galdetu banan-banan ezkontza asmoa eskatu dautse-nean?

—A, bai, Luis...Luis eta Agate senar-emaztetzat hartzen zaituet...

Herri otoitzaren ostean Peilok, koru kantariaren bertsoz berea gaineratu dautse:

“Eskontza sakramentuz
zaree alkartu,
aita ta amatzarako
familia ugaritu.
Alkar bizitza horretan
zintzoro jarraitu,
buztarria daizuen
arina egokitu.”

“Amaitu dozu, laztana, Dolyren Teleandana. Bai samingarriro amaitu be, zeu hortxe angeruzko lotan zagozela. Doly zorigaiztokoa, ene!”

“Nik, zure lotalditxoak hurragotik jarraitzearren, arratsalde orduotako Telebista isioten eta isil-isilik ipinten neuntsun eta zeure zerua zaintzen nagola, alde batetik, Doly neskatoari sartu eutsoen inpernutar ziriak konturatu nauzu, laztana. Behin kalera joaneko baserritar halako neska baten historia zala oharturik, hasi eta ezin itxi. Eta, gaur amaitu danean, ezin esan be egin onerako ala txarrerako izan dan. Ez noatzu, dana dala, gehiago halako ipuin negargarrien bila kutxa sorgindu horretara, ez daiten, deskuido santuan, inorentzat egia bihurtu.”

“Doly neskatoa, neu leztxe baserritar izan ez balitz, ausaz ez nendun astez aste eta horren arduraz jarraituko haren historia eta, batez be, ez nindun horren bihozkadaz ikutuko haren azken tamalgarriak. Baina noatzun arira: Behin, beste asko legez, baserri lekutu batetik neska xalo eta inosente bat etorri zan uri handi batera bizi izaten. Ibarrola gurealako hamar baino handiagoa zendun harean uria. Neskatoak fardeltxo bat bakarrik ekartsun baserritiko ondasun eta amesetako lorea bihotzean. Uriko atetan antzerkia antolatzen iharduen begiraleak, neskea ikusi eta soinkeraz eder eritxi eutsoen antzerkirako. Neska harexek biztu eikezan hurrean ikusle guztien bizi amesak. Dei egin eta halako proposamena egiten dautsoe:

“—Ikusiko don ze bizibide zoragarria. Zarpil horrek kendu eta erre-
gin soinekoz jantziko deunagu. Zelan deritxon?”

“—Mari naz.

“—Doly deituko deunagu.

“Kontu eizu ba, laztana, bateoko bere izen ederra, zarpila lez kendu eta bitxiatariko beste edozein bat lez ipinten dautsoela, zeuri Itziar kendu eta Susi edo ipiniko baleutsue lez, edo lehenengo pekatu batez Jainkozko grazia kendu gura izan baleutsue bezala.”

“Ba, handik aurrera, Doly zendun baserritar neskatoaren izena, Mari amaren alabea galdu egin zalako. Aurrerantzean ez baserritiko izen edo abizenik, harrezkero bere guraso eta senideekin zerikusirik ez baileutsun. Ziur ez dakitsut, baina historian agertzen ez zanarren, baserritiko berbetea ezetsi eta kaleko erderara behartuko eutsuen neska gaisoa, bada baserriko hizkuntza ez zendun nahiko ulergarri izango kaleko hainbat erdaldunentzat.”

“Baserriko neskatoa itxuraldatu ondoren, haren bihotzeko ames loreei jararik emon gabe, euren asmo eta amesetatiko bidera daroe neskato errugabea. Eta hasteko, andre helduago batek be eroango ez leuken papera emoten deutsoe hurrengo antzerkian. Zein? Eta “Dolyren hiru senartxoak”. Ene bada! A zelako pelikulea! Baserritar neskea, harako Mari zenduna, erregin merkearen jantzietan, jantzi eta erantzi, eta Doly hona eta Doly hara, neskea mareatzen eutsuela, batean lausenguz, bestean urreaz, bere bihotzeko amesen lorea be nastuaren nastuaz, zertan zan ia ez ekitsula. Ez eta harrezkero nor zan, nongo alaba edo zertan mundura etorria. Antzerkiko ekitaldien mirabe balitz lez, eta ez inor bere kabuzko ekintzan, ba joatzu senar batengandik bestera, hirugino,

baina Dolyren txarma, xedeba eta irritza beste hainbeste irunzteko be bailitzan. Eta kaleko malizi guztia baserritiko xalotasun ezin ahaztuari lotuta, deabrua angeru jantzian balitz lez edo Santomasetako azokan baserriko sagarra ederren.”

“Gero deabrurik ez dagoela esango dautsue, baina deabrukeriak ezagunak dozuz behenipenin. Dolyk angeruzko irribarrea gordeten eutsun eta deabruarena egin. Ez dakitsut ze angeru gaiztok okerrera bultzatzen eutsun harako angeru ona. Dana dala, Doly ez zendun zoriontsu, ezpainetan, antzerkiak edo zineak eskatzen eutsonez, barrea uhari erabiltzunarren. Ez, guzurrezko bideetatik bultzatu eutsuen neska inosentea hareek diruari bakarrik begiratzen eutsuen antzezlariek. Dolyren (eta Mariren) ames guztia semetxo bat eukitea zendun, neuk, laztana, zeu legez; familia baketsua hazi. Baina senartxo hareek oster... Bestelako amesak erozelako bihotzean? Erruduna ta sorgina Doly bera zala adieraztearren? Errez bota leikioz erruak baserritar ezjakin bateri, maltzurak inosenteari. Mila ipuin dagotzuz baina, horixe bera probatzen dauenak, laztana.”

“Hainbeste guzur ezin eroanik, azkenez Dolyk, lopastilak behar diren neurriz gaingirik hartu eta bere burua galdu eutsun. Ai ene ama! Oraingoan Marik eraso eutson Dolyri. (Baserriak kaleari?) Lehen Dolyk (kaleak) Mariri (hau da baserriari) eraso eutsonez.”

“Marik, Dolygan eskutatzen zan, harako angerua salbatearren eta haren amesak bide galgarrietatik askatzearren, erasoko eutsun Dolyri. Eskerrak angeru onaren itxaropena gelditzen jatzun Doly gaisoarentzat, bestela ezin eroana izango litzakidan horren amaiera lazgarria.”

Bai heriotzak halako zuriunea itzi eutsun bere arpegi arrosatuan. Seriotasunean agertzen jatzun azkenik, haren amaibako eta hain guzurrezko irribarren ondoan.”

“Hori izan ete zendun antzerki edo zinegilearen asmoa eta gero benetan bizirik itzi Dolyren pertsonaia? Zinegileak olgetan edo entrete-nigarri hartzen ebana, Dolyk (edo Marik) benetan hartu baina, eta bizia kendu bere buruari. Ez dautsut esan nik, laztana, askok ez dauela ipuina eta bizia bereizten eta ipuinetan eta ez benetan bizi direla? Nik neure esnesaltzailearen ipuinetik dakitsut...”

Eguerdi osteko biagotik umea itxartu danean, Agate Ikastolarantz mugidu da, umea gurditxoan daroala. Dotrinalekuko ateetan jo dau. Atera urten dautson andereñoari Alfabetzatze Erakundeko mutilaz itaundu dautso.

—Alfabetatze Erakundeko mutila? —Sudurra astindu dau andereñoak, gauzea ondo ulertu ez baileuan.— Gurasoetariko bat ez bada...

—Ez dot uste gurasoetarikoa danik ba...

—Itxaroizu eta galdetu egingo dot.

Andereñoa barrura sartu da. Agate urduri samar dago. Ule tximak ikutzen dauz, arpegikeraren ganora osoaren zihurtasunik ezbaileuan. Orain umearen gurditxoari eraginka dihardu; Itziartxok irribarretxoa egin dautsonean, nasaiago gelditu da ama Agate. Umeagaz ohargabetu dagola, “ola, Agate” agurra entzun dau gibeletik. Bihozkadea emon dautso ezusteko agurrak. Ez zalako haxe berak itxaron leikena.

—Zer dogu, Ane eta “konpañia?”— Halasoko begiak idegi dauz Agatek.

—Ba hementxe gure umearen inkrisinoa egiten.— Pazko opilaren biribiltasuna dauko Ana Zabaleren arpegiak.

—Hau Ikastolea dozu-eta!

—Ba, Ikastolarako, hain zuzen, datorren urterako. Hemen aurretiaz egin ezik, beste batek kendu daikizu tokia.

—Beraz Ikastolara? —Agatek okotzean laztan ikutua dagitso Iratxeri.

Iratxek musturtxoak biurritu ta umearen gurditxoari eragiten eta Itziartxori pozkeriak egiten dihardu.

—Ba gurea hemendik urte bira Ikastolara hasiko jaku. Ez da, lazta-na?

Itziartxok bere eukiak jagoten dauz Iratxeren okerkerien aurka, protesta adurtsuak egiten dautsozala.

—“¿Qué dices?— Kontra-jolasa dagitso Iratxek umeari.

—Orduan zeuk be, Iratxe, euskeraz ikasiko dozu, Ikastolara bazatoz eta Itziartxori be euskera egingo dautsozu, ez hala?

—“¿Has oído lo que te ha dicho Agate? —Ane Zabalek atzamarra jaso dautso Iratxeri.— Que tienes que estudiar euskera, para poder hablar en euskera a la niña!”

—“¡Que sí!” —Sapak astintzen dauz Iratxek.

—Bai horixe. Zergaitik ez ba? Iratxek ikasiko dautsu, adin ona dauko-ta eta aita eta ama be euskaldunak gainera.

—Bai, gure euskeragaitik! —Iguinalako arpegikera erakutsi dau Ane Zabalek.

—Dana dala, ez nozu gitxi harritzen, Ane, umeei euskera erakustera eta hatan be Ikastolan izena emotera etorri zareela-ta.

—Gure gizonaren burutazinoa izan dozu —Ana Zabalek paparreko atorraren ixurdurak konpontzen dauz.— Ba dakizu, ola lagunak, bere ola lagunik minenak be Ikastolara bialtzen ei dautsuez-bai umeak eta hara ba, sikeran neskatoa, kostuak be ez dira horren bestekoak-eta...

—Ahalegintxoia egin behar, horixe.

—Oraingo euskerak gainera balio egiten dautsu.

—Hoba ez!

—Egoki dozu gainera etxekoekin-da, zaharrekin esan gura dautsut...

—Aitita-amumekin-eta, ez da?

—Asteburuetan baserrira osteraren bat egin behar danerako, “déjale en paz a la niña!” —Ane Zabalek eskutik tiratzen dautso Iratxeri.— Eta gure neskatoak eskola-aurrea edo dalakoa amaitu dauenez gero, oraintxe esan dogu ba. “No te he dicho que dejes en paz a la niña?”

Ane Zabalen erderakadak edo Iratxeren barrabaskeriaren batek erosta joteraingo asalatu dau Iziartxoren genioa. Ama Agatek kutun-mutunak esan dautsoz umeari belarri-belarrira eta negarretik barreiraino behingoan atertu da.

Ane Zabale Ikastolako atera hurreratu da. Agatek itxaroteko dinto, andereñoa erreka doa egiten joan dala-ta. Ez dala asko berandutuko.

—Eta zuen Iñakitxo? —Autuari luzapena idoro dautso Agatek.

—Iñaki ez, Iñaki ez dogu Ikastolan sartuko.— Ane Zabalek seriotasun handiz ezezkoan mogidu dauz buruko tximak.— Harek ikasketa handiak egin behar dautsuz.— Eskola Nazionala itzi dagianeko, Hermanoetara bialduko dogu. Ea karreraren bat-edo emoten dautsagun. Berak ingenieru izan gura dauela dino.

—Ez da gitxi be, umeak esateko!

Andereñoa atean da eta etsipenezko seinuak daukaz betartean.

—Zu, ba, daneri itaundu dautset, eta batek be ez daust horren titulo korik ezagutzen: Alfabetatze Erakundeko Arduraduna esan dozu, ez da?

—Bai, halan da.

—Xabier bera-edo ez bada...— Ezbaitan gelditu da andereñoa, argiak ikutu dautso begietan.— Zelan deritxo Alfabetatze...zerari?

—Erakundeko Arduradunari? Neuk banenki! Harako bizar erdi moztua, altu meea, ez argala be — Agatek eskuez eratzten dau robota.

—Ba Xabier hau bizardoa dozu, altua bai, baino ez meea be; mardora joten esango neuskizu.

Agatek ez leuke arazoan gehiago sakondu gura Ane Zabalen aurrean. Zer ardura leikiozan berari, oraindino euskal kulturaren inkrizinoia egin barik egonda, Alfabetatze Erakundeko Arduradunaren zehaztasunak? Eta zer pentsa leikean, hain zuzen be hagaitik, auzoko andre gaztea halako zehaztasunen bila ikustean? Ulertu ere, zelan egikezan hatarako bere arrazoiak, egun euskal libururik eskuetan artu ez eban batek, edo ipuinak bizitzagaz nahastatu leikezenak?

Agatek bere galdeketa amaitu baileuan, etxekoneko ama-alabak inskriporako aurkezten dautsoz andereñoari.

—A bai? Sartu zaiteze barrura, behingoan hartuko zaitue-ta —Irribarre amoltsua dagitse andereñoak.

Artesiak ondo urten dautsonez gero, Agatek aurrera dakitso ea galdekera barriaz ze barri lor daiken.

—Aizu, ze adineko-edo dozu Xabier hori?

—Hogetasei urte ingurukoa.

—Ez ba... Nik dinodanak ez daukaz hainbeste.

—Une honetan Ikastolan balego, berari deitzea litzaken egokiena, baina goizeko klaseak amaitu eta joan egiten da. Halan da be gaur bertan beragaz egon gura badozu, iluntzean gurasoen batzarrean aurkituko dozu.

—Baina bera ez badozu...zertan etorri?

—Beste mutil batzuk, eta gazteagorik be etorriko da ziur Bailarako Ikastolen izenean.

—Gainera ordu txarra dozu niretzat, ume hau nork zaindu ez dodala.

Andereñoa Itziartxoren gurdira hurreratu da, Itziartxok gurdian jesarrita barretxorik gozoenak opa dautsoz bisitari barriari. Nonbait gogoko egiten jako haren euskera eta aboskera.

—Zelan daukazu izena, laztana?

—Esaiozu, laztana, zelan deritxazun, hemendik urte bira zeure andereñoa izango danari. Esan. Iziartxo naz, eta dagoneko hainbeste euskera ikasi dot. Bueno zu, zeu be —Agatek andereñoari daragoio— baserritikoa zara, oker ez banago, zeure berbeteak emoten dauenez.

—Zertan igarten nozu?

—Umeari, “lasztana” deitu dautsozulako —Irribarre dagi Agate Ugarrangok.— Ibarrolako kaletarrak “bihotza” deitzen dautsoe, “zelan zagoz, bihotza?”, eta Zeharrolan barriz “amante”, “etorri hona, amante”.

—Garaitzakoa nozu-ta, Irene serbitzeko, han badakizu...

—Garaitzakoa dozu nire senarraren guraso aita be. Ez dakit ezagutzen dozuzan Iturburukoak.

—Entzutez bakarrik, gure auzokoak beste eskola batera joaten gintzazan.

—Ni Ibargaingo Agate nozu —Agatek aurrera pausoa dagi Garaitzako alabarengana.— Zu, Irene, gauza bat itaundu behar dautsut...

“Azken orduko aldaketak ez naue gitxi be harritzen. Gure Ane Zabale bestaldekoari ez jako ba neskatoa Ikastolara eroan behar dautsula bururatu? Entzun dozu, Luis? Anton senarraren burutazinoa izan ei da.”

“—Ez da izango!

“—Datorren kursotik hasi eta euskera kontuizu.

“—Hara ba! Euskera ahaztu eta erdera ez ikasi...

“—Oraingoan bietara ekiteko asmoa dautsue, baina bata euskeraz eta besteak erderaz?

“—Anek erderaz, ez ala?

“—Erderaz mutilak eta neskeak euskeraz.

“—Tira, nik beti entzun dot, alabeak aitarena urtetan dautsula eta semeak amarena.

“—Baina hori arpegikera edo izakererena dozu, gizona.

“—Euskera edo erdera be izakeraren zera dozu, ganora, dana dala.

“—Ni artean negozioa daukeelakotan nagotzu.

“—Euskera negozio?

“—Oraingo euskerak lehengoak baino balio gehiago ei daukatsula esan daust alde batetik...

“—Kaleko euskerak baserrikoak baino?

“—Hori alde batetik. Bestetik, euskera baliogarria daitekela aste burietan-da baserrira osteratxoren bat egitekotan.

“—Buztarria eta taloburdinea Zabale eta Urkolara itzultzearen?

“—Zaharrekaz gauzea hobeto konpontzekotan, jakina. Inakitxon erderea iguin badautsu Agustín aititak, Iratxeren euskerea atsegin izango dautsu eta Iratxeri ixuriko dautso orduan baserriaren mozkinen bat.

“—Ez negozio txarra be.

“—Zer dozu horren ondoan inskizinoa kostaten dana edo kursoko gastuak?

“—Halan da be karu eskuratu gura dautsue, hain merke saldu eutsuena.

“—Baina saldu, baliorik ez eukenean saldu eutsuen. Orain dautsu balorea euskerak, ikasteko dirua ordaindu behar danean.

“—Edo Urkolako baserriaren mozkina eskuratu behar danean.

“—Euskera maitea! Ze lastangarri eta geuretar egiten dozuzan loba-txoak aititaren begietan! Horrela ez bakarrik asteburuetan Zabale edo Urkolara osteratxoak egin, bai eta aitita edo amumari astea igarotera

kalera gonbidau. Ez nozu bape harritzen, “ale, tienes que estudiar euskera para decir bien a aitite. Aitite te hará muchos regalos. ¿No querías patines? Pues patines, por ejemplo. Y ¿le puedo pedir también un album para guardar los cromos? Lo que quieras, lastana...” Jakina, euskal alfabetatze dana gero andereñoak egingo dautsu. Andereñoari berea kostauko jako, baina hagaitik kobratzen dautsu eta Ane Zabale behar dan beste ordaintzeko prest dagotzu.”

“Aitatxok eta biok barre nahiko egin dogu Ane Zabale bestaldekoaren hoberantzako aldaketa dala-ta. Ni poztu be egiten nozu, lastana, Iratxe zure laguntxuak euskera ikasiko dauela jakitean, baina amak berak be, hainbeste panplina barik, eta dagoneko alabeari euskera egiten hasiko balitz, ez asko txarrago.”

“Zuk, zeure amagaz ikasiko dozu zati bat behenipehin eta aitite edo amuma etxean biziko balitzaz lez, ikasi be egingo, Alfabetatze Erakundeko mutilak esan eutsunez. Beragaz, hain zuzen be, egon behar neuzun eta ez dogu aurkitu. Ea hurrengo baten, gurasoen batzarrean edo nonbaiten...”

“Luis, ba dakizu nor ezagutu dodan? Irene andereñoa, Garaitzako alabea. Ez dozu ezagutzen halako begi urdin bajetatxoa? Batzarretanta ikusiko zendun ba. Ez zeunstan esan lehengoan andereñoak, emakume izanarren be, ba doazela batzarretara. Ireneri ez zeuntson Iturbekoen antzik emon? Ba Iturbeko alaba dozu. A bai, andereñoak andereño direla, umeen hezitzaile eta ez dakit zer gehiago. Eta umeen amak, nahiz eta maistra titulorik ez euki, ez ete dira euren umeen hezitzaile? Edo amok ez ete gara epailari zuzen geure arazoan, edo Irene eta beste andereñoek eta maisuek ezkongeiak izan behar ete dabe gurasoen deitu batzarretara joateko? Jakina gurasoen eta andereñoen arteko lana bateratua izan behar dauela, baina gurasoen batzarre orokorra deitu eta gero amak kalean iztea, zeuk esango daustazu ze burubide dan.”

“Aizu, Luis, eta beste gauzatxo bat. Dotrinea erakusteko laster borondatea beharko dala, esan daust Irene Garaitzakok. Zer dala-ta? Ez zagoze ba dotrinea eskolatik harako orduetan ipintekotan? Ba eskolako orduetatik hara irakasleak libre ei dozuz. Eta entzun gainera: ikasleak ikasteko libre badira, irakasleak ez dozuz erakusteko gitxiago izango. Ez hala? Behin alogurakoak eginez gero, borondateak jai. Ba dakizu zer pentsetan nagoen? Okerreanean be, ez litzakela borondaterik faltako. Ez dot uste horraino helduko garenik, baina, badaezpada, ni katekistazarako izena emotera noatzu. Besterik ezean, Ibargaingo parrokoaren tituloa daukatsut. Horrela, behar bada, guraso lez ezpada, ikastolako umeen katekista lez hartuko nozue batzarre orokorretan. Ez dinotsut zeugaitik (sobra badakit zure borondatea) guraso aitakideak eskolatu daizuzan baino. Ez dozue nahiko hor zeharretik belarri berotzen diabiltzuezanen eskolea, Ikastolan edo dotrinan kabidu be egiten ez diran tituloekin ba diatortzuez be. Zuen guraso tituloa zer da ba hareek dau-

kazanen ondoan edo zuen bularretako bizarrak, hareek okotzean erakusten dauezenen aldean?"

"Uste dot gogortxo egon nazela aitatzogaz, laztana, baina zeure heziketea eta etorkizuna artean dagola, isilik be ezin neintekizun egon, jakin dodazanak jakin eta gero. Irene Garaitzako andereñoak ez dautsu ezelako titulorik. Hagaitik dabilizu txikerrenekin. Baina ez uste bat be tuntuna danik. Gizonezkoak osterera, eleizako kontuetan batez be.. Nik lehendik be misiolari bateri entzunda daukatsat, gizonak eleizako arazoetan andrak eurak baino emeago dozuzana. Koldarragoak esateko. Hori dala eta baztertu ete gaituez gero emakumezkook gurasoen batzarretik, beste aintzakiak direla-ta?"

Domeka arratsaldea da eta Jose Ugarangok eta Bixenta Uhartekok ez dakie zer egin Vespa zaharragaz. Ez dago bere sasoiaren tresnea. Espilua arrakalauta, urratune eta malgudurak kromatuan, uharra nonnahi azpiko aldetik.

—Nik ez dot behar— aitortu dau Martin.

—Ba heuk beharo henduke guk baino gehiago. "Ves-pa qué pues?" —Agirika egiten dautso Bixentak.— Nekatuta dagola? Heu hago hi nekatu eta zaharkituta dagoneko. Guk zetarako behar joagu? Hemendik eleizaldera, daukagun prisagaitik, oinez be ondo goazak. Hik osterera, Eleizaldera nogaz joan be ez daukak. Abadeagana esan gura dauat eta ez ezelan Erbienera. Ez haut han ikusi gura.

Martin sukaldean eskutatu da. Bixenta kanpotik leihoratu eta bertan salatzen dau:

—Hainbat arinen etxe hau bedeinkatzera etorteko esango diautsoguk abadeari eta heurtzako beste bedeinkazino partikularra ekarri daiala. Orduan ezkonduko gozak gustora Jose eta biok.

Bixentak besoa damotso Joseri, alkarri begiratu eta Eleizalderantz dakitsoe. Pauso batzuk emon orduko, Josek besoa askatuta, Ganeko muinora begiratzen dau.

—Zergaitik ez goaz haraxe mendira?

—Mendira zapatokaz?

—Zuzenduko daunazat egokiagoak. Agateren abarkak. Hiri ondo be ondo etorriko jazan Agateren abarkak. Barri-barri ez dinonat, baina oraindino ibilteko eran diagozan.

—Tia, tia! Beste egunen baten izango dok. Gaur bedeinkazinoak eskatu behar diatsaguzak Don Pedrori.

—Bueno, beti bide bardinetik ez ibiltarren esan daunat.

—Ez dok nahi izango menditik zehar Eleizaldera joatea. Nondik dabilzuz gero heurok, esango joek.

—Asko ardura inork zer esango... Niri mendia gustaten jatan. Ba dakin? —Josek besotik hartzen dau barrero Bixenta, betartera begira-

tzen dautso.— Nik txikitan zerua hantxe Ganeko isladan hasten zala uste najonan, iretargia be handixek urteten ikusten gendunan-eta.

—Urrengoan abarketak ekarriko joazat eta hire zerua non gelditzen dan ikusiko joagu.

Barre dagie ezkongaiak alkarri begira, Bixentak bere pausora behartzen dauz Joseren trangoak, Josek lurrera begiratzen ea noiz eta norainoko oinkadea emon behar dauen. Buztarrira egin bakoien antzeko besaka eta besatirakadaka ihardun beharrak barre gurea emoten dautse.

—Behin gure ume taldea haraxe Ganeko tontorrerainoko apustua geunkan —Joseren begiak Bixentagandik mendirantz doaz unadaka.— Gaurako domeka arratsalde baten izango zan. Erbi-erbika ehizean ziur. Batak txakurrarena, besteak erbiarena eta harakoak ehiztariarena egiten ebala, bakoitzak bere gogakizunera, orduko eta oraingo gazteak plazara edo erromerira lez.

—Eta hik erbiarena ala ehizariarena egiten hendun?

—Batian batarena eta bestean bestearena. Ehizariarena egiteko eskopetea behar zan, zurezkoa jakina, baina hori barik bestelakoa zonan nire asmoa.

—Zein gero? —Loreak eguzkitara ostroak lez, Bixentak Josegana idegi dauz begiak.

—Esan dautsudan zerua hurretik ikusi.

—Eta? —Bixenta gelditu egin da, beste angeruren bat edo ikusi bailuan Ugarango Josengan.

—Umeetariko batzuk bidean deslaidu zonazen, bakoitza bere amesetara: erbiak larrerantz, ehizariak zeharreko gurpiderantz, txakurrak basorantz, tontorrerako apostua zeharretiko-edo hartu izan ba leue lez. Nik zuzenetik aurrera ekin neuntson. Bakarrik nengon tontorraren azken unean. Nire arnasoska eta bihotz pilpira eskuez noiz ikutu ahal izango azkenik hodeia...!

Jose Ugarango arnasa larrian dago zerura begira, harako ekintza gogoratzen ezeze errepikatzen bailegon.

—Aurrera! Aurrera —oldartzen dau albotik Bixenta Uhartekok, besotik tiratzen, bultzatzen dauela.

—Tontor gainera igon eta ene!... —Etsi egin dau Josek.— Zeruak ihez!

Bixentak Uhartekok bertan samatik oratu eta besarkatu eta mosukatzten dau angerua. Jose Ugarangok ames hegada batetik iratxartu bezala, lurrean kokatu dauz oinak, lurtarrak zeruagaz burruka baileroen. Unetxoa igaro ta ingurura begiratu daue. Kamino burre haretan ez dager okerreko angerurik. Aurrera pausoa dakitsoe kaminoan gora. Barrero alkar besotik hartukeran, Bixentak zauritu eta osatu zaneko Joseren

eskuturra ferekatu dau apurtu unea izan zan tokian. Ezelako zantzurik gelditzen dan begiratzen dau, ostera ere igurkatzen.

—Ume gaisoa! Orduan zeruak ihez egin, ez da? —Errukiz begiratzten dautso Jose Ugarangori.

—Jas! —Arnasa gordeak jaurtin dauz Josek, ames galduen bide beretik bailioazen, betagainak ihezkadan makotzen dauz.— Orduan konturatu nintsonan ba zerura igoteko mendi altuagoak behar zirela, Ganeko baino jasoak behenipehin, nire ikuskizuna tontorretik behera urruneko beste mendien harrotasunean apalduta gelditu zanean.

—Horixe jazoten jaku gizakioi dana geure eskuz eta oldez egin geinkela uste izaten dogunetan —Bixentak Joseren besaginean kokatzen dau burua, eta orduan eta estuago hartzen besotik, angerua galtzeko bildur bailitzan.— Baina Jaungoikoak dakiz zerurako bideak, eta bahar bada, gure umetako gurariak edo gaztetako asmoak, pauso erratuak ez baina, ariketa batzuk izan daikezak. Baina zeru-zerua erakutsi eta zeruko atea idegitea berari dagokiona dok.

—Hobe horrelan...Bestelan motxegi geldituko gintzakezan geure umerietan, edo gaztekerietan. Hodeietan hurrean, zeruan izan beharrez.

Kaminoan Ibargaingo eleiza ikusten dan uneraino heldu dira. Handik ikuspegia zabalagoa egiten da. Goian eleizaldea, eleiz dorrearen babesean ortzian isladatu, behean errekaldeko etxe bakanduak larre orlegian margoztuak. Jose Ugarangok goian behean, ikuspegitik at, darabil begiradea.

—Guri txikitan, izan be, zeruko zoriona pastelak eta txokolatea zirela esaten euskuenan. Ikusi be noiz ikusten geunduzan ba guk gozokiok gure umetan? Berenberegi etorriko jaken gure gurasoei “zeruan gehiago” esan eta dantxoaz gu nahikotzeko. —Jose Ugarangok mosua okertzen dau.— Esaien horixe gaurko umeei, dagozan mizkatuaz... Gixiatsi egingo leukeenan zeruko zoriona, txokolatez edo paztelez nahikotuta dagozelako. Gosea beharrezkoa don, gauza apurren balioa be haintzat hartzeko...

—Eta gaur bertan be, Zeharrolako gozotokietan-da batzartzen diren bikoteak uste dok zerua edo zoriona horren goitar ikuten jokeela? Han gozoki karuagoak bilatzen dauezela: pastelak, edariak etabar. Ez diagozak umekeriatic urrun oraindino be.

“Gaur euskera-erderan emoten dan meza nausira barik, euskera hutsean emoten dan mezatara joan nozu Don Serafin hurragotik eza-gutzearren. Iretargialako arpegia galbarune eta guzti, berrogeitamar urte inguru. Bera dozu, izan be, dotrinako zuzendari eta Ikastolako arduradun nausi. Nire asmoa, ea zertan dan berak Ikastolako gurasoengan duakan ustea, ea guraso aitenganakoa den bakarrik ala guraso amenganakoa be bai. Mezatan irakurri eta azaldu dauen Ebangelioa behenipehin ondo arira etorri jaku biori be: “Begira, ardiak otso artera

lez bialtzen zaituet. Izan zaitzeze bada, usoak baizen xalo eta sugeak baizen zuhur.” Nori eta Don Serafini tokatu behar halako Ebangelioa, neu bere susmotan adi-adi nengotzula. Ez ba, jaune, —nik neure artean— kontuan hartu tortolokerietan gelditu barik. Edo mundu hori, edo otsokume horreek mendian bizi direla uste dozu, aintzinako artzainak eta esnesaltzaileak legez? Hareek ipuinetan esanak dozuz gaur bertan geure kalean jasoten dan errealidea hobeto ulertu daigun.”

“Ardi eta otsoaren ipuinok kale begitantziñoetatik nahiko urrun gelditzen direlakoan nagotzu. Laster esnesaltzailearena be ez dautsue ulertuko-eta. Ardiak eurak be gaur artzainengandik aldendu gurarik ete dabizen nagotzu. Egia izango da, gaztedia gero eta eleizatik alden-duagotzen doala, nahiz eta batzuk mezatatik at batzarreak egin daroezan eleizaren babesean. Don Serafin bera be konturatu egin dozu, antza, bere sotana baltza ez dala ondo ikusia Ikastolako guraso batzuren aldetik. Hagatik batzarretara ahalik gitxien urreratzea erabagi ei dautsu. Hori ona dozu Otsokorentzat, laztana. Don Serafinek, izan be, dotrinea erakusteko lezinoak ipi-apan jakingo dautsuz, baina oraingo heziketa punterengan ausaz tutik be ez dautsu jakingo. Zorionean be Otsoko maisuarentzat. Sotanearen kontrolak maisu-andereñoen hezkuntza lan baikor eta aurreratua galgatu baino ez dautsu egingo eta gazte gende horreen oldarrak sapuztu.”

“—Iturtzako andereño horrek esanda?

“—Eta ez Iturtzako alabeak bakarrik. Batzarretara joan barik be, hainbeste gauza barriren jakitun nagola, ikusi daizun.

“—Zeraren, esate basterako?

“—Don Serafin Ikastolako papel batzuk firmatzerakoan-da bakarrik agertzen dala, bada Ikastoleari ezin besteko jako abadearen firmea, parrokia danaren erantzule egiten dala jakinazotearren, jakina.

“—Ba nigaitik batzarreko atea zabalik daukaz Don Serafinek. Iku-si daiala zer darabilgun esku artean.

“—Uste dot zeuk be, eta zeuk lez, beste Ikastolako gurasoek, meza-tara joaten zarenak behenipein...

“—Ikastolako guraso izateko, ez dago zertan mezatara joan, andrea.

“—Hagaitik dinotsut mezatara joaten zareenok... Entzungo zendue-la gaurko Ebangelioa erderaz edo euskeraz. Nik kaleon lehenengoz euskeraz entzunda, baserriko argitasunez ikusi dautsut gauzea.

“—Um! Baserriatik kalea ikusteak erratura eroan zaikez.

“—Edo parrokoak edo beste abadelagunak ez dautsue ezer esan gaurko otso eta ardiez? Zuek guraso aitek Txanogorritxurena daroa-zuela Ikastolan.

“—Nork esan dau hori?

“—Otsokok esana zuek sinistu, Otsokok egina zuek ontzat emon. Otsoak haginak zertarako daukazala ahoan uste dozue ba?

“—Ipuinak burua berotu dautsue, andrea.

“—Otsoak zueri. Artzainak, usoak baizen xalo, baina sugeak baizen

zuhur izateko esan dausku, ez beraz Txanogorritxulakoak. Zer ikusi behar dogun! Gizonezko bizardunak eta Txanogorritu biurtuta!

“—Handiagorik!

“—Handiagorik? Geure txikiekin be gero beste hainbeste jaso daitekela ikustea. Zuek umekeriaz otso-ardietara olgau gura dozuela? Ez daust hainbeste ardura. Baina gure txikiak ez dakie horren olgeta arrisku-tsuetan burua ateraten eta geu gara, geu gurasook, geure umeen burua onik atera behar dogunok.

“—Bueno, bueno...Gausak horrela hartzekoak badira, nik berba egin gura dauen danak, gizon edo emakume, batzarrera etor daitekezela aldeztuko dot.

“—Eskerrik asko, laztana. Pentza eizu ia hemendik urte bete eta erdira gure Iziartxo Ikastolara hasiko dala, eta orain bere ahiak eta gainerako jakien etiketea zaintzen dogunez, bardin gero be haren ikasketak, ahiak baino be garrantzi handiagoa dauke gure alabarentzat-eta.

“—Alde horretatik gure andereño-maisuak gende aukeratutzat daukaguz. Edo Iturtzatik edo ez dakit beste nondik otso arpegiko genderik urten ete leike gero?

“—Nik danetik ezagutu dodaz, ta gainera baserri-kale giro honetan itzelezko aldaketak. Han ardi zirenak, esate baterako, hemen otso. Zuk ez zendun ikusi, esate baterako, oraintsu dala Telebistak emon euskun Dolyren historia...

“—Bai horrexetarako astia dautsugu.

“—Ez ba, ez daukazue astirik edo astia daukazuenean, fubola edo holakoren bat izaten da daukazuen informazino guztia. Gainera lanetik nekatuta zatoze eta nekatuta zoaze Ikastolako batzarretara be eta zuetariko asko lo egiteko gogo handiagoz, han aitatzen diren arazoak aztartzeko baino. Hainbat hobeto zuenlako hainbeste euskaldun langileren lepotik haginak erakutsi gura dauzanarentzat. Esaizue ez zareela nahiko gurasoen batzarra ondo eroateko. Guk guraso amek asti gehiagoko daukagula, batek ezpada, besteak kalea alde batetik bestera ibiltzen dogula. Neu be mugitzen hasiko naz. Batzarretara joan arte ez dogu etsiko. Badakizu ni lehen be aterik ate ibilia nozula. Lehen esnesaltzaille, orain Ikastolako bezeruei gatza emoten joanko natxake. Etxekandreak Telebistako ipuinen batez ohargabetu ikusten badodaz, “aizue! esango dauset— neuk dakitsuet hori baino ipuin hoberik. Gura dozue jakin Hiru Txarritxoan azken historia? Edo Txanogorritxurena? Otsoak, otsoak! Halasoko haginak, halasoko erpak...” eta geure Ibarrolako eleizpean. Non? Zein tokitan? Dotrinaleku barrian. Ikastolan? Bertan! Eta Ikastolako ama danok, bata sukaldeko haiztoagaz, bestea puntu-orratzagaz, harakoa taloburdiñeagaz... Bai horixe! Ane bestaldeko taloburdinegaz joango jatsu, nik berba egin daiodanean. Ez ba! Harek Iratxe maite dauanagaz! Eta zuek, gizonezkook, batzarreko atea izten badauskuzue be, eleizako ateetatik, sakristiako lehiotik sartuko gara eta geure umeen dotrinea defendiduko dogu. Gure botoak zeuen botoak

bestekoak izango dira, ausaz uhariagoak, bada emakumeetariko bat be ez da lotan geldituko. Gogoratzen dozue, androk, Dolyren historia? Ai ene! Ez eistazu gomutauazo, negarrak urtetan daust-eta...”

“Bueno, laztana, Txanogorritxuren ipuinaz ulertzen ez badauste, Dolyren historiaz baliatuko naz. Gure andereñoak Marilako neskak direla, baina nork egiztatzen dautsu Dolyrenik ez dauken dagoneko. Eta nork maneitzen dauela uste dozue euren antzerkiko eginkizuna? Don Serafinek? Bai zera! Neuk esango dautsuet zueri zein dan Otsoko barriaren ganorea...”

“Parkatu, laztana. Dolyren historiak eta Don Serafinen ardi eta otsoen ipuinak berotuxe narabil oraingoan. Eskuartean zereginik ez bainean, burua iraulka, etxeoak ezeze, auzoko lanak be egin beharra benendu lez. Aintzinako esnesaltzailearen lehiak izango dozuz hurrean. Ez larritu, laztana, neuk garbituko dodaz zure zapitxo eta kakatxoak.”

Ibarrolako Ikastolak Euskal Jaiak ospatzen dau Ikasurtearen amaiera. Guraso eta umeak pozarren alkartu dira parroko zinetokian Ikastolak antolatu dauen ikuskizunera. Gurasoen alkartasunak Ikastolako arazoa indartzen dau eta Euskal Jaiak euskeraren aldeko ekintza eta zaletasuna.

Ikastolako txikienak sartu dira antzokian eta andereñoak zuzenduala, "Aitoren hizkuntza zahar" abesti andana abesten hasi dira. Ikastolako amak pozez zorutzen dagoz euren seme-alabatxoek koru kantari ikustean, eta hareago abotsaren eztiari garri dantza xaloan, "aire tun txikitun" eskutxoan txalopin eta guzti, angeru hegadak bardintzen dauezanean. Euskeraren itxaropena be gozatu egiten aitita-amuma bateren baino gehiagoren bihotzean.

Txikien ekitaldia amaitu ondoren, neskato eta mutiko bardingoak "Arku dantza" eta "Ezpata dantza" prestatu daue txistu eta danbolin soinura. Gurasoak begi-belarri dira.

— "Mira, qué bien bailan."

— Ikusten dozuz, Felipa?

Euskera eta erdera nastatu egiten dira lehenengo ekitaldiaren osteko iruskinetan. Gendea bigarren zatia noiz hasiko. Andereñoak "Umeen zentzuna, etxean entzuna" antzerkitxoa antolatu daue euren artean. Lehenengo ekitaldia: Andre gaztea bost urteko alabatxoa eskutik daroala, beste bategaz topo egiten dau kalean.

Emakume A: Kaixo, Miren, zer moduz?

Emakume B: "Pues mira, chica, con lo insoportable que se me puso el crío, no pude ver al final la peli..."

Emakume A: "No me digas que no pudiste ver la peli de anoche. Pues, cosa de no perder, como te lo dije".

Emakume B: "Entre que si tienes que acostar al niño y el marido que tiene madrugar y no te acompaña..."

Bigarren ekitaldia: Lehenak eta zortzi urteko mutikoa. Mutikoak, ostetik hurreraturik, putsezko pelotea kentzen dautso arrebatxoari. Neskatoa txilio baten irabiatzen da.

Neskatoa: "¡Devuélvemela, que es mía!"

Emakume A: Nekane! Zelan esaten da?

Neskatoa: Ekarri, da neurea...

Mutikoa: Ere bai da neurea!

Neskatoa: Ez, aita neuri emon. Zuk ohostu niri.

Mutikoa: Ni itxuliko gero; egiteko da jolas.

Emakume A: Zabiltze bakean, umeok, eta ikasi eizue gauzak alkarri izten. Zenbat bidarrez esan behar dautsuet? Eta zuk, Nekane, olgetako bada, itzi eiozu nebeari, ez dautsu pelotea gastauko-ta.

Mutikoa putsezko peloteaz olgetan doa.

Hirugarren ekitaldea: Lehengoak, mutikoa izan ezik.

Emakume A: "Pues como te decía... Desde luego que la peli no era para menores..."

Ane Zabalek alboan daukan alaba Iratxe maiteki astintzen dau besagainean.

—"Has visto qué bien hablan euskera esos niños? Y tienen tu misma edad. Para que aprendas, lastana."

Lehenengo hiru ekitaldiren antzeko beste hainbeste ekitaldiz amaitu da antzerkitxoak. Entzulegoak asko txalotu dau. Guraso batzuk ez daue ulertu, antza, harek adierazo gura ian dauen lezinoa. Ulertu dauenen belarriko lazdua-edo gozatzeko euskal poetaren kantaldi barria datorrela adierazi dau jaialdiaren zuzendariak.

Iparragirreraren antza dauka kantariak, bizarrean, kitarean. Kitarea ez dala harakoaren kitara zahartxoak, ez eta bizarrak ere.

Euskerari eta Ikastoleari laguntzarren, dohaneko kantaldia emoten datorrela azaldu dau andereño aurkezlariak.

"Euskalerrri, Euskera ama:

hauxe dogu gure lana.

errotik hasi beharko dogu

egiteke bait-da dana.

Euskera ama,

Euskera arma!"

Abots eme batzuk batu jakoz kantariari "Euskera ama, euskera arma" errepikatzean. Doinu unikorra eta erabat gudukaria da. Agate Ugarangok ukoaz jo dau Luis senarra, Itziartxo besoetan daukala.

—Nik hori ezagutzen dautsut...

—Nor da?

—Kantaria barik kantu soinua. Uhartzan?

"Jarein ideien araura,
salba dezagun euskera,
sakristiako ilunetatik
atera daigun kalera.

Euskera ama,

Euskera arma."

Azken errepika gizonaen abotsak indartu daue oraingoan.

—"Euskera arma dinoe", ez ala? —itantzen dau Agate Ugarangok.

—Zer dinozu? Ez, "euskera ama" baino —jardesten Luis Urtubikok.

—Lehenengoan bai, baina bigarreanean?

—Nik beti entzun dot "euskera ama" edo "ama euskerea"

—Beti, beti...Baina oraingoan aituzu hobeto eta ikusiko bigarreanean zelan aldatzen dautsuen...

"Beti gonon babesera,
auldua dogu euskera;
aldi barriko haize indarraz
atera daigun plazara.

Euskera ama,

Euskera arma!"

—Bai, halan da. "Euskera arma" esan dau.

—Eta beti gonapean egonaz auldurik dagolako hori barriz... —Agate Ugarangok okozpean hartzen dau Itziartxoren buruñoa.— Orain ba dakitsut zergaitik prakaz jansten diren andereño gehienak. Euskera ama gitxitu eta euskera arma indartzarren, hain zuzen be. Orain ba dakitsut, guraso aiten batzarrekook zergaitik aldendu gura gozuezan Ikastolako amok batzarre orokorretik. Euskera ama, euskera arma-edo biurtu gura dozuelako harean.

—Baina hori burugabekeria dozu, andrea, eta gauzak ardatzetik ateratea.

—Amen euskera, familia barruko euskera, izan be emea dozu, antza, eta hemen euskera arra behar da, euskera arma biurtzeko. Ez dozu entzun lehen be euskera sakristiatik kalera atera behar dala?

—Euskera ez dozu, izan be, sakristian gordeta eukitekoa.

—Batian abadeen sotanapetik, bestean amen gonapetik atera. Zertako atera baina?

—Kalean eta plazan indartzekotan.

—Zuk, Luis, zeure umearen euskera indartzekotan etxetik kalera aldenduko zenduke edo sakristiatik edo dotrinatik atera? Nik ez dinok euskera kalera eta plazara atera behar ez dogunik, baina kantore horrek eritsiz sakristiako... zelan esan dau? Sakristiako lizunaz eta gonapetan egonaz auldurik dagola euskera, geuk orain arte bizirik gorde izan dogunok bere aulduraren errudun bagintzaz lez. Ez dozu ikusten hor euskeraren aitzakian, esuskaldunok beste ardatz bateri lotzeko amarrua? Zuk ez dozu entzun dagoneko, deabruak berak ez bada, bere bialdu batzuk euskera ikasi egin dautsuela?

—Horreek antzinako ipuinak dozuz, andrea.

—Ez dago ipuinik goiz edo berandu egia biurtzen ez danik. Eta hori be inoiz izatekotan, aldiotan izango dozu.

—Zer dinostazu? Parrokiko Ikastolan, hatan be!

—Eta ez dozu inoiz entzun: gurutzearen ostean, deabrua?

“Zure txaputxuak baino arduratuago naukee Ikastolako gorabeherak, laztana. Ez dautsegu itziko prakagorriei euren lana egiten. Dotrina uxatu bai, baina zelan salbatuko dautsue euskera ha barik? Zelan euskaltasuna kristautasuna barik? Hori dozu ba bata bestea pekatutzat hartu gurea, banandu eta biak azpiratzekotan. Asko ardurako dautso euskerak deabruari!”

“Egia dozu bestalde, euskal sendi askotan be ez dauela frutu handirik emon euskera amak, laztana. Bestaldeko Ane Zabalenan, esate baterako edo “Etxean entzuna” harako antzerkitxoan agertzen ziren ama biengan. Neuri Ibargainen, etxean eta eleiza inguruan sartu eusten euskal kontsientziaren erdirik baleuke, ez leukeen horrela zabartuko euskera ama. Ala amaren bularra farmategiko ahiekaz osoro trukau daitekela uste daroe?”

“Halan eta guzti, ezaguna dogu euskera amaren orain arteko frutua. Euskera armaren ondorea ikusteko dago, asmoa bera zertan dan be ez dakigu-ta. Asmoa, behar bada, argien, nahiz eta gure aitatzok argi ikusten ez dauen. Horixe: gure umeak, zeu laztana, eleizatik eta gurasoen begiramenetik aldendu, Ikastolako heziketa punterengoaren aitzakian. Beste begiraleei kuku egingo dautsazue: kuku Frankoren ispetoreei, kuku Don Serafinen angeru zaindariari, baina kostako jatzue Ikastolako ama guztiei kuku egiterik.”

“Ama Euskera” edo “euskera ama”, dogu bihotzekoago, laztana. Ez ala? Aitatzori be gustetan jako esankizuna. “Euskera arma” horrek zer esan gura dauen be ez dakitsu-ta. Susmoetan ez dozula amatxu beste. Gauzak biribil ikustea gura dautsu, berba egin aurretik. Ez usteko zera da hori beretzat. Urtubitik Ibarrolara ez dautsu ikusi ezelako zarraparrik, guk Zeharrolatik Uhartzara ikusi ahal izan doguzanalakoak beheinipehin. Ez eta langile huelgarik be.”

—Hirulau espedientatu baino ez dozuz-eta, ez dakuguz nongo fabrikatikoak be. Beti nunbaiteko bidegabekeriak salatuz, geu kalera atera gurarik. Ba! Hortik zehar dabiltsuzan hiru biboterre erdaldun...

—Eta hiru biboterre erdaldunen ordez, hiru euskaldun bizardun balitzaz, zeuk zelan erantzungo zeuskie?

—Geure lana eta alogura apurtzen datozenei?

—Edo fabrikako ateetan barik, eleizako zinean, esate baterako, beste edozein ziriz baletortzuez?

—A, bai! Ba dakit nora zoazen...Gauzak eztabaidatu egingo gendukez orduan.

—Eta danon artean?

—Danon artean.

—Eta euskera hutsean?

—Euskera hutsean.

—Eta axaxatzaileak halako maisu haizeaz, zeuok, langile arruntok, ezjakin gizajotzat joten baletorz?

—Eritsiak eritsi, ikusi egingo genduke.

“Hara ba, ikusten dozu, laztana, eztabaiden ostean, aitatzu eta biok batera gatozela? Alfabetatze Erakundeko Arduraduna gurako neunkizu, halan be, argiago erakutsi deion. Zuk ez dozu ezagutzen Alfabetatze Erakundeko Arduraduna. Urte bete da ia hemendik igaro zala. Ez ete dau hanartean zuretzat ipuin barririk sortu? Ba nik, barriren barri, ba daukatsat Txanogorritxu eta Otsokoren beste kontakera bat kontatzeko. Ez liburuetako lehengo Txanogorritxurena. Txanogorritxu eta Otsoko euskaldunena baino. Hara: ba doa Txanogorritxu Ikastolara dotrinako kartilea boltsatxoan daroala eta Eleizkaleko arkupeetatik igarokeran, takatan-takatan, Otsoko aurkezten jako Txanogorritxuri eta haginartetik adurra darola, “zer daroazu boltsatxo horretan, Txani?” Ai ene! Kontau be ez dautsut egin gura, laztana, holako ipuin barrabanik. Behin kontau ezkerok, nork jakin egunen baten, zeuri ezpada be, (amatxok ez leuskiolako itziko) beste norbaiteri jaso leikion...”

“Zu txikitxoa zintzazan Alfabetatze Erakundeko Arduraduna etorri zanean, “ama” esaten be ez zenkian oraindino-eta. Eta mutilak zeure kumara hurreraturik, irribarre egin eutsun eta “zelan dozu izena” itaundu okotzean laztan egiten eutsula. Zuk ez zenkian erantzuten orduan. Neuk esan izan behar neuntson zure izena, Itziartxo zintzazala eta berak ama euskeraz berba egin eutsun. Nik ipuinak-eta erosi neuntson. Zer jaso ete jako! Bizibidea aldatu? Ez ete dautso biziteko lain emoten? Ba nik osterak be erosiko neuskioz. Aitatzorentzat bertso liburuak ekartekotan gelditu jatzun. Ala, lehen esneak lez, orain atez-ate liburuak saltzea debekatu egin ete dautsue gero? Euskal liburuak, hatan be? Ez nintzakizu bat be harrituko daroagun erregimenean.”

“Ni harrezkerok ipuin liburuetara eta Alfabetatze Kuadernoetara gehiagoko zaletu nintxatzun eta orain gogoratzen dot, berak aitita... ala amuma esan eutsun? Amuma edo aitita geugaz kalean bizi balitz lez, ikasi ahal izango zendula zuk euskera. Ama euskera, jakina! Alfabetatze Erakundeko mutila be ama euskeraren aldekoa zendun-eta! Lehenago ez konturatzea! Joan egin behar dot, bilatu egin behar dot hor nonbaiten mutil hori. Aituin, baina Ibargaingo abadea ezaguna ebala esan eunan-eta... Abadegai-edo izenekoren bat, beraz? Ez, Don Pedrok euskal liburuak erosten eutsazalako baino. Nork jakingo berak baino hobeto Alfabetatze Erakundeko mutil horren barri? Don Serafinek? Euskal liburuen zale ete da bera? Izan egin beharko jon, Ikastolako zuzendari orokorra don-eta.”

“Pakea etxe oneri eta bertan bizi diren guztiei” hots egin dau Don Pedrok Gure Habiaiko atartean sartzean. Bixentak sukaldeko atea idegi dautso.

—Non dago Martin? —itaundu dau Don Pedrok sukalde ingurura begiratu orduko.— Zer lortzen dogu etxea bedeinkatzeaz, bertako danak bedeinkatzen ez badoguz?

—Ha bere zokoan, bedeinkazino aparteko baten begira.

—Datorrela, Gure Habia ez da Bere Habia-eta— agindu dau Don Pedrok Bixenta deiadar baten lehiatu da atarte inguruan.

—Begira gagozak, txo! Benga.

Ardi mantso lez sartu da Martin Joseren-eta sukaldean.

—Prest zagoze txori danok? —Begiak txikitu dauz Don Pedrok.

—Danok-edo...— musindu dau Bixenta Uhartekok.

—A!... Txori amerren bat e? —Don Pedrok estolea ipini dau, Martini begiratzen dautso.— Bedeinkazino bakarria izan behar dauela eragabi joagu.

—Merkeago izan daiten ala? —Zeharka begiratu dau Martinek, maltzur seinua ezpainetan darabilela.

—Ez, txotxo, heuk gura izan hendun izena errespetatzearren baino. Ez hendun ba “Gurea Habia” deitzea? Ez daigun ba orain “Nire Habia” egin, bestela konpromiso larriagoa izango henduke. Egin barriko habian eta bakarrik... Ba dakik hori zer dan?

—Benga, benga zer da hau? —Hegaletara begiratzen dau Martinek urtenbidearen bila.— Ez nenkian sermoe eta guztiko bedeinkazinoa zenduenik. Oraindino be nik kontraleihoak barnizatzeo daukadaz.

—Aitzakia polita, oraindino habia amaitu barik daukaala esateko.

Don Pedrok sukalde ingurua urez zipristindu dau, “edurra baino zuriago geldituko naz” esaten entzun dau Martinek eta Jose aurretik atezain dala, prozesino antzean doaz laurak sukaldetik, eskaratzera, eskaratzetik bainugelara, handik ikuilu-garajera. Zuribitik gora doaz, Don Pedrok liburua idekita daukala, “garbitu naizu obenetik, garbitu nire barrua pekatutik” buruz otoizten dau. Josek gela bakoitzeko atea idegiala, Don Pedrok isipua astintzen dau, aurradako nausia, erdiko txiki biak eta atzerengoa, “bihotz garbia nigan sortu —dino Don Pedrok— arnas bizkorra barne muinetan emoidazu”.

—Martin, balkoetik igaroko gara zure alderdira —esan dau Josek.

—Ur bedeinkatu gehiago, mesedez —eskatu dau Don Pedrok.

Bixentak katiluan eskeini dautso, balkoera egin dira, balkoeko lorei ere iruntza bedainkatua jausi jake, “salbamen poza emon niri” otoitzak laguntzen. Orain Martin bera da aurrelari eta atezain. Habia bere alderdiko gelatatik doa prozezinoa. Gelak Joserenaren alderdian baino bilusiagoak dagoz, egitura bardina bietan, beheerako zurubia, behebarruan atzetik aurrera, sukalderaino “bihotz hausia dot opari —dino salmuak— gogo damutu eta apaldua zuk ez itzi.”

Atartera urten daue, erdiko orma buruan dagoen irudiaren aurrezka gelditu da Don Pedro.

—Entzun, Jauna, nire eskaria.

—Heldu bei zaganaino nire deia —erantzun daue etxeoak.

—Jauna zuekin.

—Eta zure espirituarekin.

—Egin daigun otoitz: Entzun eiguzu, Jaun santu, Aita ahalguztidun, Jainko betikoa, eta bialdu eiskuzu zerutik zure Angeru santua etxe honetan bizi direnak zaindu, jagon eta gorde dagizan.

—Amen.

Don Pedrok liburua itzi, estolea erantzi eta ohikunea amaitutzat emon dau, zorionak opa dautsez Gure Habiaiko gendeari. Ospakizunaren gozogarrirako Bixentak mahaira gonbidatzen dauz, jesarlekua opa dautso Don Pedrori.

—Ea, Martin, jesarri hadi hi be —eskatzen dautso Don Pedrok.— Hurrengo baten egingo joaguz beste bedeinkapenak.

—Ze bedeinkapen? —Burua jasotzen dau Martinek.

—Hako neure monagilo zintzoa, Martin. Honeek, aldameneko bikote hau eskontzen dokanean.

—Eta horrek zer egin behar dausku, jaune egun haretan? —Bixentak ardao gozoa ixuriten dau ontzietan.

—Honek... epistolea irakurri, opariak aldarera aurkeztu eta...

—Ez naukazue ni horretarako.

—Bakarrik ez haz ausartzen? Laguna bilatuko deugu, je-je.

—Horixe, lagun on bat horrentzat bedeinkazinatorik onena— Bixentak, edalontzia eskuetan, opatzen dau.

Martinek isilean edaten dau, Josek isilian laguntzen.

—Dana helduko da —Pastela jastatzen Don Pedrok.— Badakizue zer pentsaten egon nazen Gure Habia bedeinkakeran? Nik Jaunaren angerua ipinten nebala zuen zaindari eta bedeinkapenaren ekarle, baina zuek zeuok zarela, Gure Habia eta guzti, Ibargaingo bedeinkazino. Badakizue noiztik etxe barririk eraiki izan ez dan herri honetan? —Don Pedrok ardao gozoa jastatu dau osteria be.— Oi Gure Habia! Ibargaingo eta Ibargainerako sendi biren oinarria.

Don Pedroren begiak zorionez disdiratzen daue. Amesetatik itxartu lez, behingoan Martini begiratzen dautso.

—Hi, Martin, heurea izan dok asmo eder hau eta ez eik itzi inork erdizkatu daiaan. Zelan gura dok Gure Habiko zoriona betetzea bizitza bion sua isiotu eta lapikoa berotu ezik?

“Neuk uste baino errazago egin jat, laztana, gauzea. “Don Serafin” karteltxo ipinten dauen aitorlekura joatea baino ez dot izan. Ordurako han egotzun bera. Aitorentzule bategaz haserakoak izaten dozuz gaitzenak. Ez dakizu ze humoreko dan edo zeri ardura gehien emon

leion. Batez be, aitatxogaz eta izaten dodazan eztabaidak konfesau dautsodaz nik...”

“—Itxaso azala, ez da? —berak.

“—Zer esan gura daust, jaune?

“—Familietan beti ohi gorabeherak izango dozuezala.

“—Ez ba, ez da familiako ezergaitik; Ikastolan jasoten danagaitik baino.

“—Ikastolako gurasoak zaree beraz?

“—Bai zeozelan, Ikastolako ongileak garanez eta dagoneko daukagun alabatxoa hara bialtzekotan gagozanez.

“Ba dakizu, laztana? Zeutzaz berba egin dautzak Ikastolako Zuzendari Orokorrari. Berak ez ekitsun, baina zu antxe zengozan ni konfesaten eta esku bataz zure gurditxoari eragiten neuntsola.

“—Ze eztabaida? —itaundu dautsu abadeak, jakin minak eraginda.

“—Horixe: dotrinea bai ala dotrinea ez Ikastolan.

“—Zelan? Zelan? —Abadeak arduratuago orduan.

“—Dotrinea bai ala dotrinea ez Ikastolako eskola orduetan.

“—Eta zer dino zure gizonak?

“—Harek ez alde, ez kontra; gehiengoak erabagiten daunera dago-ta.

“—Eta txarto eristen dautsazu?

“—Ez horregaitik, gehiengoa nondik ateraten dauen amarrugaitik baino...

“—Nondik?

“—Batzarretatik andraskoak aldendu eta gelditzen diren prakadunengandik, hain zuzen be. Hori txarto erabagia dagola, esaten dautsat nik.

“—Txarto dago, egon be-ta. Hori ezin leike izan. Nondik ateraten dozu hori? Inoiz edo behin, zinetokia beste gauzetan-edo okupata gendula-ta, danontzako tokirik ez eutsuelako bilatzen-edo?

“—Ez, ezpabe, androk danok batera berba egitekoak garela-ta, eta amaitu ezineko eztabaidak luzatzen doguzala-ta, baino. Eta...

“—Zer gehiago?

“—Gagozan erregimenean, gauza batzuk isilean eroatekoak direlata.

“—Bueno, hagaitik egiten dira batzarrok dotrinalekuan edo eleiza-ko zinetokian. Berba danok batera egiten badaue, batzar zuzentzailearen erruz izango da, bakoitzean bakoitzari berbea emoten ez dakiala-ko.

“—Baina hori aitzakia baino ez dozu, jauna, nire ustez. Eurak gizon-zezkoen gehiengoa eginik, dotrinea eskolako orduetatik at itzi gura dauelako da funtsean.

“—Amarruak beraz, zeure ustez?

“—Esan dautsudanez, jaune.

“—Bueno, ikusiko dogu itxaso azala ala sakona dan. Egon nasai.

“—Nasai neu, jaune, entzuten diren gauzak entzunda?

“Uste dot neureak eta bi esan dautsodazala, baina ez dot inor salatu. Aitorlekua norbere pekatuak esateko da eta ez inorenak salatzekoa, izan be. Euskera ama eta euskera arma zertan dan jakin gurako neuntsun edo Alfabetako Erakundeko Arduradunaren barri jakitea, baina ez dautsut unea eta tokia egokitzen emon. Harako arduraduna esan gura dautsut, laztana, zeu txikitxo zintzazala bisitatzen etorri jakuna. Eta ez Xabier bizardo hori, Bailarako Alfabetatze Erakundearen izenean edo Arduradun egiten dana. Ba, ezin daiteke ber-bera izan. Edo horren beste loditu ete daiteke mutila urte betean? Edo arpegiko bizarrak diralata, horren ezezagun begitantzen ete jat? Edo bizarraren lazdurak horren aldatu bere gogakera? Hau zakartoa dozu haren aldean. Harakoa bizar hasibarra laburra jatzun atseginaz... Ikusi eta Txanogorritxuren aultsunean egon nozu une baten, baina neu be ortzak ahoan nozu, zeu, neure bildostxo hori otsoaren ezeze leoiaren atzaparretatik aterateko gertu. Ez dautset bildurrik. Ba dakitsut nik lehenik be abere hezikaitzei makilea erakusten. Egin lo nasai, bihotza, zure amatxu zaindari dozu-ta.”

—Honek, ama, ez dakitsu behiak buztartzen. Deituko dautsat Jose-ri? —Karmele Ugarango Josepa amari laguntzeko prestatu da.

—Konponduko gara, alaba, ha barik be.

Josepak buztarria jaso eta eusteko emon dautso Manolori. Manolok “cousa mais pesada fixo Deus” astuna eritsi dautso bere artean euskal-dunen buztarriari. Hareek, Outeirokoak, ziren arinakaz...

Buztarriaren mako bata Apalaren lepo gainera jaso dau amuma Josepak. Manolok orain pisuaren erdiari eusten dautso eta Josepak eskuetan darabilen hedearen luzeari begiratzen, “cousa mais longa...” eta Apalaren bekokian zapa borlatsua ikusteaz harritzen da.

—“Pra qué es esto?”

—Zertarako dan? Ikustea baino ez dozu —azaltzen dautso Karmelek.— Ikusi, “mira”.

Hedeak behiaren narruari ikuturik ere egin gabe buztarriaren belarrietatik zapara eta zapatik koskaduretara itzuli-mintzuli, buelta bakoitze-ko, amuma Josepak, belauna zapearen kontra ezarriaz, indarka baten tenkatzen dau.

—“¿E as borlillas?”

—Zu ez egon borlei begira, Manolo. Horrek behien begietatoko euliak astintzeko dozuz. “Tú, mira por dónde van “as bridas”. Hedeak nondik nora doazen, hurrengoan beste hainbeste egiteko. Zeuk egin e?”

—Bai, bai, neuk egin. Ikasi eta egin.

Manolok lehendik be azaldua dautso Karmeleri, bera behiak buz-

tartua ba dala, baina Galiziako buztarrarian. Buztarri soil eta arina zendula ha Euskalarrikoaren aldean. Ez ebalaz ez zaparik eta hederik behar, adarretatik barik, lepo gaintetik behera ezarten zan marko antzekoa eizan, behiaren burua edozein mogimendurako aske gelditzen zirelarik.

—Ba buztarriaren astunetik atera, hemen daukagun lana.

—“¿Qué dices, Karmele?”

—“Buztarri grande, trabajo grande. Bustarri pequeño, trabajo pequeño”.

Apala ondo buztartua izan danean, Txuri sartu da buztarriaren bete makoan. Manolok hobeto jarraitzen dauz hedearen itzulbirak, harik eta azken txistena hedeari berari korapilatua izan daino.

Apala eta Txuri buztarrarian dagoz, Josepak atzatzeka gurdí aurrera estikatzen dauz. Gurpertia jasoteko dinotso Manolori. Bien artean gurtedetik sartu ahal izan daue. Amuma Josepak toletaz dragatu dau. Eta zertarako dozu ardinarru hori? Horixe dozu ba buztar-estalkia. Euritarako zein eguzkitarako balio dautsu, “¿ya sabes lo que quiere decir eso?” azaltzen dautso Karmele Ugarangok Manolori.

Amuma Josepak akulua hartu eta “aida!” esan daueneko, behiak eta gurdia batera mugidu dira. Gurdia hantxe mandio ondoko saste-gian gelditu da. Karmelek sarda bi eta kortatxurra dakar ezkuetan.

—Zuk zaindu behiak, ama. Manolo eta bion artean egingo dogu hau.

Karmelek irribarrez sarde bata eskeintzen dautso Manolori. Kortatxurraz sastegia apur bat astindu eta sardeaz gurtolen barrura jasoten hasi dira. Satza astuna da, berotasunaren lurruna dario eta ustel helduaren atza.

Manolo izerditu egin da, mangutsik dagoenarren. Lanaren erdian amuma Josepak Karmelen txandea hartu dau.

—Ez larregirik, alaba, halatan hagoela.

Gurtolen gaintetik satza ikusten hasi daneko, nahikotzak emon dau amuma Josepak. Behiak ere ez daiela lerrenik egin.

Amuma ostera be akuluaz jabetu da. Behizainaren deira, gurdia kirrinka baten urten dau solorantz. Une berean umearen zarata entzun da etxe barruan. Karmele ama mogidu daneko, albateko atean da erdi bilosik. Prakatxoak eta oinetakoak janzteko, amak besoetan hartu dau, baina Imanoltxok prisarren ostikoketaz batera erosta jotzen dau.

—Ni gudian! Ni gudian!

—“Ardeillo eixo!” —Outeiroko gurdien doinu berberak eta umearen txilioak astoratu dau Manolo be.

Karmele amari eskuak garbitzeko astirik be es dautso emoten Imanoltxok. Ostaz praktatxoak eta oinetakoak jansteko.

—Zagoz ba geldi, umie, hainbat arinen gurdian joateko.

Amumaren gurdia aurrera doa solorantz. Erdi bide gelditu da Manolo

Imanoltxoren-eta begira. Manolok istarkilo hartu dau Imanoltxo eta aitaxoren buruaren gaintetik dakus eta dantzu orain gurdia abiada.

—Goazen, lazтана, goazen —Gurdiaren jarraian lehiatzen da Manolo.

Bateratsu heldu dira solora gurdia eta jarraileak. Amuma Josepak soloaren ertzean geldiaz do gurdia. Kortatxurraz lagundurik atera dau atzeko gurtola. Gurdikadatik haitzuraz satz piloa beheratu. Gurdiaren ostetik, gurdia amaitu arte, zelako multsoak egin behar dauzan erakutsi dautso Manolori. Soloa Ugarangoetan luze eta zabalena da eta gurdia gehiago egin beharko dira afaldu aurretik.

“Kaleko garbitasuna baserrikoa baino handiagoa izango dozu, baina azaletik begituez gero bakarrik, lazтана. Bertan, baserrian, bizi dirarentzat ostera, satzak berak be ez dautsu jasan ezineko atzik. Sarkorra jatzula apur bat eta jantziak berak hartu egiten dautsula. Neu ez nintzatzun eleizara edo kalera joango kortan erabiliko jantzi edo oinetakoekin, badaezpada be.”

“Baserrian sortzen diren zatarreria eta zimaurrak halan be, baserriko lurrak berak ongari lez hartzen dautsuz, ez elako kutsadura barik, lurra emonkorrago biurtzen dautsuela. Begitu esbape hango errekek eta hemen kale ondokoak. Hagaitik esaten eutsun Don Pedro gure baserriko abadeak “zuek hemen dozue zeuon espilua, ez joan Zeharro-la edo edozein kaletako uharretan zeuon arpegiak ikustera”. Harek barruko garbitasunagatik esaten eutsun, lazтана, kalean uharrak ezeze, beste galbide asko ikusten eutsuzalako.”

“Hagaitik, amuma Joseparen jantziak kortan ibilikoaren sundatxoa daukeenarren, uste baino garbiagoak dozuz, lazтана. Hemen ostera, koloniaren estalpean ikusi egin behar norainokoa dan garbitasuna. Ez uste koloniak usain ona daukala-ta, beste barik, barrukoak eginda dagozanik. Amatzuk ur epel eta xaboiak garbitzen zaitu hagaitik eta ez gaintetik koloniaz zipristindu.”

“Osaba Martinek, berak be, baserrian gelditu gura eutsun, kaleko istilu eta amarruei ihestearren, nahiz eta gaitzari ihesteko ez izan berez nahiko Gure Habian edo basorik aldenduenean eskutatzea, gaitza bertan, norberaren barruan, badago. Izan be, bihotza gaitzetik garbituez gero, nekezago ikutuko zaitue kaleko txipristinak. Baserrian baserriko eta kalean kaleko izaten ikasi behar dozu.”

“Nik lehendik nenkitsuzan kaleak baserriari egiten eutsozan tranpa batzuk, esnesaltzaile nintzanetik. Nik kaleari, esate baterako, litro esnea hamabi pezetan saltzen neuntsola, hak niri beste edozein edari litro. Caseralako merkeenak jota be, hogeitik gora ipinten eustan. Hemen, kaleon, diruak agintzen dautsula, baserrian baino gehiago. Eta ez ahaztu barriz, aititak zanak esana, baserriak be diru bide beretik joatearren galdu eutsula bere jatorrizko bakea. Han beharraren beharraz lanpetu,

ez daukagula beste burrukatarako asti handirik. Hemen, etxekoneko Ane Zabalek berak esango dautsu... Gizonezkoak berea daroatsue, emakumezkoak ostera, ez dakit... Ni neu ez nago konforme egiten dodanaz landa, beste zeozertxori oratu barik. Ez ezelako bearrizanik dogulako. Ba dakit aitatzok zer esango leuken. Ez eta aloguratxoa jasotearren be. Ba dakizu, baserrian nengola, astero neure esnesaltzaile dirutxoak eroaten neuntsozala amuma Josepari. Orain aitatzok dakartsun aloguraz konpontzen gozuz. Eta neuk be, beste mozkinen bat ekarriko baneu, ordu pare bat-edo hor nonbaiten garbiketan aterata? Lagunduko zeuskio amatxori ani-ani ibilten? Edo dotrinako umeei dotrinea erakusten? Don Serafinek euskaldun katekistak gura dautsuz ba. Ez diru ordez, gero? Ez horixe! Dohan erakutsi daustena dohan erakustekotan, baino.”

“Hara, argi esatera noatsu: zure amatxok ez leuke gura baserrian baino gitxiago izan kalean. Eta oraintxe gogoratzen nozu Ane Zabaleri astinaldi bat emon behar dautsodala. Ane, zuk “euskera ama” ala “euskera arma” gura dozu? Euskera ama, ez da? Ba, euskera ama gura badozu, alabeari oraindik, eta Ikastolara joan aurretik, euskera egiten hasi behar dozu. Bai, zeuk, Ane; Zabaleko amumagandik horretarako daukazun eskubideaz ezeze, betebeharragaitik. Ez itzi dana andereñoaren eskuetan. Bestela ez zintzakez izango euskera ama.”

“Egon apurtxu baten, laztana, amatxo orantxe dator-eta.”

